

UR APALATEGI IDIRIN

GURE GAUZAK S.A.

2. argitaraldia



1. *argitaraldia*: 2004ko apirila
2. *argitaraldia*: 2004ko azaroa

© Ur Apalategi Idirin

© Utriusque Vasconiae

Bigarren argitaraldia: Donostia, 2004ko azaroa

ISBN: 84-933270-2-6

Lege-gordailua: 113-2004

Diseinua eta maketazioa: P.I.A.

Azalaren diseinua: A & R de Gorostarzu

UTRIUSQUE VASCONIAE - Ategorrieta Hiribidea, 3-3.
20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Banatzailea: BITARTE - 31195 Berriozar (Nafarroa).
Tel.: 948-302239

L'extravagance est le privilège du réel.
Krimena negozioen luzapen naturala da.
The show must go on.

1

Udazkeneko hegoiak hosto ihartuak harrien magalean pilatzen dituen bezala, Julene Oihanbururi galderak ezta-rrian gora zetozkion, ahoan orbela sortuz. Edo behar bada ez ziren galderak. Goragalea baino.

Kontua da ez zuela iraungo zeremoniaren bukaeraraino. Eta ez zen komenigarria omentzen ari ziren idazlearen oroithilarriaren kontra hustea ezin lixerituak. Are guxtiago inaugurazio ekitaldiaren erdian.

Lekeitio gaineko muino haizetsu hartan bildutako kultur jendeak oroithilarriaren inguruan osatzen zuen cromlech bizidunetik aldendu zen Julene, huts lasaigarritik kaos existentzialera itzuliz. Sasi batzuen atzean babesa aurkiturik, belaunak tolestu, gorputz enborra aurreraka zehartu eta eskua bularraldean paratu zuen, konbultsioen zai. Begiak itxita, une luze batez posturari eutsi zion, hegoiaren bafada zoroek tarteka omenaldiaren pusketa desenkatatuak zekarzkiotelarik.

Oraingo, galderak ziren gehien astintzen zutenak. «Jende guzti hauen artean aurkitzen al da J.Nagore?», edo beste hau: «Zergatik agertu behar zen Ilun Zaldunbide gaur, hain zuzen gaur?».

Berantetsirik, bizkarra zuzentzen hasi zen, badaezpada eskua bularraldeari itsatsita mantenduz. Orduan ohartu zen haren presentziaz. Sasien beste aldean zegoen, zutik,

eskuez masailletako bizar haziberria igurzten eta begirada itsasoan finkatuta. Aspaldian bertan bailegoen.

Ilun Zaldunbide zen Julenek une hartan ikusi nahi zuen azken pertsona. «Ez da zineko musua izan, zinezkoa baino». Hori esan zion Gaston Berrizar idazle omendua-ren bizitzaren atalik ezkutuena elkarrekin deskubritu zuten egunean. Eta antzeko esaldiek oraindik funtzionatzen dute?, galdetu izan zion geroztik bere buruari Julenek behin baino gehiagotan, sarkasmoz. Antza bai, inozo hala-koa, erantzun ohi zuen bere artean, ildo trufati beretik.

Nola urundu ziren hain erraz horrenbeste hurbildu ostean, hori zen oraindik ulertzen ez zuena. Eta ulertu nahi ez zuena. Bere buruari aitortu nahi ez bazion ere, Gaston Berrizar baitzen elkartu zituen modura banatu zituen.

Bere alboan zutik jarraitzen zuen Ilun Zaldunbidek, begiak itsasotik baztertu gabe. Ikusi al zuen Julene sasien beste aldean belaunikaturik? Julene, bere aldetik, ez ikusia-rena egiten ahalegintzen zen.

—Denbora nahasgarria, ezta?, hautsi zuen egoeraren anbiguotasuna Zaldunbidek.

Okada bortitz bik Julene guztiz makurtu zuten. Inoiz baino desiragaitzago sentitu zen. Eskua patrikara eraman zuen aho ertzak garbitzeko musuzapi baten bila. Berak begiratzen ez zion arren, bazekien Zaldunbide kirika zego-kiola. Ezpainak lehortzen ari zela, ohartu zen zapiarekin batera omenaldia hasi aurretik argialetxearengandik jasotako taloia ere goitikoaz zikindu berri zuela.

Baina dena prentsaurreko batekin hasi zen. Urte bat lehenago.

Prentsaurrekoa amaitutzat eman zitekeen. Mahaiki-deek esanak zituzten esan beharrekoak eta altxatzen hasiak ziren oraindik flashen txinparta bazerien ere behelaldeko kazetarien argazki makinei. Bi gizonezkoak elkarri begira

geratu ziren batak irribarre batez erantzuten ziolarik bestearen oharrari. Hirugarren mahaikideari kazetarietako bat hurbildu zitzaion oholtzatik jaisten ari zela.

—Julene?

—Bai.

—Galdera pare bat?

—Noski.

Grabagailua abiarazteko arazoak bide zituen kazetariak. Isilunea betetzen saiatu zen Julene.

—Zeinentzat ari zara?

—*Diario*. Julene Oihanburu, esango al zeniguke zeintzuk izango diren zure lanaren nondik norakoak hurrengo hamabi hilabeteetan?

—Nola antolatuko dudan ikerketa?

—Bai. Gutxi gora behera.

—Zaila da egin aurretik azaltzea, baina egia da zer edo zer planifikatu dudala... bestela ez zidaten emango horrelako diru-laguntza polita!

Kazetaria segidaren zain zegoen, adi, Juleneren aurre oharrari jaramonik egin gabe. Poto egindako umore ahalegina bazter utzi eta seriooki erantzuteari ekin zion:

—Hasiara batean Gaston Berrizarren argitaratutako obra guztien bilketa lana burutu nahi nuke. Baina urte bat epe laburra da oso eta, dena den, nire jomuga idazlearen biografia bat osatzea da, eta ez obraren kritika akademiko bat ekoiztea. Hortaz, lehentasuna emango diet bere eza-gunekiko elkarrizketei eta testuak, erabiltzekotan, bere bizitzaren gorabehera ezberdinak ulertzeko dokumentu parabiografiko gisa erabiliko nituzke, nahiz ongi dakidan «obra ez dela idazlearen bizitzaren islada zuzena», etabar.

Pedante samarra atera zitzaion lehen erantzuna, batez ere «ekoiztu» eta «parabiografiko» hitzak.

—Zergatik aukeratu zaituzte Gure Gauzak-ekoek lan hau aurrera eramateko?

Elkarrizketatuen autoestima neurtzeko kazetariak egin ohi dituzten galdera horietakoa zen hura. Zeharka eta zuhurki erantzutea hobetsi zuen Julenek, aurreko esaldien kutsu pedantea saihetsiz.

—Lehenik eta behin, zera esan nahi nuke, Gure Gauzak argialetxe serioa dela, Euskal Herriko handienetakoa gaur egun, eta zinez eskertzen diedala niregan jarritako konfiantza. Eta zure galderari erantzuteko, bada, Berrizarren obrari buruz berriki egin dudan tesinak —Gotzon Sarasketa irakasle jaunaren zuzendaritzapean— baduke zeresanik aukera horretan. Bestalde, joan zen apirilean Erne-ekin argitaratu nuen *Nire mutil lagun martzianoa* ipuina izaten ari den arrakastatxoak izen pixka bat eman dit eta horrek ere lagunduko zuen.

Ez umilegi, ez hantustez. Nahi bezala atera zitzaion Juleneri erantzuna.

—Berrizar bezala, zerorri ere bizkaitarra izateak ez al du eraginik izan?

Jolasari eutsi nahi bide zion kazetariak.

—Ez zitzaidan halakorik bururatu, egia esan. Nolana-hi ere, Berrizarrek ez zuen bizkaieraz idazten eta bizkaitarrek, orohar, ez dute gehiegi aldarrikatu idazle honen jabetza. Ez dut uste bizkaitarren nortasun kolektiboaren erakuntzan tokirik daukanik idazle lekeitiar honek. Eta Euskal Herri mailan ere... nahiko marginala izan zela esan daiteke, maila guztietan eta hitzaren zentzu guztietan.

Hondar esaldia soberan zegoela iruditu zitzaion Juleneri ahoskatu bezain laster. Izan ere, biografiatuari garrantzia kentzeak biografiari —eta bide batez biografiatzaileari— interesa kentzea zekarren. Baina ez zegoen astirik egindako hutsak murtxikatzeko; kazetaria eraso berria jotzen ari zen.

—Hain zuzen, zergatik bat-bateko interes hau? Izan ere, aurten bakarrik emango den biografiarentzako beka-

rekin batera, Gure Gauzak-ek Gaston Berrizarren izena daraman urteroko sorkuntza literario beka sortu berri du, zeina Joxe Mari Erribera olerkariari eman baitzaio.

Ez zen, ez, esku hutsik bertaratu kazetaria, ez eta bulegoko ordenagailuarekiko buruz-buruko aspergarritik ihes egitearren soilik. Koadernoak bete munizio zekarren.

—Ez naiz, behar bada, pertsonarik egokiena galdera honi erantzuteko. Urte oso bat eman dut *Eskribitu gabeko poema* narrazio luzea aztertzen —aipaturiko tesina horren karietara— eta esan diezazuket unibertsitatean behintzat Berrizarren lanak beti piztu duela interesa. Mugatua, hori bai. Ez du, jakina, Aresti baten itzala, baina euskal literaturaren berritzaileen artean beti aitortu izan zaio ekarpen bat.

—Hala ere... —Juleneren odol-hotz diplomatikoak etsitzekotan utzi zuen kazetaria—. Esaidazu zertan den «mutil lagun martzianoa».

Elkarrizketatzailearen gai aldaketarekiko tonu aldaketa garaipentzat hartu zuen Julenek. Irribarrea zintzilikatu zuen aurpegiaren erdian, bere buruari emandako domina bailitzan.

—Bada, dagoeneko bigarren tiradari ekin diote Durangorako eta ea istorioari jarraipen bat eman nahi diodan eskatu didate Erne argitaletxeok.

—Eta? Egiteko asmorik?

—Ez dakit. Une honetan biografian baino ez dut pentsatzen. Uste dut denbora asko lapurtuko didala. Eta unibertsitatean ere doktorego tesi bat egiteko xedea ez dut gutziz baztertzen. Lehentasuna bi gauza horiek dute. Bestalde, egia da idazketaren esperientzia polita dela eta ipuina izaten ari den harrerarekin... dirurik emango balu, behinik behin!

—Profesionaltzearen tentazioa?

—Ez nago oraindik maila horretan.

Kazetaria aretoaren beste puntara joan zen Joxe Mari Erribera elkarrizketatzeko asmoz. Agenda atera eta kaze-

tariaren izena markatu zuen Julenek izendegian —Fede Haranalde, *Diario Vasco*—, behinola idazle famatu bati egiten ikusi zionez. «Kazetaririk xumeena ere aliatu garrantzitsua da idazlegaiarentzat». Biharamunean ateratzekoa zen artikulua. Argazki tresna eskuan zuela gizon mehe bat hurbildu zitzaion.

—Una foto?

—Vale.

Norbaitek sorbalda ukitu zion.

—Julene, Joxe Marirekin batera argazki pare bat atera behar duzue.

Mikel Agirre zen, Gure Gauzak-eko literatur sailaren arduraduna.

—Orain?

—Bai, han dago bera.

Julenek aretoa zeharkatu zuen. Fede Haranalde eta Joxe Mari Erribera solasean aurkitu zituen baina kazetariak begiaz keinu egin zion hurbiltzeko eta olerkariaren ondoan paratzeko. Erriberak solasa eten eta, maniobra ulerturik, Julene bere ondora erakarri zuen irribarrerik dotoreenaz hornituz begitartea. Argazkilariak klitxe dozena bat egin zuen eta uste baino denbora luzeagoan eutsi behar izan zion bikote bekadunak jarrerari, atzetik beste hedabide batzuetako argazkilari pare batek abagunea baliatu baitzuen argazki gehiago ateratzeko. Posearen naturaltasuna agortuz zihoan beraien aurpegietan eta Erriberak, kontzientzia profesional handiaz, hizketari ekin zion, jarreraren freskotasuna eraberritze aldera:

—Dagoeneko gauza hauen ohitura izango duzu, ezta? «mutil lagun martzianoa» asko aipatzen ari da.

—Ez pentsa. Nahiko berria da hau guztia niretzat. Ez daukat zure esperientziarik, itzuli nahi izan zion lausengua Julenek.

—Zaharra naizela esan nahi duzu?

Erdi txantxetan ari zen Erribera baina Juleneri iruditu zitzaion adatsa urdintzen hasitako olerkariarengan zauri narzisiko bat ireki zuela bere esperientziaren aipamen trakets horrek. Gizon ederra izan zela ezagun zuen baina emakume gazteak xarmatzea gogoko bide zuen oraindik.

«Oso ondo. Eskerrik asko», esan zuen argazkilari batek eta, zorionez Julenerentzat, *Diario*-ko Haranaldek elkarrizketarekin jarraitzeko asmoa agertu zuen grabagailu piztua Erriberaren ahora hurreratuz.

—Orduan, zu ere «euskal kulturaren zerbitzuko» fixtatu zaituzte. Zorionak.

Oharra egin berri zuena nerabe itxurako hogeita hamabost urteko gizon bat zen. Gabardina jantzita zeraman aspalditik areto barruan egon arren eta kiroleko oinetakoak zituela ikusi zuen Julenek, goitik beherako bere begiradaren eskanerretik igaroarazita.

—Barkatu?

—Ilun Zaldunbide, hark, eskua luzatuz.

—Ah, zu zara? irakurtzen ditut zure zutabeak *Egun-karian*. Narrazioren bat edo beste ere irakurri dizut *Hegats* aldizkaian.

Zaldunbidek pozik hartu zituen Juleneren hitzak baina haren begitartean ez zen, ez, poz horren ez ezein sentimentu zehatzen zantzurik azaleratu.

—Izan gaitezen zibilizatuak. Goazen edatera. Bestela ez dizut hitzik egingo.

Koldo Mitxelena kulturuneko prentsaurrekoen aretotik atera eta eskuinera joz erakustoki modura erabili ohi ziren beste hainbat areto txikiagoetara jaisteko zurubia aurkitzen zen. Prentsaurrekoan egondako jende gehiena, lana bukatu bezain laster alde egindako kazetariak salbu, azpikaldera zihoan Gure Gauzak-ek prestatuakiko buffeta dastatzera. Hormak Gaston Berrizar idazle omenduaren afitxa erraldoi batzuek estaltzen zituzten. Txuri-beltzezko

irudi bat zen, 60eko hamarkadako itxura guztien eta batez ere bertan idazleak luzitzen zuen pastazko betaurreko modeloaren arabera, hau da, *Eskribitu gabeko poema* idatzi aurrekoa, ziurrenik Parisen hartua. Burua eta bularraldea baizik ez zitzaizkion ikusten besoak mugimenduan zituela nabarituagatik. Bazitekeen argazki osoago baten zati bat izatea, izan ere, lausoa ageri zen irudia, pixel lodiegiz osatua. Gorputz osoa, edo gorputzaren gainekaldea behintzat, ez agertzearen arrazoiak, aldiz, ez zuen dudarako aukerarik eskaintzen: Gaston Berrizarrek eskuetako sortzezko desitxuraketa pairatzen zuen eta ipotx hatzak zituen, txikiak bezain okerrak, bestalde gizon ederra izateari utzi gabe.

Xehetasunik ikusten uzten ez zuen irudia izan arren, Gaston Berrizarren begi hitzuntetan modu bitxian ziurtasuna eta beldurra nahasten ziren, argazkitik metro pare bat aldenduz gero hauteman zitekeenez. Idazlearen txuri-beltezko lepoa zeharkatuz, Gure Gauzak-en logotipo famatua ageri zen, «g» bikoitz gorri estilizatua, eta azpian dirulaguntza sortu berrien iragarpena, hizki txikiagoz: «Gaston Berrizar sorkuntza beka eta biografia beka, 1997».

—Ilun, oso oker ez banago, ez duzu Gure Gauzak-ekin argitaratu zure lana.

—Ez. Ez dut *jejerekin* ezer argitaratu gaurdaino.

—Beraz, eta barkatuko didazu nire jendetasun falta, zer egiten duzu hemen?

Irribarre limurtzaile batez zerbitzatu zuen itauna Julenek, gaizkiegi har ez zezan bere solaskideak.

—Hiru erantzun emango dizkizut eta asmatu zeuk zein den egokia: a)-aspertuta nengoen «mutil lagun martzianoa»-ren solapan agertzen den zure argazkitxoaz eta hurbilagotik, osorik eta kolorez, ezagutzeko irrikan negoen; b)-Joxe Mari Erribera poeta nazionalaren miresle sutsua nauzu eta ez nuke ezergatik huts egingo bere jendaurreko agerpen bakar bat ere; c)-ni ere sorkuntza beka-

rako aurkeztu naiz eta, azkenean Erribera hobetsi badute ere, kontsolamendu gisa edo, haurrentzako liburu bat argitaratuko didatela agindu didate *jejetarrek*.

—Hortaz, zu ere Erne-tik Gure Gauzak-era.

—Erne hobea da, kalitate literarioa hobeto zaintzen dute. Alderatu besterik ez dago beraien katalogoa eta hauena, baina profesionaldu nahi dugunontzat ez dago *jejerekin* elkarbizi beste erremediorik. Askoz ere azpiegitura indartsuagoa dute. Ekoizpenetik hasi eta banaketa nahiz promozioari dagokienean ez dute lehiakiderik. Kontuz baina, hor datorkigu eta euskal kulturaren zerbitzuko «jedi» nagusia: Obi Wan Agirre. Indarra gurekin bedi.

Burua itzuli zuenerako, Julenek Mikel Agirreren hatsa usnatu zuen argitaldaria irekita zeraman ahotik. Antxoa zati bati hatzaz aho barruraino bultza eginez zera esan zien, sarrera iruzkin gisa:

—Ez nekien elkar ezagutzen zenutenik.

Zaldunbidek albotik igarotzen ari zen zerbitzariaren erretilutik edalontzi bi hartu eta bata Agirreri eta bestea Juleneri eskaini zizkien.

—Editore jauna. Martzianoaren neska lagun andereñoa.

Julenek irribarre batez baztertu zuen eskaintza.

Agirrek zurrupada luze bakarraz hustu zuen edalontzia eta beste eskuan zeraman bigarren antxoadun pintxoari amorruz ekin zion, artean hitz egiteko astia ere aurkitzen zuelarik:

—Julene. «Martzianoaren» segida guk aterako dizugu. Irakurri duzu, ezta, Ilun?

—Ez dakit Erne-koek begi onez ikusiko luketen martziano adulterino bat, ohartarazi zuen Zaldunbidek.

—Ez al dute ba poligamia praktikatzen Martitzen?, ahalegindu zen Agirre berriro ere, begirada urrunean galitzen zitzaiola irentskizun berrien peskizan.

—Ez dago oraindik idatzita —lasaitu zuen jokoa Julenek—. Eta nik uste biografia honek ez didala utziko beta gehiegirik luzaroan planeta gorrira bidaiatzeko.

Zaldunbidek Julenek baztertutako cava ezpaineratu zuen.

—Beti entzun izan dut emakumezkoen ahotan beraiek gai direla bi edo hiru gauza aldi berean egiteko gizonetzkoak ez bezala, jarraitu zuen zirika Agirrek.

—Bekadun xarmantak nardatzea une berean pintxoak janez eta cavari erasoz ez zaizu kostatzen behintzat zuri, bota zion Zaldunbidek txantxaren doinuaz eztituz eztenkada.

Ontzat eman zuen txantxa Agirrek eta Juleneren atzean aurkitzen zen norbaiti hurbiltzeko keinua egin zion besoaz.

—Julene. Panpi Bazterretxe.

—Bai, ezagutzen dut zure aurpegia. Egunkarietatik. Zutabeak ere irakurri dizkizut inoiz, nahiz ez dizudan beti dena ulertzen.

—Gaizo gipuzkanoak, heien probintzia ederreko usaie-tatik kanpo jali bezen laster erbestean sendi.

—Ez pentseu. Neuk be ez dodaz ezagutu probintzia ederreko lurralde ta usadioak sano berandu arte.

Agirrek soberakoa zen azalpena eman zion Bazterretxeri.

—Bizkaitarra da Julene. Arratiakoa?

—Zeberiokoa.

—Hori da, bai, Zeberio —errepikatu zuen bere golko-rako Agirrek, informazioa behin betiko memorizatu nahi bailuen—. Ez al da euskara bera egiten bietan?

—Oso antzekoa, duda barik.

—Barka ximikoa —zuzendu zuen tiroa Bazterretxek—, baina frango kilika nauzu euskalkien pundu huntan.

—Ez, ez. Nire errua da. «Ene hobena», ezta? Askotan ez dugu indarrrik egiten Iparraldekoen euskara ulertzeko. Euskal filologia egin dugunontzat garai bateko idazleen

euskara ulergarria da baina zuen belaunaldikoek egiten duzuen guztiz da ezberdina.

Julenek diplomaziaren bideak ibiltzen ziharduen bitartean Zaldunbide cava gehiagoren bila abiatu zen, eztabaidarekiko guztiz ezaxola. Agirre isilunea betetzen ahalegindu zen.

—Komeniko litzaizuke Panpirekin egotea, laster baitean. Berrizar ezagutu zuen azken honek Iparraldean eman zuen bolada luzean.

—Noski. Inporta litzaizuke, Panpi, elkarrizketa bat egingo banizu Gaston Berrizarri buruz, egun hauetako batean?

—Ezta batere problemarik. Nahi duzularik.

—Ez dakit ba, Durangora joatekoa zara? Han egin genezake hitzordua.

—Ados. Ni ibiakoitzen joanen niz egun guzira. Nahi baduzu Ohara argitaletxearen ztandean atxemanen nuzu.

—Bale, zapatu goxean agertuko naz handik.

Zaldunbide erretilua eskuan eta zerbitzari bat bailitzan zapi zuria besondotik zintzilik tolestuta zeramazkiela agertu zen. Bakoitzari zegokion edalontzia eman eta bere-tik dzangada ausarta hartu zuen, erretilua pintxoan mahai hustuan utziz. Agirre eta Bazterretxe bi pausuz aldenduak ziren oharkabea, elkarrizketa bizian murgilduta.

—Ilun, zer zen aurkeztu zenuen lana?, galdetu zuen Julenek.

—Barkatu?

—Sorkuntza bekara aurkeztutakoa...

—Ah. Uf! Askoz ere cava gehiago beharko dut horretaz serio hitz egiteko, esan zuen Zaldunbidek bere intonazio kantariak dagoeneko cavaren eraginpean aurkitzen zela salatzen zuelarik.

—Interesatzen zait.

—Niri ere interesatzen zait... ahoskera motelduaz eta Juleneren ezkeraldetik hurbiltzen ari zen emakume batean begi lausotuak iltzaturik.

—Julene...

—Marta!

—¿Qué haces aquí? ¡Guapa!

—He venido a escucharte.

—¿Has estado durante la rueda de prensa?

—Claro, política.

Zaldunbideri mozkorraren eraginez zein baino zein ederragoak iruditu zitzaizkion bi emakumeak bere aurrean lagunkiro besarkatu ziren.

—Te presento a Ilun Zaldunbide, talentuoso narrador donostiarra, y amante del buen cava.

Martak musu bi eman zizkion Zaldunbideri eta Juleneren aurkezpenak cavak berotutako masailak are gehiago gorritu zizkiola sentitu zuen idazleak.

—Ilun, hau Marta da. Gasteizen ezagututako laguna.

Une horretan, Agirre berriro batu zitzaien, antza ahots femenino ezezagunak erakarrita. Bazterretxeren aztarnarik ez inguruetan. Juleneri belarrira sekretu bat esateko keinua egin zuen argitaldariak, baina inguruan zeudenak entzuteko gisan mintzatu zen:

—Julene, txantxetan ari nintzen. Ez duzu Panpi elkarriketatu beharrik. Ez naiz hain krudela. Gaietik kentzeko aurkitu dudan modu bakarra zen hitzordua finkatzearena. Hasia zen berriro ere bere betiko euskalkien litaniarekin...

—Este es mi futuro editor. El señor Agirre.

—O sea, tu jefe.

—Su director de conciencia, o algo parecido, ahalegindu zen Agirre, bere umoreaz irri eginez.

«Su chulo» gehitzeko zorian egon zen Zaldunbide hor-ditua, baina geratzen zitzaion luziditate apurra balazta eraginkorra izan zen. Agirre kirikatzen ari zen eta Marta

horri modu lerdetsuan begiraten ziola iruditu zitzaion. Noski, berak ere ez ziokeen bizkar emango horrelako emakume erakargarriari baina argitaldariak Juleneri ere begirada lerdetsu hori bera eskaini ziezaiokeelakoak ilea harrotu zion. Hortik, alkolez blaitutako gorputz zirkuitoetan barenna zebilkion aldarte erasokorra. Alde egiteko ordua zuen ez bazuen sasieta botako, txiste zakarren bat zela medio, Gure Gauzak-ekin lortutako kontsolamendu saria.

—Lagunok. Marta.

—Bazoaz? Agirrek, Martari begia gainetik kendu gabe.

—Banoa. Encantado —Martari eskua luzatu eta, bide-nabar, bien artean tartekaturik, Agirrerren kontenplazio lubrikoa uhertuz—. Ondo pasa Gastonekin, Juleneri txaplako adiskidetsua eman ez bizkarrean.

—Milesker, Ilun.

Julenek kanporantza zihoan Zaldunbide harrapatu eta zera galdetu zion.

—Ea noiz kontatzen didazun edanda bakarrik konta dezakezun hori.

—Egongo gara. Beste nonbait. Beste jende mota batekin, aukeran, gehitu zuen Zaldunbidek, eskaileretarantz astiro jarraituz.

—«Jefe»-ari mania diozu, ezta?, oharrarazi zuen Julenek, buru-bekainen mugimendu diagonal batez bere atzean zeukan Agirrez ari zela zehaztuz.

—Jefea? Ez. Hori morroia da. Morroien burua, nahia-go baduzu. Jefea, benetakoa, beste hura da, esan zuen bi solaskidez inguratuta zegoen gizon gorbataduna begirada soilaz seinalatzen zuela.

—Zein?

—Hilehoria. Erdikoa.

—Nor da ba?

—Andoni Urdangarin. Gure Gauzak-en gerente eta sortzailea.

Une batez, Zaldunbidek seinalaturiko gizonari kirika geratu zen Julene. Ulertu nahiean. Burua itzuli zuenerako Zaldunbide urruntzen hasia zen.

—Beno. Hurrengora arte, agurtu zuen Julene, eskaile-raren mailetan gora abiatuz eta ahotsa urrundu ahala ozenduz.

Marta eta Agirre barrezka aurkitu zituen Julenek eurengana itzultzean.

—¿Qué os ocurre, de qué os estais riendo?, galdetu zien irrialdian parte hartu nahiz.

Martak erantzun zuen.

—Nada. Estábamos comentando que el Ilun ese parece buen chico...

Eta Agirrek bukatu zuen esaldia:

—... pero que aguanta mal el cava!

Irri bakarrean egin zuten eztanda. Julene ere irribarre bat marrazten ahalegindu zen baina zehaztapen bat egiteko beharrari ez zion eutsi.

—Pues el tío escribe bien. Muy bien. Y eso a mí me impone el respeto, esan zuen itxura alaia mantenduz.

—No está nada mal lo que hace —onartu zuen Agirrek—. Por eso quiero darle una oportunidad. Eta berriro irri egiteari ekin zion, Martari ere kutsatzen ziolarik irria.

Juleneren hoztasunari erreparatu eta, etsiturik, alkan-doraren lepoaldeko azken botoitxoa estekatu zuen Agirrek irriari amaiera emanaz.

—Ha sido un placer, luzatu zion eskua Martari eta zera gehitu zuen inolako gaitzespen kutsurik ez zuen ahots go-zoegiaz: «A ver si aprendes el euskara para la próxima vez».

Julene ere agurtu eta bazihoan gela jendetsuan barrena azken gauza bat esateko burua itzuli ez balu:

—Ostegunean bazkaltzekoak gara, eh?

Julenek buruaz baietz egin zuen, ulertu zuela berres-teko-edo xehetasun bat gehituz:

—Argitaletxearen egoitzan ordu batetan.

Agirrek ere buruaz berretsi eta buffeteko jendarte gero eta urriagoan desagertu zen.

Eskatu gabeko azalpena eman zion Julenek Martari:

—Nos vemos el jueves. Me va a dar información bibliográfica. Y tenemos que establecer una lista de contactos para mi investigación acerca del autor muerto.

—Gaston Berrizar, el de la foto.

—Eso es. También tenemos que negociar los plazos y otro par de cosillas.

—¿Como se llama tu editor?

Julene segituan erantzutekotan egon zen baina Martaren aurpegiari zerbaiten zantzuaren bila ibili zen pixka batean.

—¡No me digas que te ha gustado el tío!

Martak ez zuen ez baietzik ez ezetzik egin eta biak kidetasun begirada maltzur berdinak batu zituen. Bat-batean, Julenek Joxean Etxebarria EHUko irakasle katedraduna ikusi zuen eskaileretan gora zihola. Dotore jantzita, ohi zuenez, Umberto Ecoarena oroitarazi nahi bide zuen txano bigunaz burua horniturik, kanpora bidean zen Julene bere atzetik abiatu zenerako.

—Espérame aquí.

Korrika batean hurbildu zitzaion.

—Etxebarria jauna!

—Bai.

—Julene Oihanburu naiz.

—Badakit. Bekaren zeremonian egon naiz.

Orduantxe ohartu zen Julene ez zeukala ezer zehatzik prestaturik Etxebarriari esateko. Bere ausardiaz damuturik, hitzik gabe geratu zen, zer edo zer bururatuko zitzaion itxaropen inozoaz. Irakasle katedradunak laburtu zuen pairamena:

—Hitzordu bat har genezake, «huntaz eta hartaz» iharduteko, ondo baderitzozu.

—Nola ez, Etxebarria jauna.

—Joxean, mesedez, Joxean. Hurrengo bi asteetan oso hartuta egongo naiz. Etzi Bartzelonan hitzaldi bat ematekoa naiz. Bihar zortzi Konpostelako Santiagon egongo naiz tesi baten epaimahian, ondoren Londresan noa British Museumgo liburutegian miaketa bat egitera eta azkenik, handik bueltan, Parisen gelditzekoa naiz egun pare batez. Hortaz, zer moduz datorkizu azaroaren azken aste-ko astearte goiza, nire unibertsitateko bulegoan, goizeko hamarrak eta erditan?

Proposamenaren zehaztasunak ustekabean harrapatu zuen Julene eta ez zuen jakin nola interpretatu. Aurretik ondo pentsatutako gauza ote zen? Baina ez balitzaio agertu Julene une horretan? Nolanahi ere, hor zeukan orain, eskura, nahi zuena, eta ez zen ezer eztabaidatzen ibiltzeko unea. Etekinik aterako ote zion gogoetatzeko astia soberan izango zuen hitzorduaren eguna iritsi artean. Proposamena onartu bezain laster alde egin zuen Etxebarriak, ondo neurtutako presa itxuraz.

2

Prentsaurrekoaren biharamuna Euskal Telebistakoen dei batekin hasi zen. «Laminen osina» emankizuneko arduraduna, berrogei bat urteko emakumezkoa ahotsagatik, izan zuen telefonoaren beste puntan solaskide Julenek. Hortik hiru egunetara grabatuko zuten saiorako gonbidapena luzatzen zioten bere beka lortu berria aitzakia gisa harturik. Baiezkoa eman zien, berria zen oro behin bederen probatzeko adina interesgarria zelako printzipioari jarraiki. Taxia jarriko zioten etxetik Donostiako Miramongo estudioetaraino joateko eta, bukatutakoan, itzultzeko. Ordua finkatu, telefonoa eskegi eta eldarnio goxoaan igaro zituen iraupen definigaitza zuten minutu batzuk, desegindako ohean kiribilduta. Bezperako cava, gutxi edan zuen arren, faktura pasatzen ari zen eta ezohiko nagikeria ajetuaren menean sumatzen zuen gorputz osoa, burmuinak barne.

Hurrengo deia –zerealak esnez estaltzen ari zela jo zuen txirrinak– aitarena zen. Ama ere ondoan zuen, elkarriketa entzuten. Prentsa guztiak omen zekarren bere argazkia. Behingoz, egunkari guztiak erosi zituzten, betikoa, noizbehinkakoa eta baita etsaienak ere. Argazkiaz gain, hainbat gauza esaten ei zituzten bere ibilbideaz –tesina eginda zeukala Gaston Berrizarren *Eskribitu gaueko poemak* (sic) liburuaz Gotzon Sarasketa filologoaren zuzendaritzapean, *Nire mutil lagun martzianoa* ipuina bere

bigarren argitalpenean zegoela jadanik— eta Mikel Agirren ahotik ere laudorioak besterik ez zituzten bildu kazetariak Julenez: «Egingo duen lanaren kalitateaz ez daukagu inolako dudarik. Balio handiko ikerle gaztea eta haur eta gazte literaturako idazle promesa dela frogatu ondoren, erronka berri bati aurre egingo dio orain eta lan txukuna egingo duelakoan gaude», zioen editoreak *Egin*-ek egindako erreportaian. Asko eta errepikatuki saiatuagatik ez zuen lortu Julenek aitak, banan-banan, artikulu guztiak ia osorik irakur ez ziezaizkion. Bazkaltzera joango ote zen galdetu zion amak aitak irakurketa amaitu zuenean telefonoa eskuetatik kentzea lortuz. Ezetz esan zien. Neba-arreba zaharrenak etortzekoak omen ziren, zehaztu zuen amak. Baietz azkenean. Hitzordu bat zeukala unibertsitatean —gezurra, noski— baina beste egun batera pasatzea zeukala.

Une kritiko batean aurkitzen zen burasoekiko. Izeba urte osoa AEBetan igarotzera joana zenetik, haren pisuan bizi zen Julene, bakarrik. Hor arte ez zuen behin ere izan bakarrik bizitzeko aukerarik. Karrerako laugarren eta bostgarren urtea ez zituen, egia, burasoenean eman, baina Martarekin eta beste bi neskekin pasa zituen Gasteizen. Bakar-bakarrik egotea, hortaz, sentsazio berria zen eta esperimentu bitxi bezain interesgarria zeritzon. Zientifiko ausartek —zientzia fikziozko filmeetan behintzat— formula berriak beren buruen gainean frogatzen zituztenean bezala sentitzen zen eta kaieratxo batean oharrak markatzeko gura behin baino gehiagotan izan zuen. Zera markatuko zukeen apeta hura gauzatu izan balu: «Badirudi giza-harremankiko atxikimendua menpekotasun fenomenoaren antzeko zer edo zer dela. Izan ere, zenbat eta gutxiago ikusi jendea, hainbat eta txikiagoa bihurtzen baita ikusteko beharra ere». Oso pozik egoten zen burasoekin nahiz neba-arrebekin, baina ez zuen lehen bezain beharrezkoa kontaktatu hori. Haiengandik urruti egotea ere atsegina

zitzaion. Bestalde, alde praktikoago batera lerratzeko, izebaren apartamentua luxuzkoa zen. Sukaldeko apareiluak erosi berriak ziren, egongelan 82 zentimetroko zabalerako trinitron zoragarri bat bizi zen, nahi zenean esna zitekeena bideoak jaten emateko. Beste gauza askoren artean, ordenagailua ere bazeukan etxeak, internetera konektatua eta, izeba dirudun neskazaharraren azken detailetxoa, abonamendua ez zuen moztu alde egiterakoan. Nola ez preziatu bakardade fisiko pixka bat baldintza horietan?

Burasoenean irakurri ahal izango zituen arren, egunkari guztiak erosi zituen, artxibatzeke asmoz. *Nire mutil lagun martzianoa*-ren argitaratzeaz geroztik, atera ziren artikulu denak karpeta urdin ilun batean sartzeko ohitura hartua zuen. Uste baino ugariagoak ziren bezperako aurkezpenari buruzkoak. *Egin*-ek orrialde erdia zekarren, bera eta Erribera batera agertzen ziren argazkitxo batez horniturik; *Deia*-koak hiru laurdenak betetzen zituen baina Erriberaren argazkia zen jarri zuten bakarra; *El Mundo*-n ez zetorren deusik, *El Pats*-en Euskal Erkidegoko edizioan ere ez, eta *Egunkariak* bi orrialde eskaini zizkion berriari. Ezkerraldeko orrialdean Gaston Berrizarren figura goraiatzen zen. Biografiatxo batez gain, lau idazleren iritziak biltzen ziren bakoitzaren argazkitxoak agertzen zirelarik aipatu iritzien gainekaldean. Bernardo Atxagak euskal literaturaren aro ilunetan ausardia formalaren bideari eutsi zioten bakarretakoa izan zela aitortzen zion Berrizarri; Ramon Saizarbitoriak, berriz, Nouvelle Vague frantsesaren eta 60eko zinema italiarraren ezagutzaille fina agurtzen zuen; Panpi Bazterretxek Iparraldeko ikastolen alde egindako lana goraiatzen zuen obraren gaintetik eta Paskal Egiategik Berrizarren Miranderekiko miresmen literarioa eta desadostasun ideologikoa azpimarratzen zituen. Biografiatxoari gain begirada bat emanez, konprobatu zuen euskal literaturaren edozein historiatan aurki

zitezkeen informazioetatik ez zela aldentzen eta, hortaz, ez zuela merezi moztea biografiaren prestankuntzarako klasiarean artxibatzeko. Eskuineko orrialdean, bekadunen argazki banarekin batera, aitak arestian telefonoz irakurritako Agirreren adierazpenak zetozen. Berak prentsaurreko mahaian adierazitakoak *Egunkariako* kazetariak hitzez hitz errespetatu zituela kontrolatu ostean, berriro *Egin* hartu zuen. Bekadunen adierazpenak prentsaurreko mahaian egindakoak ziren —*Egunkarian* agertzen ziren berberak, beraz— baina iritzi zutabe bat ere bazuen orrialdeak, ezizena izateko itxura guztiak zituen J.Nagore batek izenpetua. «Prosopopearen abantaila ugariez» zen zutabearen izenburua. Tonua lirikoa zen eta, antza, Gaston Berrizar ondo ezagututako norbait mintzo zen bertan —bizirik zegokeen Sonia Clémence idazle zenduaren alarguntsa aipatzen eta agurtzen baitzuen— baina ironia zipritzinakin ere bazituen tarteka eta, bururatzeko, hildakoen adiskideak beti bizidunenak baino ugariagoak zirela deitoratzen zuen, etsipenaren toposa baliatuz. Alarguntsaren izena lanerako zerabilen koadernoan apuntatu eta J.Nagore nor zen jakiten saiatu behar zela ere markatu zuen agendan.

Bezperan prentsaurrekotik landa elkarrizketa bereizia egin zion bakarria Fede Haranalde zen baina *Diario Vasco* eskuragaitza zitzaionez Bizkaian, nola eskuratu pentsatzen egon zen une batez. Ilun Zaldunbide deitzea zen aukeretakoa bat. Baina ez zeukan zenbakirik eskura, eta nahiz eta erraz aurkituko zukeen Euskal Idazleen Elkartearen «Bazkideen helbideak» liburuxkan, ez zela irtenbiderik egokiena trenkatu zuen bere baitan Julenek. Izan ere, ezagutu berriak ziren eta elkarrekiko bat-bateko sinpatia sortu bazen ere Mitxelena Kulturuneko errezepzio hartan, edo hain zuzen hastapen atsegina hura ez zelako zapuztu behar, ezin zion horrelako mesede bat eskatu —mesede guztiz narzistikoa, bidenabar, ongi ohartzeko zenez. Gainera, Agirrek

gordetzen zituzkeen sistematikoki Gure Gauzak-en inguruko prentsa aipamenak oro eta zetorren ostegunean ikus-tekoa zenez, berari fotokopia bat eskatzea deliberatu zuen.

Erabakiaz gogo arindurik, *Egunkariari* errepasso «normala» ematen hasi zen, azaletik hasita. Hirugarren orrial-dera jo eta Ilun Zaldunbideren iritzi zutabearekin topo egin zuen. Eskuarki idazle donostiarraren zutabeak irakur-tzen bazituen –beste askorenak ez bezala, dibertituak zire-lako eta betiko gaiak saihesteko finezia zuelako– orain-goan arreta edo jakinmin are bereziagoaz irakurri zuen. «Cavaz betetako edalontzietan euria dagi, baina alderan-tziz: aire tantak botatzen ditu eta goraka erortzen dira ur artetik linburtuz» esaldiarekin hasten zen zutabea. Bezpe-rako bekaren zeremonia zen aipagaia, nahiz ez zen esplizi-tuki izendatzen, eta bertan bildutako kultur faunari esaldi erdi bat eskaini ondoren eta beste hainbeste, ez gehiago, Gaston Berrizar omenduari, Gure Gauzak-en buffetaren kritika gastronomikoan luzatzen zen pintxoan irregularta-suna salatuz eta zerbitzatutako cavari behin eta berriro aintza eginez. Azken esaldiak, ordea, misteriotsu samarrak ziren irakurle arruntarentzat eta deskodetze ariketa ezinez-ko batera derrigortzen zuen bertan egondako edonor ere. «Gure Gauzak-ekoek cava ona eman bazuten ere –nabari da horrelako xehetasunetan herri honen maila literarioa gorantz doala, nahiz ez gauden halere benetako txanpaina edatearen bezperan– cavaren eraginpean baizik hitz egiten dudan honek aitortu beharra du –eta jakin bedi lerrook idazten ari naizen unean zainetan dabilkidala oraindik edandakoa– atzokoan cava ezezik beste horditzeko moti-borik ere bazela festan, eta ez preseski edarien mahaian».

3

«Ireki» Joselu Gutierrezen liburudenda, edo zuzenago esateko, Joselu Gutierrez azkeneko hogei urteetan saltzaile zegoena, Trantsizioaren hastapenetan unibertsitateko ikasle lagun talde ezkertiar batek sorturiko elkartearen jabetza kolektiboa zen.

Juanan Oihanburu eta Amaia Sarasola, Juleneren burasoak, «Ireki» liburudendaren zortzi elkartekide sortzaileetakoak ziren eta Gutierrezekiko adiskidantza ordukoa zuten. Hasiera batean bilera mordoxka egiten zen liburudendaren atzekaldean –eta ez preseski negozio umilaren kudeantzarri lotuak– zeintzuen edukia garai haien karga politikoa gogoan izanki erraz irudika daitekeen. 80eko hamarkadan sartu eta aurrera egin ahala, ordea, bertan hitzaldi publiko batzuk antolatzen jarraitu zuten arren, tokia liburudenda soila izatera igaro zen. Urtean bi bider baizik ez ziren batzen elkartekideak eta Gutierrezen kudeantzarri urtero ematen zitzaion oneritzia eta luzapena, etekin komertziala ez zelako sekulan izan «Ireki»-ren helburu nagusia. Urte batzuk onak izango ziren, hurrengoak kaxkarragoak, baina batzuek beste, irauteko adina indar mantentzen zuen egitura arin hark, eta neurri handi batean Gutierrezen nortasunari zor zitzaion egoera egonkor hori. Literaturzale amorratua, filosofian lizentziatua, aukera fina eta eguneratua zen berea eta eskualde hartako liburu-

denda handiena ez izanagatik «Ireki», inguruetako *intelligentsia* xumea –ikasle, irakasle, literaturzale eta beste–, hala euskalduna nola erdalduna, bereganatua zeukan erabat. Aholkulari nekaezin eta ez-neutrala, ezin zezakeen sal bihotzean urratu bat sentitu gabe txarra zeritzon liburu bat eta, esan gabe doa, ez ziola jarrera ingerente horrek erosleengandiko begikotasuna soilik erakarri urtetan zehar.

Donostiara joatekoa zen ostegun hartan, goizeko ha-maikak zirela, Julene txikitatik ia osabatzat zeukan Gutierrezen liburudendara sartu zen. Dendaria bezero batekin eztabaida bizian sartuta zegoen Salman Rushdie-ren nobelagintzaren balioaz. Berrogeita hamar urte inguruko bezero gizonezkoak Rushdie-ren eleberriak gogoko zituen beraien kutsu barrokoagatik eta, bere aldetik, Joselu Gutierrezek zera zioen, eskuetatik erortzen zitzaizkiola –hain ziren astunak– eta haren saiakerak gehiagotzat zeuzkala. Azkenean, *Haroun eta ipuinen itsasoa* narrazio luzea –edo eleberri laburra– eraman zuen erosleak eztabaidaren sintesia zelakoan, alegia fikziozko obra baina aldi berean gogoeta metaliterarioa eta, batez ere, ez sobera luzea.

—Barkatu ez kasurik egin izana, desenkusatu zen Gutierrez, eztabaida bitartean lepotik zintzilik edukitako be-taurrekoak berriro jarritz.

—Lasai, ikusi dut sartzean egin didazun begi keinua. Musu bat eman zion Julenek.

—Aizu, ahantzi baino lehen, zorionak, e. Oso ederra zaude argazkietan. Erriberak maitemindu itxura dauka zure ondoan.

—Ba ez pentsa, uste dut kezkatuta dabilela. Zahar-tzen ari delako beldurra sartu zaio, nonbait, eta ile zuriak erakargarritasun seinale izatetik zahartzaroaren oinaze izatera igarotzen diren tarte arriskutsu horretan aurkitzen da.

—Hara, euskal olerkigintzako *sex symbol*-aren amaie-raren hasiera.

—Diru-laguntzak eta sariak lortzen jarraitzeko adina *sex appeal* gelditzen zaio oraindik.

—Bejondeiola. Liburuak argitaratzeari utziko balio siera, beka horien truke... esan zuen Gutierrezek, ahapeka eta begiradaz inguruak miatuz, belarri zelataririk aurkitzen ez zela ziurtatu nahi bailuen.

—Ilun Zaldunbidek entzun behar zintuzke. Animoa altxatuko zenioke. Zeremonia hartan ezagutu dut eta erre-ta dago.

—Zer dela eta?

—Besteak beste, sorkuntza beka hori ukatu diotelako Erriberaren faboretan.

—Pena da ze balio du mutil horrek. Gauza onak idatzi ditu azken aldion. Merezi zuten oihartzunik bildu ez dutenak. Behar bada, ipuingintza genero marginatua delako gaur egun. Irakurri diozu ezer?

—Bai, azken ipuin bilduma.

—Laguntza merezi luke. Ezin diozu kritikaren bat egin unibertsitateko aldizkari irakurtezin horietako batean?

—Sarasketa jaunarekin negoziatu beharko nuke —esan nizun nire tesi zuzendaria dela, ezta?— edo zuzenean bidali aldizkarietara. Baina zuzenean bidaliz gero laster ateratzeko aukera gutxi... izenik edo laguntza azkarrik ezean...

—Izena laster hartuko duzu, hasi zaren moduan!

—Dena den, orain biografia hau dut eskuartean eta ez dit utziko denborarik bestelako kontuekin ibiltzeko.

—Eta doktorego tesia? Jarri mesedez.

Bere aulkia Juleneri ondoratu eta apal-altzari baten ertzean bermatu zuen ukondoa.

—Ez ditut gauzak oso garbi ikusten. Sarasketa tipo jatorra da eta irakasle ona. Haatik, ez dit inolako garrantiarik ematen segidarako. Asko azaltzen da hedabideetan, baina ez dakit norainokoa den bere pisua unibertsitatean. Eta nik hori behar nuke orain. Gauzak ondo antolatzen eta maniobratzen dakien pasilu-gizona.

—Unibertsitatean sartzeko?

—Lehendabizi tribunal sendo bat osatzeko eta gero oposaketetan jendea lotzeko. Bidea luzea da, eta gogorra.

—Nor litzateke berme hori eskainiko lizukeena?

—Ez dakit —eta esatera ausartuko ez balitz bezala lurrean jarriz begiak—, Joxean Etxebarria?

—Zerri hori?! Hainbesteko boterea dauka, ala?

—Hasteko, katedratikoa da Sarasketa titularra baino ez delarik.

Etxebarriaren izenak bere baitan ohian sortzen zuen irain isurketari autozentsura bortitza eginez, Gutierrezek zera erantsi zuen:

—Zuk dakizu zer komeni zaizun.

Eta eskumutur irekiak etsipenez lurrerantz tolestu zituen.

—Ez dago ezer eginda. Mitxelena kulturunean ikusi nuen lehenengoz eta hemendik bi astera berarekin egon behar naiz Gasteizen.

Isilune bat. Bezero bi kutxatik pasatu ziren.

—Eta posible zaizu, horrela, tesi zuzendari batetik bestera pasatzea?

—Ez nago oraindik ofizialki hitzartuta Sarasketarekin. Edonola ere, egia da kontu handiaz egin behar direla gauza hauek. Bietako bat haserretuko balitzait asko okertuko lirateke gauzak zeren ia ziurra da, bata zein bestea eduki zuzendari gisa, ororen buru biak egongo direla epaimahaian.

—Buf. Hori guztia literatura aitzakiatzat harturik...

—Horrela da. Alabaina, ez naiz hau komentatzera etorri.

Larruzko motxila beltzetik papertxo bat atera eta Gutierrezen eman zion Julenek.

—Hauek dira, hasiera batean behintzat, biografiarena aurrera eramateko beharko ditudan liburuak.

Betaurrekoak erantzi zituen dendariak, hurbiletik hobe ikustearren.

—Gehienak badauzkat edo eduki ditzaket gutxi barru.

—Dena den, zerrenda behin behinekoa da. Berrito etorriko natzaizu zerrenda osatuago batekin. Izan ere, gaur eguerditan Mikel Agirre Gure Gauzak-en literatur saileko zuzendariarekin bazkaltzekoa naiz eta, erreferentzia bibliografiko gehiago emateaz gain, uste dut bekatik kanpo legokeen dirutza bat ere emango didatela lanerako liburuak erosteko. Jakinaren gainean eduki nahi zintudan. Itzuliko naiz, bihar ez bada hurrengo egunetan.

Papertxoa itzuli eta baiezkoa egin zuen Joselu Gutierrezek.

—Geratzen zaizu minutu pare bat?

Ordulariari behako bat eman eta kalkulu azkar bat egin ondoren adi jarri zen Julene.

—Gure Gauzak aipatu duzunez, mandatu bat eman behar dizut burasoentzat. Ea. Kontua da Gure Gauzak-eko jende batzuk etorri direla liburudendara orain dela aste pare bat nirekin hitz egin nahi zutela esanez.

—Eta?

—Itxaron. Presaka nenbilen egun hartan eta beste batean etortzeko erantzun nien, axola ez bazitzaien. Biharamunean telefonoz deitu zuen bi gizonetako batek, hitzordu formal bat eskatuz. Zer zen gaia edo arrazoia galdetu nion baina ez zidan eman nahi izan, «liburugintzaren egoeraz» solastatu omen nahi zuen.

Juleneren atentzioa harrapatzea lortu zuela egiaztaurik, lasaiago jarraitu zuen Gutierrezek:

—Hitzordua finkatu genuen, finkatu, eta hemendik atera eta eskuinera dagoen tabernan elkartu ginen egun pare bat beranduago. Berak eskaini zidan edaria, urrutitik etorria zen arren eta nereak eta bi egin nituenagatik berarekiko zorretan ez geratzeko.

—Zein zen bisitaren helburua?

—Egon, egon, badator eta. Lehendabizi, Europar Batasuneko zein mundu mailako liburugintzaren bilakaeraz benetako kurtso bat —ondo eta buruz ikasia— eman zidan. Besteak beste zera azalduz, nola kontzentrazio ekonomikorako joera nagusitzen ari den, eta testuinguru honetan herri txikietan daukagun bizirauteko aukera bakarra —argitalpen munduko erraldoi multinazionalei aurre egingo bazaie— era berean indarrak batzea den, euskal merkatutik bertatik abiatuz. Argitaletxe indartsua ezezik egiazko kultur enpresa euskaldun bat sortzeko beharra azpimarratu zuen, hots, produktuaren sortzailetik hasi eta ia eroslerainoko katea osatzen duten aktoreak euskal kulturaren zerbitzuko egitura bakar eta eraginkor batean bilduko lituzkeena: idazlea zein kantaria, editorea, inprimatzailea, banatzailea, iragarlea, saltzailea... eta hori lortzeko bidean zeudela!

Julenek ez zuen asmatzen nora hel zitekeen gogoeta hori.

—Eta ondorioz...

Sasi ilobaren jakinmina kitzikatu izanaz pozik eta irribarre interpretagaitza eginez:

—Bada, ondorioz, «Ireki»ri liburudenda ederra deritzote eta ohoraturik sentituko lirateke Gure Gauzak-ekin asoziatuko bagina.

Bezero berria sartu zen liburudendara eta ahots apalagoan jarraitu zuten hizketaldia, Julenek ordulariari etengabe kirikatzen ziola, pila une batetik bestera gastatuko zitzaion beldurrez bailegoen.

—Asoziatu? Baina, Gure Gauzak erraldoia da. Nola «asoziatu» daitezke horren tamaina ezberdineko egiturak?

—Bada, «asoziatu» hitza erabili zuen berak. Bizkitartean, gero eman zizkidan xehetasunak aditu ostean, uste dut «irentsi» hitz egokiagoa dela. Izan ere, nire lanpostuak bere horretan jarraituko zukeela ziurtatu zidan eta gainera ardura berriak emango zitzaizkidakeela Gure Gauzak-ekiko lotura

gauzatzeko. Zein izan zitezkeen ardura horiek galdetu nio-
nean, ondo ezagutzen eta preziatzen zituzten nire konpeten-
tzien araberakoak ziratekeela esan zidan lausotik atera gabe.

—Zer erantzun zenion?

—Ez zitzaidala interesatzen eta, zena zela, «Ireki» el-
kartera izanki, hain erabaki garrantzitsuak, hau da, egitu-
raren etorkizuna baldintzatzen zutenak, taldean hartu izan
zirela beti hemen.

Urduritasun pixka bat azaleratzen utziz jarraitu zuen
Juleneren ia-osabak.

—Elkarrizketa amaitutzat neukan. Tabernako mahaie-
tik altxatzera nindoan. Eta badakizu zer bota zidan tipoak
hartan?

Ezetz egin zuen buruaz Julenek.

—Pertsona argia nintzela –horregatik aukeratu omen
ninduten solaskidetzat negoziaketa horietarako– eta
momentuko ezustea gaingitu bezain pronto ulertuko
nuela orain arteko «Ireki»ren ibilmoldeak ez zuela, epe er-
tainera, etorkizunik, eta niri zegokidala hainbeste zor zi-
dan liburudendaren biziraupena bermatzea, nire jakituria
eta gogoia Gure Gauzak-ena bezalako xede entusiasmaga-
rriaren zerbitzuan jarritz.

Juleneren harridura zinezkoa zen eta hitzik gabe ge-
ratu zen.

—Proposamen «erakargarri» horri uko egingo banio
zer gertatuko zen galdetu nion jarraian eta galdera ona zela
–gauzak ulertzen hasia nintzen seinale– ohartarazi ondo-
ren, zera azaldu zidan, inoiz baino lasaiago, hiri honetan
inplantatzeko asmo desbideraezina zuela Gure Gauzak-ek
eta, nola edo hala, helburua gauzatuko zutela. Beste hitze-
tan esateko, proposamena ez bagenuen onartzen, guregan-
dik kale kantoi batera liburudenda hobea irekiko zutela
gurea itotzera kondenatuz.

—Ahoa bete hortz uzten nauzu, Joselu.

—Ni ere hala gelditu nintzen tabernan, tonto aurpegiarekin.

—Badakizu orain dela aste batzuk zuk orain kontatu didazun guztia zineman ikusi nuela? *You've got a message* deitzen da pelikula. Hollywoodeko komedia erromantiko tipikoa.

—Erromantikoa?, galdetu zuen, harriturik, Gutierrezek, bere istorioarekiko loturarik aurkitu ezinik.

—Bai, bai, erromantikoa. Filme horretan Meg Ryan-ek —badakit ez zoazela sarri gela ilunetara baina sinetsiezadazu, neska ilehori xarmagarri bezain narritagarria da— gutxi gora behera zure papera jokatzen du. Alegia, liburudenda asoziatibo bateko kudeatzailea da. Tom Hanks, berriz, —hau behintzat ezagutuko duzu, ezta?— Gure Gauzak-en antzeko liburudenda kate handi baten nagusia da. Eta zuri egin dizuten proposamen berbera egiten diote Meg Ryani ere.

—Eta zertan datza erromantismoa? Eta nola izan daiteke komedia bat?

—Larria da zurea, Joselu. Badakit liburu on bati beti emango diozula lehentasuna, baina noizean behin pelikularen bat edo beste ikustea komeni litzaizuke. Maitemindu egiten da neska gizon aberats horrekin eta elkarrekin bukatzen dute. Liburudenda txikia kate handiak irensten du eta mundu guztia zoriontsu uzten du *happy end* horrek. Barkatuko didazu baina orain bai, joan beharra daukat, bestela berandu iritsiko naiz Agirrerekiko hitzordura. Jota utzi nau kontatu didazunak.

—Ez kezkatu. Aurkituko diogu konponbidea. «Ireki» gorabehera asko ezagututakoa da eta, bere txikian, oinarri sendoak ditu. Komentatu Juanan eta Amaiari hau guztia lehen bait lehen eta, batez ere, esan bilera ezohikora konbokatuko ditudala elkartekide guztiak hurrengo egunetan.

—Gaur gauean esango diet burasoei, telefonoz. Eta egongo gara liburuen bila etorriko naizenean.

Gure Gauzak-en bisitarien aparkalekuan utzi zuen autoa Julenek eta enpresaren egoitza nagusia babesten zuen burdin-hesiaren luzera osoa ibili zuen, presaka, ate handira iristeko. Egoitza nagusia Donostiako hiri inguruetan aurkitzen zen, fabrika-biltegiek ilaran jarrita bezala ibar txiki baten arrailean marratzen zuten bidearen amaieran.

Euria ari zuen eta haize hozkirri batek bere agerpena egin berri zuen eguerdiko ordubiak jo zuten unean. Ateari bultza egin zion Julenek, berandututa ibiltzeak sortzen duen urduritasunak ahantziarazi baitzion ez zela berez irekitzen. Bigarren alferrikako bultzada egitean gogoratu zen bere besagainen mailan, atearen eskuinaldean, zegoen botoitxo gorriaz. Hura zanpatu bezain laster harrerako emakume batek lepoa luzatu eta, Juleneren aurpegia ezezaguna egin zitzaion arren, atea irekitzeko baimena eman zion, bip luze batez. Sarreran bizkarzain itxurako gizon garai bat aurreratu zitzaion eta bere presentziaren zergatia azaldu zion segituan Julenek, aurrerapauso bakar bat gehiago egin ez zezan gizaseme kankailu hark:

—Julene Oihanburu naiz. Mikel Agirrerekin hitzordua daukat.

—Bazkaltzera joan da, esan zuen bere bulegotik errepzionistak, berriro lepoa luzatuz.

—Oraintxe bertan, gaineratu zuen bizkarzainak, hitz egiteko ezusteko gaitasuna erakutsiz.

—Berandu nator eta...

Konfiantzazko bisitaria zela baieztaturik, emakume lepaluzea informazio zehatzagoa ematera deliberatu zen.

—Ez dago urruti jatetxea.

—Oinez joan daiteke?

—Bai, noski, gizonak.

—Esaiozu zuk, berriro lepaluzeak bizkarzainari, hobeto kokatuta zegoelakoan eta, bide batez, bere bulegotik ez higitzeko aukera ikusiz.

Kankailuak atariraino lagundu zion Juleneri eta besoak baliatuz azaldu zion non aurkitzen zen jatetxea. Muiño baten atzekaldean zegoen eta erraz iritsi zen bertaraino. Ordu erdiko atzerapena zeraman Agirreren mahaiera heldu zenerako. Ez zegoen bakarrik. Hogeita bost urtetik beherako emakumezko batekin bazkaltzen ari zen. Ez aspaldiegitik, antza, sarreretan baitzebiltzan oraindik. Editoreak txitxirioak eta neskak zainzuriak binagretan. Bazkaltzera etorritako inguruetakoko lantegietako jendez beteta zegoen jangela builatsu zabala. Ez zirudien propio literaturaz hitz egiteko pentsatutako tokia.

—Mikel. Berandu nabil.

—Julene! Eseri, eseri. Hasi berriak gara.

Argitaldaria bere ondoko aulkia mahaiatzpitik atera zuen errazago eser zedin.

—Elkar ezagutzen duzue?

Bi emakumezkoek ezezkoa egin zuten buruaz, nahiz bakoitza hasia zen susmatzen nor izan zitekeen bestea.

—Arantza Arana. Julene Oihanburu. Julene. Arantza.

—Zu zara *Eros* ipuin liburuaren egilea, ezta?, galdetu zuen Julenek.

—Hala da. Eta zu izango zara Gaston Berrizar biografia bekaren irabazlea?

—Eta *Nire mutil lagun martzianoa*-ren autorea, gehitu zuen Agirrek tiroa zuzenduz.

Indarrik gabeko harridurazko «ah» batez erantzun zion Aranak argitaldariaren oharrari, Juleneren liburua izenez ere ezagutzen ez zuen seinale.

Arantza Arana —Juleneren fitxategi mentalean artxibaturik zetorrenez— inolako dohairik gabeko idazlea zen. *Eros*, haren ipuin bilduma sasi erotikoa, irakurria zuen hila-bete bat lehenago eta hain iruditu zitzaion kaxkarra idazkera ezen duda sortu baitzitzaion estilo lau haren berariazkotasunaz. Irkus, hamazazpi urteko lehengusuak prestatu zion liburua ikastetxean irakurri eta gustatu egin zitzaiolako. Asko saltzen ari omen zen eta, batez ere, izugarrizko presentzia mediatikoa eskaini zitzaion Aranari liburua argitaratu bezain laster —hots, inork liburua irakurtzeko astirik izan gabe. Beste gauza askoren artean, *Egin*-en igandeko gehigarrian zutabe bat lortua zuen, zegoeneko, argazkitxo eta guzti, eta Euskal Telebistak gizarte gaiak —batez ere jendearen bizimoduei lotuak, eta ahal zen neurrian, sexu joeren ingurukoak— jorratzeko asteroko kronika bat bereziki sortua zuen arratseko magazine ikusienean. Guzti horren arrazoa? Emakume gazte bat zela. Arrazoi zehatzagoa? Bularralde oparo bat eta titiburu tentetuak.

—Zer hartuko duzu?, galdetu zuen Agirrek, zapiatzorizo kolorez ziprztinduriko ezpain ertzak garbituz.

—Entsalada mista bat, baldin badago —erantzun zuen eguneko menua jarrita zetorren arbeltxoari begira—, eta ondoren... amuarraina.

—Arantzaren bigarren liburuaren inguruan «brain storming» bat egiten ari ginen. Izenburua, gaiak... irakurri al duzu *Eros*?

—Ez, oraindik ez, baina lehengusu bati asko gustatu zaio, saihestu zuen erantzun beharra Julenek.

—Bost mila ale saldu ditugu urtea bete ez delarik atera zenetik —eta zerbitzaria hurbil ikusirik— Eup! Hontzat aterako didazu mista bat eta... plater nagusia...

—Amuarraina.

—Hori da! Amorraia. Merkatu berri bat ukitu du Arantzak. Esistitzen zenik susmatzen ez genuen merkatu bat.

—Segmentu berri bat, zehaztu zuen merkataritza ikasketak burutzeko bidean zen Aranak.

—Horrela deitzen diozue enpresarialesen? Segmentua.

Editoreak, garbantzoak jateari uko egin gabe eta horrek ahoskera tratatzen zion arren, bere golkorako hitza errepikatatu zuen, beste abagune batean erabiltzeko asmoa bailuen.

—Segmentua. Generoko literaturarik ez egin izana leporatu zaigu luzaz, bai idazleoi bai argialetxei, baina hemendik aurrera gauzak aldatu egingo dira. Arantzaren arakastak frogatu du irakurlegoa prest dagoela jada generoetarako.

—Bigarrenaren aurkezpena sex-shop batean egin behar genuke, proposatu zuen Aranak.

—Itzel! Ideia zoragarria!

Agirre berotzen ari zen eta erabat liluratuta zeukan Aranaren genio komertzialak. Julenek, «burmuinen ekaitza» baretze aldera, galdera itxuraz mozorroturiko ohar lehorra egin zuen.

—Idatzita al dago behintzat, bigarrena?

—Ez, oraindik ez, baina hori gutxienekoa da —erantzun zuen inolako kikiltze zantzurik gabe Aranak—, bermatzen duen kontzeptua ona bada, ia ia bakarrik idazten da liburua.

—Beste hitz batzuekin esango nuke, baina nik ere, idazterakoan, horixe sentitu izan dut behin baino gehiagotan —jarraitu zuen ildo beretik, idazle ere bazen Agirrek—. Abiapuntua, sorburua, ona denean, idazketa fasea ez da problematiko izaten. Arazoa da erdipurdiko ideia batetik abiatzea. Orduan, bai, bereak eta bi sufritzen dituela idazleak.

—Beraz, noizko pentsatzen duzu ateratzea *Eros*-en segida?, galdetu zuen Julenek beste bien gogoberotzearen aurrean etsiturik.

—Durangorako ezinezkoa izango da ziurrenik, baina udaberriko liburuaren egunerako prest egon daitekeela uste dut, ausartu zen editorea, idazlearen erreakzioaren eskizari.

—Bai. Arazorik gabe, baieztatu zuen Aranak dardarrik gabeko ahots ziurraz.

—Tratua egin duzue, bada, zoriondu zituen Julenek.

—Bai, eta orain gatozen gurera —segitu zuen Agirrek txitxirioen plater huts mihizkatua eraman eta patata erre-kiko xerra zekarkiotelarik—. Beno, prestatu al duzu lana has-teko behar dituzun liburu edo dokumentuen zerrenda bat?

Julenek goizean Gutierrezi erakutsitako paper berbera jarri zion begien aurrean. Argitaldaria une batez begira egon eta titulu garrantzitsu batzuk falta zirela ohartaraziz azken hauen erreferentzia bibliografiko zehatzak ematen hasi zitzaion, buruz. Diktatzen ari zitzaiona idaztea komeni zela ohartu eta bolalumari oratu artean bospasei titulu boteak zituen Agirrek, zegoeneko, eta errepikatzen behartu zuen. Agirreraren jakintza bibliografikoak ez zuen gehiegi harritu Julene. Ofizioko gizona zen, formakuntzaz filologoa, hainbat urtetan euskal literaturaren munduan ibilitakoa —idazle soil gisa hastapen batean eta argitaldarian idazletzarekin konbinatuz beste hainbat urtetan— eta bazitekeen aurretik Gaston Berrizari buruzko ikerketatxoren bat egin izana ikasle zela edo editore lanaren kariatara. Datu berri haiek osoki papereratu zituenean, galdera edo eskakizun zail bat egiteko unea iritsi zela erabaki zuen Julenek: diruarena.

—Agindu zenidanak indarrean jarraitzen du?

—Nola?

—Zera, biografia egiteko behar dudana materiala erosteko...

—Hitza hitz. Bekari dagokion diruaz gain beste dirulaguntzatxo bat ere emango zaizu lana baldintza egokiengentan aurrera eraman ahal izateko.

—Ulertuko duzun moduan, lehen bait lehen eskuratu nahi nuke dirutza gehigarri hori, lanari ekiteko.

—Gaur bertan, bazkalondoan, nire bulegora joango gara eta dena emango zaizu. Lanerako gehigarria eta bekari dagokion diruaren erdia, adostu legez. Beste erdia, lana bukatzerakoan.

—Konforme.

Julene lasaiturik zegoen eta garrantzi txikiagoa zuen zehaztapan bat lortzen ahalegindu zen.

—Zer izango dira, bi taloi, ala taloi bat eta dirua?

—Taloi bat eta bono bat.

—Bonoa?

—Bai. Behar dituzun liburuak eros ditzazun.

—Baina, zer dela eta bono bat?

—Gure Gauzak-en liburudenda kateko edozein Gure Liburudenda-tan erabili ahal izango duzun bonoa da emango dizuguna.

—Hortaz, ezin dezaket nahi dudan liburudendatan egin erosketa?

—Ez. Baina euskal alorrean, ondo dakizunez, gureak dira hornituenak eta bono horri esker, gainera, bila zabil-tzan liburu bat Donostiako liburudendan aurkituko ez ba-zenu Iruñekora, Bilbokora edo beste edozeinetara deitu eta egun gutxi barru bertan izango zenituzke eskatutakoak.

—Ondo, erantzun zuen Julenek, Gutierrez laguna eta «Ireki» gogoan zituela.

Pixkanaka, jatetxea hustuz zihoan, lanera itzultzeko ordua zen seinale, eta Aranak, galdutako protagonismoa berreskuratze aldera, interesgarria bide zeritzon ohar bat bota zuen, bidenabar Julene desorekatuko zuelakoan.

—Ez al da deprimigarria idazle frakasatu baten bizitza aztertzea eta kontatzea?

—Frakasatua... nondik begira, ñabartu zuen Julenek, euli bat uxatzen ari balitz baino energia gutxiago xahutuz.

—Gaurtik begira, adibidez. Hil ondotik lortzen den ospearen mito literarioa aspaldikoa da oso. Idazle mada-rikatuen aroa pasatu zen.

Edozein unetan, oraindik eztabaida zibilizatua zena lokatzarteko neska-borroka bihur zitekeela somaturik, Agirre gauzak bere onera ekartzen saiatu zen.

—Biek daukazue arrazoiaren parte bat. Esan daiteke Gaston Berrizar, bere testuinguru historikoan kokatuz gero, idazle interesgarria izan zela —eduki ezazu gogoan, Arantza, zer idazten zen garai berean, Aresti eta besteren bat kenduta— eta, aldi berean, idazle frakasatua izan zela ez zuelako jakin euskal literaturari zekarkion berrikuntza ezagutarazten eta onartarazten. Promozio lana idazleari berari dagokion sistema literario ahuletan esan daiteke bere burua saltzen ez dakien idazlea ez dela guztiz «ona».

Aranak ez zuen etsi nahi.

—Gaurko *Egin*-en norbaitek dioen bezala, susmagaria da, hala ere, oraintxe, hil eta hilabete gutxira, bat-batean mundu guztia ohartzea bere balioaz.

Agirrek axolatua zirudien Aranak emandako informazioarekin.

—Nork idatzi du hori?

—J.Nagore delako batek. Ez dut ezagutzen.

Julenek ere ezezkoa egin zuen ezpainak estutuz.

—Ezizena, duda izpirik gabe, baieztatu zuen Agirrek.

Altxatu eta jatetxeko taberna aldera jo zuen, atea zeharkatuz. Hortik gutxira, berriro agertu zen eskuartean eguneko *Egin* zekarrela. Kultur orrialdeetara jo eta zutabea irakurtzeari ekin zion, bere mahaikideei kasurik egin gabe.

—Erresuminduak!, izan zen ahotik irten zitzaion mardarikazioa.

Unkitua zirudien J.Nagore hark salatzen zuen hipokresiarenarekin.

—Ezin jasan besteei egiten zaizkien omenaldiak, jarraitu zuen, marmarka.

Julenek lasaitu nahi izan zuen.

—Baina ez du arbuiatzen Berrizarri ematen zaion eza-gupena. Tipoa salatzen duena hain berandu etortzea da.

—Berdin dio! Kontua da beti kakaztu behar dituztela bazterrak jende hauek. Omenaldirik egin ez balitzaio, ez egitea kritikatuko zuketena; eta bizirik zegoenean izan balitz ere, ez ziren isilik geratuko. Erresuminean bizi dira. Bazter nahastaileak!

—Lasai, Mikel, ez da zuen kontra izan —ahalegindu zen Arana ere—, zuek behintzat egiten ari zarete omenaldia, beste asko ez bezala.

—Omenaldi bat ez da polemikaren sua piztuz egiten. Berrizarren adiskidetzat dauzkate euren buruak, baina omenaldia zapuztea ez da adiskidetasun marka oso loriatua, ezta?!

—Badirudi, bestalde, Berrizar ondo ezagutzen duen norbait dela J.Nagore hori, alarguntsa aipatzen duen eragatik, ausartu zen Julene.

—Hurbilekoak izaten dira okerrenak, moztu zuen Agirrek, bere haserrea azkenean kontrolatuz.

Eta, oraingoan ahots erabat lasaituaz, itxuraz aurreko guztiarekin harremanik ez zuen gaiari heldu zion.

—Ez zaitzete gehiegi harritu Gure Gauzak-en egoitzara itzultzean poliziaz inguratuta aurkitzen badugu, oso posible da eta.

Bi idazle gazteak joko kanpo utzi zituen elkarrizketaren norabide aldaketak eta Agirrek, solasaren erritmoa kontrolpean ikusteaz pozik, honela jarraitu zuen:

—Ez. Lasai. Ez dira hasi polizia bidaltzen beraien idazle hildakoen gomuta axolagabeki tratatzen duten argitaletxei. Nazioarteko Auzitegi Literarioa sortzeke dago.

—Orduan?, galdetu zuen Aranak, oraindik editorea txantxetan ari ote zen argitu gabe.

—Ez duzue irakurri egunkaririk azken egunotan? Bada, Francisco Melchor epailea Gure Gauzak-en kontuak eta artxiboak miatu nahiean dabil aspaldion eta badirudi mehatxua zehazten ari dela. Uste dugu egun hauetako batean, edozeinetan, azalduko direla hemendik.

—Eta zer aitzakiarekin egin nahi dute miaketa?

—Borroka armatuaren finantzabideekiko loturaren susmoa...

—Betikoa... oldartu ziren Julene eta Arana, ia arnas batean.

—Horrelakoa da herri honen egoera —segitu zuen etsiturik argitaldaria—, alde batetik, batzuk euskal kulturaren alde dena emanez, eta, bestetik, beraien benetako izenez idazteko ere gai ez diren listo batzuk gure arteko giroa kakazten... eta bitartean, etsaia, benetakoa, gure barne gatazka patetiko hauekin gozatzen... Horregatik diotsuet, eziezaidazue inoiz entregatu eskuizkribu original bat, eman beti aldaki bat. Ez da jakiten, polizia ezjakin hauek gai dira miaketa egiterakoan aurkitu eta eramateko!

Barre egiteari ekin zion editoreak, egoera larria eta kezagarria izanagatik umorea gorde behar zela erakutsi bide nahiz.

Mahaietik altxatu zirenerako, jatexean zagoeneko afarirako mahaiak apailatzen ari zen zerbitzaria baizik ez zen gelditzen. Gure Gauzak-en arduradunak ordaindu zituen hiru bazkariak taberna aldean eta enpresaren egoitzarantz abiatu ziren, etortzeko Julenek ibili zuen bide beretik.

Ate handira iristean, Arana agurtu eta barrurantz jo zuten Julene eta Agirrek. Harreran, arestiko emakume lepaluzea eta bizkarzain itxurako kankailua gurutzatu zituzten eta eskaileretatik gora egin zuten, editorearen bulegoa aurkitzen zen bigarren solairuraino. Pasiloetan ibilki, gelaren batean sartu eta urlia maketista nahiz berendia ilustratzailea aurkeztu zizkion Agirrek. Azkenean, lau bu-

legodun hormarik gabeko gela zabal batera iritsi ziren. Mahai bakoitzak bere ordenagailua zuen eta Agirrerena zein zen jakiteko ez zuen zailtasunik izan Julenek, liburuz estalita zegoen bakarra zelako.

—Begira, horko hori da diruzaina.

Diruzainarengana jo eta bere bulegora erakarri zuen.

—Zer, ez al dituk oraindik azaldu antiterroristak?

—Bazkari egingo ditek, haiek ere...

—Hau Julene Oihanburu duk. Berrizar bekaren irabazlea.

—Nobela bat ala olerkiak?, galdetu zion diruzainak diosala gisa irribarre erdi bat eskaini ostean.

Ez bide zuen xehetasun gehiegirik Gaston Berrizarren sari zein omenaldiari buruz. Agirrek, deseroso, argibide zenbait eman zizkion.

—Ez, honek biografia beka eskuratu dik. Sorkuntza beka Joxemarik irabazi dik.

—Erriberak?

—Bai.

Bere ezjakintasuna agerian geratu zelako gaitziturik, diruzainak ez zebilela hain despistaturik frogatu nahi izan zien.

—Baina, zu ez zara idazlea?, galdetu zion Juleneri.

Baiezkoa egin zuen Julenek buruaz.

—Ipuin bat argitaratu duzu, ezta? «Martzianoaren...» zeozer.

—*Nire mutil lagun martzianoa.*

—Hori da! —aldarria atera zitzaion, bere buruarekiko harro eta Agirrerekiko errebantxa hartuz—. Nire semeak irakurri dik.

—Orduan konpetentziari liburuak erosten dizkiok... —ohartarazi zuen maliziaz Agirrek—. Badakik Erne-k atera ziala.

—Ikastetxean agindu ziotek, desenkusatu zen.

—Orain, ordea, gurekin fitxatzekotan zegok martzia-noarenari segida bat emateko. Beno, hi, andereñoaren diruak prest dauzkak ala zer?

Diruzaina une batez bi gizonen bulegoak bereizten zituen zuresiaren atzean desagertu zen eta berragertu zenean bi gutunazal zituen eskuan. Agirrek hartu eta, ondoren, banan-banan eman zizkion Juleneri, bakoitzaren edukia zehaztuz.

—Hau biografiari dagokion dirutzaren erdia. Beste hau, aipaturiko bonoa.

—Ez. Kontrakoa duk, zuzendu zuen diruzainak.

—Berdin ziok —moztu zuen Agirrek, honez gero Julene eta bera bakarrik utz zitzaakeela esan nahi zuen doinuaz.

Biak buruz buru geratu zirenean, bakoitza Agirrerren bulegoaren aldeetako batean eseri zen, editorearen iradokizunari jarraiki. Azken puntu bat jorratzeke zeukaten. Biografiari zegokion idatzi aurretiko inkestaren karietara elkarrizketatu beharreko pertsonen zerrendarena, hain zuzen. Pentsatu zituen izenak esan ziezaizkion eskatu zion lehenik Agirrek, zerrenda bibliografikoarekin jarraitutako prozedura berari eutsiz, eta hala egin zuen Julenek hamar bat izen mahai gainean jarriz.

Lehen aukeraketa hori galbahetik pasatu beharra azpimarratu zuen editoreak, izen horietako batzuk soberan zeudelakoan. Izan ere, askok, garrantzitsuak izan ziren arren hamarkada ezberdinetako euskal paisaia literarioan, ez zuten egiazki eta zuzenki ezagutu Gaston Berrizar eta denborra galtze alferrikakoa suposatuko zukeen beroriekin egoiteak. Julenek argitaldariak esandako guztiak onartu zituen, zentzuzkoak iruditzeaz gain lan aurrezpen estimagarria zekarkiotelako. Bestalde, ordena eta metodologiaz egindako galderari ihardetsiz, zera adierazi zion Julenek adi zeukan editoreari, kronologian oinarritzeko eta bermatzeko asmoa zuela, bai biografiaren idazketa fasean, bai

elkarrizketak egiterakoan. Alegia, Berrizarren bizitzaren gaztaroari buruzko informazioa eman diezaiokeen jendea ikusi nahi zuela aurrena, ondoren, pausoka, azken aldian ezaguturiko jenderaino heltzeko. Guztiz logikoa eta, are, gomendagarria iritzi zion Agirrek aukeratutako irizpideari eta atxikitako bost izenak azken honen arabera sailkatzen lagundu zion bekadunari. Honela geratu zen sailkapen kronologikoaren arabera biek batera eratutako elkarrizketakizunen zerrenda:

1-Manuela Berrizar: Gastonen arreba, neba baino bi urte zaharragoa eta beraz, 1917 urte inguruan sortua, hau da, laurogei urteko adinera iritsi berria. Lekuko honengandik haurtzaroa eta gaztaroaren zati bati buruzko informazioa espero zen batez ere eta, zorte pixka batekin, era askotariko dokumentazioa –argazkiak, sortzeagiria edo beste, Berrizar sendiaren inguruko hainbat xehetasun ezezagun. Zekitenez, sorterrian jarraitzen zuen, Lekeition, bere semea eta, ondorioz, Gastonen iloba zenaren etxean.

2-Pablo Aurrenetxea: seminarioko ikaskidea. Berrizar baino gaztexagoa, baina itxuraz adiskide mina izandakoa, *Eskribitu gabeko poema*-ren atal baten hasieran agertzen zen eskaintza esanguratsutzat joz gero. Apaiztegian igarotako urteei buruzko errebelazioak, hots, nerabezaroari zegozkionak, espero ziren harengandik, baita Berrizarren lehen formakuntza intelektualaz zenbait argibide. Apaizgotik aspaldian jubilatuta, Gernikan bizi omen zen, sorterri zuen Lumotik hurbil.

3-Paskal Egiategi: formakuntzaz matematikalaria, lanbidez filologoa, Paueko Unibertsitatean euskal ikasketen departamentuko irakasle katedratikoa. Idazle ere bazen 1934an sorturiko zuberotar honek Berrizar bere Pariseko egonaldian ezagutu zuen, 50eko hamarkadan eta 60ekoan. Lekeitiarraren Miranderekiko miresmen-herra harremanaz zehaztapen ugari eman zitzakeen lekuko honek eta

bazitekeen *Eskribitu gabeko poema*-ren ernaldura nahiz argitalpen problematikoaren inguruko lehen eskuko testigutza baliotsu eta oraindik inork ustiatu gabea ematea.

4-Maialen Lekunberri: 50eko hamarkadaren erdialdean sortutako maistra baxe-nafartar honek luzaz lankide izan zuen Berrizar, Angelu eta Kanboko ikastola historikoetan, eta *Eskribitu gabeko poema*-ren itzulpen frantses baten egilea zen. Idazlearen irakasletza urte ezezagunak argitara ekartzen laguntzeaz gain, 70eko hamarkadaren bukaeran argitaratutako testu bakanetaz zerbait jakin zezakeen elkarrizketatuak eta, orokorkiago, Berrizarren biografian «militantzia kulturala» izenda daitekeen aroz aurki zitekeen lekukorik jakitunena zatekeen egun Seaska elkartearen arduradun pedagogiko nagusi eta Ikastolako Federakuntzaren bozeramaile zena.

Agirrek, errepasatu ondoren, zerrenda zeraman papera behin eta berriro tolestu eta destolestean ziharduen bitartean, zera adierazi zion Juleneri:

—Izen bat falta da zerrenda honetan. Izen garrantzitsua.

Juleneren sentipenarekin bat zetorren argitaldariaren oharra eta aurea hartu zion erantzuna emanez.

—Alarguntsa.

Agirrek harridura aurpegia jarri zuen.

—Sonia Clémence, Berrizarren emaztea, zehaztu zuen Julenek.

Agirrek eskuartean zuen papera destolestu eta mahaia-
ren ertz batean aurkitzen zen hiztegi potolo batekin zapal-
tzen hasi zen, tolesduraren markak ezabatu nahi bailituen.

—Alferrikakoa da.

—Zer ba?

—Burutik joanda dago. Alzheimerrak jota. Eritetxe batean.

Atsekabea hartu zuen Julenek, biografiaren zatirik dibertigarriena —alegia, bizitza intimoari zegokiona— supituki

lurrundu zelako idazlearen emaztearen eritasun horren aipamen hutsarekin.

—Eta non dago?, galdetu zuen zerbait esatearren.

Agirrek ez zuen segituan erantzun. Lipar bateko duda gainditu ostean erantsi zuen Paris aldeko eritetxe batean aurkitzen zela, berak zekienez.

—Hangoa zen, ezta?

Agirrek baiezkoa egin zuen, burua doi bat astinduz eta gaiari luzapenik emateko asmorik gabe.

—Ez. Falta zaizun izena ez da alarguntsarena —lotu zuen etendako haria, irribarrea berreskuratzen zuela— eta lan gutxien emango dizun elkarrizketa izateaz gain orain arte bildu dituzun guztietan osasuntsu eta sendo dagoen informatzaile bakarra da, ia.

Juleneri bekainak begietatik urrundu zitzaizkion asmakizunaren aurrean pott egiten zuela adieraziz.

—Andoni Urdangarin, eman zuen erantzuna Agirrek, aurpegia berriro guztiz alaiturik goibelunearen ondotik.

—Gure Gauzak-en gerentea?

—Eta sortzailea. Baina batez ere *Eskribitu gabeko poema* liburuaren argitaldaria.

—Ez al zuen Berrizarrek berak argitaratu?

—Andoniren laguntzaz. Eta argitalpen xume horretatik atera zen, hainbat urte eta indarren ondorio gisa, hau guztia.

Azken hitzak esanez besoak zabaldu eta buruaz espazio osoa besarkatu zuen, enpresaren sinboloa bihurtutako eraikina seinlatu nahiz bezala.

—Zer esan nahi duzu, Gure Gauzak-en sorkuntzan esku hartu zuela Berrizarrek?

—Ez al zenekien?

Donostia eta Bilbo lotzen zituen autobide makurrean, etxera bidean jada, galdera eta gogoetak bata bestearen atzetik agertzen zitzaizkion Juleneri bere eszenatoki men-

talean, nola muino berriak autopistaren bihurgune bakoitzaren atzean. Orain hobeto ulertzen zuen Berrizarren omenez sortutako sari bakoitzaren zergati sakona. Fede Haranalde, bezperan Julene jokoz kanpo utzi zuen *Diario Vasco*-ko kazetariaren galderak ez zukeen Gure Gauzak-en sorrerarekiko lotura aitortu araztea beste helbururik. Itxuraz, argitaletxeko bozeramaileek, zeintzuen artean aurkitzen baitzen Agirre, ez zuten publikoki azpimarratu nahi izan idazle zendua eta Gure Gauzak batzen zituen lotura historikoa –behar bada omenaldiari dizdira kenduko ziokeelakoan– baina kultura munduko adin batetik gorako jendearentzat –Haranalde berrogeita bost urteetatik hurbil ibiliko zen– datu ezaguna zen, zirudienez. Etxekoengandiko gorazarrea, erdi-gorazarre. Hortik, ahaidetasunaren inguruko diskrezioa. Bestalde, J.Nagoreren zutabe mikatza begi berriez irakurtzera zeraman Julene ezusteko datu horrek. Nor zen «jota nago ere» irakur zitekeen ezizenaren atzean ezkutatzen zena? Momentuz, eskura zituen zantzen arabera, adin bateko pertsona izan behar zuen. Izan ere, aspaldiko adiskidantza baten izenean ari zen «Prosopopearen abantaila ugariez» zutabea, eta gainera idazkerari ere garai bateko lurrina zerion, «prosopopea» erretorika klasikoko hitzaren erabilpenetik hasita. Ez zen ondo gogoratzen hitzaren esanahiaz eta Iurretako peajeko geldiunea baliatuz, bolaluma motxilatik atera eta Donostiako aparkalekuko ordain-agiriaren atzekaldean «prosopopea begiratu hiztegian» markatu zuen, etxera heldu artean ahantzi balekio. Agirreri ezer aipatu ez bazion ere, batera adostu zuten elkarrizketagarrien zerrendatik at arakatzeko asmoa zuen. Adibidez, J.Nagoreren mozorropean idatzi zuenaren bila joanez. Besterik ez bazen, autobiografia idatzi bitartean ez gehiegi aspertzeko. Izan ere, bekaren aurkezpenaren inguruko kitzikapen mediatiko eta munda-noaren ostean, lana egin aurretik jadanik diruaren erdia

kobratuta sakelan zeramala, depresio uhin bat orkatilak mihizkatzen ari zitzaiola somatu zuen. *Depressio post prentsaurrecum*, diagnostikatu zuen bere artean. Unibertsitateko karrera geldotu edo aldebat geldituko zion onartutako biografiaren lanak eta bizkar gainera zetozkion hilabeteak kolore grisa hartzen ari ziren bere irudipenean. Esperientziaz bazekien ikerketa literario batek ez zuela inoiz erdiesten ipuinik ziztrinenak lortzen zuen entzutea. *Nire mutil lagun martzianoa* atera baino aste batzuk lehenago, Gotzon Sarasketaren zuzendaritzapean egindako artikulu luze bat argitaratua zioten Labayen argitaletxeok. Eta Iosu Barriolaren muntako idazle saltzaileari buruzko lan erakargarria izan arren –80eko hamarkadan sandinistekin gerrilla egindako poeta militantearen iruditeriaren interpretazio psikoanalitiko ausarta proposatzen zuen bertan– arreta eskasa baino ez zitzaion eskaini hedabideetan. Aitzitik, ipuinari zor zion azken hilabeteetan eskuratutako oro: ezagupen apur bat –gainerantzeko idazleengandikoa zein irakurzaleengandikoa–, diru sarrera bat –bai egile eskubideetatik eratorriko zena, bai «Idazleak ikastetxetan» Euskal Idazleen Elkartearen ekimenetik bilduko zuena–, eta, azkenik, Berrizar biografia beka bera ere. Garbi zeukan Gure Gauzak-ekok, eta operazioa zuzentzen bide zuen Agirrek, bereziki, ez ziotela eman lana aurretik egindako ikerketan erakutsitako seriosasuna soilik kontutan hartuz. Ez, diru-laguntza eskuratu izana, du da izpirik gabe, beste behin *Nire mutil lagun martzianoaren* arrakastari zor zion. Argitaletxearekin biografiaren bidez kolaboraraztea etorkizunean hainbat ipuin arrakastatsu –edo eleberri– idatz zitzakeen idazle hasiberria euren orbitara erakartzeko modu bat besterik ez zen. «Martzianoari» etekina ateratzen jakin zuen Erne argitaletxe lehiakideari berriro aurrea hartzeko modu zuhur bat. Hori guztia zela eta, kezkatuak begiratzen zion aurrean zuen

ikerketa urteari. Sorkuntza literarioari eskaintzeko denborarik utziko ote zion biografiak? Edo, behinik behin, doktorego tesiari hasiera emateko astirik? Ezin zezakeen urtea biografiarekin bakarrik igaro. Are gutxiago ariketa aspergarri eta ezusterik gabea bihurtzen bazen lana, Agirrerekiko bilerak aurreikusarazten zion legez. Izebak prestatzen zion apartamentuaren behekaldean autoa aparkatzen ari zela burutu zituen azken gogoeta hauek. Atearen begian giltza sartu eta gogoratu zen Agirrereri *Diario Vasco*-ko Haranaldereen artikuluaen fotokopia bat eskatzea ahantzi zitzaiola.

Itxarongela zabala zen. Han biltzekoak ziren hiru gonbidatuentzat zabalegia. Momentuz, espero zituzten hirue-tatik bi baino ez ziren azaldu, Luis Dorronsoro psikiatra gipuzkoar bilbotartua eta Julene Oihanburu, «Berrizar biografia bekaren irabazlea», eta hogeit hamar minutu baizik ez ziren gelditzen zuzenerako. Gelaren txoko batean, kanpoko farolen argia iragazten zuen beira ilunduzko leiho aldean, telebista bat zegoen, pizturik baina doinua apaldu-ta. «Laminen osina» programa aurretik arratsero pasatu ohi zuten manga japoniarraren irudiek koloreztatzen zuten pantaila. Aurrez aurre eserita zeuden Dorronsoro eta Julene bereizten zituen mahai apala jaki eta edariz horni-tuta zegoen. Izan ere, emankizuna pasatzen zen orduगतिक suposatzen zen gonbidatu gehienek askaria aspalditxo egina zutela, halakorik egiteko ohiturarik bazuten behin-tzat, eta oraindik ez zirela afalduak. Dorronsorok bi boti-latxo ur hustuak zituen eta karramarro xehatuzko pintxo bat ahoratu berria zuen Julene iritsi zenean. Gona laburra zeraman azafata gazteak atea ireki eta, Dorronsoro aurkez-tu ondoren, nahi zituenak har zitzala esan zion mahai apala seinalatuz. Ate atzean desagertzekotan zegoela, aurreneko bi gonbidatuak bakarrik utziz, berriro sartu eta ahantzitako xehetasun bat gehitu zuen, hegazkinetako ziurtasun konsignak mila aldiz errepikatu arren azafatek beti luzitzen duten irribarre atsegin bezain inpertsonalaz:

—Ah! Barkatu, hemendik bost minutura makillatzera eramango zaitut. Gero arte.

Julene Dorronsorori begiratzan ahalegindu zen, adeitasuren legeek hori eskatzen zutelako, nahiz mahaietik zetorkion jaki usain gozoaren erakarpen indarra handia izan arratsaldea liburu artean lanean igaro ostean.

—Beraz, beka bat lortua zara... Julene?, galdetu zuen jubilaziotik hurbil zegokeen psikiatra gizenduak, erretzaile ahots erlastuaz.

—Bai.

—Nobela?

—Ez, biografia. Orain dela gutxi hil zen euskal idazle bati buruz. Ez dakit ezagutzen duzun, ez da oso fama-tua... Berrizar.

—Berrizar... Berrizar... Gaston? Kontxo! Hil al zen?

—Bai, aurten. Apirilean.

—Laurogei bat urte izango zituen...

—Hirurogeita hamazazpi.

—Bai, hor nonbait behintzat. Nik, gizon hori, Parisen ezagutu nuen, orain dela, buf, hogeita hamar urte. Anaia ikustera joan nintzen batean, oporretan.

—Eta, nolako zen?

—Gutxi egon nintzen. Astebete. Eta bi aldiz edo, ikusi nuen, euskaldunen arteko afarietan. Gizon bitxia. Haren emaztea, aldiz, beti gogoratuko dut. Hura emakumea!

—Barkatuko didazu, Luis —Julenek, goseari eutsi ezinik tortillazko ogitarteko miniaturazko bati hozka eginenez—, segi, mesedez, asko interesatzen zait eta.

—Ea, nork hasi nahi du?, sartu zen berriro azafata makillatzeko ordua iritsi zela abisatzeko.

—Nik —aurreratu zen psikiatra gizona—, horrela jarrai dezakezu jaten eta niri, berriz, ez zait gaizki etorriko pintxoetatik aldentzea.

Dorronsoro nekez altxatu zen bere pisuak hondoratu-ta eduki zuen sofa bigunetik; Julenek eskertu zuen gosea

asetzen jarraitzeko aukera eta Kas botilatxo bat ireki zuen ogiak lehorturiko ahoa bustitzeko asmoz. Telebistari begiratu bat eskaini zion. Marrazki bizidun japoniarra bukatu eta iragarkien txanda luzea hasi zen. Hartan, azafatarena ez zen esku batek zabaldu zuen atea eta Josune Otaburu aurkezlea agertu zen, hirugarren gonbidatua izan behar zuen gizon itsu bati bidea erakutsiz.

«Kaixo» profesional bat esanez luzatu zion eskua Otaburuk eta, antza, jada makillatuta zegoen itsua hurbilen aurkitzen zen sofa zatian esertzen lagundu zuen. Julene itsuari alboratu zitzaion, paperezko zapi batez eskuetan zuen koipea xurgatzen zuela. Otaburuk aurkezpenak egin zituen:

—Manuel txiste kontalaria da. Programan zehar hari narratiboa eten eta txiste batzuk kontatuko dizkigu, ezta?

Hamazazpi bat urteko itsuak baietz esan zuen, ozenki, betaurreko beltzek estaltzen zioten begirada Julene eta aurkezlearen gerriaren mailan jarrita zeukala.

—Beno, zer moduz Julene? –galdetu zuen Otaburuk, aspaldiko lagun bati ari balitzaio erabiliko zukeen ahots gozoaz— Pixka bat estresatuta? Gurera zatozen lehenengo aldia da, ezta?

Baiezko soilaz erantzun zien jarraian aurkezleak egingo dako hiru galdereri, edozein modutan gehiagorako astirik ez zegoela somatuz Otabururen presa zantzueta.

—Gero egongo gara lasaigo, bale? Orain arte, Manuel!

Bere adineko edozein gazte bezala jantzita zegoen itsuari begira geratu zen une batez Julene. Pintxo bat proposatu zion eta edari bat ireki ere. Solasean hasteko betarik izan gabe, makillatzaera deitu zuen azafatak.

—Kaixo.

—Hola.

Makillatzailea, zer bait ulertzen zuen arren, ez zen gai euskaraz erantzuteko. Lankide batekin Otabururen ile orrazkera berria komentatzen ari ziren. Hamar urte galdu

omen zituen aurkezleak orrazkera aldaketarekin. Betidanik neska bulgar samarra iruditu zitzaion Otaburu Juleneri, bai itxura fisikoari bai aurkezteko erari zegokionean eta makillatzaileen eztabaidan berariaz ez zen sartu iritzia ematera. Aurpegi osoan krema garbitzaile bat pasa ondotik, fokoen argi bizia ez islatzeko azal koloredun hautsa zabaldu zion makillatzaileak eta jatorrizko orrazkera mantendu nahi zuen galdetu zion, aldaketaren bat egiteko aukera emanetz. Gaineko ezpaina zertxobait hanpa ziezaiokeela ere esan zion, ezpainetakoaren laguntzaz. Baina proposamen estetiko guztiak baztertu zituen Julenek, adeitasunik galdu gabe. «Hasta luego» batez agurtu zuen makillatzaileak, azafata Juleneren bila berriro azaldu zenean.

—Goazen. Platora eramango zaitut.

Pasabide ilun batetik igaro ondoren, plato nagusia zerriztaten areto zabal batean sartu ziren. Ilunpean murgildutako kablezko oihan bat zirudien sapaia garaia zuen toki hark, eta begien aurrean zituzten harmaila batzuen atzean aurkitzen zen programaren dekoratu argitua. Itsua eta psikiatra zeuden bazter baterantz bideratu zuen azafatak eta han itxaroteko agindu zien hiruei, dekoratura nondik sartuko ziren zehaztuz.

Emankizuna hasteko bost minutu falta zirela aditu zen kontrolarena izan behar zuen bozgorailu batetik. Harmailak betetzen ari ziren eta giro sortzailea zatekeen tipo luzexka eta artega batek esertzen ari zen jendeari aholkuak ematen ziharduen —txaloak noiz eta nola egin— tarteka funtzio umoristikoa suposatzen zitzaien ohar eta ateraldiak eginez. Julenek urduritasun puntu bat somatu zuen bere baitan, sabelaldean koka zezakeena, eta hurbilen zeukanari —psikiatrari— hitz egiteko beharrari eutsi ezinez ahoa irekitzekotan egon zen. Otabururen laguntzaile bat ondoratu zitzaien orduan hiru gonbidatuei, azken konsigna batzuk emateko. Mikrodun kasko bat jarrita zeraman,

kontrolarekin harremanetan egoteko, eta mikroa eskuaz ahotik aldenuz mintzo zitzaien, elkarrizketak ez gurutzatzearren. Besapetik egitarau zehatzaren fotokopia atera eta tarrapataka irakurri zien, ia ahoskatu gabe. Lehenik gonbidatuak aurkeztuko zituen Otaburuk, bakoitzari galdera pare bat eginez, baina luzatu gabe. Bigarrenik, eguneko programaren edukia aurreratuko zuen aurkezleak, labur. Hirugarrenik, formato txikiko erreportaia bat pasatuko zuten eguneko gaia aurkezteko, alegia berriki zerutik eroritako izotz pusken inguruko misterioa. Laugarrenik, gonbidatuek gaia eztabaidatuko zuten, Otaburarekin batera, baina «txaparik sartu gabe». Bostgarrenik, iragarkiei tartetxo bat egingo zitzaien. Seigarrenik, denborarik galdu gabe, Manuelek txiste bat edo bi, gehienik hiru —luzeegiak ez baziren— kontatuko zituen. Zazpigarrenik, «Balalaika light» musika talde ukrainiarrak «Batche bathe» bi minutu eta hogeitamasei segunduko kanta interpretatuko zuen. Zortzigarrenik, Arantza Aranak sexu joerei buruzko bere kronika zalua egingo zuen. Bederatzigarrenik, Otaburuk Aranaren kronikaz esaldi bateko iruzkin bana eskatuko zien gonbidatuei. Hamargarrenik, aurkezleak ikus-entzuleek astero bidaltzen zituzten postaletako bat aukera araziko zion harmailetako ikusle bati, begiak zapi batez tapatu ondoren. Hamaikagarrenik, erritmoa mantsotu gabe, jakina, postalean agertzen zen telefono zenbakira deitu eta ikus-entzulearekin bi hitz elkar trukatu ostean, «Laminen Osinari» bukaera emango zion Otaburuk, biharamunera arte, gonbidatuak eta harmailetako ikusleak agurtuz.

Xehetasun horiek hasiera batean arreta handiz aditu bazituen Julenek, bukaerarako burmuinetan grabatzen saiatu gabe entzun zituen, dena kontrolpean zegoela ikusirik eta bat-batean arduragabeturik.

—Ez kezkatu, oso ondo joango da dena, xuxurlatu zion Dorronsorok, esperientziak ematen duen soseguaz.

—Beste batean etorria zara?

—Programa honetara natorren hirugarrena da, baina aurretik ETB-ko eztabaida edo tertulia askotan parte hartua naiz.

Une hartan, bozgorailuko ahotsa hamarretik batera kontatzen hasi zen eta isiltasuna nagusitu zen platoan, inork eskatu gabe, txikitatik telebistaren aurrean hezitako jendearengandik batere harritzekoa ez zen gauza. Zerora iristean, programaren musika aditu zen, oso ozen, eta Otabururen atzekaldeko telebista pantaila txikiz osaturiko paretan «Laminen osina» errotulo animatua agertu zen, ikus-entzuleak etxetik ikusten ari ziren berbera, baina askoz ere handiagoa.

Dena iragarri bezala joan zen. Musika bukatzera zihanean giro sortzaileak besoak altxatu eta harmailak txalo bihurtu ziren. Argi gorria piztuta zuen grua batetik zintzilikaturiko kamerari zuzendu zitzaion Otaburu, bere irribarre dotoreenarekin. Hortik gutxira, aurkezlearen kas-kodun laguntzaileak hiru gonbidatuak dekoraturantz bulztatu zituen, agudoka. Gonbidatu bakoitza, inkontzienteki, bere aurkezpen txanda luzatzen saiatu zen, kontatzeko zeukana besteena baino garrantzitsuagoa zelakoan, eta joera narzisiko horren berri bide zuen aurkezlea, bere alde-tik, txandak murrizten ahalegindu zen. Soka tira horretan, biografiaren kontuarekin aurkeztu zutenean, Julenek *Nire mutil lagun martzianoa* ipuinaren egile ere bazela aldarrikatzeko beta izan zuen, Otaburuk hitza moztu aurretik.

Dena ziztu bizian joan zen eta, ohartzera, iragarkien bueltan zeuden platoan. Manuel, iragarkien tartea baliatuz, dekoratuaren erdira eraman zuen aurkezleak, besotik helduta, eta argi gorria piztu bezain laster, besterik gabe, txiste bat bota zuen. Marroia eta grazia handirik gabea izateaz gain, artega zegoelako edo,itsuak ez zuen ondoegi kontatu eta harmailak hozkirri geratu ziren. Otaburuk, orduan, bere

profesionaltasuna agerian utziz, Manuel besoaz inguratu eta bere zaletasunaren jatorriaz galdera pare bat egin zion, irribarretsu. Jendearen irriak entzunez asko disfrutatzen zuela aitortu zuen Manuelek. Gehien gustatzen zitzaizkion txisteak zein ziren galdetu zitzaion ondoren eta itsuei buruzkoak atsegin zituela ziurtatu zuen Manuelek, harmailetatik zetozkion harridura hotsekin gozatuz. «Ez da izango?!» batekin iruzkindu zuen aurkezleak errebelazioa, aurretik prestatutako elkarrizketa izanik jakinaren gainean zegoen arren. «Eta kontatuko zeniguke bat?» jarraitu zuen, kamerari zein gonbidatuari txandaka so eginez. Eskatutakoa bete zuen Manuelek eta harmailek algara ozenegi batez iharduki zuten, aurreko txistearekin gertatutakoa errepika ez zedin bereak eta bi egin zituen giro sortzailearen eraginez.

«Balalaika light»-ek ez zuen zuzenean jo eta arratsalde partean platoan bertan grabatutako doinu bandaren gainean egindako *playback* koreografikoa aurkeztu zitzairen ikus-entzuleei.

Horrelako talde kutreak existitu zitezkeenik ere pentsatzen ez zuen Julenek ia benetan ukrainiarrak ziren galde-tu zion aurkezleari, kantari-dantzaria eurengandik hiru metro eskasera saltoka ari zen bitartean. Zaragozarrak zirela jakinarazi zion Otaburuk eta Julene ez zen ausartu galde-tzen seriooki ari ote zen. Kantua bukatzen ari zela, eta giro-sortzailea hurrengo txalo zaparrada abiarazteko prest zegoela, Arana ikusi zuen Julenek dekoratura sartu aurretik bera, psikiatra eta itsua itxaroten egondako txoko berberean zain. Janzkera *sexya* zeraman, ohian bezala, eta bere telegeniak ez zuen dudarik sortzen. Otaburu eta Aranaren artean zeinek bulgaritatearen mugak urrutien eramaten zituen gogoetatut zuen Julenek euskal literaturako salmenta kurben legamia nola opila labera fokoen argipera sartzen ari zela.

Otaburu hurbildu zitzaion, dekoratuaren erdian harre-ra egiteko, eta mahai luze eta bihurtuaren puntan eseriarazi

zuen kronika egin zezan. Julenek begiradaz agurtu zuen eta beste hainbeste itzuli zion Aranak mahaiaren beste puntatik. Dorronsorok adurra zeriola geratu zen eta Manuelek sorgor jarraitu zuen, harmailetatik zetorkion builari adi.

Eskimalen ohituretz hitz egiteko asmoa zuen kronikariak eta, bereziki, kanpotarrekiko jarrera arautzen zuen ohitura zahar batez. Argi more bat nagusitu zen dekoratuan, giro erotikoa iradoki nahiz. Izan ere, azaldu zuenez, kanpotar bat beraien *igloo*-an lo egiten gelditzen zenero familia buruek –gizonek, beraz– gonbidatuei euren emazteak eskaintzen zizkieten gauerako. Eta halako oparia ez onartzerik ez zegoen, bisitariak ez bazuen *igloo*-ko jauna iraindu nahi.

Dorronsorok eztabaida hasteko apeta erakutsi zuen Aranari ohar bat zuzenduz baina Otaburuk horretarako denborarik ez zegoela ohartarazi zion hitza kenduz eta kronikaria eskertuz. Julene kronikaz egin zezakeen iruzkina mentalki prestatzen ibili zen baina azkenean, Manueli eta berari ezer galdetu gabe, emankizunaren azken zatira igaro zen aurkezlea, alegia jokoarenera, egitaraua errespetatu gabe.

Ikus-entzuleek bidalitako ehundaka postaletatik bat aukeratzeko esku inozente baten beharra zuela adierazi ondoan, eta harmailetan behatzak altxatu ziren arren, Manuel eskura zeukatenez berak aterako zuela postala zakutik erabaki zuen Otaburuk. «Horrela ezin esan izango da zozketa hau trukaturta dagoenik!» gehitu zuen atsekabezko «ooh» bat eskapatu zitzairen harmailetako jendearekiko desenkusatur. Irabazleak *disc-man* bat eskuratu zuen eta programaren babeslea zen Gure Gauzak argialetxearen hamar liburu edo hamar konpakto aukeran.

Argi gorria txaloaldia bukatzeke zegoela itzali zen, zuzenekoaren amaiera seinalatuz.

—Zer? Laburra, ezta? —gerturatu zitzairen Otaburu hiru gonbidatuei—. Horrelakoa da telebista. Dena presaka

egiten da, ezer sakondu gabe, beno, zuk bazenekien ja-
danik –Dorronsorori zuzenduz. Oso ondo Manuel! In-
porta duena da –oraingoan Juleneri– zure izena eta libu-
ruarena etabar aipatu dituzula. Ez du ezertarako balio txap-
a sartzeak; jendeak oroitzen duen gauza bakarra irribarre
bat da, edo ahots bat... asko jota orrazkera bat.

Azken oharra hatz erakusleaz bere orrazkera berria
seinalatuz egin zuen. Eta Julenek ezer erantzuteko astirik
izan gabe, kontroletik jaitsia zirudien gizon gorbatadun
batengana jo zuen.

«Programazioaren zuzendaria da» esanez bateratu
zitzaien Arana.

—Zein?

—Josunerekin dagoen gizona. Zer moduz, Julene?

—Ondo esan beharko. Harrituta gauzen abiadarekin.
Gainera, hitz egiten utzi didaten denbora gutxian zein
kamerari edo nori begiratu ez nekiela geratu naiz. Eta zu?

—Hementxe. Kronika hau ahal den moduan betez.

—Izotz artean bizitzeko, jende beroa da, eskimala,
errepikatu zuen Dorronsorok arestian erantzunik gabe
geraturiko zuzenean egindako oharra.

Oharrari egindako harrera hotzagatik, Aranari ere psi-
kiatra pisua iruditzen ari zitzaiola antzeman zuen Julenek.

—Ez da erraza izan behar astero-astero gaiak aurkitzea.

—Batez ere, ikuspegi morbosogia ekidinez, gaineratu
zuen Aranak psikiatra gizona zeharkako behakoaz fusilatuz.

Bazkariaren egunean baino inpresio hobea egiten ari
zitzaion Arana, agian ingurumena oraindik bera baino bul-
garragoa izanki, kontrastez, egiazki zena baino finagoa ageri
zelako.

—Zertan da zure bigarren liburua?, interesatu zen Ju-
lene, jakinmina eta bekaitza nahasten zirelarik galderan.

—Ez naiz oraindik hasi idazten. Baina Agirrerekin
egotekoa naiz hurrengo astean eta uste dut prestakuntza

bilera horren ondotik hasiko naizela. Hasi aurretik konzeptua ondo definitu nahi dut berarekin. Gero laster joango da. Eta zure biografia?

—Ikusi besterik ez daukazu; gaur arratsean hemen nago, hurrengo astean konpromezu mordera daukat, besteak beste «Idazleak ikastetxeetan» EIE-ren ekimena dela-eta saio bat eman beharra dut Etxalarren, eta horrela ez dago ezer seriorik egiterik. Momentuz, doi-doi lana antolatzen hasi naiz.

—Nirea ere, eromena da. *Egin*-en gehigarriko zutabea, kronikatxo hau, erotismoaz eskatzen dizkidaten hitzaldi eta irakurketak, emakume literaturari buruzko mainguruak... Eromena.

Elkarrizketa gehiago luzatzeak artifizialsauna zekarkiokeela oharturik, bi emakume gazteek elkar agurtu zuten eta nor bere aldera itzuli zen solaskide berrien bila. Hasiera batean ezezagunak egin zitzaizkion bi morroskoekin topo egin zuen Julenek orduan.

«Julene!» alai batez agurtu zuen nerabe garaietako batek, harmailetatik dekoratura jauzi eginez.

—Irkus! Aitor! Zer arraio egiten duzue hemen?, harritu zen Julene bere bi lehengusuak ezagutuz.

—Egin dizkizugu keinuak behin baino gehiagotan eserita geunden tokitik, baina ez zara enteratu.

—Fokoek itsututa nindukaten. Dekoraturatik ez dugu ikusten zer gertatzen den harmailetan. Zurrumurru, algara, txalo eta bestelako hotsak baino ez zaizkigu heltzen. Baina... Baina, ba al zenekiten gaur programan partu hartu behar nuela?

—Keba! , anaia garaietatik garaiena zen Irkusek.

—Bestela ez ginen etorriko, txantxarako gogoz Aitorrek.

Julenek oraindik ez zuen ulertzen zer egiten zuten bi anaiek han.

—Eta nola etorri zarete? Ez nekien «Laminen osina»ren fanak zinetenik.

—Ze fan eta ze ostia! Parranda eder bat egiteko apun-tatu gara.

—Honi deitzen diozue parranda?, galdetu zuen Jule-nek zegoeneko erdi hutsik ageri zen platoa eskuaz erakutsiz.

—Badakizu guk parranda hitzari errespetua diogula eta ez dugula alkoholik gabeko abaguneak izendatzeko era-bili ohi.

—Orduan?

—Ba, joder —pazientzia galdurik Irkusek—, lau musker ordaintzen digutela.

—Zer egiteagatik? Nork?

—ETB-koek, programa ikustera etortzeagatik.

—Zuei?

—Guri eta autobusean geunden guztioi.

—Etortze hutsagatik?

—Eta txalo egiteagatik. Txalo egile onak aurkitzea ez da, gaur egun, lan erraza. Gu bezalakoak oso eskatuak dira.

—Ez adarrik jo, Aitor! Egia da diruarena?, harriturik Julenek.

—Joder, baietz ba!, Irkusek sakelatik lau milako atereaz.

Aitorren arreta eta begirada zerbaitek desbideraturik zeuzkala begitandu zitzaien Irkus eta Juleneri. Beste bien bat-bateko isiluneak berriro haienganatu zuen.

—Barkatu.

Aitorren atentzioaren jomuga zen tokirantz bideratu zituzten arreta eta begirada Julene eta Irkusek, zerk eragi-ten zuen horrelako trenpu aldaketa jakitearren. Arantza Aranaren gorputz soslaia itzalargitan ikusi zuten, zutik ja-rritako Tour-eko etapa menditsu baten mapa orografikoa bailitzan.

Erakusleihenaren atzean ageri zen Joselu Gutierrezen begitarte goibelduak ez zizkiola gauzak erraztuko pentsatu zuen bere golkorako Julenek «Ireki» liburudendaren ateari bultza egin zionean. Izan ere, are goibelduago gera zekiokeen gizonari Julenek iragarriko zionarekin.

«Kaixo Joselu» herabe bat irten zitzaion. «Kaixo polita» triste samar batez erantzun zion, sartu baino lehenagoko auresentipena baieztatuz.

—Zer, berri txarrak?

—Kezkagarriak.

Bezerorik gelditzen ez zela baieztatu zuen segitu aurretik:

—Baina itxaron. Denda itxi eta bazkaltzera joango gara.

—Bai, noski.

—A, behar bada nahiago zenuke liburuena orain egin dezagun, gero denborarik ez galtzeko?

Bazkari bero eta goxo baten laguntzaz irentsi arazteko asmoa zuen berri txarra segituan aitortzera behartzen zuen liburu saltzailearen galdera zuzenak.

—Hain zuzen, Joselu... Ezin izango dizkizut nahi beste liburu erosi...

—Ez duzu oraindik eskuratu diru laguntza? Lasai, konpon gaitzke...

—Jaso dut. Eta hori da arazoa. Baina goazen bazkaltzera. Kontatuko dizut dena.

Udazkenaren osteko lehen egun euritsu hozkirria zen hura, gau luze eta egun txarren iragarlea. Espaloi bustietan, ortze grisaren islada. Jatetxean ezustean harrapatu bide zituen egurats aldaketak eta berogailua ez zeukaten piztuta. Horrek paltoa erantzi gabe bazkaltzera behartuko zituena, behintzat eltzekariak gorputza berotu artean.

—Esaidazu zer gertatzen den. Nik ere zerbait kontatu behar dizut. Eta bi gauzek loturarik ote duten susmoa daukat, esan zion Gutierrezek, ogi egin berriaren usaiak irribarrea itzuli ziolarik.

—Hasi, nahi baduzu.

—Ez, ez. Bota. Adi naukazu.

Dendariak koskorra aukeratu zuen saskitxoko ogi pusketen artetik. Julenek bonoarena azaldu zion, hozten ari zitzaion barazki menestra ukitzeke, begiak bere maikidearenetan iltzaturik.

«Hala eta guztiz ere, liburu batzuk erosiko dizkizut» izan zen azalpenaren azken esaldia. «Egon lasai» esan eta pentsakor geratu zen Gutierrez, sardexka bere menestran landaturik. Gogoeten lanbroan galdurik zebilen adiskideari besoa luzatu zion Julenek.

—Izan naiz gaur goizean beraien «Gure Liburudenda»-n, Donostiakoan.

—Eta?

—Kutzazainak hipermerkatu batekoak bezalakoak dira. Liburuak eta konpaktoak komuneko papera edota txanpua bailiren saltzen dituzte.

—Jakin gura nuke nolako lan baldintzak dituzten, erlatibizatu zuen Gutierrezek, Julenek esandakoa bera kontsolatzeko ahalegina zela ulertu zuela adieraziz eta begiradaz eskertuz.

—Eskerrak kutxazainaz aparte sail bakoitzean ardura-dun bat daukatela, salgai daukanaz ideia zehatzagoa duena, bestela...

Gutierrezek kezkatu eta isilik jarraitzen zuen baina menstruari ekin zion, behinik behin.

—Ez naiz inoiz sartu «Gure Liburudenda» batean. Bisitatxo bat egin beharko nieke... izan ere, baliteke laster batean bertan kutxazain amaitzea neuk ere.

—Ez zaitetz izan hain ezkorra, saiatu zen animatzen Julene.

—Badago, alta, izateko motiborik. Bonoarenak ez nau gehiegi harritu. Uste dut politika orokorrago baten adierazgarri bat baino ez dela.

Julene ere menestra erdi hoztua jaten hasi zen, ma-haikideak hitz egiteko ahalmena berreskuratu zuela ikusirik.

—Gure Gauzak-en libururik ez dut jaso azken hiru asteotan.

—Nola ez duzula jaso?

—«Gure Banaketa» euren zabaltzailea ez da etorri azken hiru asteotan. Agortzen ari zaizkit Gure Gauzak-en liburu batzuk eta azken argitalpenetatik ez daukat batere. Eta liburu onenak ez izan arren, Euskal Herriko ekoizpenaren zati garrantzitsua izanik beraiena, bada, kinka larrian jartzen gaitu horrelako neurri batek.

—Uste duzu Gure Gauzak-ek «Ireki»ren kontra hartutako neurri bat dela? Saiatu zara jakiten?

—Bai, behin baino gehiagotan saiatu naiz deitzen Gure Banaketara. Baina ez didate azalpenik eman nahi. Telefonoa hartu eta ni naizela ulertzen dutenean Benito Lertxundiren azken diskoa entzun daitekeen itzaroteko linea batera konektatzen naute.

—Zerbait bitxia iruditzen zait, hala ere —Julenek, menestra bukatu eta platera mahai ertzean jarri zuen, hurbiltzen zekusan zerbitzariari lana errazteko—, ez al doa euren interesen aurka Gure Gauzak-en liburuak ez banatzea, hau da, ez saltzea?

—Bai, teorian bai. Baina kontua da, gure liburudendatxo asoziatiboa baino askoz ere handiagoa dela Gure Gauzak. Pentsa, liburu eta disko argitaletxea izateaz gain, banaketa eta salmenta tresnak ere badituzte, eta hori, probintzia gehienetan. Tamaina ezberdintasun eskerga horren ondorioa garbia da: epe laburrera galtze txiki batzuk suposaba baditzaie gurea bezalako saltoki xume bezain osasuntsuari beraien produktuak ez zabaltzeak, epe ertainera —eta, zer esanik ez, luzera— onura dakarkie.

—Uste dut ulertzen hasia naizela.

—Badakite guretzat zaila izango dela Gure Gauzak-en produkzio oparoarari uko eginez bizirautea —bezeroek merkatuko eskaintza zabala gurean aurkitu ezean, alde egingo dutelako. Eta gu erabat itotzea lortuko dutenean, ezin errazagoa izango zaie bezero guztiak berreskuratzea eta behin behineko galtze horiek konpentsatzea.

—Aurrerantzean, ez dizut gehiago galdetuko zergatik zauden ezkor.

Juleneri Gure Gauzak enpresari lotzen zuen haria —biografia beka— kate bihurtuz zihoakiola otu zitzaion.

—Egin al duzue elkartearen batzar orokor ez-ohikoa? Burasoak ikusi gabe daramat egun batzuk.

—Bart izan genuen.

—Nire burasoak han ziren?

—Bai, Amaia eta Juanan etorri ziren.

Zerbitzariak legatza ekarri eta ia hutsik zegoen ogiaren saskia eraman zuen. Gutierrezek bezperako bilera bitxia izan zela komentatu zuen, hitzaren zentzu guztietan «ez-ohikoa». Elkartekide batzuek ez zutela hain begi txarrez ikusten Gure Gauzak-ek egindako «proposamena», nahiz gehiengo erroitik kontra egon, batik bat arrazoi ideologikoak zirela eta. «Ireki»k, Trantsizioaren urteetan kimaturako xedea izanki, ildo politiko berezi bateko jendea bilatzen zuen, 80eko hamarkadak eta bukatzen zihoan 90ekoak

guztiz desideologizatu ez zuena. Anarko-sindikalistotik hurbil zegoen jatorrizko «Ireki»tar gehienek ikuspegia, bizimoduetan apur bat burgestu ba ziren ere aipaturiko hamarraldietan. Ikasketa maila handi edo nahiko handiko jendea zen, asko euskaldun berriak, eta ezker abertzale ofizialetik gertu egon arren helburu politiko orokorrei zegokienez, ordu hartako gatazken eta elkarrekiko eskumiku ideologikoen oroitzenak ez zituzten oraindik hortzi. Gure Gauzak-ekiko mesfidantza ez zen harritzekoa, beraz. Izan ere, Gure Gauzak-en sorreran Gaston Berrizarrena bezalako figura atipikoa aurkituagatik, historikoki argitaletxea ezker abertzalearen kultur organutzat jotzen zen. Naturaz kontrakoa zirudien «partaidetza» proposamenak, aspaldiko orbainak minberatu zituen «Ireki»ren batzar nagusira azaldu ziren askorengan, Juleneren burasoak barne, eta irenste mehatxuaren aurrean erresistitza eta berrantolatzea bozkatu zuen gehiengoak.

—Konkretuki, nola ihardokiko diozue erasoari?, kezkatu zen Julene.

Mamiari azukre koilarakada bat nahasiz erantzun zuen Gutierrezek.

—Lehen erabaki batzuk hartu ditugu. Adibidez, beraien produktuekiko enbargoa saihesten ahaleginduko gara beste banatzaile txikiagoekin harremanetan sartuz. Beste neurri batzuk ere hartu beharko dira, baina oraindik erabakitzeke daude.

—Eta, barkatu atzera itzultzea, baina nor azaldu zen Gure Gauzak-en proposamenaren alde?

—Beno, erabat alde inor ez. Negoziatzea merezi zuela defenditu zuten Foxy Larretxea eta Txemi Barriolak.

—Ez al dira izan beti oso kritikoak ezker abertzalearekiko?

—Bai ba. Taldeko erradikalenak izan dira beti. Susmagarria deritzogu —zure burasoekin geroztik aipatu dugu

kontu hau—, jarrera aldaketa honi. Badakizu informatika tresneria zabaltzeko negozioa zeukatela bi hauek, ezta?

—Zeukaten?

—Pikutara joan zitzaien joan den udaberrian, pilatu-tako zorren ondorioz, eta geroztik langabezia daude.

—Are gutxiago ulertzen da euren jarrera. Kapitalismo basatiaren biktima izan berri dira eta Gure Gauzak-en moduko erraldoi baten atzapar artean jarri nahi dute «Ireki»?

—Edo are gehiago ulertzen da. Zaplastekoa jaso ostean, lezioa ikasi eta zaplastekoak banatzen dituztenen aldera pasatu nahia. Edozein dela ere zioa, hurbiletik zaindu beharko dira hauen jokamoldeak.

Mahaietik altxatu eta liburudendarantz abiatu ziren, joanekoan legez, euripean. Liburu eskukada bat hartu zuen Julenek eta bere adiskidea agurtzerakoan kontzientzia arintzeko beharrari ez zion eutsi.

—Joselu, esango didazu zer egiten dudan nik, hau guztia jakin ondoren, Gure Gauzak-entzat lanean...

—Lasai, polita. Zurea beste kontu bat da. Egin lana ahal bezain ondo, jaso zor dizuten dirua, eta kitto. Beka ez dizu inork oparitu, zure merezimendu propioei esker lortua da eta ez dago lotsatzerik.

Manuela Berrizar zen zerrendako lehen kontaktua. Bezperan telefonoz hitzordua berretsi zion berarekin bizi zen semeak, hots, Gaston zenaren ilobak. Martarekin zinemara joan ziren aspaldiko partez eta Julenek ordaindu zituen bi txartelak, kutxazain automatikorantz dirua ateratzera zihoan lagun langabetua gelditu eta eskaintza onartzerara behartuz. Ondoren, Juleneren izebaren apartamentuan afaldu zuten eta biharamunean Lekeitiora elkarrekin joango zirela adostu zuten. Asteburua izanik, Martak ez zezakeen jarrai lana bilatzen eta morala apal zeukanez, bakardadearen mamua uxatzeko aitzakia ona zen Julene bere inkesta biografikoaren hastapenetan laguntzea.

Ozta-ozta iritsi ziren hitzordura, uste baino jende gehiago izan zutelako errepidean eta gasolindegian ere dexente itxaron behar izan zutelako. Herritarrak meztatik irtetzen ari ziren autoz elizaren paretik aparkaleku bila igaro zirenean. Karrika batzuk urrutiago aurkitu zuten tokia eta elizatarira heldu zirenerako jende gehiena sakabanatua zen inguruetan, nor bere etxera bidean. Emakume zahar bat geratzen zen atarian, gaztexagoa zen gizon bati besotik oratzen ziola.

—Manuela Berrizar?

Gizonak galderari galdera batez ihardetsi zion.

—Zeu zara kazetarixe?

—Beno, ez naiz kazetaria, baina ni naiz Gastonen biografia egitera doana.

—Zenbat denpora tardauko dozu?, jarraitu zuen galdezka semea bide zen gizonak.

Emaitza positiboa lortuko bazuen bizkaiera erabiltzea komeni zela otu zitzaion Juleneri.

—Ez dakit ba. Sakon berba egin gura neuke Manuelagaz. Gastonen haurtzaroaz eta dakizkien beste kontuetaz.

Azkenean, idazle zenduaren arrebak hitza hartu zuen, ahots fin bezain ziurraz.

—Bazkalduten geratuko zarie.

Igande eguerdiko ordubatak ziren eta, hortaz, bi ordu izango zituen Manuela Berrizar elkarrizketatzeko. Nahikoa izan zitekeen. Edo ez. Martaren presentzia argitu behar zuela bururatu zitzaion bazkarirako gomita onartzekotan.

—Hau neskea ez da lan egitera etorri. Lagun bat da.

Semeari Marta gustatu bide zitzaion eta etzen isilik geratu.

—Ezagutzen dozu herria?, galdetu zion, bisita gidatu proposamena zeharka eginez.

Martak gizonari irribarre mutu bat eskaini eta Juleneren begirada bilatu zuen, laguntza eske.

—Ez dau euskeraz egiten.

Idazlearen ilobak ez zuen horratik esperantza galdu eta gazteleraz kontraeraso zuen.

—¿Si quiere le enseño el pueblo?

Begiak kliskatuz, morse kodez S.O.S. esan nahi zukeen mezua bidali zion Martak Juleneri. Julenek «zer egingo zaio» esan nahi zuen bizkar mugimendu bat marraztu zuen. Bazkaltzeko orduan etxean elkartuko zirela adostu zuten ama-semeek. Martari herriaren bisita eginaraziko zitzaion bitartean, elkarrizketa egingo zion idazlearen arrebari Julenek. Herriaren sarreran zegoen baserritxo bateraino lagundu zien semeak eta Martarekin alde egin zuen, pozarren.

Baserriko egongela garai ezberdinetako dekorazioaren nahas-mahasa zen. Berogailu elektriko modernoena, 80eko telebista beltza, 70eko hamarkadako neoi dardartia saipaiean, 60eko paper loreduna hormetan, adinik gabeko besaulkiak eta betiko gurutzeta paretan zintzilik.

Elkarrizketa hasteko gertu zeudela, semea mutilzaharra ote zen galdetzeraz ausartu zen Julene.

—Ez. Abadea da.

Grabagailua atsoaren ahora hurbildu zuen.

—Gauza gitxi dakit nebaz. Txikerrak ginenekoak, gehienez be. Aspaldi joan zan herritik eta...

—Ez larritu. Zuk kontau dakizkizunak.

Uste baino luzeago joan zen grabaketa eta abade nekazalea eta Marta itzuli zirenerako ordu t'erdiko zinta osoa erabilia zuen Julenek. Aldez aurretik ezagunak zitzaizkion zenbait datu biografikoz gain hainbat xehetasun eman zitzaizkion atsoak idazle bihurtuko zen Gaston izeneko haur bihurriaz. Honela laburbil zitezkeen bildutakoak:

Gaston Berrizar 1919an sortzen da Lekeition, bederatzi seme-alabaz osaturiko sendian zortzigarrena delarik. «Eskutxu» ezizena emango zaio herrian, sortzezko atrofia baten ondorioz ipotx eskuak zituelako. Etxeko mutil gazteena eta elbarritua izanki, nebarrebek eta burasoek bereziki mimatuko dute eta, nekazalgorako ahalmen fisikorik ez duela ikusirik, ikasketak ordaintzea erabakiko dute, hamaika urterekin seminaria bidaliz. Gastonen ama —Julene asko harritu zuen datua— ez zen fededuna. Eta, antza, garai hartan, hau da, XX. mendearen lehendabiziko laurdenean, baserriarren munduan fedea eta elizarako joera ez zeuden oso zabalduak. Manuelaren hitzetan, Primo de Riveraren diktadurarekin etorriko da erlijioaren ezarpen autoritarioa eta jarraikiko zaion hedatzea. Ordurarte, euskaldun nekazari asko eta asko ezaxolan bizi dira erlijioarekiko. Beraz, Gaston gaztearen

apaiztegiratzeak ez du zerikusirik ezein atxekimendu erlijiosorekin. Erabaki praktikoa da, baserrirako ezdeus egiten duen elbarritasunari irtenbidea emateko modua familiar-entzat. Hortik aurrera, Gastonen nortasunean aldaketa bat ematen da. Haur mimatua izatetik arduradun sentitzera igaroko da. Sendiak emandako aukera ez alferrikaltzeko, urtero nota hoberenak ekarriko ditu etxera, behin erdera ikasiz gero irakasleen estimua bereganatuz. Uda parteetan, aldiz, herrira itzultzen denean, berriro bilakatzen da «Eskutxu» bihurri eta jostaria. Herriko karrketan eta, batez ere, itsasertzean igarotzen ditu egunak gainerako haurrekin. Hamalau urterekin, gaztelera eta latina euskara bezain ondo dakizki eta lehen idazki batzuk egiten ditu 1933ko udan, herriko gazteentzat antzezlan laburrak sortuz. Itxuraz, mirariz betetako istoriotxoak dira. Manuelak antzeppen horietako batean parte hartu zuen eta mendian galdutako bildots beltzez mozorroturiko Jesukristo salbatzen duen artzaisarena egin zuen. Testuak galduta daude. Edo baliteke testurik ez egotea. Manuela ez da ondo gogoratzen nola ikasi zuten testua. Antzeppenetan esku hartzen zuten haur gehienek ez zekiten irakurtzen –are gutxiago erderaz– eta bazitekeen ahoz irakatsi izana testua Gastonek berak. Bestalde, horretaz bai oroitzen dela Manuela, Gastonek irakatsi zion irakurtzen, eskolan ikasi aurretik.

Hamalau urterekin –Manuelak hamasei zituen uda hartan, eta horrela kalkulatzen du nebaren adina– Esteban Urkiaga izeneko gizon lerdan eta dotorea ekarriko du baserrira Gastonek. Manuela beti gogoratuko da «Lauaxeta»-ren begirada sakonaz eta «Urkiaga jauna» aipatzeko darabilen ahots ezberdinetik ezagun du gizon hartaz maite-minduta egon zela. Gastonen antzeppen txiki horietako bat ikusirik, beste jeltzaile askorekin oporrak bertan igarotzeko ohitura zuen idazle abertzaleak nerabea bazkaltzera

gonbidatzen du eta euskaraz idatzi beharko lukeela esaten dio. Hurrengo egunetan berarekin eramango du, hona eta hara, poeta jeltzaileak eta apaiztegira itzultzean, maletan, jantziez gain, ohikoa ez den zerbait eramango du: *Bide barrijak*-en ale bat, Urkiagak berak opariturik. Liburua lehen hitzetik azkenera ulertzeko erronka egingo dio bere buruari Lauaxeta gurutzatuko duen hurrengo aldirako. Baina, Manuelak dakiela behinik behin, ez du berriro inoiz ikusiko «Urkiaga jauna». Gerraurreko poetaren izenpedura daraman ale horri dagokionez, berriz, nebak berari utzi bazion ere urte batzuez, herritik alde egin zuenean berreskuratu bide zuen.

Duda-mudan ibili ostean, Manuelak Juleneri aitortu zion Lauaxetarekin igarotako egun haietan Baudelaire-ren liburu bat ostu ziola nebak idazle jeltzaileari eta liburu harekin gerora, seminarioan, frantsesa ikasten hasi zela, hasi ere. Xehetasun hau, mesedez, ez aipatzeko biografian erregutu zuen, kontatu bezain laster, damuak hartu bailuen. Julenek, gertaera aipatuko ez zuela zin egin ondoren, seminarioko bizipenak aipatuko zizkiokeen inor ezagutzen ote zuen galdetu zion, bere zerrendan agertzen zen Pablo Aurrenetxea lekuko egokia zela berresteko asmoz. Eta hala zen. Aurrenetxea omen zen urte haietako lagun mina. Baserriera itzultzen zenean etengabe arrebari aipatzen ziona. Antza, ikaskide hari ere arreba aipatzen zion Berrizarrek ezen «gerrea» hasi aurretiko oporraldi batean, Aurrenetxearekin batera etorri baitzen etxera. Manuelak ez zuen ezer gehiago esan nahi izan Aurrenetxeaz, eta esan zuen apurrari ere gehitxo zeritzola begitandu zitzaion Juleneri. Bere solaskidearen lasaitasuna bermatze aldera, gaia aldatuz zera galdetu zion, ia neba eta bere arteko harremana beste senideak eta Gastonen artekoa baino estuagoa izan ote zen. Baietz erantzun zuen, harro, adinez hurbilekoenak izateak lagundu zuela behar bada horretan, baina ez

zezakeela arrazoi hark dena esplikatatu. Lotura berezi bat egon zela beti euren artean. Gerrak eten ez zuena, nahiz fisikoki distantzia bat jarri zuen bien artean. Kontakizunaren une hartan, eskura zituen datuekin bat egiten ez zuen zerbait entzun zuela iruditu zitzaion Juleneri eta duda argitzen saiatu zen berehala. «Gaston ez da, baina, gudaria izan?». Ezetz. Egia zela. Ez zela inoiz gudaria izan. Zazpikia izatetik zetorkion eskuetako elbarritasuna zela eta, ez zutela soldadu eramanez. «Orduan zergatik dinozu gerreak banatu zintuztela?». Bada, gerra bukatu artean ez zelako itzuli baserrira eta 1938an ihesi joan zelako Frantzia aldera. «Iparraldera? Frantziako Euskal Herrira?». Ez. Frantziara, Parisa zuzenean. Beraz, iheslari politiko edo errefuxiatu gisa ihes egin ote zuen nebak galdetu zion Julenek, baina ez zuen lortu errefuxiatu hitza errepikaraztea. «Ospa egin eban» edo «igesari emon eutzan» esapideak nahi beste bider errepikatu zituen baina errefuxiatu hitza esanaraztea ezinezkoa suertatu zen. Frantziara joan ondoko harremanaz ez zuen gauza oso zehatzik esan, lau rogei urte inguruko atsoarengan ordu t'erdiko etenik gabeko hizketaldiak nekea eragin bide zuelako. Halere, zera jakitea lortu zuen Julenek, behin batez Parisa joan zela Manuela neba bisitatzerara, gerraostean, eta askoz beranduago, Iparraldera bitzitera etorri zenean, Lekeitiora itzuli zela Berrizar, baina egonaldi txit laburra egin zuela bertan.

Argazkirik, agiririk edo bestelako edozein oroigarrik zuenez galdetzen hasi zenean sartu ziren Marta eta abadea. Martaren begitartean irakurri ahal izan zuenez, ez zen gehiegi aspertu Manuelaren semearekin. «Hainbat hobe horrela», pentsatu zuen Julenek bere golkorako, Martari laga zion lan eskergabeaz apur bat damaturik. Bazkaltzen hasi aurretik, abadeak argazki batzuk mahairatu zituen, amaren aginduei jarraiki. Baserriaren klitxe horitu bat eta eskuak bizkar atzean gordeturik ageri zen «Eskutxu» nera-

bearen erretratoa ikusi zituen, besteak beste. Aipaturiko bi horiek eraman eta eskanerretik pasatzeko baimena eskatu zion atsoari. Eskanerra zer zen azaltzen saiatu zen hasiera batean, alferrik, eta kopia bat atera nahi zuela esanez bukatu zuen.

Bazkaria ondo joan zen eta Julenek ulertu zuen zer-gatik ez zen aspertu Marta Lekeition barrena egindako txangoan. Izan ere, Gastonen iloba gizon xarmanta zen, kultura handikoa eta, horrez gain, umoretsua. Bizi guztirako emazte bakar bat izateko orde zeharriko neska, emakume nahiz atso guztiak limurtzeko aukera ematen zion lanbidea hautatu zuela zirudien, eta ez zihoakion gaizki «negozioa». Agurtzeko tenorea ere iritsi zen eta, baserriko atarian zeudela, azken orduko galdera otu zitzaion Juleneri. J.Nagore izeneko norbait ezagutzen ote zuten galdetu zien. Ezetz, horrelako izenik ez zutela sekulan aditu, izan zen erantzuna.

Biografiaren lehen kapituluak betetzeko adina informazio bildu zituelako pozik, Julenek Martari itzulerako bidaia pixka bat luzatzea proposatu zion, itsasaldeko errepide estu eta malkartsuek eskaintzen zituzten ikusmirez gozatzearren. Urrutian, ortzemugan, zeruak eta itsasoak berunezko lausoan bat egiten bazuten, itsas hegian, aldiz, eguzki herabe baten errainu tartekariak uhainak urdintzen zituzten. Bidertzean autoa laga eta, une batez, zutik egon ziren, hitzik trukatzeko, ur eremuari begira, udazken ondarreko mendebalaren laztan hozkirria sentitzen zutela aurpegietan. Bazuen izadi puska hark, bere biluztasun lotsagabea, bihotz bakartiegien lotsaizuna erasotzeko berezko joera bat bi emakume gazteak deseroso sentiarazi zituen. Geriza bila bailebiltzan, autora sartu ziren berrira eta Julenek irratia piztu zuen, giza arrabotsaz janzteko isiltasuna. Une batera, Martak elkarrizketaren bidea aurkitu zuen berrira, zera komentatuz, adin bateko gizonak

erakartzeko dohaina zuela. Julenek abade hizketariaren irudia ikusi zuen eta aurretik beste antzekorik erakarri ote zuen galdetu zion. «El editor tuyo» erantzun zion Martak, bekaren aurkezpen eguneko buffeta gogoan zuela. Egia zen Agirre ez zuela sorgor utzi Martak, baina adinekotzat jo zitekeenez dudan jarri zuen Julenek, janzkera eta itxura fisiko orokorrak zahartzen zuten arren. Izan ere, argitaldaria ez zituen bi emakumeek baino hamar urte gehiago ere izango.

«¿Tendrá pasta?» galdetu zuen Martak, ezkontza interesatu baten hipotesia txantxaren doinuan bilbatuz. Irudi andana bat pilatu zitzaizkion bat-batean Juleneri: Agirre-ren autoa –bere azken urteetako burgestea adierazi nahi bide zuen Volvo marroi metalizatu sendo bezain desera-kargarria–, Martaren aita –emaztea eta oraindik haurra zen alaba supituki utzi zituen enpresari aberatsa–, izebaren apartamentuko bi tokidun ohe hutsa, Ilun Zaldunbideren *Egunkariako* zutabe ulergaitz edo ulergarriegi hura, Joselu Gutierrez eta bere irudipenean aurpegirik ez zuten Gure Gauzak-en mezulariak, oraingoz itzal hutsa zen J. Nagore izena...

—Eta, aizu, azken galdera bat egitera ausartuko nintzaizuke.

—Bota.

—Nork iradoki dizu nire izena?

—Ilun Zaldunbidek.

—Eskerrik asko.

—Beraz, badakizu, bihar arratsalderako bidali behar didazu, eta hemendik aurrera ere, nik aurretik deitu ezean, asteazken arratsalderako helarazi beharko didazu.

—1500 karaktere.

—Hori da.

—Agur.

—Adio.

Hortaz, Ilun Zaldunbidek eman zien *Egunkariakoei* iritzi zutabe baten ardura Juleneren esku jartzeko ideia. Eskertu beharko zuen. Zergatik ez eskertu zutabearen bidez, otu zitzaion. Baina ez zuen astirik pentsatzen hasteko, ezen, telefono deiak berandutu zuenez, presaka ibili behar baitzuen Joxean Etxebarria irakaslearekiko hitzordura garaiz helduko bazen. Mugikorra motxilan sartu eta binaka igo zituen unibertsitateko filologia departamentuko irakasleen bulegoetara zeraman eskaileraren mailak. Atean jo aurretik ordulariari behako bat eman eta bi minutuko atzerapena besterik ez zela berea baieztatu zuen, goizeko

hamarrak eta hogeita hamabi. Beira transluzidozko ateari bultza egin eta «aurrera» esan ziona Etxebarriaren lankide bat baino ez zela ikusi zuen.

—Etxebarria irakaslea?

—Hortik ibiliko da.

—Hitzordua daukat berarekin.

—Itxaron apur bat.

Telefonoa hartu zuen atezaina-edo deitzeko. Une hartantxe azaldu zen Etxebarria.

—Kaixo Julene. Joango gara fakultatearen pareko kafetegira?

—Bale. Zuk esan.

Trajea zeraman soinean katedradunak, eta gomina, zehatz orrazturiko adatsean. Golf klub baten zigiluaz hornituriko aterki handia hartu eta, atea berriro irekiz, aurretik pasatzeko keinua egin zion Juleneri.

—Zer hartuko duzu?

—Laranja zuku bat.

—Laranja zuku bat eta capuccino bat, faborez, agindu zion eserleketan jarri bezain laster hurreratutako zerbitzariari.

—Zer moduz Paris aldean?, galdetu zion Julenek.

—Ondo. Aurretik Londresen egon nintzen, British Museumgo liburutegia arakatzen eta lehenago Santiagon, tesi baten epaimahai batean...

Ohituraren poderioz, bidaia horiek aspergarri samarrak egiten zitzaizkiola iradoki nahi zuen doinuaz esan zuen hori guztia, eta aurretikartzelonan ere egona zela esatera zihoan Julenek moztu zuenean.

—Bai, esan zenidan bekaren aurkezpen ekitaldiaren ondotik. Eta zein zen defenditzen zuten tesiaren gaia?

—Castelao, mende hasierako idazle galiziar noucentistaren obraren berrirakurketa bat egin zuen doktoregaiak, Even-Zoharren polisistemen teoriaren argitan egin ere.

Segituan galdetzaile izatera igaro zen berriro Etxebarria, solasaldiaren lemazaintza berari zegokiola argi eta garbi utzi nahiz:

—Baina esaidazu, Julene, zertan da zure tesia? Irakurri nuen Sarasketaren zuzendaritzapean egin zenuen *Eskribitu gabeko poema*-ren azterketa. Lan polita, hutsune teoriko nabarmen batzuk pairatzen baditu ere, lan polita.

—Hain zuzen, horixe aipatu nahi nizun. Sarasketa jauna prest legoke tesia zuzentzeko. Haatik...

—Ez daukazu gairik?

—Ez. Ez da hori. Beno, gaia ez dut oraindik zehaztu, egia da, baina... kontua da... ez ditudala gauzak oso argi ikusten etorkizun... profesionalari begira. Eta ulertuko duzunez, hiru, lau, edo bost urteko lan batean sartzea... inolako garantiarik gabe...

Iribarrea aurpegiratu zitzaion katedratikoari, ulertu duenaren irribarrea.

—Gauzak sinpleki esateko, ez dakizu manager ona aukeratu duzun borroka irabazteko.

Julenek ez zuen hitzik ahoskatu. Alabaina, baietz esan nahi zezakeen begirada zuhurraz erantzun zuen, Etxebarriak zer proposatuko zain.

—Badakizu nolakoa den boxeo, ezta? Managerrak borroka dagi eta boxeolariak aktore lana. Bada, horrelakoxea da unibertsitatearen mundua ere. Noski, borroka sinetsgarria izan dadin eta eskandalugarria ez suertatzeko, komeni da ondo prestatuta, giharre koipeztatuak dirdaitsu, igotzea taula gainera. Baina, jakina, ordurako gogorrena atzean dago. Eta uste dut garaiz zabiltzala orain arteko managerrari ahulegia baderitzozu hobe baten truke aldatzeko.

Juleneren atentzioa bereganatuta zeukala ikusteak irribarrea areagotu zion, ia hortzak erakusteraino, eta bere solaskide gazte bezain ausarta berba egiteko zorian zegoela ikusirik, hitzari eutsi zion.

—Kontuz baina. Borroka unibertsitariora ez da managerraren hautaketarekin amaitzen. Lanaren erdia egina badago, beste erdia egiteke geratzen da.

—Alegia, tesi lan ona egin behar dela...

—Ez. Managerrak ere bere boxeolari kutuna aukeratu behar izaten du. Ezin ditzake txapeldungai guztiak batera bultza, erraz ulertuko duzunez. Garaipena ezin partika baitaiteke. Managerraren konfiantza eta fedea eskuratzea bihurtzen da orduan boxeolariaren xede nagusia.

Julene pentsakor geratu zela ikusirik, aurrera jarraitu zuen.

—Eta horra nola itzuli garen berriro abiapuntura: zein manager hautatu? Izan ere, ez baita erraza esatea zer hobetsi behar den, manager outsider baten boxeolari kutuna izatea, ala manager boteretsuenaren bigarren edo hirugarren aukerako boxeolaria...

—Eskertzen dizut hain garbi hitz egitea nirekin, Etxebarria jauna. Errespetu markatzat hartzen dut zure jokamoldea.

—Ez dut horrela hitz egiten doktoregai guztiekin, berretsi zuen irakasleak.

—Beste galdera bat onartuko bazenit?

—Aurrera.

—Zer egingo zenuke nire egoeran bazeunde?

—Ez nago zure egoeran. Nire tokitik dakidana, ordea, zera da, doktoregai duinak gutxi zaretela merkatuan eta horietako bi dagoeneko lanean ari direla nire zuzendaritzapean. Hortaz, tesia nirekin eginez gero konpetentzia latza litzateke. Bestalde, Gotzon Sarasketak, gorantza doan arren EHU-n eta zuzendari nahiko ona izanagatik, oraindik etsai asko ditu han eta hemen... Beste laranja zukurik nahi?

—Ez, ez. Nire txanda da. Zer nahi duzu?

—Utzi, faborez, gorde diru hori. Bekak nire capuccino ordaintzeko lain emango dizulakoan nago, baina

nahiago nuke ahal bezain biografia ona idazteko erabiliko bazenu.

—Beraz, sinesten duzu biografia honen beharrezkotasunean? Jende asko dudati eta susmati agertu zait tupus-teko Berrizarren ezagupen «ofizial» hau dela eta.

—Gutxi ezagutu nuen Gaston. Egia esateko, bere garairik ilunenean. Orain dela hamabost bat urte. Asko idazten zuen baina ez zioten argitaratu nahi. Idazle mota berri bat indarrean zetorren —gaurko elefanteak, autonomiaren belaunaldikoak—, merkatua berregituratzen ari zen, edo hobeto esanda sortzen ari zen —argitaletxe berriak, haur literaturaren negozioa—, eta asko sufritzen zuen anakroniko sentiarazten zuen ingurumenarekin. Konplexua eta guzti hartu zuen eta, maiz eskatu nizkion arren, ez zizkidan inoiz eman nahi izan bere idazlan argitaragabeak. Eta hori fede oneko miresletzat ninduelarik.

—Norbaitek bildu al ditu, geroztik, garai hartako testuak?

—Garai hartakoak eta lehenagokoak! Uste dut idazle-iceberg bat badauka euskal literaturak, hori Gaston Berrizar dela. Beti asko idatzi zuen susmoa daukat. Eta, zure galderari erantzuteko, ez. Ez ditu inork batu testu guzti horiek, nik dakidala behintzat. Baina batek daki non dau-den! Alarguntsari galdetu beharko litzaioke...

—Jai daukagu orduan.

—Zer ba?

—Burua galdu omen du.

—Burua galdu!

—Mikel Agirre *dixit*.

—Ez nekien... Gajoa. Emakume fina zen. Sonia... Eta zertan da zure inkesta? Hasi al zara jendea elkarrizketatzen?

—Bai, lehengo egunean Manuela, Gastonen arreba-rekin egon nintzen.

—Sorterrian.

- Bai, Lekeition.
- Eta? Zerbait berririk atera zenion?
- Lauaxeta nola ezagutu zuen zehatz-mehatz azaldu zidan.
- Badakizu hori berak ere kontatu zuela *Euzko Gogoa*-n, 50eko hamarkadan.
- Ez. Ez nekien. Zein zenbakitan?
- Bidaliko dizut fotokopia bat.
- Milesker. Dirudienez, eta ez dut uste hau berak azalduko zuenik, arrebarentzat ere Lauaxeta ezagutzea gertakizun gogoangarria izan zen...
- Lauaxetak izan omen zuen neska lagun, edo garai haietan esaten zenez, nobia erdi-ofizial pare bat. Behar bada, hirugarren bat deskubritu diozu.
- Etxebarriak irri egin zuen «bide barriak» tituluaren balizko esanahi ezkutuen kontura eta ordulariari begira hasi zen.
- Barkatuko didazu. Eskola emateko ordua dut.
- Eskertzen dizut hartutako denbora, zinez...
- Joxean.
- Bai, Joxean. Milesker.
- Ez dago presarik eta pentsatu ondo zer komeni zaizun «etorkizunerako».
- Ez zintuzket atzeratu nahi, baina ezagutzen al duzu J.Nagore izeneko norbait?
- Egin*-eko zutabe mistoriotsua. Ez, noski. Sasizen bat.
- Ez zara zerorri izango?
- Ez. Gaston Berrizar jende askok ezagutu du nik baino hobeto, eta gainera, Berrizarren lagun minen artean baino errazago aurkituko zenuke, nire aburuz, J.Nagore delakoa, Gure Gauzak-en etsaien artean, bi gauzak pertsona bakar batean batera eman badaitezke ere.
- Hainbeste etsai al ditu, ba, Gure Gauzak-ek?

—Puztuz doan heinean, areagotzen dira, edo amorratuagotzen. Egoera monopolistikoek asimilazioa edo etsaitza amorratuaren arteko aukera baizik ez dute uzten...

—Milesker berriro. Emango dizut nire inkestaren berri, aurrera joan ahala.

Euripean fakultaterantz urruntzen ikusi zuen katedraduna, golf klubaren zigiludun aterkipean babesturik. Berak pixka bat itxaron beharko zuen, euri jasa bukatu artean, eta barrara hurbildu zen prentsari errepassoa emateko.

Pablo Aurrenetxea, Berrizarren seminarioko ikaskidea, elkarrizketakizunen zerrendako bigarren izena, urte luzeetan abade izandakoa, Heriorekin elkartu berri zen, lekukotzarik eman ahal izan aurretik. Lumoko telefono zenbakira hitzordua egiteko deitu zuenean, bezperan eritetxera eramán zutela adierazi zioten Juleneri, larritasunik gabeko gripe batek nekatuta. Pare bat egun beranduago, agurearen osasun egoeraren bilakaeraren berri izateko deitu zuenean, lortu zuen hitzordua. Ez nahi bezalakoa, ordea. Hiletaren eguna, ordua eta tokia zehaztu zizkioten hariaren beste muturrean.

Aurrenetxearen desagerketarekin inkesta biografikoaren zati garrantzitsu bat pikutara zihoan. Izan ere, oraindik neurri handi batean misteriotsua izaten jarraitzen zuen Berrizarren nerabezaroaz egon zitekeen informazio iturri fidagarriena zatekeen zendutakoa. Nolako nerabea izan zen idazle fedegabea apaiztegiaren mundu itxian? Bihurria al zen? Ikasle ona? Zein liburu irakurri zituen? Eta, galdera garrantzitsuena, Manuela Berrizar arrebak erantzun garbirik gabe utzitakoa, zergatik 1938ko bat-bateko eta berariatzko erbesteratzea? Gerra kontestuari lotu gabeko erabakia izan zelako susmoa erein zuen Julenerengan idazlearen arrebaren jarrera iheskorrak baita galdera errepikatu zitzaionean ezagun izan zuen estualdiak ere.

Gaston Berrizarrek utzitako testu autobiografiko ezezagun batzuk aurkitzea beste itxaropenik ez zitzaion gertatzen urte haien itzala argitara eramateko. Baina non aurkitu balizko idazki horiek? Arrebarenean ezer gutxi lortu zuen argazki horitu batzuez gain. Zirriborro literario ziztrinena-
ren aztarnarik ez zegoen Lekeition. Inkesta biografikoaren inguruko egitaraua edo estrategia aldatu beharra zegoen, eta laster, ez bazuen idazketa fasera mamirik gabe iritsi nahi.

Egun batzuk lehenago jasotako liburu aurkezpen baterako gonbidapen karta ez irekiaren bila hasi zen izebaren apartamentuko egongelako anabasean. Telebista erraldoiaren pareko mahai apaleko aldizkari eta egunkari meta arakatzuz aurkitu zuen. «Gonbidapena» hitza hizki larriz zekarren karta larrosa gutunazaletik atera eta zera irakurri zuen: «Jaun / Andere agurgarria, Gure Gauzak euskal kulturaren zerbitzuko argitaletxeak Arantza Aranaren *Eros 2* ipuin bilduma erotikoaren aurkezpen ekitaldira gonbidatzen zaitu. Liburua Donostiako Pittilingorri sex-shopean aurkeztuko da, ostegun goizeko hamaiketan.» Ez zen gogoratzen Durangon aurkeztekoa zenik Aranaren liburua. Hain laster pasatu ote zen denbora Agirrerekin bazkaldu zuten egunetik? Ez al zuten beranduagorako adostu argitalpena? Nolanahi ere, Julenerentzat aukera ezin hobea zen egunean bertan Agirre hitzordurik gabe ikusteko eta biografiarentzat norabide berriak finkatzeko, Aurrenetxeak kale egin ostean.

Egunero egin ohi zuenez, izebarenean zegoenez geroztik behintzat, telebista aurrean gosaldutako egunkaria beheko kioskoan erosi ostean. Orduerdi bat zeukan Donostiarantz abiatu aurretik. Izebaren autoa ezin hobeto zetorkion biografiarekin lotutako joan-etorrietarako. Gerraio publikoekin goizeko lehen orduetan altxatu beharko zukeen liburuaren aurkezpenera garaiz iristeko. Gari integralezko gosari zerealak esnetan beratu zituen, ezti koilarakada bat gehitu, eta zapping-ari ekin zion, beste begiaz

egunkariari errebaso azkar bat egiten ziolarik, atzeko orrialde-
detik hasita, ohi zuenez.

Kate guztiak bi bider kurrutu ondoren telebista itzali eta egunkariko iritzi orrialdeetara jo zuen. Ilun Zaldunbideren zutabea zekarren. Arretaz irakurri zuen, ezen aurreko asteko lehen zutabeen eskerrak eman baitzizkion Zaldunbideri bere izena *Egunkariakoei* proposatzeagatik. Esan gabe doa hitz erdika eman zizkiola eskerrak, esker-tuak bakarrik ulertzeko moduan, alegia. Ondoko ostegun-
ean, orduan zortzi, hastekoa zen Durangoko azoka zuen hizpide Zaldunbidek, eta berezikiago famatua bihurtzeko bidean zen karpa zuri erraldoi behin-behinekoa. Artikuluaren hondar hitzetan, Durangon elkartzeko berari zuzendutako deia zirudien esaldi kriptikoa irakurri zuen: «euskal kulturaren karpa ahulari eusteko bi zutabe beharrezkoak izango zirela». Eta, zutabeen gorago, bera larunbat arratsaldean azokan izango zela esaten zuela kontutan hartzen bazen, bada, hitzordutzat har zitekeen guztia. Edo zoratuta zegoen eta dena gain-interpretatzen ari zen, hilabeteetako baraualdi sentimentalaren ondotiko sukarraren ondorioz.

Zaldunbideren hurbilketa metodo zuhur eta zeharkakoari bitxia zeritzon Julenek. Baina, finean, ez ote zen bera ere Zaldunbide bezain piztia bitxia? Karramarro dantza batean sartuak zirela biak otu zitzaion. Bakarrik bizitza –zentzu afektiboan– zama bihurtzen ari zitzaiola. Eta lana arazoari bizkar emateko modu bat besterik ez zela onartzea kosta egiten zitzaion. Alta, gehiegi luzatzen ari zen bakar-raldi afektibo hura autokonfiantza higatzeko modukoa zen, egiaz. Gero eta zailagoa zitzaion egoera edo jokamolde normalen eta arraroen arteko bereizketa egitea. Zaldunbiderekiko jokoari jarraitu behar ote zion? Alabaina, ez zeukan arazoa gogoetatzeko betarik, liburuaren aurkezpena huts egingo ez bazuen.

Amara auzoko parterik berrienean, Anoeta futbol zelai eraiki berritik gertu, aparkatu zuen autoa eta oinez iritsi zen hortik bi kale kantoietara zegoen sex-shoparen atarira. Prentsaurrekoak iraun bitartean, normalean ez bezala, sarrera printzipala irekita edukiko zuela azaltzen ari zen saltokiko nagusia. Hogeita hamahiru bat urteko gizona zen, «Donostia sound» tribukoa itxura guztien arabera –hau da, ur oxigenatuaz horituriko adatsa, gaztetxo janzkera sofistikatua–, eta hitz egiteko moduagatik bi ondorio atera zitezkeen: lehena familia onekoa izan behar zuela eta, bigarrena komertzio ikasketak egina zela. Arantza Aranarekin hitz egiten ziharduen eta «merkatu», «bezero», «diskrezio», «errentagarritasun» eta antzeko hitzak aditu zitezkeen alboratuz gero. Kazetari gehienak saltoki estu eta luzean bertan inprobisaturiko prentsaurreko aretoaren eserleketan kokaturik zeuden jada.

Kazetari asko ezezagunak bazitzaizkion ere, tartean Fede Haranalde ikusi eta begiradaz agurtu zuen Julenek. Atetik hurbil eseri zen, eserlekuen azken ilaran. Pozik egoteko modukoa zen arren bertara etorritako prentsa ordezkarien kopurua, aurkezpen mahaian Agirre kopetilun ageri zen eta betaurrekoek nekez gorde ziezaioketen izutzeko moduko begizuloak.

Arana editorearen ondoan jarri zen, inoiz baino dizdirtsuago, eta mikrofonoa ongi zebilela konprobatu ondoren Agirrearen ahoaren parera hurbildu zuen. Agirre ongietorritzko lehen hitzak ahoan trabatzen zitzaizkiolarik, Aranak liburuaren azalarekin egindako afitxa handia mahaiaren aurrekaldean ondo itsatsita zegoela konprobatu zuen, horretarako gorputza aurrerantza tolestuz eta bere bularralde oparoaren ikusmira ezinhobea eskainiz prentsaurrekoaren lehen lerrokoei. Nola esan ez zekiela, ia toltedurik, liburua oraindik inprimategian zegoela adierazi zuen argitaldaria, halere Durangoko azokarako kalean egongo zela ziurtatuz. Aranak zera gehitu zuen, argitale-

txearen hutsegitea potoloa izanagatik irribarrea galdu gabe eta Agirreri mikrofonoa lipar baterako ostuz, eginda eduki bezain laster jasoko zutela kazetariak ale bana. Zurbil eta izerditan, editoreak Aranak esandakoa baieztatu zuen. Liburuaren edukiaz autoreak berak hitz egingo zuela esanez, mikrofonoa aho aurretik baztertu eta mutu geratu zen, sukarrak jota bailegoen.

Aranaren aurkezpena eredugarria izan zen. Hitz bakar bat ere ez zuen soberan, eta kazetariei lana behar bezala murtxikatu zien, beharrezkoak zituzten informazioak taxuturik emanaz. Liburuaren edukiaz gehiegi luzatzea ez omen zuen merezi, *Eros* izeneko lehen liburuaren irakurleak ondo baitzekien zer plazer mota ekar zekiokkeen *Eros 2*-k. Bestalde, inspirazioa nondik zetorkion galdetzen zuen kazetari bati zera erantzun zion, dena kontzeptuan zegoela, iturburu zen ideian. Idazketa bera kontzeptuaren eratorpen automatikoa baino ez zela. Ez zuen luze jo aurkezpen formalak eta, bukatzerakoan, elkarrizketen txanda heldu zen. «Laminen osina» programako kamerak bertan zeuden aurkezpenaren inguruko giroa hartzeko eta prentsa idatziko kazetariak zein irratikoek ere Arana elkarrizketatu ahal izan zuten, oztoporik gabe. Juleneri ere hurbildu zitzaion ETBko ekipoa, berak ezetz egin arren besoak gorputz aurrean astinduz, eta plastiko malguzko zakil zuri luze batzuk erakusgai zituen apal bat atzean zeukala erantzun behar izan zien hainbat galdera xelebriari. Fokoa aldendu zenean, oraindik erdi-itsuturik, begiradaz denda luzera osoan miatu eta Agirre falta zela ohartu zen. Ondoan zuen kazetari bat itaundu zuen baina ez zegoen editorearen arrastorik. Haranalde beregana zetorren.

—Kaixo Fede.

—Kaixo Julene.

—Ikusi al duzu Agirre?

—Kanpora joan da. Itzultzeko asmoz, ulertu diodanez. Zer moduz biografia?

—Pattal. Berrizarren arrebarekin egon nintzen baina, pertsona atsegina eta eskuzabala den arren, material gutxi bildu dut. Eta, atzo, elkarrizketatu behar nuen seminario garaieko lagun mina, Pablo Aurrenetxea, hil zela jakin nuen. Nerabearoa lanbro artean geratuko den beldur naiz, inkestak ez badu ezustean hobera egiten.

—Probatu al duzu alarguntsarekin? Agian jakingo luke zeozer senarra zenaren gaztaroaz.

—Alzheimerrak jota dago.

—Ez nekien. Orain dela urte bat Berrizarri elkarrizketa bat egin nion *Diario Vasco*-ren gehigarri-rako eta senar-emazteak batera eduki nituen nire aurrean. Bikote xarmagarria. Eta ze emakumea! Bai, urte bat izango da, ez gehiago. Bada, burua ezin garbiago zeukan. Gastonek baino hobeto. Hortxe daukazu Agirre.

Besagaina ikutu ondoren editorea seinlatu zion hatzaz.

—Egongo gara. Durangon, akaso?

—Ez dakit joango naizen. Oporrak hartzekotan nabil. Hamar urte daramatzat azoka madarikatu horretara hutsik egin gabe joaten eta nago ez ote diodan alergia hartu.

—Posible litzateke zure elkarrizketa horren kopia bat lortzea?

—Bidaliko dizut postaz.

Bilo sintetiko horituriko hankatarrea zeukan giza tamainako panpina hanpagarri ikusgarriaren ondotik pasa zen Agirre, ia erreparatu gabe, balantzaka bezala, begiak ezerezean iltzaturik, eta ez zion erantzun Juleneren deiari. Eskuaz sorbaldari oratuz gelditu behar izan zuen burua itzul zezan eta azkenean kasu egin ziezaión. Ez zen trenpu normala harena.

—Mikel.

Argitaldaria bere lokamutsetik ateratzea lortu zuen.

—Ah, Julene. Zer moduz?, ahoskatu zuen, moteldurik.

—Gaixorik zaude?

—Ez, ez —esan zuen desenkusatz bezala eta musuzapiaz bekokiko izerdia xurgatuz—. Gripe arrastoren bat.

Liburuaren aurkezpen ekitaldia, *stricto sensu*, amaitutzat eman zitekeen, baina sex-shoparen jabeak ez zuen bere saltokiaren promozioa egiteko parada ezin hobea alferrikaltzeko asmorik. Bertan bildutako idazle zein argitaldari nahiz geratzen ziren kazetariak, oro, lokalaren bisita komentatu bat egitera gonbidatu zituen. Inork ez zion proposamenari uko egin eta denak abiatu ziren nagusia aurkitzen zen tokirantz, alegia bisitaren abiapuntu izango zen dendako kutxarantz.

Julenek ondoeza izateko zorian zirudien argitaldariari besotik tira egin zion.

—Goazen, hitz egingo dugu bisita egin bitartean.

Pittilingorriren jabea, ezohiko publiko hura eskura edukitzeaz pozik, saltoki luzearen apal-altzarietako produktu meta ezberdinak aurkezten hasi zen, errotulo elebidunak behin eta berriro harrotasun handiaz nabarmenduz. Bideo zintak —bakarren bat euskarara bikoiztuta—, plastikozko alu zein zakil artifizialak, baselina poteak, larru beltzeko mozorro nahiz kuleroak, kolore zein lurrin guztietako preserbatiboak, gay aldizkari pornoak, Pittilingorri logotipodun nikiak, iruzkin txantxatiak eragin ziztuzten zigor luzeak beirazko erakuslehioxka batean. Jende guztia pozik zebilen lokalaren luzera osoa hartuz, nagusiaren ohar eta azalpenei esker jakinmin aitorgaitza aseurik eta etxera itzultzerakoan behingoz gauza interesgarri bat kontatu ahal izango zuten ideiaz alde zurretik gozatzzen zutela. Bizkitartean, jabea, gaztea izanagatik, komertzioan aditua zen eta hoberena bukaerarako utzia zuen.

—Bisitarekin jarraitu nahi dutenak hurbil daitezela berriro niregana, mesedez.

Bi bider errepikatu gabe berriro denak bere inguruan zituen, mulko bihurturik.

—Ez da bukatu, ala?, galdetu zuen gizon bibotedun batek.

—Pittilingorri sex-shopa zakila bezalakoa da —erantzun zuen jabeak bere bisitaren arrakastak beroturik—, tamainaz bikoizten da pixka bat kitzikatuz gero.

Dendaren atzekaldean, eraikinaren beste aldearekin bat egiten zuen pasabide estu bat seinalatu zuen besoaz eta, jendea ausartzen ez zela ikusirik, aurrea hartu zuen. Pasillo estuak saltokiaren gela nagusitik ikusten ez zen ate beltz bat zeukan eskuinaldean.

—Hauek ez dira komunak —ohartarazi zuen nagusiak—, baina hemen barruan ere komuneko paper asko gatzatzen da.

Atea ireki eta lehen solairura zeraman eskailera ilun batean gora abiatu ziren bisitari denak, banan-banan, Agirre eta Julenek ilararen buztan atzeratua osatzen zutela. Agirre, pixkanaka, bere onera itzultzen ari zen eta zer egiten zuen bertan galdetu zion Juleneri, bekadunaren presentzia supitoki ulertezina egin bailitzaion.

—Biografiaz hitz egin nahi nuen lehen bait lehen. Gauzak okertzen hasi dira eta.

Solasari jarraipena ematea ez zen erraza eskaileretan gora ari zirela. Azken maila igo bezain laster nagusia berriro hizketan hasi zen.

—Pasillo luze honen bi aldeetan ikusten dituzuen ate bakoitzaren atzean kabina bana dago.

Hurbilen aurkitzen zen atea ireki eta kabina zeritzona zer zen erakutsi zien. Telebista handi bat zegoen kabina txikiaren paretari itsatsita eta pantaila piztua lau irudi kartratutan zatiturik ageri zen. Irudietako bakoitzean filme pornografiko bat ikus zitekeen. Mandoa hartu eta pelikula bakoitzak, bata bestearen jarraiean, pantaila osoa bete zuen, «*split screen*-etik *full screen*-era pasatuz», gauzari kutsu teknikoa emanaz nagusiak azaldu zuenez. Filmeetako ba-

tean bi gizon gaztek doberman bat masturbatzen ziharduten. Beste batean arrazarteko *gang-bang* bat ikus zitekeen. Eserlekuaren alboan, lurrean, zakarrontzi bat zegoen, komuneko paper «erabiliz» betea.

—Bezeroak bi kategoriatan banatuko nituzke —azaldu zuen jabeak, begiak pantailan iltzaturik zeuzkaten bisitarien nazka imintzioen eta irrien aurrean irribarretsu agertuz—. Alde batetik, sex-shop baten bezero direla asumitzen ez dutenak leudeke. Hauek ate nagusitik sartzen dira eta gehienetan aitzakia baten babespean etortzen dira. Zuk ezer galdetu ez arren. Adibidez, lagun baten soltero despedida baterako material bila dabilzala esaten dute eta gero, bukaeran, bideo bat edo beste eramaten dute, «zer den ikusteko», «behin etorritz gero». Bestetik, bezero erregularrak genituzke. Hauek eraikinaren beste aldeko atetik sartu eta zuzenean kabinetara datoz. Kontu bat irekita daukate beraien izenean eta nahi dutenean azal daitezke, inorekin kontakturik izan gabe, ez saltokiko bezeroekin, ez nirekin.

Agirrek ez zuen kabina begiratu beste zerbaiti kirika baitzegoen, Julenek ulertu berri zuenez. Sex-shop elebiduneko jabearekin limur jolasean zebilen Aranarengandik ez zituen begiak aldentzen. Jeloskor egongo zela pentsatu zuen Julenek bere artean, argitaldariaren plaka gorriz estaltzen hasia zen lepoko azal narritatua ikustearekin batera.

—Mikel. Badaukazu denbora pixka bat hemendik irtetzean hitz egiteko?

—Laster joan beharra dut. Gure Gauzak-en egoitzan hitzordua daukat.

—Goazen behera orduan, hauek bisita bukatzen duten artean.

Zurubi estuan behera egin zuten, taldea solairuan utziz. Saltokia hutsik zegoen eta goikaldearen bisita hasi aurretik, inor sar ez zedin, nagusiak sarrerako ate nagusi opakoa itxi zuenez, neoi larrosek eta foko ubel batzuek baizik ez zuten argitzen tokia.

Zigorren erakuslehio argituagoaren ondoan jarri ziren zutik.

—Hasi al zara elkarrizketak egiten?, galdetu zuen Agirrek, Aranarengandik fisikoki urruntzeak lepoko narritadurak gutxitu bide zizkiolarik.

—Berrizarren arrebarekin egon nintzen. Elkarrizketa grabatuta daukat eta erabilgarriak diruditen argazki bi ere eskuratu ahal izan nituen.

—Ondo. Beraz, zein da arazoa?

—Pablo Aurrenetxea.

—Ez du hitz egin nahi?

—Ez du gehiago hitzik egingo.

—...

—Hil da. Orain dela hiru egun. Apaiztegiko urteak pikutara. Gainera amorrua ematen dit zeren arrebarekin egon eta gero, iruditu zitzaidan ez zegoela oso argi zergaitik alde egin zuen seminariotik 1938an.

—Gerra.

—Ez ba. Iheslari edo errefuxiatu hitzak esanarazteko nereak eta bi eginagatik, Manuelak ez du erantzun garbirik eman nahi izan asuntioaz. Behar bada eleberri gehiegi irakurria naiz, baina zerbait ezkututzen zidalako sentipena izan nuen.

Berriro artega nabaritu zuen editorea atera hurreratu eta irekitzen saiatu zen, denda barruko giro morean itoko balitz bezala. Bigarren ahaleginean irekitzea lortu eta espaloiera atera zen, Juleneri berarekin kanporatzeko eskatuz eskuaz.

—Baliteke bai, nobela gehitxo irakurri izana, Julene. Ez ahantzi baserritarren seme eta seminarista izandako euskal idazle baten bizitza kontatu behar duzula. Hori bai, bere garaieko literatura modernoena eta puntakoena ondo ezagutzen zuen norbaitetaz ari gara. Dena den, nik uste bere idazkietan bere bizitzan baino ausardia gehiago egon zela.

Karrikako komertzio bakarretakoa zen Pittilingorri, auzoa bera hondar urteetan hazia baitzen, eta ez zebilen arimarik ostarte batek argitu berri zituen espaloietan zehar.

—Zer egin dezaket orain?, galdetu zuen Julenek, aholku konkretu baten bila.

—Gure Gauzak enpresa ahaltsua izango da baina ezingo dizu Aurrenetxea berpiztu, nahi izanda ere.

—Ez al du merezi beste lekuko berriren bat aurkitzea, nire zerrenda duin gera dadin.

—Bai, baina nor? Nago, orain arte zerrendan zenituen lekukoei zuku gehiago atera beharko diezula eta, behar bada, iturri idatzietatik gehixeago edanez konpentsatuko duzula Aurrenetxearen desagerketak eragindako galera.

—Eta alarguntsarekin zerbait egiten saiatuko baintz..., iradoki zuen Julenek.

—Esan dizut ez dagoela gajoa lekukotzak egiteko moduan, erantzun zuen, lehor, Agirrek.

—Badakit ezin duela hitz egin. Haatik, Berrizarren testu ezezagun batzuk, edo beste moduko dokumentuak eduki ditzake. Ez duzu uste?

—Burugogorra zara, gero. Egin ezazu nahi duzuna, baina berriro diotsut denbora galdu besterik ez duzula egingo.

Sex-shopetik jendea ateratzen hasi zen, alai eta builatsu, nagusiak atarian denak banan-banan agurtzen zituelarik, bostekoa eta prospekto bana luzatuz. Arana ikusi zuenean Agirrek eskumuturreko ordularia begiratzeko keina egin eta joan beharra zuela esan zion Juleneri.

—Zer egingo dut, beraz?, lehiatu zen Julene, erantzunik eman ezean ez zuela joaten utziko ulertaraziz editoreari.

—Begira, Andoni Urdangarinekiko hitzordua aurreratu egingo dugu. Ikusiko duzu, nahi beste informazio emango dizu berak. Oso ondo ezagutu zuen Berrizar. Berak esango dizun guztiarekin nahikoa ez bazenu, baina ha-

rrituko nintzateke zinez, bada, asmatuko dugu zeozer. Deitu bulegora bihar goizean eta esango dizut noiz elkarrizketatu ahal izango duzun.

Argitaldariaren proposamenak erabat asetzen ez bazuen ere, joaten utzi zuen. Bisitari denak alde eginda zeuden eta Arana zen bertan gelditzen zen bakarra. Porno-entresari euskaltzaleak musu bi eman zizkion eta, adiskideturik, elkar agurtu zuten.

Arana irribarretsu ondoratu zitzaion Juleneri.

—Gure editoreak dagoeneko alde egin du? Sex-shopean *Eros 2* salgai jarriko duela ziurtatu dit tipoak. Jatorra benetan, gehitu zuen itxi berri zen ate beltzerantz burua itzuliz.

—Oraintxe bertan. Portaera arraro samarra izan du gaur, ezta? Normalean txapa sartu behar zuen zure liburuaz eta apenas ahoa ireki duen prentsaurreko guztian.

—Gizaseme bitxia da, ohartuko zinenez, esan zuen Aranak konplizitatea iradokitzen zuen tonuaz.

Zuhur jokatzuz, Julenek ez zuen iruzkinik egin. Aranak jarraitu zuen.

—Badakizu zer kontatzen den, ezta? Behin baino gehiagotan negarrez atera direla bere bulegotik idazleak.

—Bai, entzuna daukat zurrumurrua.

—Dirudienez oso era sadikoan jokatzuz du gustatzen ez zaizkion liburuen egileekin.

—Edo gustuko ez dituen egileen liburuekin.

Aitortza herabe bat egitera animatu zuen Julene Aranaren tonu adiskidetsuak.

—Egia esan, nirekin ere jokamolde arraroren bat edo beste izan du.

—Ah bai?

—Beno, ez da oso gauza... ikusgarria. Xhetasun bat.

—Konta, konta.

—Bada, biografia dela-eta elkarrizketatu beharreko jendeen zerrenda bat osatu genuen gure lehen lan bileran,

hirurok elkarrekin bazkaldu genuen egun hartan. Eta gerotik, zorte txarra, zerrendako bigarrena, zeinengandik asko espero nuen, hil egin da. Orduan material gutxiegi-ekin aurkitzeko arriskua daukat.

—Eta?, Juleneren aitortzaren erritmoa bizkortzen ahalegindu zen Arana.

—Kontua da Gaston Berrizarren alarguntsa ikustea edo haren izena bera ere ahoskatzea galerazita daukadala. Alzheimerak jota omen dago, eta kitto. Ez da aipatu behar. Alta, gaur bertan, zure prentsaurrekoa hasi aurretik Haranalde, *Diario*-ko kazetariak, esan dit iaz egon zela atsoarekin eta burua garbi zeukala.

Aitortza kilikagarriago bat espero bide zuen Aranaren aurpegiak atsekabe arin bat salatzen zuen arren, indar bat egin zuen Juleneren kezkekiko hurbiltasuna adierazteko.

—Zoaz jakitera ez ote den matxismoz oztopatzen ari Berrizarren emaztearen presentzia biografian...

—Ez dut uste. Lehengoan idazlearen arreba elkarrizketatu nuen eta haren izena Agirrek emana zidan. Baina ez zaitut aspertu nahi nire kontu hauekin, neska. Pozik al zaude liburuarekin?

—Bai, bai. Lasaiago egongo naiz inprimaturik ikusiko dudanean. Durangorako prest ez balego, desastre komertziala litzateke. Egin dugun aurkezpenarekin... liburu salduenaren saria lortzeko modua legoke.

—Oso originala izan da aurkezpena.

—Eskerrak idazleok mugitzen garela promozioa egingateko. Argitaletxeen zain bageunde...

—Kazetariak pozik atera dira. Aurpegietan ezagun zuten. Artikulu sorta ederra espero dezakezu.

—Hala bedi.

—Zenbat ipuin ditu *Eros 2*-k?

—Oraindik ez dakit. Ez dugu erabaki. Hamarretik gora. Durangora joatekoa zara?

Ez bide zuen liburuaren edukiaz luzatzeko gogorik.

—Bai. Erne-ren saltokian egongo naiz, *Nire mutil lagun martzianoa* defenditzen.

Agirrek lagundu zion Urdangarinen bulegoraino. Gure Gauzak-en egoitza nagusiko bostgarren eta azken solairuraino iristeko igogailua hartu eta, bertan aurkitzen zen eta behelaldeko kankailuaren anaia bixkia zirudien zaindari erraldoia agurtu ondoren, blindatu itxuradun ate pisu baten eskuinaldeko botoitxoan zanpatu zuen editoreak. Eran-tzun baten beha zeudela, sapaïetik zintzilikatutako bi kamerari erreparatu zien Julenek, atearen alde bakoitzean. Hots metaliko txiki bat entzun zen, kisketa automatikoa ireki zen seinale. Agirrek, berak ez zuela barrura sartzeko asmorik adierazi zion, buruaz ezezkoa eginez. «Grabagailurik ez» kontsigna oroitarazi zion editoreak eta eskuetan zeraman koaderno eta bolaluma erakutsi zizkion beste behin Julenek. Besoaz «aurrera» egin zion eta «gero arte» batez agurtu zuen, atea bere atzean utziz.

Bi aterean artean zegoen orain, lurretik sapaïera zur ilunezkoa zen lau metro karratuko igarogela batean. Bigarren atea berez ireki zen, edo hobeto esateko, Urdangarinek ireki zion. Kostatu zitzaion bekaren zeremonian urrutitik eta une motz batez besterik ikusi ez zuen gizona ezagutzea. Ez zen bere irudimenean bezain zabala eta trajea soinean eduki arren, ez zeraman ttattarrik. Uste baino txikiagoa zen, bestalde, eta perfumea edo desodorantearen arteko lurrin erasokor batez blai zegoen.

—Oihanburu?

—Bai.

Banana formako bulego beltz eskerbaren aurreko aul-
kian esertzeraz gonbidatu zuen, bera behi gorri larruzko
besaulki sakon eta luzean kokatzen zen bitartean. Bulegoa-
ren gaineko hiru telefonoetako batek jo zuen, harigabea zen
bakarrak, eta erantzuten ari zela baliatuz gelari behakoa
eman zion Julenek. Dekorazioa «Dallas»-en antzeko tele-
sailak gehiegi jan eta gaizki lixeritu lituzkeen norbaiten
ideiei jarraiki egina zen. Diru usaia zerien bai paretetako
margo abstraktuei, bai han-hemenka barreiatutako kris-
talezko ontzi zein zilarrezko tabako kutxari. Osagai bakoitza
berez ederra izanagatik, konbinaketa gusto txarrekoa zen.
Gorbata bulegoaren eskuinaldeko ordenagailuaren pantaila
gainean pausatuta zegoela ikusi zuen. Trajez betetako ar-
mairu batek erakarri zuen Juleneren atentzioa ondoren.
Gaztelaraz ari zen Urdangarin telefonoan, «joder», «la ma-
dre que lo parió» eta antzeko esapidez ziprztinduriko solasa
zuelarik. Gizonezkoengan biraoka aritzea birilitatea adie-
razteko zeharkako modu bat gehiago zitekeela non edo non
irakurri izana gogoratu zitzaion. Saiatu arren, ez zuen lortu
jakitea zertaz ari zen Gure Gauzak-en gerentea bere solas-
kidearekin. Ordurarte hauteman ez zuen ate estu bat ireki
zen gelaren angelu batean. Emakume bat sartu zen, hogeita
hamabost urte ingurukoa. Urdangarini paper batzuk utzi
eta Juleneri zerbait edan nahi zuen galdetu zion. Zer eran-
tzun ez zekiela ikusi zuenean Julene, proposamena beste
modu batera berritu zion: «kafesnerik, freskagarririk nahi?».

—Urdangarin jaunak zerbait hartuko du?, galdetu
zuen Julenek, bakarrik edatekotan proposamenari uko
egingo ziola adieraziz.

—Andoni erregimena egiten ari da.

Telefonoan hizketan ziharduen Urdangarinek, azken
oharra entzun eta eskuaz hitzgailua estaliz, ahapeka Coca-

Cola light bat hartuko zuela adierazi eta txaplako batzuez laztandu zuen bere urdaila.

—Eta zuk?

—Beno, laranja zuku bat, erabaki zuen Julenek.

Hortik gutxira bueltan zen emakumea, erretilu batean bi edariak zekartzala. Orduantxe eskegi zuen telefonoa Urdangarinek.

—Oihanburu!

—Bai.

—Oihanburu, Oihanburu... ezaguna egiten zait abizena.

—Ah?

—Oihanbuu... Bah, gogoratuko naiz. Ea ba. Zer jakin nahi zenuen?

—Gaston Berrizar biografia bekaren irabazlea naiz. Eta, ba, elkarrizketa egitera nator.

—Grabagailurik ez.

—Ez.

Koaderno eta bolaluma erakutsi zizkion, Agirreri bezala.

—Ondo. Nondik hasi nahi duzu?

Coca-cola lata ireki eta edukia edalontzian hustu zuen, aparraren igoera kontrolatuz.

—Noiz eta nola ezagutu zenuen Berrizar?

Erantzuten hasi aurretik, bere idazkari-zerbitzaria desagertu zela ziurtatu, bulegoko tirante batean gordetako txokolatina bat atera eta mokadu ederra ostu zion.

—Parisen ezagutu nuen 1969an —Coca Cola zurrutada bat ahoratuz, txokolatina zatiari eztarrian beherako bidean lagundu zion—. Kontabilitate ikasketak amaitu berria nintzen, hemen Donostian, eta han errefuxiatu zen ikaskide ohi bat bisitatzeraz joan ginen lagun batzuk... eta, bidena-bar, Paris ikustera. Ikaskide hark gora eta behera ibili gintuen Parisen barrena —Eiffel dorrea, estriptisak, jatetxe

mota guztiak— eta arrats batez Euskal Etxera joatea erabaki genuen, bertan afari-kantaldi bat antolatzen zela eta. Afariaren antolatzaileetako bat zen Berrizar. Gizon atsegina. Orduan berrogeita hamar bat urte izango zuen eta nik, berriz hogeita bi eskas. Asko hitz egin genuen, asko edan ere. Eta bere etxera gonbidatu ninduen hurrengo egunerako. Lagunak utzi eta afaltzera joan nintzen, biharamunean. Ez zegoen bakarrik. Emaztea ere han zen. Berrogei bat urteko emakume eder baina hotza. Sonia Clémence. Paskal Egiategi, azken honen emaztea, Ion Mirande eta britainiar bikote bat ere bertaratuak ziren. Nik garai hartan ez nuen euskaraz tutik ere irakurtzen, gazteleraz ere gutxi —ez naiz inoiz irakurzalea izan— eta ez nekien norzuk ziren tipo haiek. Kontua da mundu bat zabaldu zela nire aurrean. Pertsona kuriosoak iruditu zitzaizkidan guztiak, gauza bitxietaz hitz egiten zuten euskara ere bitxiago batean, edo tarteka frantsesez, emazteek eta britainiarrek uler zezaten. Izugarritzko proiektu intelektual eta literarioak aipatzen zituzten eta ez nekien txantxetan ari ziren ala iluminatu talde bat zen. Beraiek irri egiten zutenean irri egitera mugatu zen nire ekarpena arrats guztian. Hura izan zen, pentsatzen jarrita, Berrizar hain zorionsu ikusi nuen aldi bakarra. Ametsez eta xedez gainezka zegoen. Liburu bat idatzi berria zuen, Mirandek gure aurrean laudatu zuena, eta Euskal Herrira bizitzera eta «bazterrak asintzera» itzultzeko asmoa zeukan ordurako. Beste gauza askoren artean argitaletxe bat sortzeko asmoa agertu zuen eta Miranderi berriro idazten hasi beharko zukeela esan zion. Mirandek ez zuen sinesten argitaletxearen kontua bidera zitekeenik. Eta Euskal Herriko mentalitate eta giro intelektual hitsean pentsatzeak bakarrik gaixotu egiten zuela esan zigun. Afari horretan, txantxa artean, argitaletxe berri horren kontu eramaile izango nintzela erabaki zen.

—Eta hala gertatu zen.

—Segituan ez. Urte pare bat igaro zen. Berrizar bere liburua argitaratzen saiatu zen garai hartako argitaletxe zein aldizkarietan. Baina luzeegia zeritzoten aldizkari batean agertzeko eta ulergaitza liburu gisa argitaratzera ausartzeko.

—*Eskribitu gabeko poema zen liburu hura?*

—Bai. Baina beste izen bat zeukan ordu hartan. «Berbestea», edo antzeko hitz joku bat.

Laburduraz laburdura, ahal bezala papereratzen zituen Julenek gerentearen hitzak. Estu eta larri ikusirik elkarrizketatzailea, Urdangarinek isildu eta Coca-Cola-tik dzangada berria hartu zuen, harik eta Juleneren eskua paper gainean geldirik eta gertu zegoela ziurtaturik berriro ekin zion arte kontaktari.

—1972an, azkenean Iparraldera bizitzera jaitsi zen Berrizar. Emazteak frantses irakaskuntza nazional publikoan lan egiten zuen eta Euskal Herrian postua eman zioten. Ulertu dudanez, hemen ez bezala sistema zentralizatua izanki, puntuak pilatu behar dira nahi duzun Frantziako eskualdera bidalia izateko. Eta puntu horiek antzinatasunak, edo haurrak izateak eman diezazkizuke, besteak beste. Haurrik ezean, eta orduan berrogei urte zituenez Soniak, kosta egin zitzaion Euskal Herrian postua eskuratzea. Horregatik ez zen lehenago itzuli Berrizar honera bizitzera. Itzuli arteko epean bizpahiru aldiz elkar ikusi genuen. Beste behin Parisen eta bi bider, oker ez banago, Euskal Herrian. Donostian, nik gonbidaturik, eta Baionan, Euskal erakustokian antolatu zen Euskal Astean. Geroago eta erreago ikusi nuen. Euskal Herritik kanpo eta urruti bizitzea jasangaitza bihurtzen ari zitzaion, are jasangaitzagoa belaunaldi berrien mentalitate eta erreferentziekin bat egiten zuelako, luzaz bakardade intelektuala pairatu ostean, bere hitzetan. Honera etorri eta saltsa gutietan esku hartzeko irrikan zegoen. Bestalde, «Berbestea» hainbat euskaltzale adituri irakurrarazia zien eta Mitxelena

bezalakoen oniritzia izateak argitalpenaren atea zabaldu ez zizkiola ikusteak sutan jartzen zuen.

—Orduan sortu zenuten Gure Gauzak?, galdetu zuen Julenek kontakizunaren segida logikoari aurrea hartuz eta, bide batez, kontalariaren jarioari etena inposatuz.

—Ni joan nintzaion gogorazterera Pariseko afari hartan alkoholaren eraginpean behinola eraikitako fantasiako xede hura. Lanik gabe nengoen une hartan, 1971ko udan, eta argitaletxe euskaldun berri bat sortzeko abagune egokia izan zitekeela neritzon. Ez nuen aski ezagutzen idazleen mundua. Bizkitartean, kontabilitate ikasketek eta ondotik izandako esperientzia profesional laburrak horrelako enpresatxoak kudeatzeko adina nintzela pentsarazi zidan.

Une hartan, Coca-Cola trago bat hartu eta hari nagusitik desbideratuko zela adierazi nahi zuen irribarre bat marraztu zuen, begiak edalontzian finkaturik zituela.

—Zer izaten den gaztetasuna. Haur mukizu bat besterik ez nintzen eta, hala ere, ausartu...

Julenek bere azken iruzkina paper gainean etzan ez zuela ikusirik, berriro hari nagusira itzuli zen Urdangarin.

—Bera eta biok osagarriak izan gintezkeelakoan, argitaletxea abian jartzeko proposamen zehatz eta konkretua egin nion, estatutuen zirriborroa idatziz eta postaz Parisera bidaliz. Argitaletxea zutik jartzeko kapitala ere aurkitu beharra zegoen eta diru bila ibiltzeko prest nengoela adierazten nion gutunean.

Jarrai zezakeela keinu egin zion Julenek, matxuratu-tako bolaluma ordezkatu ondoren.

—Ez zidan segituan erantzun. Berriro idatzi nion. Gutun bat bidali zidan. Ez zituen gauzak garbi ikusten. Oraindik ez zekien hurrengo hilabeteetan Iparraldera bizitzera etortzeko baietza jasoko zutela bera eta emazteak. Urrutiegia sentitzen zen hain xede konkretua aurrera eramateko. Horrela segituz gero xedea pikutara zihoala senti-

turik, hirugarren eskutitz bat bidali nion. Bertan, argitalexarearen lehen argitalpena bere liburua izan zitekeela iradokitzen nion. Gastonen Akilesen orpoan bete-betean jo nuen. Hortik egun gutxira telefonoz deitu ninduen eta elkarrizketa luze bat izan genuen lana banatzeko. Kapitala biltzeko, suskripzio bat ireki genuen gure ezagunei bidali geniena. Eta Berrizar hurrengo udan, 1972an, Baionan bizitzen jarri zenerako *Eskribitu gabeko poema* salgai zegoen, Gure Gauzak sortuberriaren eskutik.

—Istorio polita, komentatu zuen Julenek.

—Politagoa izan zitekeen —ñabartu zuen Urdangarriek zilarrezko kutxatik zigarro bat hartu eta pizten zuela—. Gure Gauzak-en lehen eta azken liburua izateko zorian egon zen *Eskribitu gabeko poema*.

—Zer dela eta?

—Ez genuen lortu saltzea. Inbertsio handia izan zen, gainera.

—Ez zen saldu?! Baina...

—Bai, bere arrakastaxoa izan zuen, eta izena ere eman zion Gastoni. Haatik, lau katuk irakurri zuten... eta bik erosi. Garai hartan ez zegoen merkaturik. Are gutxiago liburu mota horrentzat. Pentsa, gaur ere dirua galduko genuke horrelako liburu batekin. Eta gertatu behar zena gertatu zen...

Zigarroa hautsontzian zapalduz itzali zuen.

—Haserretu egin ginen. Lortutako ospeak burua berotu zion nonbait eta bere elukubrazio literario txikiena ere argitaratu nahi izan zuen. Bitartean, ni editorialaren biziraupena ziurtatzeko irtenbide bila hasi nintzen eta borroka latza izan zen ezen fundatzaileen arteko bileretan —azkenean hogeita bost lagunen diru inbertsioaz eman baitzitzaion hasiera abenturari— sesio gogorak izaten baitkenituen berak eta biok beste guztien aurrean. 70eko hamarkada bukatu arte iraun zuten sesio haiek. Eta nire

ikuspegi errealista, zorionez, gailendu egin zitzaion be-
reri. Nire eraginez hartu ziren argitaletxeari zinezko bul-
tzada eman zioten norabide estrategikoak: produkzio katea
osorik kontrolatzeko ideia —inprimategitik saltokiraino—,
diskak ere ekoiztea kantagintza berriaren boom-ean ber-
matuz, eskoletarako testu-liburuak eta haur eta gazte lite-
ratura lantzea sortzen ari zen merkatu berriaren beharrei
erantzuteko, etabar luze bat. Jakina, Gastonek ez zuen jasan
protagonismoa galtzea. Badakizu, artista baino narzisikoa-
gorik... Nire zentzuzko ikuspegia nagusitzen ari zela ulertu
eta, bide batez, nabarmena egin zitzaionean gainerantzeko
fundatzaileek bere ameskeri intelektualisten aurrean eus-
kal kulturaren zerbitzuko benetako enpresa serioa zutik
jartzeko xedea hobesten zutela, bere kabuz, Gure Gauzak
de facto uztea erabaki zuen. Fundatzaileen bileretara ez
etortzen hasi zen eta, urteak pasatu ahala, bere noiz behin-
kako haserrealdi eta protestak urrituz joan ziren, harik eta
iaz, heriotzarekin tratuan hasi zenarekin batera, bere ak-
zioak eta izenpedura ofizialki utzi zituen arte, bere porro-
ta aitortuz eta gure asmoen gauzatze arrakastatsua onartuz.

Juleneren begitarteari une batez kirika egon eta inti-
motasuna eta diskrezio nahia iradoki nahi zituen tonuaz,
zera gehitu zuen:

—Ez daukazu zertan errepikatu esan dizkizudan az-
ken gauzatxo hauek, jakina. Hobe gehiena isiltzea. Bere
akatsak ugariak izanagatik errespetu eta txera handia diot
Gastonen oroitzapenari eta biografiaren helburua omen-
duaren irudi positiboa ematea da, kasu honetan bereziki.
Aipa dezakezu, adibidez, Gure Gauzak-en sorkuntzan edo
aurre historian zeresana izan zuela eta euskal kulturak
beste gauza askoren artean zor dion zerbait dela hori. On-
doren, politagoa gelditzeko eta alarguntsari pena gehie-
girik ez emateko, zera erantsi: bere energiaren zatirik han-
diena, halere, sorkuntza literarioari eskaini ziola, euskal

letren onerako, etabar, etabar. Badakizu nola egiten diren gauza horiek. Finean, zu zara bekaduna.

Idazteari utzi zion Julenek gerentea azken «aholkuak» ematen hasi zenetik eta azken hau sorpresaz harrapatzea lortu zuen bere bat-bateko galderarekin.

—Eta 1971eko zuen arteko gutunak berreskuratzea legoke?

—Zertarako?

—Bada, biografian pasarteren batzuk, edo *fac-simileak* sartzeko, eranskin gisa.

—Esan dizut Gastonen oroitzapenaren kaltetan aipatuko zenituzkeela Gure Gauzak-en inguruko xehetasunak. Gainera... Auskalo aurkitzerik dagoen material guzti hori. Nik behintzat aspalditik galdua dauzkat. Ez nituen gordetzen horrelako gauzak. Izan ere, nork jakingo zuen Historia egiten ari ginela?... Hobe eginkizun literarioan zentratzea biografia. Behingoz norbaitek omenaldi duina egin diezaion esker txarreko herri honetan.

Barraskiloaren antenak ukitzean gertatzen denez, uzkurtzen ikusi zuen Urdangarin, egin berri zion galderarekin. Berririo konfiantza giroa berreskuratze aldera, Julenek solasaren norabidea aldatu eta Berrizarren nortasuna deskribatzea eskatu zion.

—Gaston, zilegi bazait horrela hitz egitea, tipo ahula zen psikologikoki. Ez dakit nola deitzen zaion izaera horri... tira, lipar batean euforiatik malenkonia sakonenera igarotzen direnetakoa zen.

—Ziklotimia, nik uste.

—Hori izango da. Hortik errealitatea, konkretasuna eta pragmatismorako bere ezina. Amets gizona zen; ez ekintza gizona. Bere ihardueren ehuneko laurogeita hemezietzia burmuinetan koka zitekeen. Alde horretatik, pairatzen zuen elbarritasun fisikoa bere nortasunaren metafora bat baizik ez zen. Ba al dakizu txikitan Lekeition «Eskutxu» goitizena jarri ziotela?

Baietz egin zuen Julenek buruaz.

—Bada, halakoaxea zen Gaston. Eskua ahulegi bu-ruak irudikatutakoa gauzatu ahal izateko. Bestalde, horre-tan zetzan bere xarma. Fina zen, irudimen oparoko per-sona. Asko irakurria. Arlo horretaz dagoeneko nik bezainbat jakingo duzu. Fintasun hori, berriro diotsut, ahuleziarainokoa zen. Hainbestekoa non, kasu, emazteak gaina hartua baitzion. Ekintzarako ahalmen pittin bat gehiago eta pentsatzeko ahalmen gutxixeago izan balitu, hots, nortasun orekatuagoa izan balitz berea, figura hand-ia izatea lortuko zuen, apika Aresti baten parekoa. Tamalez, bigarren mailako figura izatea doi-doi erdietsi zuen. Orain guri, zuri bereziki eta konkretuki, dagokigu ahal den neurrian bere ekarpenari zor zaion begirunea itzultzea, birbaloraketa batera bultzatuz jendea.

Azken esaldiak borobil atera zitzaizkion gerenteari eta zigarro berri bat piztuz saritu zuen bere burua. Une har-tan, Urdangarinen idazkaria sartu zen gelara eta eskumu-turrean zeraman ordularia seinالاتu zuen hatzaz. Gure Gauzak-en ordezkari nagusiak bulegoko ordulariari so egin eta «ulertu dut» esan nahi zuen keinua egin zion, ez-painak bilduz eta burua doi bat makurtuz. Begi batez idazkaria zaintzen bazuen, besteaz, bulegoaren gainean agerian gelditutako txokolatinaren paper urdinezko bilki-na kirikatzen zuen, Julenerena zela sinetsiarazteko aukerak kalkulatz. Idazkaria ezertaz ohartu gabe atera zen gelatik. Bilkina zakarrontzira botatzeko zorian zegoela, ideia hobe bat bururatu eta patrikan sartu zuen.

—Bilera garrantzitsu bat daukat eta barkatuko didazu joan beharra. Entzungo zenuen Melchor epailea gure kon-tuak arakatu nahian dabilela... Egia esan, zinismo apur batez hitz egitea onartzen badidazu, urduritzen ere hasia nintzen. Euskalgintza guztia inkestapean, gu ezik... Ez zen normala. Tira, ia lasaitu egin nau agindu honek. Orain

behintzat ezin esango digute, «batzuek», militanteak ez garenik... Nahikoa al da kontatu dizudana?

Azken galdera guztiz erretorikoa zen eta erabilitako tonuak argi asko aditzera eman zion Juleneri ez zuela jarraipenik izango elkarrizketa hark. Ordenagailu gaineko ttattarra hartu eta lipar batean korapilatu zuen lepo inguruan Urdangarinek. Idazkariak trajez betetako altzaritik urdin ilun bat aukeratu eta luzatu zion nagusiari, hor arte soinean zeramana beste eskuaz berreskuratzen zuen bitartean. Julene altxatuta zegoen agur keinu baten zain eta horretaz ohartu zenean, Urdangarinek lodia izanagatik umela eta hotza zen eskua luzatu zion, labur. Idazkariak lagundu zion ate bikoitzeraino.

—¿Qué hora es?

—Casi las once. ¿Llegamos a tiempo?

Julenek baietz erantzun zion Martari, kotxetik jaitsi eta karpa zurirantz abiatzen zirelarik. Hamaiketan Erne argitaletxearen saltokian agertuko zela agindua zion Jexux Mendekoa helduen literatur sailaren zuzendariari, *Nire mutil lagun martzianoa*-ren aleak erosleci izenpetzeko. Durangoko liburu eta diska azokan idazle moduan parte hartzen zuen lehenengo aldia zen eta zirrara antzeko zer-bait sentitu zuen karpara sartu eta bertan pilatutako jendetzan murgiltzerakoan. Jendeak prentsan agerturiko argazkietatik edo telebistan egindako agerpenetik ezagutuko zuen beldurrez —edo antsiaz—, ez zen ausartzen begirada gurutzatzen zituen gizon-emakumeen begien mailan mantentzera. Esan gabe doa ez zuela inork ezagutu. Buila hark horditurik bezala, ia andarka iritsi zen Erneren saltokiraino. Liburuetara gerturatzen saiatu zen, alferrik, baina halere bere nahia bete zuen, han ikusi baitzituen, bi ilara trinko osatzen zituzten jendeen arteko zirrikitu batetik begirada linburtuz, bere liburuaren aleak salgai. Gehiago hurbiltzea, edo, are, ukitzea, ezinezkoa zela etsiturik, zuzenean Mendekoarengana joatea hobetsi eta helduen literatur saileko liburuak aurkitzen ziren aurkezmahaietarantz abiatu zen, Marta atzetik orpoz orpo zebilkiola, gizoste hartan ez galtzearren.

—Julene! Etorri honera!, egin zuen oihu editoreak, erosleen jendarte anonimotik agertzen ikustean.

—Nola?

—Egin buelta handik, eta beso-eskuez ulertarazi zion nondik pasa behar zen liburuen beste aldera, hau da sal-tzaile eta egileen aldera, igarotzeko.

Berriro etorbidearen puntaraino joan behar izan zu-ten, Martari segi ziezaiola adierazi ostean. Behin hara iri-tsita, zera esan zion, autoan Durangorantz zetozela adostu moduan, nahi bazuen azoka bere kontura patxadaz bisi-tatu eta nekatzerakoan itzul zitekeela Erne-ren saltokira. Bera ez zela handik mugituko eguerdiko ordu batak arte eta gero bazkaltzera elkarrekin joango zirela. Martak zer-bait eroste nahi zuen galdetu zion eta, Juleneren ezezkoa jaso ondoren, disketxeen etorbidearen norabidea hartu zuen, giza korronteari jarraituz.

Erne-ren etorbidearen puntako argitaletxe ezberdinen arduradun eta langileei pasatzeko baimena eskatu zien Julenek eta etorbidearen erdian aurkitzen zen editorearen saltokiraino heldu zen.

—Ez da oso praktikoa etorbidearen erdian egotea, komentatu zion Mendekoari, beregana iritsi eta eskua sor-baldan jartzen ziola.

—Julene! Bai, egia da erosoagoa dela mutur batean edukitzea saltokia. Gure Gauzak-en kokagunea bagenu...

—Eta? Noren esku dago hori?

—Ofizialki azokaren antolatzaileen erabakia da. Baina antolatzaileak Gure Gauzak-ekin partaidetzan ari direnez... Zer moduz?

—Ondo. Zuek ere? Nola hasi da azoka?

—Ez gaizki. Baina normalean gertatzen denez, gaur eta bihar izango dugu jende gehien. Ederki saltzen ari da «martzianoa».

—Hain zuzen, horretaz hitz egin nahi nuen zurekin. Mikel Agirrerekin egon nintzen lehengoan...

—Ah, nola doa biografiarena? Zorionak beka lor-tzeagatik.

—Eskerrik asko. Badoa aurrera. Astiro, baina badoa. Zera, Agirrerekin egon naiz behin baino gehiagotan, azkenaldion, biografiarena prestatzen... eta, «Martzioanoari» segida bat idatz diezaiodan nahi du... eurek argitaratzeko, jakina.

Jarraitu aurretik, Mendekoaren begitartea kirikatu zuen, erreakzio baten preskizan. Ez zetorren oraindik.

—Zurekin komentatu nahi nuen asuntua. Zuek kale-ratu didazue «martzianoa», inoiz ezer argitaratu gabea nintzelarik, eta moralki zuei lotuta sentitzen naiz. Beraz, le-hentasuna zuena dela adierazi nahi nizun. Alegia, segida-ren bat ateratzeko gogorik bazenute, eskuizkribua lehenik zuei pasako nizuekeela.

—Eskertzen dizut. Merkatua librea da. Konpetentzia gupidagabea. Eta Gure Gauzak-ek guk eskaintzen ez dizkizugun abantaila batzuk eskaini diezazkizuke, hala nola zabalkunde hobea. Edota, kasurako, azoka honen babesa. Haserre gaude, gu eta beste asko ere. Izan ere, aurtengo azokaren aurkezpen prentsaurrekoan antolatzaileek Barriolaren azken liburua, hau da Gure Gauzak-en produktu bat, erostea aholkatu baitute, inolako eskrupulorik gabe. Hemen ez dago berriketarik! Hortaz, askatasun eta eskubide osoa duzu argitaletxez aldatzeko, gure arteko hitzarmenak ez baitu, eta ez baitezake —ilegala litzatekeelako— hori galerazi. Bestalde, gudu komertzial honetan gu ere ez gara armagabeak. Erne-k berme instituzional sendoa du eta obren zein autoreen katalogoa ikusi besterik ez daukazu gurean argitaratzea interesgarria izan dela beti jabetzeko. Nik, helduen sailaren arduradun gisa, gure zure obrekiko printzipiozko interesa berresten dizut. Badakizu beraz nora bidal dezakezun eskuizkribua prest edukitzean. Idazten ari zara?

—Ez, ez. Hau guztia birtuala da, erabat. Momentuz, esan nizun bezala, biografiarekin nabil jo ta ke, eta gainera tesia egiteko aukera ez nuke guztiz baztertu nahi. Ez daukat, beraz, sorkuntzarako betarik, ez eta apetarik ere, egia esateko. Uste dut kostatzen zaidala biografia egitea.

—Zer dela eta?

—Gauzak ez direlako uste bezain sinpleak. Orain arte elkarrizketatutako jendeek ez didate nahi adina informazio eman eta apenas dokumentu idatzizko edo grafikorik bildu dudana eurengandik. Bestalde, lekuko bat hil egin zait ikusi aurretik, eta beste bat Alzheimerrak jota omen dago.

—Alarguntsarekin egon zara?

—Ez ba. Bera da Alzheimerra daukana.

—Sonia Clémence? Alzheimerrak jota?

—Bai. Paris aldean ei dago, eritexxe batean, ezinduta.

—Ez al zen Baionan bizi?

—Ez dakit.

—Uste dut baietz. Joan den urtean Berrizar hemen izan zen, azokan. Eta nago ez ote zen emaztearekin etorri. Behar bada aurreko urte batekin nahasten dut. Noiz hil zen bera?

—Apirilean.

—Bai. Egon nintzen ehorzketan. Baionako hilerrian lurperatu zuten. Elizkizunik gabe, portzierto. Agosti Xaho bezala, bere azken borondateari jarraiki. Argitalgintzako jende gutxi. Gure Gauzak-eko inortxo ere ez. Aldiz, Iparraldeko euskaltzain guztiak eta, orohar, bertako euskaltzaleak erruz, zahar eta gazte. Ikastola mundukoak, Berrizarraren ikasle ohiak, idazleak, militante eta buruzagi politikoak... Oso hunkigarria izan zen. Mirandereren «Lili bat» izeneko olerkia irakurri zuen Paskal Egiategik eta... bai... alarguntsa bertan egon zen. Eta ez zeukan gaixo itxurarik. Jende askorekin hizketan ikusi nuen, lurperatzearen ondorioz uneetan, Egiategik eta haren emazteak besotik oratzen ziotela.

—Egiategi urtarrilean ikustekoa naiz. Azalduko dit nola dagoen alarguntsa.

—Pena litzateke ez elkarrizketatzea. Gauza asko esango lizkizuke Gastonen biziak. Ziur. Pentsa, berrogei urtez elkarrekin bizi ondoren...

—Uste duzu norbaiten ezkontidea dela, baitezpada, berataz gehien dakiena?

Ezusteko azken galderaren egileak buruak birarazi zizkien Julene eta Mendekoari.

—Ilun!, harritu zen Julene.

—Zaldunbide jauna, luzatu zion bostekoa editoreak.

—Nortaz ari zineten? Barka solasean baimenik gabe sartu izana.

—Berrizar eta bere alarguntsaz, azaldu zion Mendekoak.

—Alzheimerra omen du, gehitu zuen Julenek, sorpresa aurpegiratu zitzaion beldurrez.

—Berrizar bezalako plastaren emaztea izan zela ahan-tzi nahi inkontzientea... Txantxetan nioen, noski.

Txisteaz egin bezain laster damutu zen Zaldunbide eta bere buruari zera ziotson errieta modura, «beti lez, ezin eutsi porrotera kondenaturiko txisteak botatzeko bulka-dari». Juleneren aurpegia begiratzera ez zen ausartu eta nahiago izan zuen bere hitzen zain geratu, borroaren haizkorakadaren beha bailegoen, lepoa hotzikaratuta.

—Zergatik lirakeke plastak beti gizonak eta ez emakumeak? Literaturarekiko hainbesteko grina edukitzeari susmagarria deritzot Berrizarrengan; ez ote zen emaztearen atzaparretatik ihes egiteko modu bat?

Ezustean, borroaren haizkorakada laztan bihurtu zen eta, pozarren, Juleneren oharrari tonu bereko oharra erantsi zion Zaldunbidek:

—Kasu horretan euskal literaturak askotxo zor lieke emakumeci.

Mendekoak ere ez zuen jokoz kanpo geratu nahi izan:
—To! Hartzak euskal literaturaren irakurketa femi-
nista!

Erosle batek informazioa nahi zuela eta, Mendekoak biratu eta erakusmahaiari erantsi zion gerria, Julene eta Zaldunbiderekin batera osatzen zuen hirukotea bikote soilean utziz.

—Ez zintudan horren goiz espero —ausartu zen Julene—, zure zutabeak irakurtzen jarraitzen dut eta arratsaldean azaltzekoa zinela ulertu nuen.

—Hori zen asmoa.

Mendekoa berriro bateratu zitzaien erosleari aholkua eman ostean.

—Esan nian Julene hamaiketan etortzekoa zuala, bota zuen, esaldi hark Zaldunbideren «asmoa» salatzen zuelako susmorik gabe.

Hiru ordu laurden egon ziren Erne-ren saltokian eta bost liburu izenpetu zituen Julenek tarte horretan. Halako batean, gizon bat hurreratzen ikusi zuten, beltzez jantzia, ile luze kizkurtua zeramana, begi urdin argiekin kontrastean. Zaldunbidek besoa altxatuz agurtu zuen.

—Pantxoa!

—Ilun, ontsa?, agurtu zuen gizonak.

—Hau Pantxoa Salaberri da, «Primadera beltza» Baionako argitaletxeko arduraduna eta Euskal Idazleen Elkar-teko batzordekidea. Handik ezagutzen dut.

—Egun kazetari gisa heldu naiz, Juleneren entrebis-tatzeko, argitu zuen grabagailu txiki bat gabardina marroi-kara ezin higatuagoaren sakela sakonetik atarez.

Ezagutu zuen egunean Ilunek zeraman gabardinaz go-goraturik, gabardina euskal literaturaren baitako konplo-tatzaile talde ezkuturen bateko kideen errekonozimentu ikurra ez ote zen izango otu zitzaion Juleneri.

—Elkar ezagutzen duzue?, harritu zen Zaldunbide.

Julenek sorbalden mugimendu batez ezetz adierazi zuen.

—Argazkietatik ezagutzen zaitut, azaldu zuen Salaberrik, eta Berrizar diru-laguntzen aurkezpenean izan nintzen, nahiz ez ginen aurkeztuak izan. Behar bada joaiten ahal gira ostatura, sobera arrabots baita, hemen, iradoki zuen berriro grabagailua erakutsiz.

Mendekoari baimena eskatu eta hiruek alde egin zuten karparen mutur batean, atzekaldean, aurkitzen zen azokaren tabernara. Joan aurretik, Julenek Marta agertuko balitz esan beharrekoa argitu zion Mendekoari, lagunaren deskribapen fisikoa zein janzkerarena eginez. Editoreak, hamaketan berarekin iritsi zen neskaz ari bazen, Martaz gogoratzen zela esanez aurreztuarazi zion zehaztapienetan sartzea.

Azokaren builatik babestuen zegoen tabernaren txokoan mahai bat aurkitu zuten libre. Edari bana eta beste hainbeste pintxo ekarri zituen Zaldunbidek mahaira Julene eta Iparraldeko kazetaria elkarrizketa prestatzen ari ziren bitartean. Grabapena hastear zeudela, tabernakoek musika jarri zuten, ozenegi.

—Kanpora joaiten ahal gira, behar bada. Ez da luzea izanen.

—Konforme. Itxarongo diguzu, Ilun? Eta, faborez, gordeko didazu motxila?

—Joan lasai —bigarren pintxo bat, normalean ez zegokiona, irensteko erabakia hartu zuen—, itzultzerakoan ekarriko dizkizuet pintxo gehiago. Pena da hozten uztea.

Karparen atzekaldea, espazio ireki bat zen, harrizka gris-urdinezko zorua zeukana, non talo-egile batzuk eta plastiko orlegizko komun ibiltariak jarri baitzituzten, besteak beste. Eguratsa epela zen abenduko lehen asteburua izateko eta eguzki errainuen agerpenak jertsea kenduarazi zion Juleneri Salaberrik grabagailua piztu artean. Galdera gehienak Berrizarren biografiari buruzkoak izan

baziren ere, *Nire mutil lagun martzianoa*-z ere ezer galdetu zion «Primadera beltza»-ren arduradunak. «Primadera beltza» argitaletxeak urtero maiatz aldean antolatzen zituen solasaldietan parte hartzeko gonbidapena luzatu zion, Berriزار ondo ezagutu zuten Iparraldeko idazleekin batera mahainguru bat antolatzeko aukera aipatuz. Ordurako lana ondo aurreratuta izango zuen itxaropenaz, onartu egin zion proposamena Julenek, Iparraldera modu ez turistikoan joateko paradak ez zituela alferrikaldu nahi argudiatuz.

—Egia da. Beti joaten gara BAB2-ra edo Kakoeta bezalako tokietara eta gutxi ezagutzen dugu bertako jendea eta bere bizimodua.

Tabernara itzuli zirenean, Zaldunbidek pintxo berriekin harrera egin zien.

—Zer moduz negozioa?, galdetu zion argitaldaria-kazetariari.

—Azoka huntan?

—Bai.

—Bo, ez sobera gaizki... eta ez ongiegi ere... zaila da guretzat. Ez dugu promozionerik egiten, jendeak gure euskalkiaz beldur dira bestalde.

Julene gizona kontsolatzen ahalegindu zen.

—Dena den, kantuak zioen bezala, «Euskal Herrian literaturak ez du inoiz dirurik emango».

—Gezur erromantikoa –oldartu zen Zaldunbide, ahotsaren gozoa galdu gabe, eta mahaikideak adi zeuzkala ikusirik, jarraitu zuen–, kalkula ezazue pixka bat zenbat diru mugitzen duen azoka honek. Har dezagun adibide bat. Zein izango da aurtengo libururik salduena?

—*Eros 2?*, proposatu zuen Julenek.

—Iosu Barriolarena, iragarri zuen Salaberrik.

—*Perpausen aja*. Bai jauna –berretsi zuen Zaldunbidek–. Bada, demagun lau mila bat ale saltzen direla, eta errealitatetik ez naiz oso urrun ibiliko, honek esan nahi

du, prezioa 2500 pezetakoa baldin bada... hamar milioi pezeta bilduko dituela argitaletxeak.

—Lau ehun mila libera, bereganatu zuen zifra Baionako argitaldariak.

—Eta gainera, liburudenda baten bitartekaritzarik gabe. Zuzenean argitaletxetik irakurlearen eskutara. Autoreak ehuneko hamarra jasoko luke, inprimategiak beste hainbeste, promoziorako beste pixka bat, eta kalkulatu zer dirutza biltzen duen argitaletxeak azokak irauten duen lau egunetan. Horrez gain, normalean editorialek katalogo guztia izaten dute salgai eta liburu berri bat baino gehiago ateratzen dute Durangorako. Eta ez ditut diskak kontuan hartu, ze bestela...

Pantxoa Salaberriren begirada urdina, nola itsas azala hodeien pean, grisera igarotzen ari zen.

—Noski, argitaletxe handiez ari naiz, fiabartu zuen Zaldunbidek.

—Ez ahantz, halere, azokan standa ukaiteak 100.000 pezeta balio duela eta dirutza hau standak dituen mahai bakoitzeko biderkatu behar dela. Barka nazazue, bainan mahai erdi bat baizik ez duen gure standera itzuli behar naiz. Panpi Bazterretxe ene beha dagoke eta eguerdi t'erditan badu mahainguru bat euskalkien etorkizunaz.

—Nik ere Erne-ren saltokira bueltatu beharko nuke, gogoratu zen Julene, Marta dagoeneko zain izango zuela pentsatuz.

—Lagunduko dizugu, proposatu zion Zaldunbidek argitaldariari, gure bidean dago «Primadera beltza»-ren saltokia.

Pantxoak gidaturik bidean zirela, Julenek bere kezka azaldu zion Zaldunbideri, ahapeka:

—Erabat ahantzita neukan.

—Zer?

—Bazterretxe. Gaur elkarrizketatuko nuelakoan geratu ginen bekaren egunean.

—Eta? Ez al da interesgarria biografierentzat?

—Ez dakit, Agirrek plasta bat dela dio, eta...

—Agirre hipokrita bat da. Jakin ezazu Ohara argitaletxeari Bazterretxe kentzen ahalegindu zela duela urte batzuk. Idazle kaxkarra izan arren errentagarria delako. Hedabideak maisutasunez erabiltzen ditu eta beti lortzen du, bere Iparraldekotasuna argumentu publizitario edo polemiko gisa erabiliz irudi bat saltzea. Hortik datorkio, ziurrenik, Agirrerri harekiko erresumina.

—Joan zu Pantxoarekin, elkartuko gara geroago Erne-renean.

—Beranduegi.

Uste baino hurbilago aurkitzen zen «Primadera beltza»-ren standetik Bazterretxe joateko zorian aurkitu zuten, Salaberri noiz itzuliko zain, luzetsita.

—Agur Julene. Badoa biografia?

—Halan halan. Elkarrizketa egingo dugu?

—Euskalkien arraberritzeaz mintzatu behar naiz bizkaitar kolega batekin, azokaren mintzaldien aretoan. Ez dut astirik. Agian sarri.

—Goiz alde egiteko asmoa dut. Hobe beste aldi batean. Parte hartuko duzu «Primadera beltza»-ren solasaldietan?

—Ontsalarz bai.

—Zergatik ez dugu baliatzen abagune hori?

—Ontsa zaut.

—Ordura arte, beraz.

Erne-renera itzuli aurretik Salaberrik «Primadera beltza» izeneko aldizkariaren zenbaki berriaren ale bana oparitu zien Julene eta Zaldunbideri, argitaletxearen defizita areagotuz, eta Bazterretxek «Primadera beltza»-rekin aspaldian —Hegoaldeko argitaletxeen zirkuitoan sartu aurretik— argitaratutako poema liburu bana ere eskaini zien.

Erne-ren saltokirako bidean zirela, Zaldunbidek argibide batzuk eman zizkion Juleneri Bazterretxeren ibilbide literarioaz.

—Panpi Bazterretxe «Primadera beltza»-ren sorreran esku hartutakoa da, 80eko hamarkadaren hasieran. Geroztik, «Primaderan» hasitako hainbat idazle legez, Hegoaldeko argialetxeetara pasatu da.

—Irakurri diot zer edo zer. Baina ulergaitz samarra egin zait, euskara motagatik.

—Kuriosoena zera da, hasiera batean euskara batuan idatzi zituela hainbat obra.

—Eta ona da?

—Inork ez daki... Hori da ez ulertua izatearen abantailetakoa bat.

—Beno, maila orokorrago batean, euskaraz idazten dugunoi ere hori bera leporatzen digute gure hizkuntza ulertzen ez dutenek. Alegia, kalitateari buruzko epaia saihesteko modu ezin hobea dela euskara bezalako hizkuntzan idaztea.

—Eta, salbuespen bakan batzuk kenduta, ez zaie arrazoirik falta.

—Ez nintzateke hain gogorra izango, Ilun. Irakurri al duzu gaztelerazko ekoizpen arrunta? Proportzioan, ez dut uste idazle onak gehiago direnik.

Marta zain izango zutela jakinagatik, presa gehiegirik gabe egin zuten Erne-ren saltokirainoko itzulera, beraien arteko harremanaren izaera definitu gabe egongo zen azken unea luzatu nahiz. Izan ere, ziotson bere buruari Julenek, Durangotik alde egiterako norabide jakin bat hartuta utziko baitzuten momentuz izenik jaso ez zezakeen lotura hura. Horrela, bidetari itzulinguru bat gehituz, *Nesken egüna* aldizkari satiriko-pornografiko-kritikoaren mahaiean geldione bat egin zuten, zenbaki berria ikusteko aitzakiarekin. Azaleko muntaia fotografikoan, zakil formadun izozki urdin bat mihizkatzen ari, ozta nerabea zatekeen neskatxa txirikordaduna ikus zitekeen. Titulu nagusietan «Sexu txantaia euskal literaturan!» irakur zitekeen eta Zaldunbidek, ezagutzen bide zuen aldizkariaren

arduradunetako bati, galdera itxuraz mozorrotutako ohar umoretsua egin zion:

—Editorectaz ale berezia egin duzue ala?

—Ipuin bat da. Argitaldari batek nola idazle neska gazteei txantaia sexuala egiten dien argitaratzearen truke kontatzen du.

—Hortaz, ez nenbilen egiatik urruti. Anonimoa?

—Ano Nimio ezizenez dator. Eta eskerrak. Izan ere, bertan gure mundutxo literarioko osagai batzuk, eta bereziki pertsonaren bat, nahiko erraz ezagutu lezake edonork.

—Nor?

—500 pezeta balio du aldizkari bikain honek, erantzun zuen, hortzak agerian uzten zizkion irribarre maltzurraz, *Nesken egüna*-ko saltzaileak.

Sakela miatzen hasi zen Zaldunbide. Ezer aurkitu baino lehen Julenek mahaiean pausatua zuen bostehuneko txanpona.

—Pintxoan ordainetan, esan zion eskaintzari uko egin nahi zion Zaldunbideri besoaz ordaintzea galeraziz.

—Eskerrik asko.

—Bazkalorduan irakur dezakegu narrazioa, jakinmina piztu dit gaiak, komentatu zuen Julenek, esaten ari zena-
ren ondorio praktikoa —elkarrekin bazkaltzea, alegia— aho-
katzen zuen bitartean neurtzen zuelarik.

—Nola ez, soil batez erantzun zuen Zaldunbidek, bazkari proposamen inplizituztat hartu zuena soberako ohar batez kolokan jartzeko beldurrez.

Erne-ren saltokiraino zeraman etorbidea betetzen zuen jendetza hain zen trinkoa bazkalordu aurreko une hartan ezen atzera jo eta etorbide paralelotik itzulia egitea erabaki baitzuten. Harriduraz ikusi zuen Julenek Gure Gauzak-en saltoki luzearen erakusmahai bati erantsita Marta, buruz-buru —erakusmahaiaren beste aldean— Agirre

zeukala solaskide. Bere aurrean, itsaso antartikoan izotza urratzen duen itsasontzia bailitzan, jende geruza konpaktoa arrailtzen ziharduen Zaldunbide besotik oratuz geldiarazi zuen Julenek.

—Hor dago Marta. Gure Gauzak-en gunean. Bakero gorridun neska hura da.

—Ezagutzen dut. Bekaren zeremoniatik.

—Egia da, ahantzi zitzaidan —Mendekoaren ostean, behin bakarrik ikusiagatik Marta ondo gogoratzen zuen bigarren pertsona zen Ilun, eta doi bat jeloskor sentitu zen Julene—. Zer arraio egiten du Agirrerekin?

—Gustatuko zaio.

—Hain zuzen, hori esan zidan bekarenaren ondotik, gustatu egin zitzaiola tipoa.

—Esperantzagarria da, oso, munduko gizon itsusi guztiontzat.

—Mesedez, ez ezazu jarri zure burua Agirrerekin batera ezein kategoriatan.

Zuzenketak txantxaren hariari eusteko adorea eman zion Zaldunbideri eta Erribera, Juleneren poeta bekakidea, liburuak izenpetzen ikusiz, Agirre eta Martarengandik pauso batera, zera gehitu zuen:

—Ez zaidazu esan, halere, Joxe Mari Erriberarekin batera poeta guapoen kategorian sartuko nindukezula.

—Ez. Ez zara poeta.

—Arrazoia duzu. Alabaina, ez nieke ezetzik esango hark jasotzen dituen diru-laguntza nahiz sari zein mediatizazioari.

—Adin kontua. Gure belaunaldikoen ordua ere iritsiko da.

—Ez dakit ba.

—Dagoeneko gure adineko irakurleek aspergarriztat dauzkate. Sinestaidazu. Ikastetxeetara joaten naizenean, «martzianoaz» hitz egitera, nire inkestatxoa egin ohi dut

eta nazka-nazka eginda daude nerabeak behi sakratu hauen testuekin. Ez dute konektatzen beraiekin.

—Hala balitz.

—Mira quien viene, esaten entzun zuten Agirre, eta Martak burua eurengana itzultzeko asti doia izan zuen.

—Marta, te acuerdas de Ilun, Zaldunbide.

—Claro. El día de la entrega de becas, eta musuak elkar trukatzeko aurpegia aurreratu zuen.

—Ez nekien hemen zenbiltzanik, Julene.

—Erne-renean egon naiz, «martzianoaren» aleak izenpetzen.

—Kaixo Ilun, zertan da agindutako ipuina? –galdetu zion argitaldariak eta Martari zera esan zion— Este es un escritor prometedor, pero tiene poca paciencia.

Jendetxo guzti hori menperatzen zuela erakustek puztu egin zuen editorea eta balaztarik gabe hitz egiten hasi zen.

—Pide demasiado, lo quiere todo de golpe, el éxito, el reconocimiento... le he ofrecido la posibilidad de mostrar su talento, que lo tiene, prometiéndole la publicación de un cuento.

Gauza guzti horiek esaten zituen denboran ez zuen kendu begia Martarengandik, nahiz tarteka zeharkako begirada isekariak botatzen zizkion isilik entzuten ari zen Zaldunbideri.

—Podría ganarse un poco de dinero y la confianza del editor para próximas publicaciones, pero prefiere empezar a lo grande. Con un novelón.

Berrizar sorkuntza bekarako lehiakide izan zuen Erribera ondoko mahaian egoteak galerazi zion Zaldunbideri eskandalugarria zeritzon bekadunaren hautaketa prozeduraz ohar mikatz bat egitea, mihi puntan erretzen eduki arren. Alde egiteko aitzakiaren bila hasi zen.

—Beno, Julene, ni Erne-tik pasa behar naiz.

Zaldunbidek sentitzen zuena ulerturik, Julenek joaten utzi zion, baina ez aurretik bazkaltzeko hitzordua ahapeka eman gabe. Zaldunbide Gure Gauzak-en salgunetik urrundu bezain laster, kasualitate hutsari zor ez ziezaioken ondorioa, Erribera arrimatu zitzaien.

«Julene!» adiskidetsu ozen batez lagundu zituen ma-sailetan eman zizkion bi musuak.

—Nire bekakide bizkaitar estimatua. «Zelan» doa biografia?

Ile berriki beltzez tindatua bekokitik baztertu zuen poetak, eskua —orrazia bailitzan— estilo handiaz erabiliz, Juleneri jada aurrekoan ez bezala ile zuririk ez zuela ohar-tarazi nahi bailion.

—Ez doa gaizki. «Apurkan, apurkan». Eta zure liburu-a? Olerki bilduma izango da, ezta?

—Berrizarren *Eskribitu gabeko poema*-ren berridazke-ta bat egiten ari naiz. Pixka bat Borgesen Pierre Meinard-ek Kixotea berridatzi zuen modura. Barkatu.

Bere olerki liburu zaharretako bat izenpetu arazi nahi zion berrogei urte inguruko emakumezko dotore baten-gana joan zen, ilea berriro ere eskuaz orraztuz.

—Zer ari da saltzen gehien?, galdetu zion Julenek Agirrerri.

—Erriberaren joan den udaberriko liburua eta nire azken eleberria ondo mugitu dira, baina Iosu Barriolarena dena txiki uzten ari da. Jendeak etxera opari bat eraman behar badu, Barriolarenarekin aski du. Gutxi dira bi liburu erosten dituztenak. Are gutxiago oparitzeko ez baina irakurtzeko erosten dutenak.

—Eta Aranarena?, gogoratu zen Julene, *Eros 2*-ren afi-txa begiradaz inguruetan bilatuz.

Agirrereren aurpegia kolorez aldatzen ikusi zuen lipar batean.

—Ez dago oraindik kalean. Arazo bat izan dugu.

—Pena, ezta? Salduenetakoa izateko lehian zegokeen atera balitz. Gainera aurten literatura erotikoa ondo sal-tzen ari dela dirudi.

Zerbaitek deserosotasuna sentiarazi balio bezala, gaia aldatu zuen editoreak.

—Nola doa zure lana?

—Ondo. Zure nagusi Andoni Urdangarinek nahiko gauza kontatu zizkidan.

Gai aldaketak ez bide zuen konpondu Agirrerren arazoa eta, kopetilun, Erriberari zuzendu zitzaion.

—Joxe Mari, egongo al haiz ordu laurden bat? Joan beharra diat. Barkatu Julene, egongo gara. Marta, encantado de verte de nuevo.

Erriberak buruaz baietz egin zion, berrogei urteko emakume dotorearekin zeraman elkarrizketa eten gabe. Agirrek alde egin zuen, bere itzulera itxarotea alferrikakoa zela ulertuaraziz.

Durangoko hiri erdiko taberna-jatetxe batean, zeina azokalariz golkoraino beteta baitzegoen, bazkaldu zuten Zaldunbide, Marta eta Julenek.

Martaren presentzia ez zen, ezta gutxiagorik ere, oztopo izan Zaldunbiderekikoa aurrera eramateko. Aitzitik, Martak euskara ia batere ez ulertzeak, joku asko eman zien, bai itzulpenari loturiko gorabeheraz baliatzeko, bai sekretu bat partikatzen ari ziren sentipenaz gozatzeko. Luze egon ziren jatetxean, azokara itzultzeko beharrik nahiz gogorik gabe. Denbora pasatzeko aitzakiaz egin zituzten gauzen artean, *Nesken egüna* aldizkariko narrazioa irakurri zuten, ozenki eta paragrafoak banatuz, irakurtzen ez zuenak Martari laburpen-itzulpena egiten ziolarik. Narrazioko editore txantaiariak, neska gazte idazleak argitaratzearen truke oheratzen zituenak, norbaiten antza edukitzekotan Mikel Agirrerren antza zeukan. Nabarmenki Julene eta Zaldunbide bat etorri ziren uste horretan.

Argitaldariaren deskribapen fisikoa ezin zehatzagoa izateaz gain, Agirreren ateraldi eta jokamolde tipikoez baliatzen zen idazlea bere pertsonaiari izaera emateko orduan.

—Pixka bat pasatu egin da Ano Nimio. Kalumniaren mugetan dabilela esango nuke. Kalte pertsonal handia egin dakioke norbaiti horrela, erremindu zen Julene.

—Arrazoa duzu. Salbu... modu satirikoa egia salatzeke erabili badu idazleak.

—Agirre neska gazteei txantaia sexuala egiten?! Mesedez...

—Eh! No os mofeis de él, que os entiendo, protestatu zuen Martak, berriro ere editoreari xarma berezi bat aurkitzen ziola argudiatuz.

—Gauza ulertezin asko argituko lituzke hipotesi horrek, lehiatu zen Zaldunbide, jostari.

—Badakit ez diozuela elkarri sinpatiarik, baina halere...

—Irudika ezazu Arantza Arana dela narrazioaren autorea, mendekuz idatzi duela testua. Demagun Agirrek proposamen sexualak egin dizkiola eta, mendekuz beti ere, azken unean kale eginez Durangorako esku hutsik utzi dituela Gure Gauzak-ekoak, eskuizkriburik gabe, promozio lan eta inbertsio guztia eginda zeukatelarik *Eros 2*-ren inguruan. Hori baino mendeku hoberik...

Julene irudikatze jokoan sartua zen eta hipotesia berma zezakeen osagai bat aurkeztu zien bere bi mahaikideei.

—Egia da gauza bat bitxia egin zitzaidala Aranaren liburu aurkezpenean.

—Pittilingorin egon zinen?, harritu zen Zaldunbide.

—Bai. Agirre ikusi beharra neukan nire inkesta biografikoaren norabidea birplanteatzeko. Izan ere, lekuko bat hil berri zitzaidan elkarrizketatu ahal izan aurretik. Bero, baina kontua da aurreko batean ez bezala, hotzean ikusi nituela Arana eta Agirre. Agirrek ez zuen ia hitzik

esan *Eros 2*-ren argitarapena zela eta. Eta badakizu eskuarki nola bereganatzen duen protagonismoa aurkezpenetan. Bada, egun hartan, txintik ere ez zuen atera.

—Esaten nizun!, berotu zen Zaldunbide, hipotesian lehen bezain gutxi sinetsiagatik Julenerekiko jolasarekin pozik.

—Egon, egon. Ez da horretara mugatzen. Beste zerbaiti ere nahiko susmagarria deritzot —jarraitu zuen Julenek bere solaskideei irribarre misterioitsu bat zuzenduz—. *Eros 2*-ren idazketa aipatu didan bakoitzean, Aranak liburua idaztea erraza balitz bezala erantzun dit, inolako kezka edo nekerik suposatuko ez balu bezala. Dagoeneko idatzita bailegoen...

—... o como si no tuviese la menor intención de escribirlo, ondorioztatu zuen Martak, Juleneren azken esaldiak Zaldunbidek itzuli ondoren.

—Hain zuzen.

Baionako fakultatea hiriaren periferiako Marracq auzo erresidentzian kokaturik zegoen, goratasun batean, kostaldeko mendiak ikusmiran zituela urrutian. Paskal Egiategi irakasle katedratikoak azaldu zionez, hasiera batean –klaustroarekiko egiturari begiratu besterik ez zegoen– seminarioa izan bazen ere eraikina, Lehen Mundu Gudateak eritetxe bihurtu zuen, ooren buru, mendearen azken laurdenean, kultur esparru bihurtuko zelarik. Egun, eraikin karratuaren ezker aldeak musika kontserbatorioa aterbetzen zuen eta eskuinaldeak, berriz, fakultatea. Bertan, administratiboki Pau-eko unibertsitatearen menpe zegoen disziplinar-teko fakultate atipikoa izanki Baionakoa, zuzenbide eta ekonomia ikasketez gain, euskal filologia proposatzen zitzaizen ikasleei, 1989az geroztik.

Lehen solairura iristerakoan, administrakuntzaren bulegoetako ate pare bat ireki zuen Egiategi eta euskaldunak ez bide ziren idazkari ezberdinei Julene eta bere biografia xedea aurkeztu zizkien, bera Berrizarren lagun mina izan zela azpimarratuz, aldi oro. Ttattarra eta trajea soinean zituen irakasleak, eta neska gazte eta ez itsusiegi batekin pasilloetan zehar paseatzea bere alaitasunaren zioetako bat izan zitekeela susmatu zuen Julenek hirugarren eta azken solairura heltzeaz zirela. Harri gris argizko eskailera zabal batzuen azken mailak gainditu eta klase geletara zeraman pasillo luze baten hasieran aurkitzen zen Egiategiren bulegoa. EHUKo

kategoria baliokideko irakasleen bulegoak baino xumeagoa iruditu zitzaion tokia Juleneri. Liburu zaharrez erdi beteriko apal-altzaria ezkerreko paretan, fotokopiagailu txikia atearen parekoaren kontra, aro kuaternarioko Macintosh tzar batez hornituriko bulegoa bera eskuinaldeko hormari itsatsita, artxibategi zahar bat eta bi aulki gurpildun.

—Irakasleen gelako fotokopiagailu zaharra honera ekar dezaten lortu dut atzo, azaldu zion administrakuntza zuhurrarekiko garaipen txiki baina garrantzitsua zela ulertaraziz.

—Grabagailua erabil dezaket?, galdetu zuen Julenek, Urdangarinen jarreraren gomutak zuhurki jokatzera bulztaturik.

—Prefosta! —oihukatu zuen irakasleak zubereraz, bidenabar bere jatorria oroitaraziz—. Gaston, Mirande eta hirurok euskaldun periferikoak izan gara —jarraitu zuen batue-raz—. Hura bizkaitarra zelako eta gu xiberotarrak ginelako.

Galderak egiteko nekea aurreztu araziko ziola Egiategik aurrestitutu zuen berehala Julenek.

—Ez gara maitatuak bazter probintzietako euskaldunak. Gipuzkoar *lobby*-aren jokoan ez gara sartzen eta pagarazten digute. Hamaika liburu idatzia naiz, batuaz ia denak, baina ez naute antologietan sartzen, eta apenas aipatzen nauten katalogoetan. Eta ez dezadan aipa haur literatura. Ni naiz gehien idatzi eta argitaratu dutenetakoa eta inork ez nau aipatzen haur literatura idazle gisa.

—Berrizarri ere antzeko zerbait gertatzen zitzaiola esan nahi duzu?, saiatu zen Julene irakaslearen jarria bideratzen.

—Bistan da! Miranderi, niri, Gastoni... denoi egin digute boikota. Ez bazara Arantzazuko fraidetegitik edo beste hango seminario batetik ateratua, ez zara existitzen.

—Berrizar apaiztegian ikasia zen, ausartu zen Julene.

—Bai baina Bizkaian ibilia zen, ez zuen apezetik deus eta gainera paristartua zen. Paristarra izatea, bekatu bar-

kaezina! –asaldatu zen, bera ere, zuberorria izanagatik Paristar ere bazela aldarrikatuz–. Ez gintuzten argitaratu nahi. *Euzko Gogoan* bakarrik onartzen gintuzten, gero *Eganen* pixka bat. *Haur besoetakoa*, Miranderen eleberria 1970ean atera zen, 1959rako idatzia zelarik! Berrizarrek bere argitaletxea sortu behar izan zuen *Eskribitu gabeko poema* argitaratu ziezaioten. Eta ez zuen lortu bigarrenik kaleratzea. Berak sortu argitaletxekoek kontra egin ziotelako! Niri ere hainbat liburu atzera bota didate «Haien Kausa»-koek. Sobera kultoa omen da egiten dudana. Berrizarri ere halako astakeriak esaten zizkioten. Euskal irakurleria ez omen da gai maila horretako idazkiak irakurtzeko, euskal irakurle-riari kaka eman behar zaio, kaka duelako maite.

Azken esaldia buruberoturik zioela, aulki gurgilduna biratu eta bere atzeko artxibategitik karpeta urdin higatu bat atera zuen. Karpeta ireki, bertan ordena gehiegirik gabe pillaturiko paperak miatu, eta eskuz idatzitako gutun bat destolestu zuen, tolesduran urratzen hasitako paper horitua artoski erabiliz. Ahots ozen eta garbi batez irakurtzen hasi zen:

«Egiategitar Paskal maitea,

Loti ederra balitz bezela, ehun urteko loak hartutako aberritik idazten ari natzaizu. Gure argitaletxea zutik jartzeko asmoak nau bultzatu, dakizunez, itzulera bidai mingarri hau egitera. Ez nekien gai izango nintzen, baina azkenean sorterriko hondar gatzatua ere zapaldu dut. Arreba zahartuta, edo nekatuta, aurkitu dut, Lekeitio bera legez. Ama joan zitzaigunetik tristeziak bereganatuta dauka. Ni bere seme kuttuna nintzelarik, amaren elizkizunetara ez etorri izana leporatu dit behin eta berrero, urteak joan diren arren eta aipatze soilak min egingo didala dakien arren. Alabaina, ez dut uste benetan erruduntzat naukanik Manuelak. Bere sakonean ulertu egiten nau, beti ulertu nauen eran, eta badaki gure amaxu, inor ez bezela maite izan dudana arren ezin nezakeela ikusi zirkunstantzia haietan.

Dena den, ez dut lar iraun Lekeition. Ez naiz iraganarekin bizitzearen aldekoa, nahikoa bizi gaitu iraganak berataz arduratzen ibiltzeko. Aurrera egiteko gogoak Ion adiskide gurea utzi duen moduan utziko nauenean ni ere –bidenabar, nola dago bera, altxatu al du burua azken krisialdiaz geroztik?–, orduan behar bada, ezin esango dut horrelakorik. Baina badakizu, Paskal, gosez nabilela azken aldion, eta zure etxean afaltzen edukitako giputz kontable gazte hura ikusi dut atzo, Donostian. Langabetuta dago eta une egokia izan daitekeela argitaletxearen proiektuan buru belarri sartzeko esan diodanean, harritu den arren, sinistu egin didalakoa nago. Nire moduko zahar ero bat bere bila joatea da harritu bide duena eta literaturaz ez dakiela ezer esanez defenditu du bere burua. Ez kezkatzeko eta guk –nik eta zuek biok– eramango dugula lanaren alderdi editoriala ziurtatu diot. Eta denborarekin ikasiko duela, behar bada egunen batean, gu desagertzean, jarraipena hartzeko. Langilea dirudi eta egingo nuke gutxi falta zaiola proposamena onartzeko. Orain hemen nabil, atzo Donostian, gaur Baionan, argitaletxea sortzeko kapitala biltzen. Aspaldiko euskaltzaleengana jo dut lehendabizi, baina biptiak janda daude, ideia eta funtzionamendu zaharretan, nola txirlak arrokan, finkaturik. Horiek mugituko dituenik ez da sortu. Gazteengandik gehiago espero dut. Euskal museoko «euskal asteen» pasa dut eguna eta gauza berrietarako gertu dagoen jendea ezagutu dut. Hogeita hamar urtetik beherakoak denak. Errefuxiatu asko, Ifarraldekoak ere bai. Jende militantea, kristauak batzuk, feminista edo marxistak bestetzu, baina, tira, odol berria behinik behin. Laster egongo gara burmuinentzat bizigarriagoa den Parisko airea arnastuz eta, anartean, besarka ezazu Mirandetar adiskide mina baita zure emazte Marie-Thérèse ere.

Post scriptum: izena ere aurkitu diot editorialari, Gure Kausa. Zer moduzkoa deritzozu?

Gaston Berrizar, Baiona, 1971-7-20.»

—Atera al diezaioket fotokopia bat?, galdetu zuen Julenek, gutuna seinalatuz. «Gure Kausa» esan duzu?

—Bai, baina orain «Haien Kausa» mereziago luke.

Oharturik Julenek ez zuela argitaletxearen izen zaharra-go horren berririk, eta bere golkorako hausnartuz menturaz horregatik egin zuela poto bere arestiko hitz jokoak, azalpena emateari ekin zion Egiategik fotokopiagailuaren on/off botoia sakatzen zuen bitartean.

—Berotzen utzi behar da —seinalatu zuen makina, gutuna oraindik eskuetan gordetzen zuela—. Ez al zenekien Gure Gauzak izan aitzin Gure Kausa izan zela? Gastonek berak erranik dakit Jean-Paul Sartre-ren *La Cause du peuple* agerkariak ziola ideia eman. Karriketan zehar ibiltzen zen filosofo paristarra bere aldizkaria oihuka saltzen 68 ondoko urte haietan. Gastonek bere xedea iraultzailtzat zeukan, kultur mailakoa baina iraultzailea. Badakizu, garaia-aren seme izaten gara...

—Eta noiz aldatu zen izena?

—Gastonen liburua argitaratu eta gutxira. Hori ere hondatu zioten.

—Nork?

—Kontable giputzak eta bere morroiek.

—Hortaz, *Eskribitu gabeko poema*-ren lehen edizioak Gure Kausa izena zekarren azalean?, galdetu zuen Julenek gogoratuz Andoni Urdagarinek ez zuela argitaletxearen jatorrizko izenaren aipamenik egin liburuaren argitalpenaren inguruko gorabeherak kontatzerakoan.

—Jakina! Ez al duzu inoiz lehen tiradaren alerik eskuartean izan? Prestatuko dizut etxean dudana.

Fotokopiagailuak ez bide zuen lanerako gogorik eta irakasleak, luzetsita, belarria makinaren sabelari itsatsi zion gisa horretan barnean egosten ari zena jakitea zegoelakoan. Itxarotea beste erremediorik ez zegoela esan nahi zuen keinu bat sorbaldaz marraztu eta kalakari berrekin zion.

—Azken unera arte adiskideak izan gara. Hemengo jauntxo eta apez euskaltzaleek bazterturik ginduzkaten. Ez duzu uste behar hemengo sasi euskaltzaleei esker nagoela irakasle fakultatean. Aitzitik! Horien borondatearen aurka hartu ninduten Paueko unibertsitatekoek. Etsaiak beti etxean.

—Asko idatzi du azken urteetan?

—Ez. Ongi oroitzen banaiz, 1988an-edo utzi zion idazteari. Etsiturik. Azken testuak «Primadera beltza» aldizkarian atera zituen, Pantxoa Salaberri tematu zitzaio-lako. Badituz etxean. Bazkalondoan fotokopiatzen ahal ditugu, nahi izanez gero.

Fotokopiagailuak azkenean lanerako prest zegoela adierazi zuen arrabots berezi baten bidez. Irakasleak eskutitzaren aldakia egin eta artxibategia miatzeari berrekin zion, fotokopiagarriak ziratekeen dokumentu gehiagoren bila. Berrizarren gutun zaharrago bat aurkitu zuen, zeinaren edukia ez baitzen irakurri berri zionarena bezain interesgarria, eta Mirande, Ibiñagabeitia zein Barriolaren eskutitzak ere erakutsi zizkion, elkarrizketaren gaiarekin ezein loturarik ez zuten arren. Fakultateko jatetxean bazkaldu zuten, ikaslez inguraturik, eta handik ehun metro eskasera zegoen Egiategiren etxetik ere pasa ziren *Eskribitu gabeko poema*-ren *princeps* edizioko nahiz «Primadera beltza» aldizkariaren ale zaharren bila. Eskultura klase batera joatekotan zegoen emaztea ezagutu eta agurtzeko aukera izan zuen Julenek. Zorionez ez zuten gehiagorako betarik izan, ezen hizkuntzaren muga zela eta ez baitzeza-keten komunikatu.

—Emazteak ez du inoiz euskara ikasi?, ausartu zen Julene, Marie-Thérèse-k alde egindakoan.

—Badakizu, luzaz Parisen bizi izan gara. Gaztetandik hemen bizi izan bagina...

—Hortaz, Berrizarrek eta zuk, biok hartu dituzue emazte frantsesak. Euskaldunek zerbait eskas dute, ala?,

aldatu zuen tonua Julenek, Egiategiren etxetik atera eta berriro fakultatera bidean zirela.

Ez zuen segidan erantzuterik izan irakasleak. Errepi-dea zebrabidetik kanpo zeharkatu zuten eta, autoen zaratatik apur bat babestuago zegoen fakultatearen lorategian sartzea itxaron zuen ihardesteko.

—Emazte xarmanta eta argia duzu Sonia.

—Behintzat burua galdu aurretik joan zen Berrizar. Emaztearen irudi ederrenarekin.

—Zer diozu?, harritu zen Egiategi, gelditzearekin batera lorategia zeharkatzen zuen bideko harrixkak karraskaraziz.

—Bada, beti gogorra izaten dela maite duzun norbait degradatzen ikustea. Zuk zorrea duzu, Marie-Thérèse zu bezain gazte eta bizi dago. Bikote ederra osatzen duzue.

—Baina, arras forman duzu Sonia.

—Barkatu?

—Ongi dagoela burutik.

—Ez al dago eritetxean sartuta?

—Zaharretxe batean dago. Fisikoki ahulduta dagoelako. Baina burua inoiz baino hobeto dauka. Astero-astero joaten gatzazio bisita egitera emaztea eta biok.

—Parisa?

—Parisa?! Ez. Baionan dago.

—Ez dut ulertzen.

—Nork kontatu dizkizu halako gauzak?

—Bada, jende askok. Beno, egia esan, batez ere Mikel Agirrek... eta Andoni Urdangarinek.

—Baina zertan dabilta horiek? Egia da nekatuxea egon badagoela Sonia. Halere, hortik burua galdua duela esatera...

—Uste duzu errezibituko nindukeela Clémence andereak?

—Baiki.

—Emango al didazu zaharretxearen helbidea?, galde-tu zuen Julenek, Egiategi irakaslea utzi bezain laster hara joateko asmoaz.

—Sainte-Croix auzoan dago. Tren geltokitik pasatuz, Maubec karrikan gora abiatu, eta gero su gorrian eskui-nera egin behar duzu. Hiru ehun bat metrotara aurkituko duzu, bidearen eskuinaldean, arboladi batez inguratuta. Lagunduko nizuke bertaraino, baina Pauera joan behar naiz, ikerketa laborategiaren bilera batera.

—Egun ona dela uste duzu? Aurretik abisatu gabe han azaltzea ez da oso normala...

Egiategik telefonoa hartu eta bulegoaren azpikaldean gordetako listina atera zuen. Zaharretxearen zenbakia markatu eta Juleneren bisitaldia iragarri zuen, aldi berean bisitatuaren presentzia ziurtatzen ziotelarik.

—Ez ahanzi nire partetik zoazela esatea, aholkatu zion.

Irakasleari bere inkestaren gorabeherei buruzko gauza gehiago esatekotan egon zen, baina zaharretxera bisita orduetatik kanpo iristeko beldurrak eta zuhurtasun prin-tzipio orokor batek —Egiategi ikusten zuen lehen aldía zen hura— eragotzi zioten aurrerago joatea aitortzan. Zergatik galerazi nahi zioten alarguntsarekin egotea Agirre eta Urdangarinek? Hori zen, nola arrain gorriak akuarioa, burua behin eta berriro zeharkatzen zion galdera. Gure Gauzak-en sorkuntzaren inguruko dokumentuak ote zi-tuen alarguntsak? Egiategik erakutsitako eskutitza, ziurre-nik Urdangarinek ezagutzen ez zuena, eta zeinen fotoko-pia motxilan sartuta baitzeraman, gerentearen kontakizu-narekin kontraesan nabarmenean agertu zitzaion eta an-tzeko gutun edo paper ofizialagoak nonbait gorderik bazeuden bakarrik uler zitekeen alarguntsarekiko jarrera saiheskor hura. Haatik, berari, hau da Berrizarren biogra-fiaren egileari, al zegokion inkesta arlo literariotik at era-matea? Zer irabaziko zuen bide horretatik joz gero? Ez al

zen elikatzen zuen eskuari hozka egitea? Izan ere, zilegi al zen Gure Gauzak-en diru-laguntza agindutako lanetik askotxo urruntzen zen «beste lan» bat burutzeko erabiltzea eta xahutzea? Zernahi zela ere hartuko zuen erabakia, tentuz eta diskretuki jokatu beharra zeukan eta Egiategiren aurrean alarguntsa bisitatzeko bere asmoa hainbesteko gardentasunez erakutsi izana bera ere damutzen hasi zitzaion, agian funtsik gabe.

—Ez dakit azkenean Clémence anderea ikustera joaterik izango dudan —gezurtu zuen bere asmoa, ordulariari behakoa emanez—. Eskertzen dizut hartutako denbora, Egiategi jauna. Orain arte esan ez duzun beste zerbait gehitu nahi zenuke Berrizarren «portreta» morala edo psikologikoa osatzeko?

Duda izpi bat salatu zuen irakaslearen begitarteak, baina segituan irribarrea berreskuratuz, bere adineko irakasleengan hain nabarmena zen ahozko erretorikaren menperakuntzak, jestuen zein intonazioarenak, gaina hartu zuen.

—Gaston Berrizar Ugarte gizon leiala eta sentibera zen, hauskorra izateraino sentibera.

Hutsa iruditu zitzaion Egiategiren azken baieztapena, betegarri hutsa. Neguko euritako paltoa besondotik tolestuta jarri zuen irakasleak Pauerantz joateko ordua zuela adieraziz. Julene pasillora atera zen Egiategik bulegoko argia itzaltzen zuen bitartean. Fakultateko harrizko eskaileran behera abiatu ziren.

—Azken galdera bat onartzen badidazu, halere, nork hautatu zuen Berrizarren ehorzketan irakurri zenuen Miranderen olerkia?

—Gastonek berak.

Harri grisezko zurubian behera zihoazela, igarotzen ziren ikasleci kasurik egin gabe, ozenki deklamatzan hasi zen irakaslea:

— *Loretan dago aspaldi huntan
gure begien eder delarik,
gure bihotzen gorotzak baitu
ongarrizatu et'ernarazi.*

*Eder da... haren hatsak, ordea,
Zithala ba du, herio-hazi:
Ilhauntzen ditu gogo argiak,
Ilhauntzen ditu argiak oro.
Hilherri-lili horren zithalak,
Hezur zaharren hautsak hazirik,
Erhanik ditu aiten leinuak
Eta zainhiltzen gaitu semeok...
Ai! Goragotik ethorri-haizeek
Ailezate jo ene landetan
Et'eiharraraz «itxaropena»
Izena duen zithal-lili haur!*

Presarik gabe itzuli zen Julene autora. Horrela apar-kalekuaren irteerako autobusen geltokian zain geratutako Egiategik ez zuen ikusiko norantz abiatzen zen. Hamar minutu pasatzen utzi zituen, autoan, motorrik piztu gabe, bildutako paperak ordenatzen, autoaren irratia piztuta eta tarteka parabrisa garbitzaileei eraginez, ur tanta akumulatuak baztertzearren.

Zaharretxea zailtasunik gabe aurkitu zuen, irakasleak esandako tokian. Inguratzen zuen arboladia neguak biluzturik zetzan eta ez, Egiategik aipatutakoan irudikatu zuen legez, berde ilun. Eraikina mende hasierakoa zen, berriki modernizatua. Sarrerak iparrera ematen zuen eta jendeak beste aldean egon behar zuela pentsatu zuen Julenek inguruetan inor ez zebilela ikusirik. Iparraldera joaten zen ba-koitzean tokien eta jendearen gehiegizko lasaitasuna nabarmena egiten zitzaion. Karriketan barrena jende gutxi, jatetxe nahiz tabernetan marmar isil bat besterik ez. Kris-

talezko ate garden bat ikusi eta bertatik sartu zen etxera, bisitarientzako sarrera izan zitekeelakoan eta argiak erakarririk. Barra antzeko baten atzean blusa txuridun emakume bat zegoen, agenda erraldoi batean ohar batzuk ipintzen ari. Lehen hitza euskaraz egiteari alferrikakoa iritzion Julenek eta frantsesez zuzendu zitzaion, alarguntsarekin komunikatzeko arazo berbera izan zezakeela ohartzuz.

—Madame Berrizar, s'il vu plé?

—C'est pour une visite?

—Ee, gui.

—Nous n'avons personne à ce nom.

—Jé ne comprén pa, urduritu zen Julene.

—Pas de Berrizar parmi nos résidents. Pas de Berrizar, berretsi zuen, izenari hatzarekiko ezezko keinua gehituz.

—Ah! ee, Clémence, Sonia Clémence, zuzendu zuen Julenek.

—D'accord. Vous voulez que je l'appelle ou vous préférez aller la rejoindre dans le jardin?

Berriro ere tonto aurpegia jarri zitzaiola somatu zuen lotsaturik Julenek. «Gabatxoak» madarikatu zituen bere baitan, komunikatzen saiatu orde z euren hizkuntzaren harresia harresitik kanpo dagoen jendea erdeinuz begiratzeko erabiltzen zutelako.

—Ié pri rande-bu with Madame Clémence, lehiatu zen Julene, irribarra ahal bezala mantenduz eta «ez da ba zaila ulertzeko» marmarikatu batek ihes egin zion.

—Clémence anderea hunat etortzea nahi duzu, ala harenganat eremanen zitut?

—Bai, eraman nazazu, mesedez —lotsatu zen Julene. Barkatu, ez nekien euskara egiten zenuenik...

Etxea bere sakonera guztian zeharkatu zuen, zaharzarinari zerraiola. Zaharretxearen aurrekalde naturala —hegoalderantz orientatua— euskal estilokoa zen eta Baionaren parte handi bat ikus zitekeen bere lorategi ederretik. Dударik gabe, bertan zeuden zaharrek ez zuten diru ara-

zorik. Zahar andana bat ikusi zuen Julenek lorategian nahiz etxearen aurrekaldeko terraza zabalean sakabanaturik, nor paseatzen, nor solasean edo kartetan, nor siesta betean.

—Hura duzu Clémence anderea, trikota urdina duena —esan zuen zaharzinak, lorategian beste atso konkortu batekin batera pauso lasaiean zebilen emakume luze bat seinalatuz—. Familiakoa duzu?

—Ez.

Zaila zitzaion bi hitzetan bere bisitaren zergatia azaltzea.

—Bere senarra ezagutzen nuen... nolabait.

«Eskerrik asko» esan eta atzean utzi zuen zaharzinak, bai Sonia Clémence hurbilagotik ikusteko irrikan zegoe-lako, baita ez zuelako azalpenetan luzatzeko gogorik.

Alarguntsarengandik bereizten zituen hogeitau pausuak egin bitartean dudak bere bisita egiteko erabakiaren funtsa kordokarazi zion. Izan ere, zeren eta noren izenean hitz egin ziezaiokeen inoiz pertsonalki ezagutu ez zuen gizon baten emazteari? Zer esateko? Zer jakiten saiatzeko? Buelta erdia eman eta alde egitear zegoela bere buruarekiko bisita zilegizta zezakeen arrazoi sendo bakarrak oroitzen zen: biografia bat egiten ari zen, idazle izandako gizon baten biografia. Eta berrogei urte berarekin bizi izandako ezkontidearekin solastu nahi izatea baino nahikeri logikoagorik ez zegoen. Gainera, Agirrek ez zion «debekatu», ezta «desaholkatu» ere, alarguntsa elkarrizketatzea; gaixoturik zegoelako ustean bermaturik, alferrikako lana zela esan zion. Hori bai, besterik zen jakitea nondik edo zergatik zeukaten Urdangarinek zein Agirrek Alzheimerrak jota zegoela Sonia Clémence...

—Clémence anderea... Madame Clémence?, ahoskatu zuen emazte garaiaren mailara iritsitakoan.

Pixka bat harriturik baina ibiltzeari utzi gabe, bere burua izen horretan ezagutu zuela esan nahi zuen begirada soilaz erantzun zion emakumeak.

—Madame Berrizar?, saiatu zen Julene, berriro alarguntsaren pareraino hurreratuz, oraingoan erreakzio eskuzabalagoa lortuko zuelako itxaropenaz.

—Qui êtes-vous?, galdetu zuen, oinak lurrean finkaturik, ahula eta higatua izan arren zorroztasuna iradokitzen zuen ahotsaz.

Besotik oratzen zion atso konkortua ere gelditzera behartu zuen alarguntsaren geldialdiak.

—Julene Oihanburu. J'écrit la biographie de votre mari, Gaston Berrizar, eta eskua luzatzera ausartu zen, emaztearen begirada izoztuak bien artean ireki asmo zuen amildegia gainditu nahiz.

—Oui, merci, je connais encore le nom de mon mari, hotz batez komentatu zuen Juleneren aurkezpena, azken honek luzaturiko eskua airean zintzilik, ezerri oratzeke, utziz.

Julenek ez zuen ondo ulertu esan ziona baina tonuagatik asma zezakeen elkarrizketa gaizki hasi zela. Ezin deserosoagoa zen egoera eta nondik jo ez zekiela geratu zen Julene, harreraren hotzak harrapatuta.

—Yo vudré parlé avec... usted... de Gaston... de le signor Berrizar, lehiatu zen berriro, frantsesarekin borrokan.

—Vous travaillez pour qui?, galdetu zuen, idor, alarguntsak.

Norentzat lan egiten zuen jakin nahi zuela iruditu zitzaion Juleneri eta erantzunak elkarrizketaren biziraupenean izan zezakeen eragin desastrosoari behar bezain erantzun konplexua frantsesez adierazteko zailtasuna gehitzen bazitzaion, ezinezkoa zirudien ongi irtetzea trantze hartatik. Saiheste ahalegin bat egitea erabaki zuen.

—Yo admire l'écrivain Berrizar.

—Vous travaillez pour Urdangarin?

«Galdera zuzenagorik...» pentsatu zuen Julenek eta berriro ere zailtasunari aurre egin zion heroismoz.

—Gui mé no. Bai baina ez, desesperatu zen Julene.

—Je ne donnerai rien, esan eta berriro paseatzeari ekin zion, bere ondoan ia zutik lokartu zen atso konkortuari besotik tira eginez.

—Yo ve solo parler, saiatu zen Julene emaztea lasaitzen, ez zela zerbaiten bila etorri, alegia.

Emakume garaiak lorategian aurrera egin zuen, atzean etsiturik geratutako Juleneren presentzia ahantzi bailuen. Ez zuen merezi tematzeak. Berataz dagoeneko zeukan ideia negatiboa okertu baino ez zuen egingo.

Eszena urrutitik kirikatu bide zuen zaharzainarengana itzuli zen.

—Mintzatu duzu Clémence anderea?

—Ez nahi bezala. Badakizu, frantsesez ez naiz ondo moldatzen eta...

—Eskuaraz mintzatu behar zinen.

—Badaki?, harritu zen Julene.

—Ez mintzatzeko gisan, bainan konprenitzen du... nahi duclarik, ziurtatu zion irribarre jostari batek ahoa edertzen ziola.

—Zein dira bisita egunak?

—Astelehenetik ibiakoitz artio, arratsaldeetan bost orenak artio.

Alarguntsari Egiategiren izenean zetorrela esatea ahantzi zitzaiola konturatu zen orduantxe, eta amorrua eman zion. Itzuliko zela esan eta frantsesa menderatzeaz gain konfiantzazkoa zen norbaitekin beste saialdi bat egi-tea merezi zuela pentsatu zuen.

—Nahi duzularik. Ez ahantz telefono ukaldi baten emaita jin aitzin.

—Bai, noski.

—Bertze aldi bat artio.

—Agur.

—Lanean lehertzea ere ez da gauza ona. Biografiarena hasi zenuenetik ez duzu oporrik hartu. Beti batetik bestera zabilta. Arnasaldiak hartzen jakin behar da —esan zion aitak, entsaladaz bigarren aldiz betez Juleneren platera—. Nire garaian gauzak lasaiago hartzen genituen. Pentsatzeko, protestatzeko eta baita nagikerian xahutzeko astia ere bagenuen. Gaur, ordea, bi gazte mota kontrajarri ikusten dira: inoiz ezer egin edo sentitzen ez duten giza-hondakinak edo lanaren zein ikasketen adiktoak.

—Zure garaian ez zegoen langabeziarik —erantzun zuen Jurgi, Bilboko udalean arkitektu gisa sartzeko opo-saketak prestatzen ziharduen Juleneren neba zaharrak—. Katmandura joan zintezkeen kanutoa probatzera, sekta ekologista batean dieta begetalinoa eta taldeko sexu-harremanak dastatu eta etxera itzultzean han zenuen herriko lantegia, beso-zabalik zu kontratatzeke prest, diplomarik ziztrifiena ez eduki arren.

—Borondatea duenak beti aurkituko du lana, lehen orain bezala. Ez da idealizatu behar orain dela hogeita hamar urte bizi genuen egoera. Frankismo pean bizi ginen eta jendeak lana baldin bazuen, dirurik, aldiz, batere ez —aldeztu zuen bere ikusmoldea Juanan Oihanburuk—, eta ez dut egundaino Katmandura joan zen inor ezagutu.

—Porroak erre dituzula ez diguzu ukatuko behinik behin, aita —zirikatu zuen Julenek.

—Mesedez, kezkatu zen ama, Irkus eta Aitor lehen-gusu nerabeak eta Eli alaba gazteena eztabaidari adi zeudela ohartuz.

—Baina non bizi zara, ama? Uste duzu hauek honez gero ez dutela porroa ezagutzen, ala?

Irri karkaila maltzur batek ito zituzten lehengusuek beraien golkoetan eta Irkusek hitza hartu zuen.

—Gure adinekoen hauskortasun psikologikoa eduki gogoan, faborez, eta babes gaitzazue errealitate gordine-gien aipamen desorekatzailetik.

Irri karkaila ozena bihurtu zen. Jurgik, hasitako eztabaidaren hariari serioski heldu zion, berriro, aita kontraesanera bultzatzeko asmoz.

—Gaurko gazteari asko eskatzen zaio eta horren truke ez zaio ezer ematen. Egoera eskizofrenikoan bizi da. Ikasi ala ez ikasi, emaitza berbera lortuko du gehienetan, langabezia edo, onenera joz gero, zabor-lana. Hortik, hala eta guztiz ere asko ikastea erabakitzen dutenen asteburuetako droga-festak.

—Arazoa da ez duzuela ezertan sinesten. Ez duzuela ametsik. Dena eskura izan duzue eta ezerk ez dizue ilusiorik pizten. Zuen borroka porroaren legalizazioaren aldekoa da. Guk, sikiera, ilegala zelako erretzen genuen, mugak hausteko. Transgresioa zen plazerra sortzen zuena. Zuek, berriz, haurtzarora itzultzea beste helbururik ez duzue, amaren sabelera, goxo-goxo bertan egoteko, plazer legal eta eskuraerrazen leize-zulo batean. Borrokaren zentzua galdu duzue.

—Zuek hezi gaituzue horrela. Usteldu egin gaituzue. Zergatik egingo dugu borroka, noren aurka? Zuen aurka? Dena zor dizuegu eta onegiak izan zarete gurekin. Ez daukagu ezer zuei leporatzeko, edo behar bada hori, hain

zuzen aurpegiratzeko ez ezer utzi izana, borrokatzeko aitzakiarik gabe utzi izana. Inoiz frustratu ez gaituzuelako bihurtu gara hain pasotak, hain heldugabeak. Begira nazu, aita, hogeita hamar urte bete ditut, oraindik zuekin bizi naiz, bost urte daramatzat Nekanerekin eta ez daukagu inolako presarik pisu bat elkarrekin hartzeko. Nahiago dugu alokairua eta otorduak aurreztu eta gure dirutxoak plazerretan gastatzea. Haurrik egiteko gogorik ere ez dugu, frustrazioak ekarriko dizkigulakoan. Zuek haurrak egin nahi izan dituzue eurekin burasoak zeuekin baino hobek izatea lortuko zenuten itxaropenaz. Gu, ordea, zuek bezain onak ez izatearen beldur gara. Erantzukizun orori bizkar ematen diogu, ez dugu ardura kolektiborik gure gain hartu nahi, desabantailak abantailak baino ugariago ikusten baititugu beti eta nonahi. Horregatik, gure belaunkideen arteko bileretan, *Mazinger Z*-ren edo *Mosqueperro*-en kromoak kajoietik atera eta haurtzaroko telesailen kantak xuxurlatzen ditugu zuek guri apailatutako haurtzaro larrosara ametsaren bidez itzuliko gintuzkeen loak hartuko gaituelakoan. Eta okerrena hori da, ez duzuela lepora lekizuekeen hutsik egin. Ez dagoela gure endekatzea justifikatuko lukeen errudunik.

Aita mututurik utzi zuen seme nagusiaren azken ahapaldiak beraien arteko ohiko eztabaidagaia izan arren hura.

—Ez dakit zer esan, aitortu zuen.

—Ez dago ezer esan beharrik. Ez nintzen nire egoeraz kexatzen ari. Ez ditut gaizki bizi nire belaunaldiari egotzi dizkiodan ezaugarri guzti hauek. Ez dut kulpabilitate sentipenik. Horrelakoak gara eta asumitzen dugu. Kitto.

Juleneren nebaren neskalagunak hitz egiteko borondatea adierazi zuen mahaiaren alde guztietara begiradak abiada bizian zuzenduz.

—Bai, Nekane?, hitza eman zion amaginarrebagaiaik.

—Ez. Zera esan nahi nuen. Nik haurrak izan nahi nituzkeela, Jurgik esan berri duen guztia egia izan arren. Eta berarekin izan nahi nituzkeela... eta... buraso izango gabela gutxi barru.

—Eee!?, luze bat egin zuten lehengusuek eta Julenek.

—Haurdun zaude?, galdetu zuen amamagai bihurtu berriak.

—Bai.

—Noiz sortuko da?, Elik.

—Hemendik sei hilabete eta erdira, zehaztu zuen Jurgik, aurpegia lotsak gorriturik.

—Hau ospatu beharra dago —erabaki zuen Juanan Oihanburuk—. Txanpafia ateratzera noa.

—Ez, ez. Sortutakoan edango dugu, eztitu zuen Jurgik aitaren suhartasuna. Dena ondo badoa.

—Beno, behintzat ardo botila berri bat irekitzen utziko didazu, egoskortu zen aita.

—Nahi baduzu.

Aita semea eta errain-gaia besarkatu eta musukatzeko altxatu zen. Bazkaria laburra egin zitzaien guztiei eta pos-trera iristean Juanan Oihanburuk pastela bitan zatitu zuen.

—Erdi hau hemen gaur bildu gaituen Juleneren urtebetetzea ospatzeko eta beste hau familia zabalduko duen nire lehen bilobaren omenez!

Pastelaren lehen erdian zeuden kandelatxoei Julenek egin zien putz, eta bigarren erdian gelditutakoei, burasogaiek batera. Mugikorraren txirrinak eten zituen putz egitei jarraiki zitzaizkien txaloak.

—Funtzionatzen du behintzat, poztu zen alabari mugikorra oparitzeko ideia eta dirua izan zituen Juanan Oihanburu.

—Hola Marta! (...) gracias (...) claro que sí, haremos una cena, por lo menos (...) ¿Quieres venir? (...) también nos acompañará Ilun (...) qué va, ha sido facil convecerle

(...) no sé, por ahora somos buenos amigos, me basta (...) no es para tanto, tía (...) oye, que tengo que dejarte (...) bueno, pues el miércoles a las once de la mañana (...) gracias por llamar (...) un beso.

—Nor zen?, interesatu zen ama.

—Marta.

—Ah. Nola dago? Bukatu zuen karrera? Aspalditik ez dugu ikusi, gogoratu zen aita.

—Bukatu zuen, kostata baina bukatu zuen. Geroztik ez du lanik aurkitu. Burasoenean bizi da.

—Zerbait egingo duzue asteazkenean?

—Bai. Biografiaren zera, betikoa.

—Ez zara gelditzen.

—Berrizarren alarguntsa ikustera goaz Marta eta beste lagun batekin.

—Nor da?

—Ilun Zaldunbide... idazle bat. Ni baino zaharxeagoa. Oso narrazioegile ona da.

—Horrek ez al du *Egunkarian* idazten?

—Bai. Horixe. Kontua da frantsesa egiten duela, eta Berrizarren emazteak ez dakiela euskara. Orduan berarekin noa oraingoan.

—Dagoeneko egon zara behin, ala?

—Bai. Bidenabar, hau guztia, mesedez, ez dadila mahai honetatik at aipatu. Nahiko sekretua da inkestaren parte hau eta ez nuke nahi beste inork jakin dezan.

—Zer dela eta hainbesteko kontua?, arduratu zen Jurgi.

—Bada, Berrizar Gure Gauzak-en sortzaileetako bat izan zen, Urdangarin izeneko tipo batekin batera...

Burasoek izenak ezagutzen zituzten baina besteentzako argibide batzuk ematera behartuta sentitu zen Julene.

—Andoni Urdangarin Gure Gauzak-en gaurko gerentea da. Enpresaren benetako nagusia.

—Ez al da fundazio bat Gure Gauzak?, harritu zen Jurgi.

—Hori guztia da argi ez dagoena, hain zuzen. Beno, bi hitzetan laburtzeko, Urdangarin elkarrizketatu nuen, biografiarako, eta oso jarrera bitxia deritzet bereari eta Agirre, sail literarioaren arduradunarenari. Nik Berrizarren alarguntsa bisitatzea ekiditen saiatu dira gaixo dagoela esanez, eta deskubritu dut osasuntsu eta hitz egiteko gai dagoela, Baionako luxuzko zaharretxe batean. Ez dakit zer gordetzen duen honek baina egoera uherra da.

—Osti, inkesta poliziako bat eramaten ari zara, orduan?, poztu zen Aitor.

—Kontuz ibili, Julene, aitak arranguraturik.

—Bai, maitea, ez hartu arriskurik, bildu zitzaion ama.

—Lasai, zerbait deskubrituko banu ere, ez nuke edonola erabiliko.

—Ez duzu erabiliko, zorroztu zuen Juananek alabaren promesa.

—Ez da hainbesterako. Gerta lekidakeen okerrena beka galtzea da, lasaitu zituen Julenek, burasoen erreakzioari gehiegizkoa iritzi.

—Ez nago hain ziur.

Bere jarrera kezkatiazen zergatia azaldu zion aitak.

—Izan al duzu Joseluren berririk azken aldi honetan?

—Joselu Gutierrez?, interesatu zen Jurgi.

—Zertan da liburudendaren afera?, galdetu zuen Julenek.

—Hain zuzen, horretara nindoan. Oroitzen zara nola tipo batzuk joan zitzaizkion Gure Gauzak-en izenean «Ireki» «Gure Liburudenden» katean sartzeko proposamen eginez.

—Bai, jakina. Antzarrak ferratzera bidali zituen Joseluk eta mehatxuka hasi omen zitzaizkion orduan, beste liburudenda bat jarriko zutela handik hurbil.

—Hurrena, Joselu konturatu zen Gure Gauzak-en liburuak «Ireki»-ri zabaltzeari utzi ziotela «Gure Banaketa»-koek.

—Eta enbargo horren aurrean Gure Gauzak-en produktuak beste zabaltzaileen bitartez lortzen saiatuko zela esan zidan Joseluk, elkarrekin egon ginen azkenekoan. Izan ere, ezin izan nizkion erosi berari nire biografiarako behar nituen liburuak zeren Agirrek Gure Liburudenden katean baino erabil ez zitekeen bonoa eman baitzidan, eta Joseluri hori esatera joana nintzen.

—Azken elementu hau ez nuen ezagutzen. Baina orain kontatuko dizudanarekin bat dator —jarraitu zuen aitak—. Enbargoa saihesteko, beste hainbat banatzaile zein editoreekin harremanetan jartzen hasi da Joselu eta, kontatu didanagatik, merkatua ixteko estrategia orokorragoa den puzzlearen zati txiki bat baino ez da «Ireki»rekin egi-ten ari direna.

—Nola, «orokorragoa»?

—Bada, argitaletxe batek baino gehiagok esan dionez, Gure Banaketa-k beraien liburu edo diskak furgonetan sartu eta ez ditu inoiz eramaten saltokien apaletaraino. Liburuak Gure Banaketa-ren almazenean hautsak estaltzen uzten dituzte hainbat hilabetez eta, urtea bukatzean, argitaletxeci itzultzen dizkiete saldu ez direla esanez. Bere liburuak Gure Liburudendetan sekulan ikusten ez zituen argitaldari bat Gure Banaketa-ren almazen nagusian zegoela ohartu zen bere liburu guztiak bertan zeudela, bipien elikagai bihurturik. Alegia, ez zirela atera handik, ez zirela inoiz iritsi liburudendetaraino. Bestalde, eurena ez den liburudenda batek eurenak ez diren liburu nahiz diskoak eskatzen dizkienean, mila aitzakia aurkitzen dute ez inoiz banatzeko eta Gure Gauzak-en produktuak eska ditzaten besteen ordeiz. Beraien eta ez besteen testu-liburuak saltzeko eskolekiko daramaten presio politikari buruz ere izugarriak esan ei dizkiote Joseluri.

—Horregatik diogu kontu handiaz ibiltzea komeni zaizula, ondorioztatu zuen amak. Gure garaian gauzak ez

ziren horrelakoak. Inuxente hutsak ginen. Iraultzan sines-
ten genuen, bolondres gisa ibiltzen ginen batean zein
bestean...

—...oraindik dirurik ez zegoelako tartean, moztu
zuen Jurgik buruz ezagutzen zuen amaren ohiko deitorea.

—Kinka larrian dago «Ireki» –jarraitu zuen, serio,
Juananek—. Banatzailez aldatzea ez da hain erraza eta Gure
Gauzak-en produktuak banatzaile lehiakide baten bitartez
lortzea ez hasiera batean uste bezain sinplea. Horrek guz-
tiak tentsioa areagotu du elkarte barruan eta zatitzera
doala ematen du.

—Batzuk Gure Gauzak-ekin kolaboratzearen alde
agertu dira hasieratik, ez?, oroitu zen Julene.

—Larretxea eta Barriola. «Foxy» eta «Txemi». Eta Jo-
selu asko sufritzen ari da, ze, azken finean, bera baita lana
galtzear dagoena. Guretzat ez da hain larria. Elkartasun
giroa zapuztea lortu dute dagoeneko. Baina ez dirudi ho-
rretan geratzeko asmoa dutenik.

—Joango natzaio bisita egitera ahal dudanean, mar-
marikatu zuen Julenek, bere buruarentzat ari bailitzan.

—Eta kontuz ibili.

—Zin dagizut, aita. Nekane, Jurgi, erabaki duzue
nola deituko duzuen haurra?

—Mutila bada Zigor. Neska balitz, Oinatz.

Maialen Lekunberrirekin Baionako Seaska elkartearen egoitzan egina zuen hitzordua Julenek. Seaskako ardura-dun pedagogiko nagusiak hamar urte zeramatzan lanpostu horretan eta irakaskintza urteak gogora ekartzeko oroitzapenen kutxan sakon miatu beharko zuen. Seaskaren bulegoetan sartu bezain laster, berrogeita bost urte inguruko emakume bat inguratu zitzaion Juleneri.

—Julene Oihanburu?

Eskua eman zioten elkarri.

Behiala hippya izan zena ezagun zuen Lekunberrik, nola janzkera hala soinean zeraman lurrin berezian, nahiz bizitzari zuhurtziaz zukua ateratzen jakiteak ematen zion begirada lasaiean. Urteek higatu gabeko aurpegi haren azal leunak unkitzeko gogoa ematen zuela pentsatu zuen berekiko Julenek.

—Arratsaldea niretzat hartu dut eta zera proposatzen dizut, Gaston ibiliriko tokietara joatea. Ez dakit nolakoa zaren, Julene, baina nik bederen, kanpoko estimuloaren beharra dut oroimena abian jartzeko.

—Nahi duzunez.

Pontots-eko zonalde industrialean aurkitzen zen Iparraldeko ikastolen elkarte federatzailearen egoitza. Apar-kalekuak soberan zeuden, lantegiz, biltegiz zein saltokiz osaturiko sasi-karriketan.

—Autoz jin zara?

—Bai. Har dezakegu...

—Nirea hartuko dugu, lasai, proposatu zuen, eskuzabal, Berrizarren lankide eta itzultzaile izandakoak.

Baiona, Angelu eta Biarritz josten zituen bulebar zabalean sartu ziren. Neguko egun geza zen, erdi hotza, erdi lainotsua, busti antzekoa, ez preseski egun erdiragarria.

—Ongi bazaizu, kronologiari plegatuko gatzazkio eta Parisetik Iparraldera bizitzera etorri berria zelarik lan egin zuen ikastolara joanen gara hasteko.

—Zu zara nire itsu-neskatila.

Une atsegin bat pasako zuela jakin zuen Julenek. Oso aldi bakanetan izaten zuen sentipena jabetu zen bere gorputz guztiaz. Pertsona baten presentzia hutsa, hurbiltasun fisikoa, plazer iturri bihurtzen zitzaion eta egoera hura irauraraztea beste helbururik ez zuen izaten horrelakoe-tan, mugimendurik txikienak ongizate burbuila zartarazi zezakeelakoan. Aspaldiko partez sentipen hura gozaten ari zen autoan, kopilotuaren eserlekuaren lehiatilatik Txiberta pinudiaren zirkunferentzia hareatsuan aurrera egiten zutela. 70eko hamarkadako eliza angulotsu horietako baten aurrean gelditu zuen autoa maistra-ohiak.

—Blancpignon auzoan gaude.

—Angeluko hirierditik urruti al dago hau? Ez dut oso ongi kokatzen non gauden.

—Hiri honek ez du erdirik. Zure *Eskribitu gabeko poema*-ren azterketa literarioan liburuaren unibertsoa definitzeko maiz darabilzun kontzeptu bat errepikatzearen, Angelu «espazio postmodernoa» dela erran nezake. «Zentralitaterik gabea», «ez hierarkizatua».

—Hortaz, nire lana irakurri duzu.

Balakatua sentitu zen Julene.

—Asko maite dut Gastonen obra eta hari buruz idazten den oro biltzen ahalegintzen naiz. Interesgarrienetariko da, dudarik gabe, zure azterketa.

—Oso itzulpen ona dela zurea esan didate —itzuli zion lausengua ahal bezala Julenek—, nahiz ez naizen gai preziazteko. Lotsagarria da nire frantsesaren ulermen maila. Eta orohar lotsagarria da nola abandonatu dugun frantsesa Hegoaldeko ingelesaren faboretan, Iparraldea hor ondoan daukagula kontuan hartuz.

—Gastonen belaunaldikoek, eta beranduagoek ere oraino, frantsesa ezagutzen zuten, egia da.

Eliza modernoaren mailara heltzean geldialdi bat egin zuten.

—Eliza honetan Etxegorri apez euskaltzalea egoten zen Gastonek hemen lan egin zuen denboran. Garai hartan oso gaizki ikusiak ziren ikastolak hemengo gizartean.

Pausu batzuk gehiago aurreratu ziren, aparkalekua eta eliza atzean utzi eta pinudiaren muga kokaturiko eraikin multzo abandonatu bateraino iristeko.

—Hau zen ikastola —esan zuen duna baten gailurretik rugby zelai batera zeraman eremua beso mugimendu batez besarkatuz—. Gauza asko desegin dituzte. Han gainean etxetxo bat zegoen lehen —segitu zuen duna soildua seinalatuz—, eta hor klasegela prefabrikatu bi.

Lantoki baten biltegia zirudien eraikin arraildu bat erakutsi eta kantina izan zela esplikatu zion. Kolunpioak zitezkeenen arrasto herdoilduak ere ezagutu zituen Julenek.

—Goazen haraino.

Hirurogeita hamar metrora aurkitzen zen rugby zelaierantz ibiltzera gonbidatu zuen Lekunberrik. Harea horia, hauts grisa eta harrixka urdinak nahasirik zeuden zeharkatzen ari ziren eremu lauaren zoruan.

—Hemen futbolean aritzen ziren haurrak. Gastonek hemen irakatsi zuen azken urtean, 1980an, edo 1981ean, ez dakit ongi, Donostiako Errealeko jokalaria batzuk etorri ziren Inaxio Kortabarria buru zutela, ikastola bisitatzera. Orduan Espainiako txapeldunak ziren, nik uste, eta

zapaltzen ari zaren zola honetan haurren arteko txapelketa ttipi bat antolatu genuen. Baloin izenpetu batzuk ekarri zituzten Errealekoek. Ohar zaitetz hau zela Donibane Lohitzunekoarekin batera Iparraldeko lehen mailako ikastola bakarra.

—Zenbat haur zenituzten?

—Urte haietan... berrogei eta hirurogeita hamar artean ibiliko ginen, zenbatu zuen mentalki Lekunberriek, gomutak bereganatzen zuela.

—Zenbat urte egon zen hemen Gaston?

—1975etik 1981era. Ongi dakit nihaur ere urte bere-tan egon bait nintzen «Oihana» ikastolan.

Rugby zelaiaren parean zeuden. Hamar metro behe-rago zegoen zelaia eta hondarrezko malda bat jaitsi behar zen belardira iristeko. Joko errektangelu berdea Txiber-tako oihanaren hareak inguratzen zuen hiru aldetatik, azken aldea errepiderantz zeraman asfaltuari zegokiolarik.

—Haurrak malda hauetan aritzen ziren jostetan eta pinudian barna sartzen uzten genituen. Egungo segurtasun arauak ez lukete horrelakorik baimenduko baina hemendik ateratako ikasle ohi guztiek gauza berbera kontatzen didate Oihana ikastolaz, izugarrizko oroitzapena datxikatela. Eta, nik uste, haurrena bezain esperientzia gogoangarria eta kitzikagarria izan zela irakasleona. Gaston salbu, gazte-gazteak ginen gehienak —pentsa, nihaurk hogeita bat urte baizik ez nuen hemen hasi nintzelarik— eta zinez dena ezerezetik asmatu eta sortu behar genuelako inpresioa zen gurea, askatasun sentipen hordigarria. Ikastolaren anto-lakuntza pedagogikoa, administratiboa, humanoa. Dena demokrazia zuzenaren arabera egiten genuen, gizarte berri baten oinarriak jartzen ari ginela zirudien: haurrak ez ge-nituen notatzen, biltzarrak egiten genituen erabaki ezber-dinak hartzeko eta haurrek ere, bost eta hamaika urte bitar-tekoak izanagatik, parte hartzen zuten bozketetan.

—Gaston ondo moldatu zen giro horretara?

—Ez zen gizon estua. Aitzitik. 68-ko haizea Parisen bertan usnatua zen, nahiz ez zen iraultza egin zutenen belaunaldikoa, eta nik uste, zernahi gisaz, euskal mundua inarrosiko zuen orori begi onez begiratzen ziola. Bistan da, bere printzipio eta ideiei atxekia zen. Bera ez zen ezkertiarra. Baina ezkertiarrez inguraturik bizitzea ez zen sekulan arazoa izan. Gizon xarmanta zen, tolerantea, eta ez zuen irizpide ideologikoen arabera epaitzen jendea. Ainitz mintzatzen nintzen berarekin ideologiaz eta politikaz. Eskuidar libertariorzat zeukan bere burua. Marxismoa elizkoikeri mozarrotua besterik ez zen berarentzat. Horregatik ez zen azaltzen sekulan gure manifestaldietara. «Ez nintzen seminariotik lekutu mezaren sukzedaneok baizik ez diren manifestaldietan ibiltzeko asteburuero», erraten zuen. Gure adineko bati ez geniokeen barkatuko jokamolde hori, indibidualismoa bekatua baitzen garai hartako abertzaleen artean. Baina Gastonen ile zurituek, egiten zuen lan eskergak eta, orokorkiago, bere nortasunak, beti hain fina bera, errespetua emango ziokeen edonori eta arau kolektiboa konfirmatzen zuen salbuespena bihurtu zen gure artean. Eta ez uste talde erraza zenik gurea. Jende gogorra ere bazen gure artean, iraultzarekiko aldentzerik nimitzoe-na gupidagabeki zigortzeko prest zegoena. Iraultzaren misionariak, abertzale mistikoak. Garaiak nahi zukeen hori.

Hasperen egin zuen maistra ohiak.

Autora itzultzeko bidean ziren eta berriro kulunka herdoilduen paretik igaro ziren. Ahotsa apaldu eta pausatuagoki hitz egin zuen Lekunberrik.

—Hau ez da edozein ikastola izan. Haur kopuruaren erdia Hegoaldeko errefuxiatuen seme-alabek osatzen zuten... Txomin Iturberen hiru semeak ere hemen hezi ziren... eta Philippe Bidart lankide izan genuen zenbait hilabetez...

Autora sartu ziren eta Lekunberrik motorra piztu zuen, esan berri zuenari ezer gehitu gabe eta Julenek ere isilune bat egitea eskertuz, biografoarengandiko tokiaren eta bere historiaren garrantziaren ezagupen marka bailitzan.

Blancpignon auzotik atera eta Aturri ibai zabalaren ertzetik Baionarantz hurbiltzen hasiak ziren, katedralaren bi geziak ikusmiran zituztela, autoentzako itsasargiak bailiran arratsaldearen grisean.

—Non lan egin zuen Gastonek 1972-tik 1975-era bitartean?, ausartu zen Julene elkarrizketa berpiztera.

—Nik dakidala, sortu berria zuen Gure Gauzak argitaletxeaz arduratu zen, nagusiki, baina deus kobratu gabe. Ez zen lan ofizial bat. Emaztearen soldatarekin bizi ziren. Miarritzen apartamentu bat alokatzen zuten. Hezkunde nazionalean irakasle zen Sonia eta hemen lanpostua eskaini ziotelako etorri ahal izan ziren honera bizitzera. Miarritzen liburudenda bat sortzen ere saiatu zen, lortu gabe. Geroago, klase partikularrak ematen hasi zen eta gurera etorri baino lehenxeago, Parisen bezala, gaztelera irakasten eman zituen hilabete batzuk Miarritzeko ikastetxe pribatu batean.

—Eta nola hasi zen zuekin?

—Bada, argitaletxea muntatzeko iharduera Iparraldeko jende ainitz ezagutuz joan zen eta, behin batez, urtero ikastolako buraso eta irakasleek antolatzen zuten afari batera etorri zen, buraso batzuk lagun zituela. Angeluko opor-etxe batean egiten ziren afari haiek, eta hain ongi igaro zuen arratsa, hain ederki konpondu zen irakasleetako batzuekin, ezen, erdi txantxetan, lana proposatu baitzioten. Eta, inork espero ez zuelarik, baietza eman zuen. Erran dizudan bezala, ez zen edonor Gaston. Orduantxe punturik gorenean zegoen bere idazle ospea, eta nehork ez zuen uste izango gurekin, ikastola narrats hartan, irakasten hasiko zenik.

Baionako hiri erdira sartu aurretik, eskuinera jo eta autobide batetik Kanborako bidean ziren bi emakumeak. Pinuak landatu aurretiko Bizkaiko mendiek ere Iparraldeko mendien antza izan behar zutela pentsatu zuen Julenek, Errobiren ertzak eta inguruetako muino orlegi samurrrak ikusten zituela. Politegia zen dekoratua egiazkoa izateko. Ez zirudien bertan jendeak bizi behar zuenik. Kanboko Xalbador ikastegira iritsi eta euskal estiloko eraikin dotorea ikusi zuenean ere, panpin etxea iruditu zitzaion. Jolastokietan haurrik ez ikusteak inpresio hura areagotu zion. Ez zen ausartu Lekunberriri ezer esatera bazekielako, jakin, ohar mota horrek Iparraldeko jendea zauritu egiten zuela, baina bertan bizitzea ezinezkoa izango zitzaiokeela esan zion beste behin bere buruari.

—Zenbat haur dabil hemen ikasten?, galdetu zuen eraikin nagusiaren inguruko berri eta funtzionalagoei erreparatuz.

—Ehun eta berrogeita hamar eta berrehun artean, labealdi ezberdinen arabera. Hamaika urtetik hamasei urtera bitartekoak.

—Hau izan zen, beraz, Iparraldeko bigarren mailako lehen ikastetxea?

—Ez arras. Aintzinetik, Baionan bertan, auzitegiaren ondoko karrika batean eman ziren urte batzuk. Baina etxe honek sinbolizatzen du hemengo ikastolen egonkortze eta hazkunde fasea. Etxea lortzea ez zen, haatik, gauza sinplea izan eta ikasturte hasiera zenbait behin-behineko eraikinetan egin ziren, Bidarten eta Mugerren. Gastonek gurekin bizi izan zituen abentura haiek eta hori izan zen manifestaldi batean parte hartzen ikusi nuen aldi bakarra.

—Hemen ere irakatsi zenuen zuk?

—Bai. 1982an hasi nintzen hemen, Gastonekin batera.

—Zenbat urtez egon zen Gaston hemen?

—1986ra arte. Erretiroa hartu zuen orduan. Halere, etortzen jarraitu zuen, osasuntsu iraun zuen artean. Bere

familia bihurtu zen ikastolakoa. Urtero parte hartzen zuen Herri Urratsen antolakuntzan eta beste hainbat ekintzatan, bolondres gisa.

—Urte zoriontsuak izan ziren.

—Bai eta ez.

—Zer ba?

—Pixkanaka idazteari utzi eta bere argitaletxearekiko interesa galduz joan zen. Uste dut haserretu egin zela jende batekin. Mugimendu hartatik kanporatua sentitu zen eta horrek idazteko grina eta adorea ebatsi zizkion. Fisikoki ainitz erori zen bat-batean. Ordurarte ezagutu ez nizkion begizuloak egin zitzaizkion, heriotzera arte atxikiko zituenak, begitarteari mintz gris-horail bat bezala itsatsi zitzaion, zentimetro batzuk kolpez galdu zituen...

—Zahartu zen.

—Ez bakarrik. Bizitzeko arrazoi bat guttiago izatearen ondorio izan zen apaltze hura, nire iduriko. Ez zen ainitz mintzatzen gauza horietaz, biziki mingarria zatekeelako, baina bai, baztertua sentitu zen, kultur mundutik baztertua. Ez zen egunkarietan agertzen, ez zuen ezer argitaratzen eta bere adineko idazleak omentzen zituzten bitartean nehor ez zen berataz kezkatzen. Erresuminduta zegoela ere ezin dizut ukatu. Horren frogatzat daukat ez zuela gehiago irakurtzen kaleratzen zen ezer. Haurrik ez izana damutzen zitzaiola aitortu zidan behin. Eta nik bezain ongi dakizu zer idatzi zuen haurrei buruz *Eskribitu gabeko poema*-n. Lotsatu egiten zuela damutzeak, baina, ahulezia eta egoismo hutsez bazen ere, oinordekotza bat izateko ametsak taigabe gurutzatzen ziola gogoia aitortu zidan. Nire ustez, eta inoiz erran ez bazidan ere, literaturan aztarnarik utziko ez zuen komentzimendua zen damutze berankor haren arrazoina. Kontsolatzeko, eta sinesten dudalako, ezetz erraten nion, *Eskribitu gabeko poema* haur duina zela. Tamalez, arrazionalki bizitzan zehar eduki zuen

filosofiari leiala izaten jarraitzen zuen arren, zoriona «beste nonbait» zegoela —kasu horretan, oinordekotza biologikoa eta ez literarioa izatean— pentsatzea ekidinezina zela ondo-orioztatzen zuen, etsiturik. Itxaropena, zoritxarrez, ez duela inoiz kenduko gainetik gizakiak, bizi deno.

Ehorzketarako Berrizarrek aukeratutako Miranderen olerkia gogorarazi zion Juleneri Lekunberrik kontatu berri zionak. *Ai! goragotik ethorri-haizeek ailezate jo ene landetan et'eharraraz* «itxaropena» izena duen zithal-lili haur, ezpaineratu zuen Seaskako arduradun pedagogikoak ez aditzeko moduan.

Txirrin bat aditu zen, telefono batena ez bide zena eta furgoneta zahar baten bozina marrantatua oroitarazten zuena. Haur bat agertu zen euskal estiloko eraikinaren atarian. Beste bi jarraiki zitzaizkion. Hortik bi minutura ataria eta etxe aurreko belardia ikasle saltari eta jostariz josita zekuskiten Julene eta Lekunberrik.

—Aire hartzea da —komentatu zuen irakasle ohiak eskumuturreko ordularian baieztatuz informazioa eta, bidenabar, ohitura zaharren zaporea berreskuratuz—. Zenbat aldiz entzungo nuen txirrin hau... Ikasleak bidaian edo ateraldietara eramateko generabilen Volkswagen furgoneta zahar baten bozina birziklatua besterik ez da.

—Hori bera iruditu zait, irri egin zuen Julenek.

—Ikasleekin loreak tindatu genizkion karrozeria zaharkitu osoan zehar... Baina goazen hemendik irakasle batek harrapatu aintzin. Badakizu lankide arteko elkarriketak nola luzatzen diren eta... aspergarriak izaten dira kanpokoentzat.

Aitzakia hutsa zela otu zitzaion Juleneri eta oroitzapen biziegietatik ihesi joan nahi zuela Lekunberrik, lehen malkoa begiaren ertzean osatzekotan zuela somaturik. Protes-tatu gabe segitu zion autoraino.

Baionako itzulera bidean, gero eta zabalagoak ziren ostarteek mendien atzean desagertu berria zen eguzkiaren argitasun zurbila ikusten uzten zuten, lehen izar herabeen dizdira dardartiarekin norgehiagokan.

—Eta nola konpontzen zen emaztearekin? Ez al zitziaion lagungarri pasarte zail horietan?

—Giza harremanak, zenbat eta iraunkorragoak, hainbat eta konplexuagoak..

Era misteriotsuan erantzuten hasi zen Lekunberri. Halere, gutxi esanez gehiegi adierazi ote zuen beldurrez, azalpen zehatzagoak emateari ekin zion.

—Ez da errexak jakitea nola bizi ziren. Ekintza publiko gehienetara bakarrik joaten zen Gaston, besteak beste, gauza normala, Sonia ez zelako hemengoa eta euskara doi bat ikasiagatik ez zelako inoiz sartu euskaltzaletasunari lotutako borroketan.

—Euskara ondo daki?

—Nornahi ulertzeko adina, nik uste. Gastonek ez zuen hitz egiten emazteaz. Nirekin bederen. Halere, hil aintzineko azken bizpahiru urteetan gorabeherak izan zituztela erraten ahal dizut, egiatik urruntzeko beldurrik gabe. Gastonen osasun egoeraren degradazioan zeresanik izan zuelakoan nago, gainera. Errespetu handia zion emazteari eta ez dut uste inoiz Gastonek haserretzeko motiborik eman zionik. Bestalde, Sonia duintasun handiko emaztea da eta ez dut uste arinkeri batengatik harreman bat hankaz gora ezarriko zukeela. Senarra baino gazteagoa izanki, irakasten jarraitu zuen urtetan, Gastonek erretiroa hartua zuelarik, eta baliteke bat-batean laneko mundutik moztuta aurkitzeak —orain dela lau urte utzi zuen lana Soniak, oker ez banago— krisialdi batean sartu izana. Eta bi pertsona, munduko finenak eta maiteminduenak izanagatik, aldi berean, krisialdi existentzial sakon batean sartzen direnean, adin horretan gainera, bada...

—Eta haurrik ez izatea asumitua zeukan Soniak?

—Nire ustea da antzua zela. Eta Gaston ezaguturik, behar bada horregatik hain ongi egokitu zitzaizkion bata besteari hastapenetik.

Abiapuntura itzuliak ziren, Seaskaren egoitza azpiko aparkalekura. Elkar agurtzeko unea iritsi zen. Maialen Lekunberrik musu emanez agurtu zuen, frantses erara, eta besotik oratuz zera esan zion Juleneri:

—Pozten nau lan hau egiten ari zarela jakiteak. Gastonek merezi zuen omenaldi bat. Merezi zuen aztarna bat uztea. Eta segur naiz, zure lana ezagutzen baitut, biografia txukuna egingen duzula.

—Eskerrik asko arratsaldea hartzeagatik, Maialen. Egongo gara berriz.

—¿Vive sola tu tía, no?, galdetu zion Martak, izebaren apartamentuko telebista erraldoiaren aurreko butaka bigunean besoak eta hankak luzatuz.

Biharamunean Baionara joatekoak ziren Zaldunbide-ekin batera, Berrizarren alarguntsarekin saialdi berri bat egiteko, eta etxean lo egin zezan proposatu zion Julenek, goizean denborarik ez galtzarren eta ez altxatu behar izateko eguzkia agertu aurretiko ordu ilunetan. Zaldunbide Donostian hartuko zuten, Amarako autobus geltokian, gero elkarrekin zerbait bazkalduko zuten –parte zahar-rean– eta lauetarako Baionako zaharretxean finkatua zeukaten hitzordura azalduko ziren.

Julenek Martari hondar asteetako gertakizunak laburbildu zizkion, telepizza bana egongelako mahai apalean bermatuz jaten zuten bitartean. Batez ere, Gure Gauzak-i buruz ikasitakoak esplikatu zizkion, ulertzeko zailxeagoak iruditzen zitzaizkiolako. «Ireki» liburudendan gertatzen ari zena, Urdangarini egindako elkarrizketa, Agirreren jarrera bitxia ikusi zuen azken aldietan, Julenek Berrizarren alarguntsa ikusi ez zezan bi gizonak egindako ahaleginak. Martak, bere aldetik, lana aurkitzeko alferrikako eginahalak xeheki kontatu zizkion. Burasoekin haserretua zen, berauen etxean egotea jasanaezina bihurtua zitzaiolako eta, antza, burasoak ere aspertuxeak zeudelako bera etxean

edukitzeaz. Noraezean, nebaren eta azken honen neskala-gunaren apartamentura joana zen bizitzera azken asteetan. Baldintza horietan mutilaguna aurkitzea zaila zela ondorioztatu zuen Martak berak, bere zoritxarren zerrendatzea umore ikutu batez amaitze aldera.

Bridges of Madison county, Clint Eastwood-en alokatutako filmea ikusi zuten ondoren Juleneren izebaren trinitron handian, aspaldiko partez malko gozoren bat edo beste isurtzeko asmoz. Bi ordu beranduago, filmearen kredituek pantaila goitik behera, erritmo geldoan, zeharkatzen zutela, Martak besoak eta hankak luzatu zituen izebaren egoeraz galdera eginez.

—Bai, izeba bakarrik bizi da. Nire amama eta aititerenean bizi izan da luzaz, baina aitite hil zenean apartamentu hau hartu zuen, urtetan aurreztutako diruari esker. Nire amaren nebak, aldiz, amamarekin jarraitzen du. Bera ere mutilzaharra da. Ama da nebarreben artetik ezkondu den bakarra. Ez dakit gauza hauek ez ote diren genetikoak, ez ote diren belaunaldi betetik bestera jarauntsi bihurtzen. Amaren aldetiko familian gutxi dira ezkondu direnak, arbola genealogikoan gora eginez gero ere. Eta ez da arazo fisiko bat. Izan ere, egia da ez garela bereziki ederrak, baina ezkondu direnak ez dira, ezta ere, gure arteko ederrenak. Izeba, adibidez, emakume ederra da, ama baino ederragoa.

—Lesbiana da?

—Baliteke. Baina asumitu gabea, adin horretako asko bezala. Uste duzu gure inguran dabilzan donado eta mutxurdin guztiak homosexualak direla? Zenbatekoa izango da bakarrik bizi direnen artean homosexualak ez direnen portzentaia, hau da, bilatu arren aurkitu ezin izan dutenena?

—Eta zenbatekoa izango da, homosexualak izan arren arrazoi praktikoengatik —beti esplikatzen eta justifikatzen edo borrokatzen ez ibiltzearren, edota haurrak izateko gogoagatik— norman sartzea erabaki dutenen portzentaia, egiazki heterosexualak ez izan arren?

Julene, pizzen kartoiak sukaldera eraman eta mahai apaetik apurrak kentzeko belakia eskuan zuela itzuli zen.

—Beno, eta nola doaz gauzak Zaldunbide señoi-toarekin?, galdetu zuen Martak zirika.

Pizza apurrak belaki hezean bildurik, sukaldera joan zen Julene, erantzuna hobeto prestatzeko denbora beharrezkoa bailuen.

Martak Juleneren psikearen azterketari ekin zion, aho-tsa ozenduz, sukaldetik entzuteko moduan, erdi-txantxetan.

—Meryl Streep-i zuri gertatzen zaizun antzeko zerba-it gertatzen zaio. Bizitza arrunta eta “zoriontsua” darama (ezkondua, seme-alabak), etxeko andre errespetagarria d-ateke beraz, ala “benetako bizitzak” ihes egiten dionaren bel-dur den emakume bovariano tipikoa, nondik begiratzen zaion... Dena dela, hara non agertzen den Clint, eufemis-moz “heldua” deritzon gizonak eduki behar dituen tasun xarmagarri guztiekin (zilarrezko adatsa, abenturen haizeak zizeldutako zimurrak bekokian, ilusio guztietatik itzuli eta funtsean garrantzitsuena maitasuna dela ulertu duenaren begirada zorrotz bezain samurra...), eta hortik aurrera betikoa, nahi eta ezin, ahal eta nahi-ez, duda-muda, damua.

—Zertan du Clint-en istorioak zerikusirik nireare-kin?, harritu zen Julene berriro egongelan agertuz.

Sasi-analisia entzuteko prest zegoela adierazten zuen bere irribarreak baina entzun bitartean sofa destolestu eta berea izango zen ohea egitera gonbidatu zuen Marta.

—Clintenak ezer gutxi, zoritxarrez. Meryl Streep-enak, ordea, askotxo. Bizitza arrunta eta “zoriontsua” ei daraman emazte itxaropenetsia zu zara. Zure ditxosozko ikasketak dira zure senar on baina aspergarria, eta lortu duzun situa-zio profesional txiki eta apurkorra, berriz, zure seme-ala-bak. Beste hitzetan, “la Bovary, c’est toi”. Alde batetik errealitatea onartzen eta bere gain hartzea erabaki dutenen autopista zabal, amaituezin, gris eta monotonoa; bestetik,

mapetan ere agertzen ez diren bidexka erakargarriak; eta bien artean, segurtasunetik ezezagunera dagoen jauzia egiteko behar den ausardia, edo heldutasun falta, nondik begiratzen zaion, hor ere...

—Benoa, eta zer aukeratzen du Meryl Streep-ek, zure ustez, segurtasuna ala ezezaguna?

—Bada, Clint Eastwood-ekin oheratzen da, baina... konplexuagoa da. Meryl Streep-ek ondo ulertzen du Clint-ek errepresentatzen duen amets erromantikoa finean hori besterik ez dela, amets bat. Beste hitzetan, bere bovarismoa ondo asko ulertu duen Bovary bat da Meryl Streep. Eta gauza guztien artean politena ametsa bera denaz komentziturik, badaki Clint-ekin alde egingo balu berriro senarrarekin gertaturikoa gertatuko litzaiokeela, alegia, ororen buru monotoniak ametsa suntsituko lukeela. Horregatik, Clint-ekin oheratu eta plazerra ezagutu ondoren, senarrarengana itzultzen da. Ametsaren gozoa dastatu du, baina zapuzteko denborarik utzi gabe. Eta, hil artean, dastaturiko ametsaren gozoa bere baitan eta sekretuan gordeko du, altxorrik preziatuena bailitzan.

Julenek ez zirudien oso komentzitua Meryl Streep-en jarreraren zulentasunarekin, ezta Martaren maindireak jartzeko erarekin ere. Lagunak maniatikotzat hartuko zuela jakinik ere, maindirearen ertza sofaren koltxoi azpitik atera eta berriro apailatzeari ekin zion, galdera berri bat harira ekarriz, bere mania disimulatzearren.

—Eta arriskua? Non dago apustua eta apustua egiteak dakarren arriskua?

Martak Juleneri arrazoia eman zion.

—Egia da. Oso pragmatikoa da Meryl Streep-en aukera. Erromantizismoa beti egon da heriotzarekin edo gutxienez porrotarekin lotuta, eta hemen, berriz, sentimentu erromantikoari iraupen artifiziala emateko “trukoa” aurkitzen duen emakume zuhur baten istorioa kontatzen zaigu. Paradoxa hutsa, ezen eta benetako sentipen erromantikoa

iheskorra dateke, definizioz, zorionaren iheskortasunaren sentipen iheskorra, zehatzago izateko. Zahartzaroz hiltzen den Bovary bat, zer esanik ez, estafa bat da.

Rewind botoitxoari eman zionean ordubatak zirela ikusi zuen Julenek bideo-irakurgailuan.

—Beno, potxola, lo egingo dugu, ezta? Bihar Zaldunbideri txapelketako begizuloekin agertuko ez banatzaio, hobe oheratzea.

—Egin amets ederrak, polita, erantzun zion, irribarre maltzurraz, Martak.

—Non bazkaldu nahi duzue, galdetu zien Julenek autoan sartu berria zen Zaldunbideri eta, lekuz aldatuz, autoaren atzekaldean eseri zen Martari.

—Amaran bertan geratu nahi duzue, ala denbora pixka bat daukagu?

—¿Vamos a la parte vieja, como dijimos, no?

—Orduan goazen *Politena*-ra, proposatu zuen Zaldunbidek, Martaren presentzia espero ez zuela disimulaztea zaila zitzaiolarik.

—Zu zara donostiarra.

Bulebarraren puntan, herriko etxetik gertu, aurkitzen zen *Politena* jatetxearen lehen solairuko jangelara igo eta presa apur batekin zebiltzala zehaztu zioten arazorik ez zegoela ziurtatu zien zerbitzariari. Karta erakutsi gabe, ahoz izendatu zizkien zerbitzariak plater ezberdinak. Aukera egin eta sarreren zain zeudela, Zaldunbidek aire misteriotsu bat hartu eta aulkitik zintzilik jarritako motxila bere belauen gainera eraman zuen.

— Ezetz igarri, Julene, zer daukadan hemen barruan?

Julenek burua ezker-eskuin astindu zuen. Zaldunbidek eskua motxilan sartu eta supituki zerbait atera zuen.

—Tatxan! *Eros 2*: Arantza Aranaren ipuin erotiko berriak, Gure Gauzak-en eskutik.

Zigor bati oratzen zion emakume narru beltzez estalia agertzen zen azala ikusi zuen Julenek. Eskua luzatu eta liburuaren aurkibidea eta solapa begizatzen hasi zen. Julenerengan piztutako interesak pozturik, Zaldunbidek berearekin jarraitu zuen.

—Atzo atera zen. Beno, atzo iritsi zen Donostiako Saguzar liburudendara.

—Prensan ez dute berriro aipatu. Ez dut ikusi erreseinarik behintzat, komentatu zuen Julenek, liburua orritzatzen ziharduela.

—Bitxia da liburuaren inguruan gertatu dena. Halako aurkezpen zalapartatsua Durango aurretik, gero libururik ez azokan, eta orain irteera diskretu hau... Baina are bitxiagoa da, sinestaidazu, liburuaren edukia.

Barazki menestra bana iritsi zitzaien, lurruna zeriela.

—Zer ba? Ekarriko diguzu ur pixka bat? —galdetu zion Julenek zerbitzariari— *Eros* baino gogorragoa, gordinagoa ote?

—Ez, ez da hori. Beno, bai. Batzuetan pornora hurretratzen da, batez ere sado-masokismoaren unibertsoa, baina ez, harrigarriena zera da, ondo idatzita dagoela. Liburu ona idatzi digula Aranak. Azken hilabeteetako libururik borobilena. Dударik gabe. Indar handiz idatzia.

—Baina, baina...

Marta jokoz kanpo zegoela oharturik, azalpen labur bat eman zion Julenek, besteak beste *Eros*, Aranaren lehen liburu «arrakastatsua», zabor komertzial merkea baizik ez zela izan esplikatu.

—Nola liteke horrelako aldaketa?

—Ez dakit —kezkatu zen Zaldunbide—. Akaso *Eros* Gure Gauzak-ek zensuratu egin zuen genero erotikoan emandako lehen pausuak zirelako eta irakurlekoaren erreakzioari beldur ziotelako, eta orain, lehen liburuaren arrakasta eta gainerantzeko argitaletxeen erotismoranzko

norabide aldaketa ikusirik, bada, Aranari askatasun osoa eman diote nahi duen moduan eta nahi duenaz idazteko...

—Konplikatu samarra, hipotesia. Dena den, irakurri arte ez dut sinetsiko ondo idatzita dagoenik.

—Badakizu ez dizkiodala edonori loreak botatzen eta ez diodala euskal literaturako bollitoari sinpatia berezirik.

—Horrexegatik, harrিতuta naukazu, sinesgogor.

—Ondo pentsatzen jarrita, gertatzen dira halako gauzak; idazleen maila aldaketa brutalak aski arruntak dira. Onetik txarrera pasatzea hain sarritan agitzen bada, zergatik ez alderantzizkoa?

—Aranaren «success story»a baieztatuko balitz, hau da, ona izateaz gain bigarren liburu hau ere asko salduko balu, uste duzu «autonomiaren belaunaldi» sakratuko elefanteen parera igoko litzatekeen gure belaunkideetako lehena bihurtzeko aukerak dituela?

—Ez dakit —pentsakor jarri zen Zaldunbide bere-berea ere zuen galderaren aurrean—. Lehenik, ikusteke dago asko salduko duen. Bigarrenik... bigarrenik, iruditzen zait idazle labealdi bat hegemoniko bihurtzen denean ordezkaketa ez dela lege biologiko soilari jarraiki gertatzen. Belaunaldi grisak asko dira gurean. Baliteke «h» handi batekiko historiaren bultzada, edo laguntzatxoa beharrezkoa izatea. Begira zein izan diren mende honetako bi idazle belaunaldi handienak, bata II. Errepublika eta gerra zibilari lotua eta bestea Trantsizio urteen ingurumarian osatua. Baldintza sozio-historiko berezi batzuetan idazleek zeresan handia izan dezakete, beste batzuetan, ordea... Bestalde, uste dut belaunaldi batek beste baten menpeko izaten jarraitu nahi ez badu aurrekoari gerla egin behar diola, eta gerla egiteko motiboak aurkitzea dela bere eginkizuna ez bazaizkio garbiki ageri. Pazifikoegiak gara behar bada...

Sardina erreka eta haragi xerra bi ekarri zituen zerbitzariak.

—Edo elefanteek utzi diguten egoera ez dago gaindirtuta, ez da usteltze fasera heldu oraindik.

—Ez dakit ba... Nolanahi ere, hau da behar bada hain iraupen luzea izan duen lehen idazle taldea. Normalean, edo gazterik hasi eta gazterik bukatzen ziren euskal idazleen ibilbideak, edo helduak zirela hasten ziren taularatzten, Berrizar, Mirande eta hauek guztiak bezala.

—Azken hamarkadetako argitalpen egituren egonkortasun eta indartzea ere euren alde izan dute, aurrekoek ez bezala —argudiatu zuen Julenek, Berrizarren aipamenak Gure Gauzak-en inguruko kontuak burura zekarzkiola—.

Ezer esaten ez zuen Martari begiratu zion. Aspaldian Zaldunbide eta berari kirika egon zela ohartu zen. Irriño bat marraztu zen haren ezpainetan Julenek ulertu zuela konturatzera.

—Te estamos aburriendo con estos rollos de literatura vasca, ohartu zen Zaldunbide.

—Que va, me tengo que enterar de qué va la cosa si vamos a hablar con la viuda esa.

—Ez da oso konplikatu —azaldu zion Julenek erdaraz—. Gure misioa atsoarekin kontaktuan jartzea da, komunikatzea, eta horretarako konfiantza harreman bat sortu behar dugu. Esan beharrik ez dago Ilunek eta zuk frantsesa jakitea aurrerapauso handia dela niretzat.

—«Encuentros en la tercera edad», esan zuen Zaldunbidek extralurtarren ahotsaren pareko izan zitekeen tonu metalikoaz eta begien txuria bakarrik erakutsiz.

—Nik ez dakit frantses askorik, abisatu zuen Martak.

—Berdin dio, polita —lasaitu zuen Julenek—. Besterik ez bada, bidaiaren nekea arintzen dit zuekin joateak. Egun osoa pasatzea etxetik kanpo, bakarrik, autoan...

—Iparraldean... gehitu zuen Zaldunbidek etsipen aurpegia jarriz.

—Zenbat izarrekoa da zaharretxea?, komentatu zuen Zaldunbidek miretsita zegoela txistu eginez adieraziz.

—Ez dakit baina zahartzeko gogoia ematen dit, gainerratu zuen Martak, Julene atzeraka aparkatzeko maniobra bukatzen ari zela, gurpilak harrixketan karraskaraziz.

Lehen bisitaldian baino are ederragoa iruditu zitzaion etxea inguratzen zuen arboladia. Negu amaierako eguzki errainu labur bezain lotsagabeek biziberritzen zituzten adaska eta enbor marroi ilunak. Harrerako zaharzaia ez zen aurreko aldikoa. Urrunean entzuten zen musikak distraituta bide zeukan Zaldunbideri ukondokada txiki bat eman zion Julenek, frantsesez hitz egin ziezaion emakumeari.

«Nous voudrions voir Madame Sonia Clémence» txukun batez bere frantses maila agerian jarri zuen Zaldunbidek. Ez omen zegoen zaharretxean une hartan. Alabaina, iristekoa omen zen. Nahi bazuten barrura pasa zitezkeen itzaroteko. Askari bat antolatu zuten zaharrak libertitzeko eta musika talde bat ere kontratatua zuten. Etxearen aurrekaldean lorategiari begira aurkitzen zen areto nagusira sartu ziren. Zahar asko, zenbaitzuk zutik, bestetzu eserita, gainerakoak gurpildun aulkietan, ahaide zenbait, bisitari arruntak. Orotara, berrogei bat lagun. Mahai luze bat paperezko zamau txuriz estalia, bertan alkolik gabeko edariak,

gailetak, azeitunak, pate ogizerratxoak. Bi musikari, bata sintetizagailu gainean makurtuta, bestea kantari. Bossanova kaxkar bat 70eko hamarkadako orkestrazio kutre batekin, «Vacaciones en el mar» zigiludun giroa.

—Oraindik ere laster zahartzeko gogoz? Zaldunbidek Martari.

Paso doble bat jotzen hasi zen orkestatxoa. Inork dantza egiten ez zuela ikusirik, Zaldunbidek Marta dantzatzera atera zuen. Zahartxo zenbait, ikuskizun hark animaturik, dantzatzen hasi ziren. Batez ere emakume bikoteak osatu ziren, gizonak, herabeago edo baldarragoak izateaz gain, askoz gutxiago zirelako. Julenek bere bidaideak elkarrekin ondo konpontzeari positiboa bezain kezkarria zeritzon. Alde batetik, bikote bat oinarri sanoekin osatzeko beharrezkotzat jotzen zuen bikotekide bakoitza bestearen lagun minekin adiskidetzea, norbaitekin ibiltzeak harreman sozialen pobretze bat bazekarren merezi ez zuen seinale baitzeritzon. Bestalde, eta arrazoi berberarengatik, Marta eta Ilunen arteko konplizitate hasiberria kezkarria zen Julenerentzat zeren oinarri zindoak harreman serioa baitzekarren automatikoki eta, beraz, Ilunekin zerbait gertatzekotan, ezin izango zelako, jadanik, azaleko harreman ondoriogabea. Eta harreman serioa izateko une hartan bere baitan sentitzen ez zuen ausardia existentziala eduki behar zen. Ezin egin Meryl Streep-en jokaldirik —hau da, piszinan busti gabe sartu—, eratzen ari zen konfigurazioan.

Emakume garai batek, aretoan sartu gabe, atetik bu-rua pasatu zuen bertan gertatzen zena kirikatzeke edo norbaiten bila zebilelako, eta Juleneren begiradak harena gurutzatu bezain laster desagertu zen. Alarguntsa. Ez bide zen harentzat sorpresa atsegina Julene han bere zain aurkitzea. Bisitaria beste norbait zela esperoko zuela otu zitzaion Juleneri. Segituan zutitu eta nondik ihes egiten zuen ikustera joan zen aretoaren ateraino. Lorategirantz

zihoan. Zaldunbide eta Martari berari jarraitzeko keinua egin zien. Musikariek penaz ikusi zuten urruntzen hor arteko entzulego pasiboa dantzan jartzea lortu zuen bikote gaztea.

—Madame Berrizar! S'il vu plé.

Sonia Clémence gelditu egin zen. Burua itzuli eta Juleneren atzetik zetozen bi lagunei begira geratu zen ondoren, gertatzen zena ulertu gabe.

—Un ami écrivain, Ilun Zaldunbide, une amie, aurkeztu zizkion gonbidatu sorpresak.

—Je vous ai déjà dit que je n'avais rien à vous dire, haserretu zitzaien alarguntsa.

—Ez duela ezer esateko asmorik —itzuli zuen Zaldunbidek—. Accordez-lui une minute pour vous expliquer qui elle est et ce qu'elle veut, zuzendu zitzaion Berrizarren emazteari.

Defentsa lerro bat erori bailitzaion, pausu bat atzera egin zuen alarguntsak, solaskideetako batek frantsesa zekiela eta zegiela ikustearekin bat.

—Je... je n'ai rien à vous donner.

—Ez omen dauka ezer emateko.

—Emateko?, harritu zen Julene.

—Bai. Hori esan du.

Huts bat egin zuela ohartu bailitzan, aurpegia zurrundu zitzaion alarguntsari.

—Esaiozu ez dugula ezer nahi bere kontakizuna baino, Gastonen bizitzaren ikuspegi zehatzago bat emateko jendeari.

Zaldunbideren azalpena luzea izan zen —ez zen mugatu Julenek esandakoa hitzez hitz itzultzera, *Eskribitu gabeko poema*-z egindako azterketa onenaren egile zela Julene esan baitzion Zaldunbidek, besteak beste—. Clémence anderea lasaitu egin zuen azalpenak edo, apika, elkarrizketa saihetsgaitza zela ulerturik, lehen bait lehen bukatzeko

asmoa zeukan. Grabagailua paltoaren sakelan zeraman Julenek baina, gauzak aurrera zihoazela ikusirik, ez zuen dena hondatzeko arriskurik hartu nahi izan eta motxilatik koaderno eta bolaluma atera zituen, gutxiago inpresionatzen zutelakoan. Alarguntsak lorategiko mahai bat erakutsi zien eta bertan eseritzeko gomita epel bezain neurtua luzatu zien.

Abagunea iritsi zela sentiturik, Julenek Zaldunbideri jarraibide batzuk eman zizkion, esertzen ari zirela, badaezpada ahapeka. Galdera «zailtara» heldu aurretik bide ziu-retatik ibiltzea komeni zen.

Hasieran dena ondo joan zen. Miranderekiko harremanaz galdetu zioten eta hor arte ezezagunak ziren elementu batzuk irakatsi zizkien alarguntsak, aldeztu aurretik ezagunak zitzaizkien informazioekin nahasita. «Paris Beuret» olerkia *Euzko Gogoa*-ren 1951ko ale batean irakurtzearekin batera hasi ei zen Berrizar herdoildua zeukan euskara lantzen. 1954ean gertatu omen zen hori, Clémence andereak zioenez, hain zuzen Sena ertzeko bouquinista ezagun batenean gelditu eta euskarazko aldizkariaren alea aurkitu zuenean artean oraindik idazle ez zen senarrak. Euskaraz zegoela-eta, bouquinistak gorde egin zuen aldizkaria, egunen batean bezero erregularra zuen Berrizarri erakusteko edo saltzeko asmoz. Egun hartatik aurrera Mirandear Ion horren testuak biltzen saiatuko zen eta, helburu horrekin, sortu berria zen Euskal Etxera ere hurbilduko zen. Doi-doia omen zekien berak, Sonia Clémencek, senarra euskalduna zenik «errebelazio» hura gertatu aurretik. Miranderen irakurketak lotsa antzeko bat gainetik kendu balio bezala, bat-batean Euskal Herria, haurtzarora, euskara, baserria, Lekeitio, seminarioa, gerra zibila, denak aipatzen hasi zitzaion senarra. Paristar ikastetxe katoliko batean gaztelera irakasten zuen etorkin espainiar antifrankistatzat zeukan senarra beste norbait ere bazela deskubritu zuen.

Hiru solaskide gazteek erakusten zuten arreta zintzo eta egiazkoa zela medio, hitz egin ahala, Berrizarren emaztearen aurpegia zurruntasuna galtzen ari zen.

—Galdegiozu noiz eta nola elkar ezagutu zuten?, belarriratu zion Julenek adiskide itzultzaileari.

Bere buruaren eta bere sentimentuen kontrola erabatekoa izango zela alde zurratik argi eta garbi utzi nahiz edo, ukabilaz ahoa estali, eztarria berariazko eztul batez garbitu, eta burua jaso zuen erantzun zurratik.

—J'ai commencé à vous livrer notre passé, et vous semblez m'écouter avec un intérêt sincère, mais il est temps que vous fassiez de même et que vous m'expliquiez honnêtement pourquoi vous avez pris la peine de venir me voir à deux reprises.

Esaldia bota eta isilik geratu zen, ezer ulertu ez zuen Juleneri beha.

—Ez du aurrera jarraituko zure motibazio sakona jakin gabe, laburtu zuen Zaldunbidek alarguntsak esandakoa.

Lainoak nagusitu ziren osoki grisa ageri zen zeruan eta artilezko jertsea jantzi zuen Sonia Clémencek. Martak ere bere paltoa, besoak mahuketan sartu ez bazituen ere, sorbaldaratu zuen.

—Esaiozu bere senar-ohiaren mireslea naizela eta biografia hau bihotzez egiten ari naizela, ez interesez.

Zaldunbideri ez zion itzultzeko betarik eman emakumeak, eta Julenek esandakoa ulertzeko adina euskara bazeukielako agerian utzi zion.

—Je n'en doute pas. Mais ça ne me suffit pas.

—Ez dauka zure Berrizarrekiko leialtasunaz dudarik. Haatik, ez zaio aski hori jakitea aurrera egiteko.

—Vous travaillez bien pour la maison d'édition Gure Gauzak?

—Gure Gauzak-en zerbitzuan zaudenez...

—... bai, ulertua nuen —moztu zuen Julenek itzulpena—. Esplika iezaiozu guztia.

—Guztia?, ziurtatu nahi izan zuen Zaldunbidek.

Sonia Clémence-i begirada zuzen eta garbia eskainiz gardentasunaren apustua egiteko erabakia hartu zuen Julenek.

—Guztia.

Zaldunbidek Juleneren inkestaz zekien oro kontatu zion, pausuz pausu, Berrizarren biografiarekin zerikusi zuzenik ez zuten gertakariak barne, hala nola «Ireki» liburudendarekikoak. Bidenabar, eta Sonia Clémence-k Gure Gauzak-i sinpatiarik ez ziola ziurtatu ostean, berak pertsonalki argitaletxe horri zion gorrotoaren berri ere eman zion.

—Esaiozu Urdangarinek eta Agirrek ez dakitela hemen nagoenik. Are okerrago, galerazi nahi izan dutela topaketa hau eta, helburu horrekin, Alzheimerrak jota da-goela esan didatela birritan, eta eritetxe batean aurkitzen dela Paris aldean.

Irriari eman zion lehenengoz Clémence andereak, eta bere begitartea kolpez ireki zen.

—Ce n'est pas totalement faux.

—Ez dela erabat gezurra dio, itzuli zuen iparra galduta Zaldunbidek.

Erregulariki bidaltzen omen zizkieten zelatariak Gure Gauzak-ekoek, hala sasi-kazetari mozorropean nola Berrizarren aspaldiko laguna izandako idazle gisa aurkeztuz. Halere, berak senarrak hil aurretik emaniko aholkuari jarraiki, ez zuen inoiz erantzuten. Agirre eta Urdangarin ere joan zitzaizkion behin zaharretxera, Berrizarri oroitarria egingo ziotela eta zizelkariaren ustezko planoak erakustera. Pikutara bidali zituen beti. Eta jende guzti hori pikutara bidaltzeko zer hobe Alzheimerraren sintomen alegia egitea baino? Asko irri egiten zuen gero, baina itxurak egiten zituenean une txarrak eta zailak ere igarotzen zituen. Urdangarin bera jotzekotan egon zen oroitarriarena aipatzera

etorri ziren egunean eta Agirrek gelditu ez balu joko zukeen.

Zur eta lur geratu ziren Julene eta Zaldunbide. Martarena ere harridura aurpegia zen eta eskertzen zuen errebelazioa frantsesez suertatu izana, horrela ez baitzuen itzulpenik eskatu beharko.

Clémence andereak segituan somatu omen zuen Julene ez zela zelatari horietako bat gehiago. Eta, egia esan, izenez ezagutzen zuen Julene, senarrak hil aurretik aipatua baitzion berak egindako *Eskribitu gabeko poema*-ren azterketa. Halere, Gure Gauzak-en jukutrian sartuta ez zegoela ziurtatu beharra zeukan ezer kontatzen hasi aurretik.

—Eta zer nahi dute zuregandik, horren erasokorrak izateko?, ausartu zen bere kabuz galdetzera Zaldunbide.

Antza, Gure Gauzak-ekoentzat interesgarriak ziratekeen dokumentu batzuen jabe zen Clémence anderea eta horien atzetik zebiltzan amorraturik. Julenek Gure Gauzak-en sorrerarekin harremandutako dokumentuak izango zirela pentsatu zuen tupustean eta dokumentu horiek noizbait erabiltzeko asmorik zuenez galdetu zion.

—Gaston m'a formellement déconseillé de les donner à qui que ce soit avant ma propre mort...

—Gastonek, bizirik diraueno ez inori emateko gomendatu zion.

—... mais il ne m'a pas interdit de les montrer.

—Baina ezerk ez dio debekatzen erakustea.

—Hortaz, ikusteko aukera legoke?, berotu zen Julene.

—Ils sont ici?, galdetu zuen ezustean ordurarte isilik egondako Martak, antza Juleneren kitzikapenak kutsaturik.

Solaskideen ezinegonak balaztak jarri zizkion alarguntzaren jokaera irekiari eta atzera pausoa eman zuen, uzkuraturik. Ez omen zeuden han, zaharretxean, Berrizarren dokumentuak. Jokoa berak zuzentzen zuela oroitarazi zien jarrera aldaketa soil harekin.

Tiroa zuzendu beharra zegoen eta Julenek elkarrizketa jarrai zezaketen galdetu zion. Hitz egiten jarraitzeko prest zegoela adierazi zuen alarguntsak. Burura zetorkion lehen galdera egin zuen Julenek, gakoa ordura arte irunduriko haria ez etetea zetzalakoan.

—Nola elkar ezagutu zuten?

Adeitasunez, Zaldunbideren itzulpenaren zain egon zen emakumea, galdera ulertu zuela ezagun zuen arren. Gaztelera irakasten ziharduen lizeo pribatuan Berrizarren ikasle izan zen gerra ondoko lehen urteetan. Ordu hartan, zegoeneko, bera Berrizarrekin maiteminduta egon zen baina urte batzuk beranduago gauzatu zen beraien arteko harremana, bera ere irakasletzarako konkurtsoa prestatzen ari zela. Aholkuak eta laguntza eskatzera joan zitzaion Berrizarri, bere ikasle ohia izan zela gogoraraziz. Harriturik utzi zuen Berrizar berataz zeinen ongi oroitzen zen eta, batez ere, eskuz idatzitako bere klase lan zenbait nola gorde zituen ikusteak. Aintzinako modara ibili ziren ondoko hilabetetan, «ez orain bezala, zirt-zart» eta azkenean berak irakasle postua lortzearekin batera ezkondu ziren.

Mordoka gogora zetozkion galderak iragazten saiatu zen Julene eta izan ez zituzten haurrei buruzkoa baztertzea erabaki zuen.

—Galdegiozu zergatik alde egin zuen seminariotik senarrak.

Haserre aurpegia jarri zitzaion alarguntsari, galderak zentzurik ez balu bezala.

—Le fait qu'il se soit marié n'est-il pas une élément de réponse suffisant?

—Ezkondu izana ez al den erantzun nahikoa esanguratsua?

—Baina zergatik erbesteratu?, egoskortu zen Julene.

Familiarekin, bereziki aitarekin, larriki samurtu omen zen Berrizar eta seminarioko aldian deskubritutako frantses

literaturak Frantzia ezagutzeko ametsa sartu omen zion buruan.

—Beraz, alde egiteko zioa ez zen politikoa izan?, baieztatu nahi izan zuen Julenek.

Ezetz egin zuen buruaz alarguntsak. Halere, horrek ez zuen esan nahi kontzientzia politikorik ez zuenik izan bere senarrak. Jende gutxik zekien hori baina frantses Erresistentzian parte hartua zen Berrizar. Bizkaiera erabiltzen zuen Erresistentziaren mezu sekretuak kodetzeko, «Lauaxetaren bizkaiera aranismoz bete», senarrak, bizirik zirauen artean, kontatzen zionez. Idazle kriptikoa izateko joera hortik zetorkiokeela ere esan ohi zuen idazleak, bere buruaz trufatuz. Hala eta guztiz ere, bere bizitzaren atal hartaz ez zuen aldi bakanetan baino hitz egiten, eta are gutxiago euskaldunekin, zehaztu zuen Sonia Clémence-k.

—J' imagine que c'est risible pour vous, mais mon mari avait obtenu la Légion d'honneur. Je ne l'ai moi-même appris que bien des années après notre mariage.

—Ohorearen domina deritzotena erdietsi zuen Berrizarrek, Erresistentziaren alde egindako lana zela medio, eta berak ere ezkondu eta urte asko pasata jakin zuen hori, itzuli zuen Zaldunbidek.

—Mirandek ba al zekien hori?, kezkatu zen Julene, zuberotarraren aukera politikoen jakitun.

Ez. Oso jende gutxik zekien. Mirande asko miretsi izanak ez zekarrela haren ideiekin bat egitea, gaineratu zuen alarguntsak, bere senarraz harro zegoela garbi utzi nahiz.

Ordu erdi bat gehiago luzatu zen solasa, zeinaren luzera osoan ez baitzion notak hartzeari utzi Julenek. Beste xehetasun biografiko argitaragabeen artean, hatzetako artrosi krisialdiak izaten zituela Berrizarrek aitortu zien Clémence andereak eta *Eskribitu gabeko poema* idazten ari zela halako artrosi eraso bat jasan zuela senarrak. Orduan ikasi ei zuen zekien euskara apurra berak. Izan ere, obraren hiru

laurdenak diktatu egin zizkion senarrak eta diktatu ahala ortografia, lexikoa eta hizkuntzaren egituraz hainbat argibide eman omen zizkion. Baionako udal liburutegian gordetzen zuten liburuaren eskuizkribua ez zela autentikoa ondorioztatu zuen Julenek, eta arrazoia eman zion Sonia Clémence-k. Remington portatil bat zeukaten etxean eta bertan idatzi zuen berak senarrak diktaturikoa. Eskuizkribua, artrosi krisialdia bukatu ondotiko bertsio zuzendu bat zen, hilabete batzuk beranduago idazleak fetitxismo hutsez bere eskuz egindakoa.

—Makinaz idatzitako originala zuk daukazu?, galdetu zuen Julenek, ikusteko irrikak bere buruaren kontrola galduarazirik.

—Vous êtes venus en voiture?

—Autoz etorri garen jakin nahi du.

Alarguntsa aurrekaldeko eserlekuan jarri eta Baiona osoa zeharkatu zuten, bidea hark erakusten ziela. Helmuga urruti zegoen galdetu nahi izan zuen Julenek baina ez zen ausartu, Clémence anderearen erabakia kolokan jartzeko beldurrez. Saint-Léon auzoko hilerria atzean utzi eta Juleneri ezaguna zitzaion Fakultate inguruko karriketan sartu ziren.

—A droite, puis, au feu rouge, vous continuerez tout droit et au rond-point suivant vous prendrez de nouveau à droite.

—Hango semaforoa eta geroko itzulgunean sartu eta eskuinera hartu, itzuli zuen Zaldunbidek, esku bana gidariaren eta alarguntsaren eserlekuen gainekaldeetan bermatuz.

—Egiategi irakaslea hor bizi da, esan zien Julenek Marta eta Zaldunbideri, harrizko etxe baten aurretik pasatzeaz zeudela.

—C'est là, esan zuen Clémence andereak, harrizko etxe berbera seinalatuz.

Marie-Thérèse, Egiategiren emazteak ireki zien atea harridura izpirik gabe. Adineko emakumeak besarkatu ziren eta aurrera egiteko, etxera sartzeko keinua egin zien Egiategiren emazteak hiru gazteei. Irakaslea bera egongelari aurkitu zuten kafea zerbitzatzeko txokoa atontzen.

—Ez dugu kadira aski, azaldu zien heldu berriei, irribarre zabal bat ezpainenetan.

Zurezko kutxa baten gainean eseri zen eta gonbidatuei utzi zizkien aulki zein besaulkiak.

—Un café, du thé, autre chose?, galdetu zien irakaslearen emazteak.

Kafea hartzeko ohiturarik ez izan arren baietz erantzun zuen Julenek, dokumentuei buruzko amesketan murgilduta. Zaldunbidek ere kafea aukeratu zuen, Martak, berriz, tea.

—Arazo linguistiko bat daukagu —ohartarazi zuen Egiategik, jostari—. Emazteak eta biok gazteleraz egin dezakegu baina Soniak ez. Ongi ulertu badut, zuk ez duzu frantsesa menderatzen, eta bi edo hiru dira hemen euskara egiten ez dutenak. Ingeleraz edo esperantoz ari beharko ginateke!

Gela herri ezberdinetatik ekarritako oroigarri ezberdinez apainduta zegoen. Egiategitarren munduan gairidiko bidaiak izan zituzten hizpide kafeak eta tea edan bitartean. Hegoamerika, Yemen, eta beste hainbat eskualde exotikotan egonak ziren senar-emazteak, noiz edo noiz Berrizar-Clémence bikotearekin batera, hezkunde nazionalen bidaia eskaintza interesgarriei esker.

—Nora joan zineten elkarrekin?, interesatzen ahaleginu zen Julene, jomuga zituen dokumentuak eskura izateko aukera hurbilak urduriturik.

Israelen izanak omen ziren eta Iranen ere bai. Bukaezina iruditu zitzaion ordu erdian iraun zuten horrela, huntaz eta hartaz solasean, eta ordularia geldituta zeukalako irudipena izan zuen bi bider Julenek. Azkenean, gonbidatuek tentaldiaren froga gairiditu zutela iritziz, alarguntsa Egiategirengana itzuli zen.

—Pascal, cette jeune femme voudrait voir certaines choses, je crois.

Paskal Egiategi altxatu eta hor arte eserita egon zen zurezko kutxa irekitzen hasi zen, jakaren sakelatik ateratako giltza baliatuz. Kutxara gerturatzeko adierazi zion alarguntsak Juleneri. Egiategi kutxako paper mordoa atera eta aletzen hasi zitzaion, ezer ikutzen uzten ez ziola.

—Hau *Eskribitu gabeko poema*-ren idazmakinazko jatorrizko bertsioa da, «Berbestea» titulua eramagatik.

Behin betiko bertsioa baino lodiagoa zirudien. Berrirakurketa fasean kenketa egiten duten idazleetakoa bide zen Berrizar eta ez gehiketa egin ohi dutenetakoa. Besterik gabe, datu interesgarria zen hura eta obraren azterketa genetiko bat egiteko tresna zoragarria izan zitekeela originala otu zitzaion Juleneri.

Karpeta batek argazkiak baino ez zeuzkan, garai guzti-eta-koak. Seminario garaiekoa zen orotarik zaharrena eta talde argazki bat zen. «Hau da Gaston», hatza Gastonen antzik ez zuen nerabe baten bularraldean kokatu zuen Egiategi irakasleak. Atzekaldean, 21-X-1935 data jartzen zuen, eskuz idatzita. Hamasei bat urte izango zituela Berrizarrek bertan kalkulatu zuen Julenek.

Argazki sail oso batean, Berrizar Egiategi eta Miranderekin ageri zen Pariseko hainbat tokitan. Janzkeraren errepikapenak eta hiru lagunen itxura fisiko egonkorrak, asko izanagatik garai bertsuan ateratakoak zirela iradokitzen zuten.

—Noizkoak dira hauek?

—1966ekoak.

Kolorezko argazkiak zetozen ondoren. Senar-emazteak Iparraldera bizitzera etorrita zeudenekoak gehienak, nahiz Parisen ateratako pare bat ere bazen tartean. 70eko hamarkadako kolorezko lehen argazkietan higitze fenomenoaren ondorio zen gorrien eta berdeen zurbiltasun tipikoa ezagutu zuen Julenek. Dena urdintzen duen pixkanakako despigmentazioak xarma berezia

zemaian garai hartako irudiei. Azken urteetako argazkiak ere baziren karpetan, batzuk antza Egiategitarrekin egin-dako bidaia luze horietako batean atereak. Azkenik, txuribeltzezko argazki isolatu bat erakutsi zion irakasleak.

—Erresistentziako lagunak, iruzkin laburra egin zuen Egiategik.

Begirada zerurantz zuzenduta eta kopetak agerian uzteko moduan ileak atzerantz orrazturik ageri ziren bost gazte, zeintzuen artean Gaston Berrizar zailtasunik gabe ezagutu baitzitekeen, eskuak ikusten ez zitzaizkion eta fusilik ez zeraman bakarra zelarik. Azpitik gora fokaturiko klitxea izanki, ez zen erraza non zeuden asmatzea. Haatik, bost pertsonaien atzekaldearen parte gehiena zeruak bereganatzen bazuen ere, pentsa zitekeen arroka baten gainean zeudela bostak, posea harturik. Argazkia eskuartean erabiltzeko baimena eman zion Egiategik eta atzekaldean bost lagunen izenak zetoze la ikusi zuen. Ezkerretik eskuinera irakurrita: Maurice Achard, Jean Bellonne, Thierry Castaldi, Gaston Berrizar eta Tomas Arretxe. Beste behin irudia kirikatu zuen Julenek. Alarguntsari so geratu zen iruzkin baten esperoan, baina ez bide zuen Egiategik esandakoari ezer gehitzea beharrezkotzat jo.

—Arretxe hau ez da izango orain dela urte batzuk hil zen poeta durangarra, ezta?

—Bai. Bera duzu.

—Eta zer arraio egiten du argazki honetan?

Alarguntsak hartu zuen Egiategiren segida zera esplikatzeko, Arretxe izan zela bizkaiera lauaxetarraren bidezko kodetze-deskodetze jokoaren bigarren euskarria.

«Pena hau ere hilda egotea», egin zuen bere artean Julenek.

Karpeta itxi eta beste paper piloa atera zuen kutxatik katedratikoak. Agrafatutako edo liburu ki gisa taxuturiko A4 formatuko orriak ziren, eskuz ala makinaz idatzitako testuz beteak.

—Il a continué d'écrire à la main jusqu'à la fin.

Eskuz idazten jarraitu zuen bukaera arte, Remington idazmakina saldu egin omen zion antikuario bati eta ordenagailuari ez zitzaion inoiz egokitu.

—Hauek Gure Gauzak-ek atzera botatako obrak dira, azaldu zion Egiategik, eta liburukiak zenbatzeari ekin zion, hogeit zentimetroko goratasun batetik lurrera bata bestearen gainean erortzen eta metatzen utziz.

—Harrigarria, komentatu zuen Zaldunbidek, kutxa ingurura hurreratzeko gogo biziz.

—Vous pouvez regarder, baimendu zuen alarguntsak.

—Hamabi obra dira orotara; hiru eleberri, beste hainbeste poema liburu eta literatura zein gai filosofiko nahiz orokorragoei buruzko hainbat saiakera.

Liburuki gehienek ez zeramaten titulu orrialderik, edo azal antzekorik. Eskuarki, titulua hizki txikiz ageri zen eskuizkribuaren lehen orrialdearen gainekaldean, testua bera jarraikitzen zitzaiola. Julene ez zen ausartu ezer eskatzera. Denbora eskas zuelakoan, liburukien lehen orrialdeei begiratu bana eskaini zien, berauen edukiaz ideia azkar bat egitearren.

Lehen liburua freudismoaren bulgarizazio saiakera bat zen eta bigarrena ere saiakera zen, baina interesgarriagoa. «Euskal arimaren interpretazio psikoanalitikoa» titulua zeraman, Oteizaren *Quosque tandem*-en azpitudulari garbiki oihartzun eginez. Ondoren, eleberri bat zetorren, «Burdina haragian» izenarekin eta T.C. delako bati eskainia. Aurreko eskuizkribuekin baino denbora gehixeago igaro zuen orrizatatzen Julenek eta alarguntsa ohartu zela ikusirik, hurrengoekin jarraitzea erabaki zuen, badaezpada. Aulkitik zintzilik zegoen motxila barruan utzitako koardernoaren bila joateko gogoak hazka egiten zion. Alabaina, kutxan zegoen guztia ikusi aurretik ahal bezain zuhur jokatzera hobetsi zuen. Liburuki batek diptikoa osatzen zuela zirudien Berrizarren obra nagusiarekin, edo ordurarte

behintzat nagusitzat jotzen zen bakarrarekin, «Irakurri gabeko poema» titulua baitzeraman. Lauaxetaren erdi-biografia erdi-azterketa literarioa zitekeen saiakera ere idatzia zuen Berrizarrek, titulurik gabe baina aurkibide batez hornitutako lehen orrialdea aintzat hartuz gero. «Deabruen sexuaz» izeneko elkarrizketa luze bat ere bazen liburukietan, antzerkitzat edo eleberri dialogatuztat har zitekeena eta tonu umoretsuan idatzia zirudiena. «Gaba» izeneko poema bilduma bat zen azkenaurreko liburukia. Surrealismoaren ildotik idatzia, lehen bi mikro-olerkiei kasu egiten bazitzaien. Azkenik, Egiategiren esanetan, amaitugabea zen eleberri historiko bat zegoen, potolo samarra, Ipar Ameriketara arrantzan joaten ziren euskaldunen historia oinarritzat harturik utopia sozial bat garatu gogo zuena. «Mundu berria» zuen izenburu.

Egiategi irakaslearen eskuak berriro zurezko kutxan sartu ziren baina ez zuten ezer atera barrutik. Hutsik zegoelako jadanik. «Dokumentu» guztiak hor zituen Julenek, begibistan. Beraz, Gaston Berrizarren obra argitaragabeak ziren mobida guztiaren zio bakarra.

—Irakurri dituzu obra hauek denak, ezta?, galdetu zion Julenek irakasleari, liburuak edo liburuetakoa bakar batzuk mailegatzeko aukerarik zegoen galdetzea zelarik benetan pausatu gura zuen galdera bakarra.

—Bai, bistan da.

—Eta? *Eskribitu gabeko poema*-rekin erkatuz gero, zer maila daukate?

Hitz egin orduko, idazlearen alarguntsaren aurrean horren zuzen eta gordin senarra zenaren lanaren balioaz aritzeak suposa zezakeen irainaren kontzientzia hartu zuen. Zorionez, Clémence andereak ulertu ez zuenarena egin zuen, edo egiazki ez zuen ulertu.

—Har ezazu liburuetakoa bat eta ikusi zuhaurek, gonbidatu zuen Egiategik, nork berea baino iritzi fidagarriagorik ez zuelakoan.

«Burdina haragian» zeritzona aukeratu zuen Julenek, eleberri egile gisa ezezaguna baitzitzaien Berrizar, eta irakurtzen hasi zen, nahitara. Espero zuena gertatu zen orduan.

—Ez, hartzeko diodanean da etxera eramateko, zehaztu zuen Egiategik, alarguntsaren onesmena begiradaz biltzen zuela.

Julene ez zen ausartu gehiago eskatzera eta apaltasunez esker ona adierazi zion Clémence andereari. Deskubritu berri zuenak izan zitzakeen ondorio eta inplikazio ezberdinak arrapaladan gogora etorri zitzaizkion liburukia motxilan sartzen ari zen bitartean. Nola aipatu Gure Gauzak-ekoek Berrizarri argitaratu ez zitkioten obrak hain zuzen Gure Gauzak-ek manatutako biografia batean? Biografia bere fundatzailearekiko kontzientzia txarra garbitzeko modu bat bazen argitaletxearentzat, zuriketa edipiarra nolabait esateko, Julene pentsatzen hasia zen bezala, nola egin kontzientzia txar horren iturburu zatekeen idazlearen obraren zati ezkutu hura egia gezurtu gabe biografian integratzeko? Bazitekeen Julenek alarguntsa ikus ez zezan Agirre eta Urdangarinek buruturiko ahaleginek helburu hori izatea, alegia, Berrizarren bizitzaren atal sekretu horren izaera sekretua mantendu nahia. Halere, zerbaitek kale egiten zuen hipotesi horretan. Zergatik hartu bere burua harrikatzeko arriskua biografia baten idazketa manatuz? Garbi zegoen, goiz ala berandu obraren zati urperatua azaleratuko zela. Biografia bat argitaratuz eta jendeari lehen bait lehen salduz, argitaletxe lehiakideei biografia ez-ofizial bat egiteko apeta kentzen zitzaion, apika, ez zegoe-lako, inondik ere, merkaturik Berrizarren mailako –alegia, bigarren mailako– idazle baten biografia birentzat. Bazitekeen, baita ere, Gure Gauzak-ekoen apustua liburu ezezagun horien argitaragaitzasunean oinarritzea. Hau da, liburu haiek azaleratu arren nor ausartuko zen inoiz figura izatera iritsi ez zen idazle modaz pasatutako baten obrak kaleratzera? Onak izan ala txarrak, Berrizarren obra argi-

taragabearen potentzial komertzial apalak ez zuen, dena den, dudarik eskaintzen. Liburuen kalitateak egoeraren irakurketa ezberdinetara eramaten zuen, haatik. Izan ere, onak suertatzen baziren, *Eskribitu gabeko poema*-ren mailakoak edo are hobek, uler zitekeen Gure Gauzak-en kontzientzia txarra eta obra horien deskubrimendua atzeratzeko edo ekiditeko beharra. Baina kaskarrak suertatuz gero, Gure Gauzak-en erru historikoa berez deusezten zen eta ez ziren ulertzen ez biografia eginarazteko ekimena ez eta alarguntsarekiko jokamoldea.

—Ez al duzue Gastonen obrak argitaratzeko asmorik?, ausartu zen Julene, Egiategiri zuzendu arren alarguntsari begira.

Aurretik alarguntsarekin adostua bide zuten erantzuna eman zion irakasleak, proposamen batekin batera.

—Momentuz ez. Pantxoa Salaberrik aterako lituzke bihar bertan, baina...

—Pena da. «Primadera beltza» argitaletxe polita da baina Hegoaldekoiei ere behar bada interesatuko litzaieke, eta obraren irakurlegoa zenbat eta zabalagoa... Barkatu, moztu egin zaitut.

—... baina, nioen bezala, ezer argitaratu baino lehen obraren kalitatea bermatu behar litzateke, bidenabar publikitate ziurtatuz liburuei, eta... horretarako kritikoen laguntza beharrezkoa dugu... ulertuko duzunez, ni naiz gaizkien kokatua lan horren egiteko, Gaston eta biok lagun minak izan garela Euskal Herri erdiak dakielako... horregatik, zu bezalako ikerle «neutroen» lana...

—Badakizue Gastonen lana ezagutzen eta errespetatzen dudala. Izugarrizko plazerra litzateke obra hauek irakurri eta aztertzea. Hala ere, nago ez ote naizen, ni ere, «gaizki kokaturiko» norbait. Esan dizuet, eta berriro diotsuet, ez naizela Gure Gauzak-en agente bat, baina ez dut ikusten nola eraman ditzakedan batera, eskizofrenia batean sartu gabe, Gure Gauzak-ek manaturiko biografiaren idazketa alde batetik

eta, bestetik, Gure Gauzak-en iragana inplizitoki zikintzen duen lan argitaragabeen kritika. Ez dut uste kasualitateari zor zaizkionik Clémence anderea, eta ondorioz obrak, ezagutu ez ditzadan Agirre eta Urdangarinek eginiko maniobrak. Galdera bat datorrit gogora, bidenabar: obra guztiak aurkeztu zizkien Berrizarrek Gure Gauzak-i?

—Ez. Hautatu duzuna, adibidez, «Burdina haragian», ez zion ezein argitaletxeri bidali, «Euskal arimaren interpretazio psikoanalitiko», «Irakurri gabeko poema» eta besteren bat bai, aldiz. Laburzki esateko, *Eskribitu gabeko poemari* kronologikoki jarraiki zitzaizkionak argitaratzen saiatu zen, idatzi zituen azkenak, ordea, ez. Azkenerako etsi egin zuen eta hil ondorengo balizko argitaratze itxaropen lausoa izan zuen euskarri hondar obrak idazteko. Eta ez zuen inoiz Gure Gauzak ez zen beste argitaletxe batekiko argitalpena asmotan eduki, porrotaren aitortzea baitzitzaiokeen berak sortu argitaletxearekiko. Obsesio bat bilakatua zen.

—Beraz, Gure Gauzak-en ez dakite ondo zenbat obra dauden kutxa honen lozorroan...

—Ez. Ez dakite zehazki.

—Nahi baduzue —jarraitu zuen Julenek egin berri zioten proposamen erakargarria gogoan zuela— saia naiteke Gastonen obrari merezi duen oihartzuna emango liokeen kritikoa aurkitzen.

Gotzon Sarasketa tesi zuzendaria eta Joxean Etxebarria euskal filologiako katedradunaren irudiek burua zeharkatu zioten eta afera guztiari etekin unibertsitarioa ateratzeko modua ikusi zuen, lipar batez. Lanpostua, edo behinik behin lanposturantzko aurrera pauso handi bat negoziatzeko trukegai ederra izan zitezkeen Berrizarren obra argitaragabeak.

—Utziko zenidake hau negoziatzen EHU-ko zure lankideetako batzuekin?

Alarguntsari Juleneren kontra-proposamenaren berri eman zion frantsesez Egiategik eta, une batez bien artean eztabaidatu ostean, zera esan zuen:

—Egia aitortu behar badugu, zu mugitu ez bazina, eta zure egoskortasunari esker aurkitu ez bagintuzu, ez ginatekeen mugituko eta horregatik erabaki genuen zuri egitea proposamena. Baina, egoeraren elementu berrien argitara, zergatik ez? Etxebarria eta Sarasketarekin egotekoa naiz Euskaltzaindiaren literatur batzordearen hurrengo bilkuran eta...

—Barkatu, Egiategi jauna. Gehiegi eskatzea ez bada, eta nire egoskortasuna saritu nahi izan duzuela kontuan hartuz, utziko zenidakete bitartekaritza lana neronek egiten?

—Elle veut le faire elle-même? C'est d'accord, mais il faut qu'elle s'assure que les gens qu'elle contacte ne sont pas de mêche avec l'entreprise, zehaztu zuen alarguntsak. Et il ne faut surtout pas qu'ils soient publiés, les manuscrits et les tapuscrits.

Zaldunbidek Egiategiri aurrea hartu zion itzulpena egiteko unean. Alarguntsa ados zegoen Julenek kontakatazko kritiko potentzialak baina Gure Gauzak-en sistemarekin loturarik ez zeukatela ziurtatu beharko zuen aurretik eta testuak, zernahi gisaz, ez ziren inolaz ere argitaratuko.

—Je dois y retourner, Pascal.

Zaharretxera itzuli behar zuela adierazi zion alarguntsak Paskal Egiategiri eta elkarrizketa amaitzera zihoala esateko modu bat besterik ez zela ulertu zuen Julenek.

—Gorde dezaket hala ere «Burdina haragian» hurrengora arte?

Baiezkoa egin zuten Egiategi eta alarguntsak.

—Eskerrik asko. Beno, gu ere joan beharko gara, esan zien bere bi laguntzaileei motxila hartuz.

Martak mahukatik tira egin zion orduan:

—¿No ibas a preguntarle sobre lo de Gure Gauzak? Si no sabía algo Berrizar, algo que molestara a la editorial...

Egiategiri itauna egin zion. Ez zirudien ez berak ez Clémence andereak ezer gehiago zekitenik.

—Joan zaitetz bakarrik. Nik ez dut jada kale kantoierraino joateko adorerik.

—Ulertzen dut. Oraintxe nator.

Julene «Ireki» liburudendatik atera eta, lorik ezak gaxotutako Joselu Gutierrez atzean utziz, berrogeita hamar metrora Gure Gauzak-ek zabaldu berri zuen Gure Liburudenda-raino joan zen. Erakuslehioan, «Ireki»-k azken asteetako enbargoaren eraginez jaso ezin zituen Gure Gauzak-en liburu zein konpaktoak ikusi ahal izan zituen lehen lerroan. Sartu ere, sartu zen barrura eta apal-altzarien artean ibili zen une batez, «tenperatura hartzen». Ez zebilen bezero askorik, Gutierrezenean baino gutxiago. Bizkitartean, ordua ere ez zen aproposena liburudendaren arrakasta neurtzeko. Kutxan zegoen langilea gazte bat zen, Julenek ezagutzen ez zuena. Saltokiaren atzekaldeko ate batetik Foxy Larretxea eta Txemi Barriola «Ireki»-tar ohiak ateratzen ikusi zituenean burua beste aldera itzuli eta presaka atera zen. Urteak ziren bi horiek ikusi ez zituela eta, ondorioz, bi horiek bera ikusi ez zutela —izan ere, haurra baitzen oraindik burasoek «Ireki» elkartearen bileretara eramaten zutenean—, baina egunkarietan azaltzen hasia zenez, «martzianoarena» eta bekarena zirela-eta, ezagutua izateko arriskua zegoen. Eta ez zen komeni espioitzan

aritzeagatik dagoeneko nahikoa buruhauste zituen Gutierrez arazo gehiago erakartzea.

—Ez daukate jenderik, komentatu zion Gutierrez, «Ireki»-ra itzulitakoan, animoa igotzeko asmoz.

—Denbora haien alde daukate zerri horiek.

—Ez da dena produktuetara mugatzen, Joselu, ez dira gai izango zuk ematen dituzun aholkuak emateko, eta irakurleago bati ez zaio gustatzen liburuak liburuak pakete bat bailitza saltzen dituzten saltzaileekiko tratua.

—Zoritzarrez, zuk aipatzen dituzun irakurleak guxtiengoak dira jada. Jende gehienak oparitarako erosten ditu liburuak, gabonetan, liburuaren egunean, eta kitto. «Ireki» ixtea lortuko dute. Putasemeak.

—Ikusteke dago.

—Ez. Despidoa galdetu diet, bart arratsean, geratzen diren elkartekideei. Kiebragatiko kanporatzea.

—Ez nekien hain gaizki zihoanik gauza. Burasoak han ziren? Ez ditut ikusi lehengo astetik.

—Bai. Asko lagundu didate. Papeleoa eta beste.

Isilune bat izan zen eguerdi aurreko azken bezeroak alde egiten zuela.

—Beste zerbaiten bila hasiko zara?

—Nire adinean, gerraondoko eleberri amerikar beltza ondo ezagutzea —zerbaiten espezialistatzat jo badezaket neure burua— ez da lan bat aurkitzeko argudiorik sendoena...

—Hogei eta kak urteko liburusaltzaile esperientzia bada argudio balekoa.

—Salbu zure lan arloa etsaitzat hartu zaituen monopolio baten eskuetan dagoenean.

—Eta... zer gertatuko da lokalarekin?

—Lokalarekin eta liburuekin. Hiru mila liburutik gorako fondoa daukagu hemen daudenak eta biltegikoak batuz gero. Ez dakit, hori guztia erabakitzeke dago. Elkar-

teak ikusiko du. Nik ez dut indarrrik gauza hauetaz arduratzeko. Porru eginda nago... antidepresiboen eraginpean.

Azken aitortzak Julene erantzunik gabe utzi zuen, zer esan ez zekiela, eta, enbarazutik ateratzearren, Gutierrezek berak aldatu zuen solasgaia.

—Egon lasai, potxola. Ez da mundua bukatzen. «Ireki»-ren abentura polita izan da baina gauza guztiek dute bukaera bat, eta putaseme horienak ere egingo du noiz-bait. Gaur ez, baina bihar, edo etzi. Neoliberalismoaren itsasoan, Gure Gauzak izeneko bisiguak Ireki kiskilla jan du eta modu berean jango du bisigua marrazo batek.

—Edo Francisco Melchor izeneko baleak. Ez al duzu irakurri gaurko prentsa? Miaketa bat egitera sartu da polizia Gure Gauzak-en egoitzara.

—Ez dute ezer aurkituko.

—ETA-rekiko lotura edo hurbiltasuna aspalditik suposatzen zaio Gure Gauzak-i.

—Horiek Berrizarren garaieko kontu zaharrak dira. Oraindik Gure Gauzak ekimen duina zen garaiekoak.

—Ziur zaude?

—Baditut nire informazio iturriak. Badakit urtetan zerga iraultzailea biltzen saiatu dela ETA eta Gure Gauzak-ek beti ukatu diola laguntza erakundeari, aitzakia ezberdinak aurreratuz, besteak beste dirurik ez zeukatelakoa. Gure Gauzak-en ezker abertzalearekiko lotura *ad intra*, euskal gizarteari begira mantentzen den ilusio publizitarioa da. Jendeak Gure Gauzak bihurtu dena baleki —eta, pentsa, nik ere hitz-erdika han eta hemen esan didatena baino ez dakit— eskarmentu ederra bilduko luke. Hemen jende askok oraindik uste du «euskal mundua» batua eta bestelakoa dela, ez diela kanpoko munduaren arau berberei jarraitzen... Badakizu nortzuk defenditu duten «Ireki» azken asteotan? Gure kaleko dendari ez euskaldun ez euskaltzaleek. Badakitelako liburudenda honen desagerketak

karrikako komertzio jario orokorra ahulduko lukeela. Beti erakarri izan dugulako bezero mota berezi bat, berez nahi-ko iluna eta gaizki kokatua dagoen karrika honetara. «Euskal mundutik» inork ez digu laguntzarik eskaini. Ez politikariek, ez euskal prentsak, ez beste inork... denak daude Gure Gauzak-en indarraren eta diruaren aurrean kikilduta. Eta kikilduta ezezik maiz erosita ere. Jende asko lotu du Gure Gauzak-ek, eskuin-ezker barreiatutako diru-laguntzei esker. Azken aldian, editore, zabaltzaile eta idazle askorekin hitz egiteko parada izan dut eta pixkanaka sistema ulertzen hasia naiz. Horrexegatik naiz hain ezkorra.

Solasa bakarriketa bihurtzen ari zela ohartu zen Gutierrez eta desenkusatzeko beharra sentitu zuen.

—Barkatu, Julene. Paranoiak jotako tipo ozpindutzat joko nauzu dagoeneko. Batez ere, ezein frogarik gabe horrelako gauza grabeak esaten ari naizela kontuan harturik. Zer moduz doa zure lana? Barkatu ez lehenago galdetzea-gatik. Ez nago egoera normal batean.

—Idazten hasi naiz. Orain dela aste batzuk. Alarguntzarekin egon eta gero.

—Ez zegoen gaixorik?

—Ez. Susmatu nuen bezala, burua osorik eta garbi dauka. Baionako luxuzko zaharretxe batean bizi da.

—Luxuzkoa?

—Ez ditut zaharretxe asko bisitatu baina gustora biziko nintzateke hartan.

—Eta zer jakin duzu?

—Bada, garrantzi gehiegirik gabeko ezagutzen ez nintuen xehetasun biografiko batzuk kenduta, batez ere obra argitaragabe eskerga zeukala Berizarrek, 70eko eta 80eko hamarkadetan pilatua. Eta Gure Gauzak-ek liburu horietako asko bizirik zirauen artean atzera bota zizkiola.

—Eta zergatik omenaldi bat, orduan?, harritu zen Gutierrez.

—Kontzientzia txarra?

—Bai zera! Ba al dakizu zenbat kantari eta idazle nardaturik dauzkaten, gaur egun ere, autore eskubideak ez errespetatzeagatik... Eta ez pentsa kantari hasi berri edo ezezagunetaz ari naizenik. Orduan kontzientzia txarra...

—Horixe pentsatu dut nik ere hasiera batean. Kontzientzia txarrak ezin zezakeela esplikatu bat-bateko Berrizarrekiko jarrera aldaketa. Bizkitartean, alarguntsarekin egon eta gero... ez dakit... ez dut uste ezer gehiago dagoenik guzti honen atzean. Berrizarren obren atzetik dabiltzala dirudi. Eta Berrizarrek hil aurretik debekatu egin zion emazteari inori obrak argitaratzeko ematea.

—Bitxia da, halere. Zer arraio daukate obra horiek? Irakurri dituzu?

—Bat bakarrik irakurri dut. Etxera eramaten utzi didaten bakarra. Eleberri bat. «Burdina haragian».

—Eta?

—Kuriosoa. Oso. Maitasun debekatu baten istorioa, Erresistentzia frantsesean girotua. Gerra garaian Parisen bizi den neskame lapurtar baten eta erresistente frantses gazte baten arteko maitasun harreman trajikoa. Miranderen *Haur besoetakoa* gogorarazi dit nahiko ondo nahasten direlako errealismo psikologikoa eta elementu sinbolistak. Kutsu mirandarra areagotzeko, 80eko hamarkadan idatzia egonagatik, hurbilago dago 60ekoan erabiltzen zen hizkera literariotik. Unkigarria da liburua, eta erabat atipikoa gure paisaia literarioan. Ez dauka zerikusirik *Eskribitu gabeko poema*-rekin. Ez da inolaz ere nobela zerebrala, edo metaliterarioa. Aitzitik, sinplea da idazkera, *naïfa* ia. Miranderen eragin sinbolista hori da behar bada, akats bakarra. Beste dimentsio bat eman nahiak zapuzten du emozioa. Hogei urte lehenago idatzi eta argitaratu balu toki garrantzitsua izango luke gaurko euskal literaturaren antologietan. 80eko hamarkadakoa izateko anakroniko samarra da, tamalez. Dena den, argitaratzeko modukoa, gaur bertan ere.

—Etxean daukazu?, interesatu zen Gutierrez.

—Itzuli behar dut, baina fotokopiatzeko asmoa dut, nahiz ez dudan eskubiderik. Ekarriko dizut, agindu zion Julenek.

—Zertarako eman dizu orduan?

—Ez dute argitalpenik nahi baina liburuen aipamen kritikoak bai. Ez daukat oso argi zergatik, badirudi Gure Gauzak-engandik babesteko-edo darabiltzatela eskuizkribuak.

—Zergatik darabiltzu plurala?

—Paskal Egiategi irakaslearen etxean daudelako obrak. Noski, informazio hau gorde zuretzat.

—Eta zuk egingo duzu liburuen kritika?

—Ezin dut. Pentsa, Gure Gauzak-entzat Berrizarren biografia idazten ariturik ez naiz hasiko Gure Gauzak narru bizitan jartzen duen obraren zati argitaragabea aipatzen.

—Pena da. Inork baino hobeto egingo zenukeen azterketa kritikoa. Gainera zu zara obraren deskubritzailea.

—Egon isilik Joselu, min egiten dit horretan pentsatze hutsak. Zoritxarrez kritika literarioa ez du inork ordaintzen eta biografiaren beka ez da edonolakoa. Ikasten jarraitzeko dirua behar dut. Ez naiz ibiliko beti burasoen bizkarretik bizitzen. Karrera osoan lagundu didate eta doktoretza urteak behintzat neronek ordaindu nahi nituzke.

—Eta ezin duzu erabili eskuizkribuena nola edo hala doktoretzarako?

—Ez, zuzenean ez. Baina lasai, pentsatuta daukat nola atera probetxua nire inkesta biografikoaren fruitu debekatuei. Joxean Etxebarria eta Gotzon Sarasketarekin kontaktuan jarri naiz eta amua jaurtiki diet. Orain itxarotea eta pazientzia apur bat izatea da kontua.

—Arrantza ona izatea opa dizut, polit hori.

—Eskerrik asko Joselu. Ah, joan aurretik, ez duzu edukiko Arantza Aranaren *Eros 2*, ezta? Barkatu, egia, ezin duzu eduki, Gure Gauzak-ek argitaratua da...

—Joxerra zoriontzen dut azken urteotan Euskal Idazleen Elkartearen buru zela egindako lan bikainarengatik eta konfiantza niregan jarri duzuen bazkideok eskertzen zaituztet ohorea baino gehiago ardura eman didazuela gogoan daukadala. Zin dagizuet indarrak aurreztu gabe ariko naizela hurrengo urteetan egitura azkartzeko asmoari tinko eutsiz, batzordekide berri eta zaharren zein zuon —bazkideon— laguntzaz. Eta orain, harrera eman digun Amara hotelaren lehen solairuan aurkitzen den jangelara joango gara denok, urteroko bazkaria ospatzera. Zer? Barkatu, esaten didate hotelaren sarreran talde argazkia egin nahi digutela guztioi. Sarrerara beraz.

Hotelaren kongresu aretoan bildutako idazleen txaloek bazkalordua agurtu zuten lehendakari berriaren hitzak beste. Zazpi probintzietako, bi sexueta eta hiru adinetako euskal idazleen taldea, pixkanaka kanpora bidean jarri zen, bikote, hirukote edo taldexka mardulagoak osatzen zirelarik kalakaren logika irrazionalari jarraiki.

Agirrek Julene hainbat jenderi aurkeztu zion, Gure Gauzak-en fitxaketa promesa bailitzan. Lehenengo urtea zuen Julenek EIEEn eta izarren ausentzia zen nabarmenena egin zitzaiona.

—Hemen jende beteranoa eta hasiberria aurkituko duzu gehienbat, azaldu zion Gure Gauzak-eko literatur sailaren arduradun eta idazle ere bazenak.

Prentsako argazkilariak zain zeuzkaten hotelaren sarreran, goratasun batean jarrita, idazle guztiak objektiboan sartzeko moduan kokaturik.

Estutzeko agindu zieten hiru bider, eta «patata» esateko iradokizuna egin zuen Julenek ikusi ez zezakeen lehen lerroan belaunikatutako idazle batek.

Pantxoa Salaberriren eta Panpi Bazterretxeren ondoan egotea egokitu zitzaion Juleneri.

—Agur, Julene, ontsa? Ez duzu ahanzten apirilean heldu zarela Baionara, «Primadera beltza»-ren solasaldien karietara.

—Ez, lasai Pantxoa, ez dut ahantziko eta.

—Zertan da zure biografia?

—Badoa aurrera, «emeki», esaten duzuenez. Idazten hasia naiz.

—Agian Baionara etorriko zarelarik pasarte bat irakurtzen ahalko diguzu. Aldizkarian ere sartzen ahalko genuke zati bat, edo laburpen bat. Normalki solasaldieta-ko mintzaldien transkripzioak agertzen dira aldizkarian baina zerbait idatzita ekarriko bazenu...

—Ikusiko dut nola noan ordurako. Dena den, esker-tzen dizut proposamena. Uste dut berriro «patata» esan beharko dugula.

«Lur sagarra, lur sagarra!» oihukatu zuen Panpi Bazterretxe euskalkien defendatzaileak, txistea ulertu ez bide zuten bi idazle berarekin lema oihukatzeraz gonbidatuz.

Jangela, sakabanatutako hamar bat mahai borobilek betetzen zuten, zeintzuetako bakoitzaren inguruan hamar bat pertsona eseri zitezkeen. Uniformez jantzitako zerbitzariak jartzera gonbidatu zituzten idazleak. Julene Agirre-ekin batera eseri zen, besteak beste «Zilarreta» eta ezagutzen ez zituen hiru emakume, bi mutil gazte eta adineko beste bi gizonekin batera.

—Aitortu behar dizut, esan zion Agirreri, inpresionagarri samarra dela «Zilarreta» bezalako tipo batekin baz-

kaltzea. Pentsa, orain dela hilabete gutxi, «martzianoa» argitaratu baino lehen, ez nengoen inongo zerrendatan, ez nintzen idazlea, ez nintzen existitzen.

—Ikusiko duzu, oso tipo atsegina da Joxe Benito, ziurtatu zion argitaldaria.

—Ez dakit ausartuko naizen berarekin hitz egitera.

—Aurkeztuko zaitut.

—Ez, ez, ez! Mesedez, ze lotsa!

—Joxe Benito! Ezagutzen duk nire ondoko andereñoa?

—Mademoiselle?, galdetu zuen «Zillarreta»k, frankis-mopeko erbestaldian ikasi eta hain zuzen horregatik bere prestigio pertsonalaren markatzat zeukan frantsesa beti egin ohi zuenez luzituz.

—Gure fitxaketa berria duk. Julene Oihanburu. Berriarren biografia beka eman zioagu.

—Ah, hau duk? Pozten naun Julene. «Enchanté».

«Zillarreta» ala «Joxe Benito» hautatu ez zekiela, gorriturik sentitzen zituela masailak, Julenek barregarri ez gertatzeko gai konkretu baterantz bideratu zuen elkarrizketa.

—Aizu, barkatu. Ezagutzen zenuen Gaston Berrizar?

—Ezagutuko ez ninan, ba! —eta mahaikide guztien atenzioa bildu zuela ikusirik— Ni baino hamar urtez zaharragoa, baina beranduago idazten hasia. *Eskribitu gabeko poema* atera zuenerako nire *Tapia Zubietako*-k bazituen hamar urtetik gora. Egia esan, nire tankerako idazlea zela esango nuke, hots, ez literato puroa. Ez zen hemen nagusitu diren «l'art pour l'art»-aren defendatzaile horietakoa. Gai askotaz idatzi zuen, eta idazteaz gain Iparraldeko ikastolen alde bereak eta bi eman zituela dakit. Tipo konprometitua. Eta horrelakooi egurra eman digute urtetan. Nik nobelak idazteari utzi nion —asaldatzen hasi zen «Zillarreta»—, ez omen zen «literatura» egiten nuena. Zer zen? Beraiek jakingo dute!

Une hartan Julenek Ilun Zaldunbide jangelan sartzen ikusi zuen. Arantza Aranarekin batera. Ez zen agertu goi-

zeko batzarrera. Etsita zegoen Julene. Izan ere, zapore gazi-
gozoa utzi zion harekiko azken enkontruak, alargun-
tsarekin egon zirenekoak, alegia. Egun guztia ondo joan
zen, Marta tartean zeukatelako elkarrizketa intimoagoa
ezinezkoa izan zutela izan ezik. Baionatik Donostiara
itzuli zirenean pote bat eskaini nahi izan zien Julenek
Marta eta Zaldunbideri itzultzaile lana egiteagatik eta,
besterik gabe, bidaide izateagatik, baina berriro ere Marta
tartean egongo zela ikusirik, Zaldunbidek hitzordu bat
aitzakiatzat harturik alde egin zuen. Edo behintzat horrela
interpretatu zuen Julenek haren paso egitea. Eguna horrela
amaitzeak bukatu gabeko zerbaiten sentipena utzi zion eta
ez zekien jada ondo zein izango zen elkar ikusiko zuten
hurrengoan beraien artean egongo zen distantzia. Ez
zekien urruntze bat gertatuko zen ala egun hartan zehar
lortutako hurbiltasun mailatik abiatuko ziren berriro. Oso
desatsegina zen, eta desorekatzailea, ez jakitea zehatz «zer-
tan» ziren Zaldunbide eta bera. Nerabezaroko intsekurita-
te sentipena oroitarazten zion. Bazitekeen guztia bere
irudipenaren emaitza izatea, ezein errealitaterekin lotu-
rarik gabea. Zaila zen, bestalde, Aranarekin batera etorri
zen ala hotelaren sarreran kointziditu zuten jakitea.
Kontua zen hizketan eta txantxetan ari zirela biak, algara
batean, toki libreen bila. Oraindik Zaldunbideren begira-
da ez zen pausatu Juleneren mahai borobilean. Lipar batez
elkar ikusi zutela iruditu zitzaion Juleneri baina ez zegoen
horretaz ziur, ezen Zaldunbideren aurpegiak ez zuen es-
presio aldaketarik jasan eta leku libreen bilaketan jarraitu
baitzuen. Azkenean, Arana bere mahaierantz zetorrela
ikusirik zuen Julenek eta ondoan eseri zitzaion. Izan ere,
Zaldunbideri kirika zegoela, Agirre oharkabean alde egina
zen Juleneren ondoko aulkia libre utziz.

—Kaixo Julene.

—Kaixo Arantza.

—Zer moduz?

—Ondo. Aizu, oraindik ez dut irakurri *Eros 2*, nire ohiko liburudendan ez dutelako jaso. Zorionak, hala ere, oso kritika onak izaten ari da eta... zera... Ilunek esan didanez ondo idatzita dago. Eta Ilunengan laudorietarako aldartea eragiteko...

—Eskerrik asko, baina... zer esan didazu, ez dagoela liburudenda guztietan? Gure Liburudendetan badagoela badakit ziur eta hipermerkatuetara neroni joan naiz salgai dagoela ziurtatzeraz.

Ez zuen kasualitatez aipatu Zaldunbide Julenek. Aranaren erantzunak euren arteko harremanaren izaerari buruzko zantzu bat edo beste emango ziola espero zuen eta frustraturik utzi zuen ezer berririk ez jakiteak. Ezin ziezaiokeen zuzenean galdetu elkarrekin etorri zirenez bazkarira, egiaz jabetzeko gogo bizia zuen arren. Erridikuloa izateaz gain, bere burua salatzea zatekeen.

—Ez arduratu Arantza. Gure herriko liburudendarena kasu berezia da. Ezin dizut dena xeheki azaldu, baina Gure Gauzak-ekin gatazka daukate eta banaketa enbargoa jasaten ari dira.

—Ez neukan horren berririk.

—Dena den, liburudenda ixtera doaz, galdutzat daukatelako borroka.

—Orduan liburudendarik gabe geratuko da herria?

—Gure Liburudenda bat ireki dute zaharretik berrogeita hamar metrotara, karrika paralelo batean.

—Honek 20eko hamarkadako Chicago dirudi, batu zitzairen Ilun Zaldunbide.

Aranak aurea hartu zuen, Julene mutu utziz.

—Literatura saltzea debekatuko balute, tiroka amaituko genuke. Bestalde, horrek behar bada irakurzaletasuna ezein kanpainak baino eraginkorkiago sustatuko luke.

—Norekin ari gara lanean, Julene, gu hirurok?, galdetu zuen Zaldunbidek.

—Al Caponerekin?... , ausartu zen erantzutera Julene.

—Ez Elliot Nessekin, behinik behin, Aranak.

Jarrera ezin *cool*-agoa bereganatu asmoz, munta handiko zerbeit axolagabekeria edo deslilura adierazi nahi zuen ahots doinu nekatuaz bota zuen Zaldunbidek:

—Idazleok alkohol ekoizleak gara, legeak onetsi edo gaitzesten duen merkantzia hordigarriaren ekoizleak. Gu ez gara ez banatzaile ez lege egile.

—Gure kokapena amorala da. Ez inmorala, gehitu zuen Aranak, berriro ere Julene elkarrizketatik kanpo utziz.

—Kokapen eroso, sartu zen azkenean Julene.

—Moralki eroso. Ez ekonomikoki, ordea, zuzendu zion esandakoa Aranak.

—Gurea da ezpata, baina bestetzuena ezpatari eragiten dion besoa, jarraitu zuen Ilun Zaldunbidek teorizatzaile paperari eutsiz. Horra literaturaren paradoxa: indar ahula, edo ahulezia indartsua, nondik begira.

—Eta zer gertatuko litzateke ezpata eta besoa pertsona berarenek balira?, gogoetatzen hasi zen Arantza.

—Ezin liteke, moztu zuen Julenek aurreko erasoaldietan galduriko lur puska berreskuratu nahiz. Berezko kontraesana da. Idazteko ahalmena, magia galduko luke beso bihurtuko litzatekeen idazleak. Nire susmoa da inspirazio literarioa ahulezia erlatibo edo indar erlatibo horretatik datorkiola idazleari. Botere gosea asetzea lortzen duen norbaitek idazteko gogoia galdu egiten du.

—Ez dakit ez ote den idazletzaren ikuspegi erromantikoezia zurea, ohartarazi zuen Zaldunbidek bere ateraldiaren garratzaz egin ahala ohartu bailitzan irribarre batez ezitzen ahaleginduz. Ez gara Graalaren ihiztari bertute-tsua, inondik ere, nahiz egia den mahai borobil hauen inguruan eserita hala dirudiela.

Agertu zen bezain laster aldendu zen Zaldunbide, ondoko mahaieko norbaitek deitu zuelako aitzakiaz baliatuz.

Bazkaria luzatu egin zen. Are luzeagoa egin zitzaion Juleneri berea zen zalantza sentipena zela medio. Tarteka, Zaldunbide aurkitzen zen mahaia kirikatzen zuen, Arana ez ohartzeko moduan eta harekiko solasari nola edo hala eutsiz. Erne-ko idazleak eta Ohara-koak nahasita ageri ziren Zaldunbideren mahai borobilean, Julene eta Arantza Aranarenean Gure Gauzak-ekoak zirelarik denak. Bere burua ere Gure Gauzak-ekotzat jotzera behartuta zegoen Julene, biografiak suposatzen zuen loturagatik, nahiz «martzianoak» Erne-ren orbitan mantentzen zuen oraindik neurri batean. Postrearen ordua iritsi zenean EIEren lehendakari berriak txanpan edalontzi luze eta meheari kanpai hotsa atera zion aiztoaz, bazkideen atentzioa biltzearren.

—Bazkide eta bazkaldar maiteak, nire lehendakari-zapeko lehen ekintza ofizialaren ordua iritsi da. Euskal Idazleen Elkarteak aurten bi idazle omendu gura ditu denbora luzez euskal letren alde egindako lanagatik. Miel Idigoras jauna eta Joxe Benito Gartzia, «Zilarreta» sasi-zenez ezagunagoa.

Txalo zaparrada bero batek agurtu zituen zutitutako idazle beteranoak. EIEren zuzendaritzak aukeratutako bi idazle gazteagok omenduei aurretik prestatutako gorazarre testu bana irakurri zieten eta omenduek ere diskurtso labur bana egin zuten, omenaldiak hunkiturik.

Jende batek zeremoniatxo bukatzean alde egin zuen eta mahai borobilak husten hasi ziren pixkanaka. Julene ere joateko asmoz altxatu zen baina sorbaldan jarritako esku batek berriro aulkian eseriarazi zuen. Zaldunbide zen berriro. Julene eta Aranaren artean eseri zen, beste eskuan zekarren kopa mahaiean pausatuz.

—Zer moduz bazkaria?

«Ondo» herabetu batek ahotsa dardarka jarri zion Juleneri. Nahigabeko lotsatze horrek amorrarazi zuen.

—Ea, esaidazu, mihizorrotz, zer kontatu den zuen mahaiean, galdetu zion Aranak Zaldunbideri, sugea bailitzan mihia sartu-aterenez.

—Hasi zu, Afrodita, zer esan da *jejetar* inperioaren mahaiean?

—Ezer gutxi. Julene eta biok sukaldaritzaz mintzatu gara, horko agureek bataila zaharrak kontatzen ziharduten bitartean. Ezta?

Juleneren konplizitatea lortu nahi izan zuen Aranak. Zaldunbide ondoan zeukala, bere buruaz eta Aranaz zeukan ikuspegia aldatu egin zitzaion Juleneri, haren begirada bereganatu bailuen. Eta zera zekusan bere maileguzko begietatik: alde batetik, emakume arrunt bat, ez itsusiegia, eta bestetik kreatura publizitario bat, *wonder bra*-ren irargarkia egiteko sortua zirudiena, eta horrez gain berriki ondo idazteko gaitasuna ere bereganatu ei zuena. Ez zen komenigarria, autoestimarentzat ezezik biziraupen sexu-lerako ere ez, horrelako kreatura baten ondoan luzaz egotea. Zerbait egin beharra zegoen, eta laster. Altxatu eta joatekotan egon zen Julene eta, oraingoan, Aranaren eskua jarri zen bere sorbaldan, altxatzea eragotziz.

—Beno, lagunok, Afrodita kritikoen mahaira doa, baten bat banpirizatzerara. Ea *Eros 2*-rentzako erreseina berriren bat lortzen dudan. Eta gero esango dute idaztea nahikoa dela idazle izateko...

Bakarrik geratu ziren Julene eta Zaldunbide, nondik hasi ez zekitela. Berriro ere txanpan edalontzi mehe eta luzearen kanpai hotsa aditu zen. Lehendakari berriak mezu bat zeukan bazkideentzat.

—Bazkide maiteak. Barkatu berriro hitza hartzea. Pentsatuko duzue protagonismo bila nenbilela eta horregatik aurkeztu dudala neure burua postu honetarako. Bada, ez da hala. Kontua da lehen zerbait esatea ahantzi zaidala eta Mikel Agirre, Gure Gauzak-eko literatur saila-

ren zuzendaria, desagertu egin dela bazkariaren erdian, txintik atera gabe, eta berak hartu behar zuela hitza hau esateko. Badakit ez dela atsegina plazer une batean berri txarrekin hastea. Haatik, jakingo duzue egunotan euskal argitalgintzak, eta konkretuago Gure Gauzak-ek, justizia espainiarraren erasoja sari duela. Egoitza miatu dietela, material informatikoa partez bahitu, etabar. Pentsatu dugu EIEk modu batera ala bestera argitaletxe garrantzitsu honetik elkartasuna adierazi behar zuela eta justizia zuzengabe horren mehatxu onartezina salatu. Hortaz, paper bat mahairik mahai ibiliko da zuen izen-abizen, helbide eta izenpedurak biltzeko. Gero, paperaren gainekaldean dagoen testu laburra, oniritzia ematen diozuen neurrian, noski, prentsan agertuko da, guztion izenean.

—Kontzientzia kasu interesgarria, ezta?, komentatu zuen Zaldunbidek, benetako elkarrizketa batean sartzeko atea aurkitzen zuela.

—Eskolako hipotesia, baietsi zuen Julenek —adorea berreskuratuz.

Gure Gauzak-en aldeko petitzioa eurengandik bi mahaira zegoen oraindik.

—Printzipioz defenditu beharra dago edozein argitaletxe horrelako eraso baten aurrean, adierazpen askatasuna jokoan dagoelako, hasi zuen Julenek kasuaren aurkezpena.

—Bestalde, arbitrarioki erasotua den argitaletxea bera enpresa monopolistiko usteldu eta idazleekiko kaltegeilea bada, zer egin?, bukatu zuen dilemaren aurkezpena Zaldunbidek.

Petizio orria ondoko mahaira hurbildu zen, izenpetu gabe alde egindako hainbat idazlek erdi-hutsik utzitako mahaietan oztupo geldotzailerik aurkitzen ez zuela.

—Anfora benetan hautsi al da, besteak esan zuen bezala, ala oraindik kontzientzia politikoa kontzientzia lite-

rarioaren gainetik dago?, laburbildu zuen arazoa Zaldunbidek, paper betekizuna eskuetara iritsi berri zitzaiola.

Juleneri luzatu zion papera.

—Nazka ematen dit baina izenpetuko dut, esan zuen Julenek, biografiaren diru-laguntza lixeri ezinezko pentsamendu deserosoa bailitzan gogoan zuela.

—Nazka gehiegi ematen dit izenpetzeko, adierazi zuen ahapeka Zaldunbidek, bi aulki hutsetara aurkitzen zen «Zilarreta»-ri orria luzatuz.

Bien arteko tentsioak hor zirauen eta Zaldunbideren hurrengo hitzek ez zuten areagotu baino egin.

—Ah, bidenabar, zure lagun Martaz hitz pare bat esan nahi nizun. Lehengo egunean, Clémence anderearekin egon ginenean erakutsi zuen jarrera arraroa iruditu zitzaidan. Mesfidantza erne arazteko modukoa. Ez dakit konturatu zinen baina interes handia agertzen utzi zuen Gure Gauzak-i buruzko balizko Berrizarren dokumentuekiko. Ez nizun ezer esan, beti tartean izan genuelako, baina susmagarria deritzot neska horri. Zuk ondo eza gutuko duzu eta pentsatzen dut badakizula zer egiten duzun. Horra. Jakinaren gainean jarri nahi zintudan.

Tonua erasokor samarra izateaz gain, desatsegina zen Julenerentzat horrelako egoera batez bera bakarrik ohar tzeko gai ez zela pentsa zezan Zaldunbidek. Bestalde, Martarekiko susmoa bermaturik ikusten zuen berak ere eta, ooren gainetik, beste zerbait zekusan Zaldunbideren jardunean. Marta «tartean» eduki zutela zionean jelskor tasun puntu bat nabari zela haren ahotsean. Eta hori ezin zezakeen berri txartzat jo.

—Eskertzen dizut abisua, ni ere zerbaitetaz ohartua nintzen, egia esan.

—Ez dakit zer puntutaraino dauden gauzak harre manduta baina aspaldian zebilen Melchor epailea Gure Gauzak mehatxatzen eta ezer ez eginez. Bada, hain zuzen

alarguntsarenean egon eta Berrizarren obra argitaragabeez kanpo beste ezin dokumentu ez zegoela gu hirurok deskubritu eta hurrengo astean sartu dira Gure Gauzak-en egoitzara, dokumentu konprometigarrien bila. Badakit paranoiaren logikaz josten ari naizela gertakariak, baina...

—Euskal Herrian paranoia kirol nazionala da eta zorritzarrez askotan errealitatea are urrutiago joaten da. Ez nituen lotu bi gauzak. Halere, ez zait erabat absurdua iruditzen diozuna. Ni ere kezkatuik nauka Martaren jarrrerak. Nire inkesta biografikoak bihurtu ez literarioa hartu duenetik, beti saiatu da nire hitzordu guztietara apuntatzen, nahiz euskaraz hitz egitekoa nintzela jakin. Alarguntsarenera joateko ere berak insistitu zuen, ez uste nik gonbidatu nuenik. Gainera, badakizu langabezia dagoela azken sei hilabeteotan, bada, inoiz baino alaiago eta animatuz dakust eta ez dit onartu behin ere bazkaria edo poteak nik ordaintzea, orain dela gutxi arte egin ohi nuen ez. Ez dirudi jada dirua kezka iturri denik beretzat, eta harrituko ninduke burasoengandiko laguntzaren ondorioa izatea, nik dakidala haserretuta jarraitzen baitu haiekin. Azkenik, ez dakit komentatu nizun, Agirre ikusi duen bakoitzean —Berrizarren bekaren zeremonian izan zen lehenik eta gero Durangoko azokan—, oso modu nabarmenean hurbildu zaio.

—Hori baino bitxiagorik! —poztu zen Zaldunbide Juleneren gogoeta berearen ildotik zihoala ikusiz—. Martaren estiloko emakumea ez dut Agirre bezalako norbaitekin ikusten, zerbaitek huts egiten du, ez da normala.

«Martaren estiloko emakumea» esapideak, zimikoa bailitzan, berriro ere jeloskortasuna esnatu zuen Juleneren baitan.

—Auskalo normala den, baina Agirrek ere harriturik nauka azken aldion. Badirudi Arantzari fobia diola. Gaur berarekin azaldu zaren unean bertan desagertu egin da.

Kolpez. Ez naiz ohartu ere egin, eta nire ondoan eserita zegoen! Zer gertatu da bien artean, informaziorik jaso duzu Arantzarengandik? Izan ere, *Eros 2* kaleratu aurretik, Agirrek bazkari batean Arantza aurkeztu zidanean, ezin hobeto konpontzen zirela iruditu zitzaidan. Agirre liluratu zeukan Arantzak, ondo gogoratzen dut.

Itxuraz Agirrerekiko informazioa biltzeko bota zuen galdera Julenek. Haatik, Aranarekiko Zaldunbideren hurbiltasun maila neurtzea zen galderaren sakoneko helburua.

—Arantzak ez dit ezer esan, eta ez naiz ausartu galdeztera. Niri dagokidanez, bi hipotesi harilkatuko nituzke bat-bateko «gera hotza» nola edo hala esplikatzen. Arana ohera eramaten saiatu da, arrakastarik gabe, eta orduan Durangon *Nesken egüna* aldizkarian irakurri genuen ipuin satirikoa errealitatean oinarritzen da eta baliteke Arana bera izatea ipuinaren egilea.

—Zein ipuin, Agirreraren antza zuen argitaldaria sexutuantaia antolatzen zueneko?, galdetu zuen Julenek, Arantzak Zaldunbideri ezer kontatu ez ziola jakiteak lasaiturik.

—Hori bera. Edo bestela, bigarren aukera, sinesgarriagoa apika: Agirrek ezin dezake jasan Arantza izaten ari den arrakasta harrigarria. Berak liburu asko eta ez hain txarrak idatziagatik, eta editorialaren tresna indartsua bere esku izan arren, ez duelako inoiz benetan konektatu irakurleko zabal batekin. Bata ala bestea.

—Baliteke bi hipotesiek bat egitea, ez ditut elkarrekiko kontraesanetan ikusten.

—Batek daki...

Beti besteetatik hitz egitea norberataz ez aritzeko ihesbide egokia zela otu zitzaion Juleneri eta ezina sentitu zuen, Zaldunbiderekiko harremana aurrerazteko ezina. Bazitekeen zegoeneko adiskidantzaren bidetik urrutiegi joan izana atzera jo eta maitasunarenetik edo sexu hutsarenetik ere jotzeko.

—Etxerantz abiatuko naiz, Ilun.

—Autoz etorri zara?

—Ez, garajea utzi dut, matxuratuta. Trenez etorri naiz.

—Nahi al duzu eramatea?

—Zergatik ez.

—Itxaron pixka bat.

Motxila hartu eta jangelaren ateraino joan zen Julene, itxaropena partez berreskuratuta. Iraupen laburrekoa izan zen, ordea: Zaldunbide Aranarekin batera itzuli zen abiatzeko prest zeudela adieraziz. Arana ere Bizkaian bizi zen eta Zaldunbidek ekarria zuen autoz Donostiara. Julene ez zen ausartu bidaia osoan bera eta Arana bakoitzaren etxetara itzultzeaz gain beste zerbait egitera zihoanez Bizkaia aldera galdetzen, Aranaren etxean gelditzeko asmoa zuela ihardesten entzuteko beldurrez. Bidaiaren bukaeran, galdetu beharrik gabe jakingo zuelakoan isildu egin zen, baina bera utzi zuten lehenik, eta biak elkarrekin urrun-tzen ikusi zituen autoan, espaloiean zutik geratzen zelarik. Gau osoan bazkari osteko Zaldunbiderekiko solasa izan zuen buruan bueltaka, eta bereziki Marta beti «tartean» eduki zutela inplizituki leporatu zion unea. Agian Aranarekin bazkarira agertzea eta berriro ere Arana «tartean» zeukatela etxera eramatea proposatu izana, Martaren presentziagatik pairaturiko ezintasuna berari ulertarazteko modu bat zela pentsatu zuen Julenek, baikortasuna bere azken mugaraino eramanez. Hipotesi kontsolagarri bezain sineskaitz hori eraikitzen ari zela, Berrizarren ehorzketan Egiategik irakurritako Miranderen olerkiaren azken esaldiak gogoratu zitzaizkion beste behin:

«Lili haur ene landetan ere / aspaldi huntan ezin hila dut, / nahiz Ipharrak astintzen duen, / nahiz kiskailtzen duen Hegoiak... / Ai! goragotik ethorri-haizeek / ailezate jo ene landetan / et'eiharraraz «itxaropena» / izena duen zithal-lili haur!».

Izebaren apartamentua espetxe bihurtzen ari zitzaion Berrizarren biografiaren idazketan aurrera agin ahala. Lehen kapituluek, haurtzaroa eta seminarioko egonaldiari zegozkionak, Lauaxetarekiko anekdota barne, ez zioten buruhausterik eragin. Seminariotiko bat-bateko ihesa datu soila bailitzan deskribatu behar izan zuen, azalpentzat erabiltzeko hipotesi komentzigarririk ez izanik eskura, azken hilabetee-tan hainbat jenderekin hitz egiten egon arren.

Sonia Clémence ezagutu ondorengo urte zoriontsuak, Egiategi eta Miranderekin elkartzen zirenekoak, izan ziren errazenak kontatzeko, eta baita atseginenak ere, biografiaren protagonista nagusia aldarte onean ageri zelako. Egia zen, bestalde, *Eskribitu gabeko poema*-ren inguruko gertaera eta xehetasun oro ondo menderatzen zituela, obraren espezialista izanki, eta hainbat ohar eta iruzkin literarioz horni zitzakeela pasarte hertsiki biografikoak. Iparraldera etorri eta ondorengo urteei buruzko atala ez zeukan oraindik hasita, baina arazorik gabe idatziko zuen, Maialen Lekunberri lankide ohiak emandako informazio zehatz eta interesgarriari esker. Arazoa, beraz, biografiaren bi puntutan zetzan: alde batetik, seminarioko ihesaldiaren zergatia eta bere emazte bihurtuko zena topatu aurretiko urteak –bazekien, jakin, Erresistentzian inplikaturik egon zela eta bizkaiera lauaxetarra mezu sekretuak kodetu nahiz

deskodetzeko erabili zuela baina gutxitxo zen biografiaren atal oso bat mamitu ahal izateko—, bestetik, Gure Gauzak-en sorreraz zeukan informazioa iturrien arabera kontraesankorra izateaz gain, Andoni Urdangarinen aholkuak guztiz paralizaturik uzten zuen idazteko unean. Argitaletxearen sorrera eta garapenaren inguruko gora beherak aipatzea «Berrizarren irudiaren kaltetan» zatekeela esana zion gerenteak. Berbera gertatzen zen argitaletxearen sorrerari jarraiki zitzaion obra idatzi baina argitaragabeekin. Gormutuarena egitera beharturik sentitzen zen Julene, behintzat Gure Gauzak-ek sustaturiko biografia baten eremuan zegoeno. Alta, nola ez aipatu «Burdina haragian» bezalako eleberria Berrizarren biografia batean? Bere biografo lana gaizki edo erdizka egin zezan ordaindu zutela iruditzen zitzaion Juleneri, hau da, biografia-gruyere bat egiteko, zuloz betea.

Kapitulu idazgarriekin borrokan ari zela, egunean sei edo zazpi ordu igaro zituen lanean. Goizeko hamarretan hasi eta ordu batak eta erdi arte iharduten zuen, gero prentsa errotera kalera jaitsi, telebista aurrean bazkaldu, eta berriro lanera, hiruak eta erditatik seiak arte, eguna burasoenean afaltzen edo zineman bukatzeko. Egoera barkartia eta nekagarria izanik ere, ez zitzaion astuna egiten, lanarekiko adikzio fenomeno ezaguna zela eta. Sentsazioa erabat aldatu zen, ordea, aipatu arrazoi ezberdinengatik idazkaintzak ziren kapitulueta iristean. Hasiera batean arazoa atzeratzea lortu bazuen, kronologiari muzin egin eta idazkaintzak zeritzen atalak azkenerako utziz, une bat iritsi zen non ezinezkoa bihurtu baitzen gerotik gerora ezer bultzatzea. Sei orduko laneguna egunetik egunera murriztuz joan zen. Beranduago altxatzen hasi zen, nekatuago, patxada gehiagoz gosaltzen, telefono dei batzuk egiten edo e-mailak irakurtzen idazteari ekin aurretik, bazkalorduko etena luzatzen, prentsako nazioarteko orrialdeak osoki ira-

kurtzen, berriro lanean hasi aurretik zapping amaiezin batean murgiltzen eta arratsaldean goizago bukatzen korrikaldi bat egitera irtetzeko aitzakiaz.

Lanaren geldotze fase horretan sartuta zegoen, jadanik aspalditik idatzita zeuzkan atalak behin eta berriro orrazten nahiz aberasten, berriei ekiteko adorerik gabe, Martak telefonoz deitu zionean. Lana aurkitu omen zuen, ikastetxe batean, antza, zailtasunak zituzten ikasleei laguntzeko. Afaltzera gonbidatu nahi zuen, ospatzeko, eta luzaz emandako laguntza animiko zein ekonomikoaren ordainetan. Ez zegoela inolaz ere berarekiko zorretan ziurtatu zion Julenek eta gonbidapena adiskidantzaren izenean baizik ez zuela onartzen adierazi zion.

Zaharretxean egon zirenetik ez zuen ikusi Marta eta geroztik Zaldunbidek idazleen elkartearen bazkarian aipatutako harekiko susmoak buruan bazerabiltzan ere, gogo onez onartu zuen gonbidapena. Izan ere, susmoak susmo, ezein frogarik ez zuen bildu, eta gainera, Marta benetan Francisco Melchor epailearen zerbitzuan txibato lanean ariturik ere ez zuen inolako arriskurik hartzen berarekin afalduz, zaharretxean deskubritu zutenaz gain ez zekielako ezer berririk, ezer konprometigarriarik inorentzat. Azkenik, hainbeste astetako lanaren ostean, norbaitekin, edonorekin, hitz egiteko beharra sentitzen zuen, klaustrofobikoa bilakatuko ez bazen.

Bilbon elkartu ziren arratsaldeko bostak inguruan. Aspaldiko partez, Marta langabezian egondako hilabete luzeetan ohitura galdu baitzuten, dendarik denda ibili ziren. Tren geltokian jarri zutenaz hitzordua, hortik hurbileko Corte Inglesera jo zuten lehenik eta emakume zein gazteen arropen sekzioan igaro zuten denbora bat. Ondoren, Arenal aldera hurbildu eta zazpi kaleetan barrena sakabanatutako jantzi denda ezberdinak ikusten ibili ziren gautu arte.

Hortik, San Francisco karrikaren erdialdean kokaturiko «Berebar» jatetxe-taberna marrokiarrera jo zuten, Martak bertako jabea, Mustafa izeneko begiurdundun berebera, ezagutzen zuela eta. Eskatu gabe, pintxo morunoak ekarri zizkien Mustafak, ongietorri opari gisa. Kuskusa eskatu zuten biek, jabeak aholkaturik, eta Martak Zaldunbiderekin gauzek «aurrera» egin zuten galdetu zion, jakinminez.

—Uste dut trenea pasatzen utzi dudala, erantzun zion Julenek, bere buruarekiko errukia eta tristura puntu bat nahasten zitzaizkiola begitartean.

—Zer diozu?! Zuregatik adurra zeriola zebilen eta.

—Ni ere sinetsita nengoen. Baina, antza denez, berantetsita utzi dut gizona nire jarrera epelarekin. Eta beste norbaitek aurrea hartu dit. Ulertzen dut bere jokamoldea, egia esan... behar bada ez nago oraindik prest bikote harreman baten prozesuan sartzeko. Inkontzienteki mugak jartzen dizkiot neure buruari... Adiskidantza nahiago banu bezala. Gizonentzako gaindiezina suertatzen den ezkutu magnetiko bat daramadala nire inguruan sentitzen dut...

—Ez esan horrelako tentelkeriarik, polita —astindu zuen Martak—. Zuk behar duzuna tipo jator bat da, etxetik kanpo ibiltzeko eta ohe barruan erabiltzeko. Eta Ilun hautagai ezin hobea iruditzen zitzaidan, beste ezer baino lehen berak ere zu hautagai interesgarritzat zintuelako. Behintzat niri begibistakoa iruditu zitzaidan.

—Ez dakit...

—Orduan beste emakume batekin dabil dagoeneko.

—Ez nago ziur.

—Nola ez zaudela ziur?, haserretu zen Marta.

—Bada, Euskal Idazleen Elkarteko bazkarira neska batekin azaldu zen.

—Eta?

—Ba hori.

—Hori ez da ezer.

—Nahiko bitxia izan zen bere portaera. Ez dakit... neska horrekin azaldu zen... gero, bazkarian zehar nire ondora etorri zen hitz egitera bestearengandik gorde gabe... eta bukaeran autoz etxera eramán ninduen...

—Ee?!

—... beno, eramán gintuen. Neska hura ere autoan etorri zen gurekin. Edo, ausaz, ni ere eurekin joan nintzen autoan. Bata ala bestea.

—Ah...

—Eta ni etxean utzi ondoren biak autoan urruntzen ikusi nituen. Baina ez dakit elkarrekin zeuden ala ez. Ez dut lortu jakitea.

—Nola portatu zen zurekin bazkarian?

—Ondo.

—Ondo «ondo», ala «ondo» bakarrik?

—Nahiko ondo. Beti legez. Adiskidetsu.

—Joder, euskaldunak eta sexu kontuak!, eztanda egin zuen Martak, Juleneren moteltasunak asaldaturik.

—Egia aitortzea nahi baduzu —esnatu zen Julene—, zerbaiten susmoa izan dut. Uste dut Berrizarren alargaruntsa ikustera hirurok batera joan ginenean asmo edo esperantza konkretu batzuekin etorri zela eta zure presentziak deseroso sentiarazi eta oztopatu egin zuela. Frustrazio hura ulertarazteko, edo ordainarazteko, ez dakit, neska harekin agertu zen eta nahitara proposatu zidan etxera autoz eramatea, jakina, autoan hiru izango ginela zehaztu gabe. Pixka bat, nire jeloskortasuna kitzikatu nahi izan bailuen.

—Ez nizuke gidoi perfektu hori zapuztu nahi, baina... Zer nolakoa zen neska hura?

—Idazle bat da. Uste dut ikusita daukazula. Durangon, edo nire bekaren zeremonian. Ipuin erotikoak idazten ditu.

—Arantza Arana?

—Bai! Nola gogoratzen duzu izena?

Marta iribarre maltzur bihurtu zen.

—Berri onak, polita. Zaldunbide ez dabil neska horrekin.

—Nola dakizu?, harritu zen Julene, Zaldunbideren irribarre ironiko hain atsegina gogora zetorkiola.

—Beste norbaitekin dabilelako.

—Nor, Arana?

Baiezkoa egin zuen Martak.

—Norekin?

Mustafak pintxoan platertxo hutsa hartu eta lurrina zein lurrina zerien kuskus platerkada bi pausatu zituen bakoitzaren aurrean.

—Norekin?, errepikatu zuen Julenek, ezinegonik.

—Zure editorearekin.

—Agirrerekin?! Ezinezkoa da...

—Ez, ez. Agirrereren nagusiarekin. Urdangarin jaunarekin.

—Urdangarinekin! Arana Urdangarinekin... baina... nola dakizu zuk hori?

—Agirrerengandik dakit dena. Erreta dago. Aranaren liburua, *Eros 2*, arrakasta handia izaten ari dena, bada, ez du Aranak idatzi; Agirrereren testuak dira. Arana Urdangarinekin ibiltzen hasi denetik Agirrereri txantaia egiten ari zaio. Urdangarin erabiltzen ari da Agirre puteatzeko. Antza, Agirrereri gorrotoa dio, behiala testu batzuk atzera bota zizkiolako, txarregiak zirelakoan, eta mendekua hartzen ari da. Aranak manipulaturik, Urdangarinekin Agirre Aranaren bigarren liburua idaztera behartu du.

—Horregatik da hain ona liburua, horregatik, baita ere, ez zuen kezkatzen idazketa faseak, eta horregatik ez zen atera garaiz Durangoko azokarako... eta, jakina, horrexegatik ematen zion ihesari Agirrek Arana agertzen zen bakoitzean, ondorioztatu zuen Julenek, sokaren hariak bilduz.

Galdera batek, ordea, oraindik airean jarraitzen zuen, erantzunik gabe.

—Eta... Agirre...

—Agirrerekin nabil, aitortu zuen Martak begirada kuskus plater hustuan iltzatuz.

—Aspalditik?

—Durango ostean bi edo hiru aldiz elkartu ginen eta... ba hori.

—Zorionak, neska, ahalegindu zen Julene berriagatik alaitzen zela erakusten.

Hainbeste informazio tupustean jaso izanak grogi utzi zuen Julene eta ez zen solasa eramateko gai izan postrea eta mentadun tea hartu zituzten bitartean. Noizbehinka elkarri begiratzen zioten biek eta irriz hasten ziren baina harik eta Marta tren geltokian agurtu eta bakarrik geratu zen arte ez zuen burutik kentzerik izan Zaldunbideren Martarekiko susmoa. Ez zitzaion normala iruditzen Marta bezalako norbait, erdalduna, zeinen euskal munduarekiko lotura bakarra Julene bera izan baitzen betidanik, hain hertsiki lotuta edo nahasita aurkitzea bat-batean euskal literaturaren mundutxoarekin. Ahal bezala gordetzen saiatu zen Martarekiko sentitzen zuen deserosotasuna eta izebaren apartamentura itzulitakoan Agirre deitu ez deitu dudan egon zen une luze batez. Berari ote zegokion argitaldaria susmoen jakinaren gainean jartzea? Zaldunbidek *Eros 2*-ren benetako autorearen Agirre zenik bazekien galdetu zion, baita ere, bere buruari eta berriro telefonoa hartzekotan egon zen. Azkenean, ez zuen deirik egin eta Arana eta Zaldunbideren artean ezer ez zegoela jakite hutsak eman zion lasaituaz gozatzea erabaki zuen.

Baionako San Andres plazako aparkalekuan autoa utzi eta Baiona ttipian barrena sartu zen Julene Elkartoki izeneko taberna-jatetxe-bilgune asoziatiboaren bila. Pantxoa Salaberrik telefonoz emandako aholkuak papertxo batean idatzita eduki arren, kostata heldu zen «Primadera beltza»-ren solasaldien kokalekura. Hain zen iluna eta zikina Elkartoki-ren karrika non bizpahiru aldiz aurretik igaro baitzen hura izan zitekeela pentsatzera iritsi gabe.

Arratseko zortziak ziren eta egunak luzatzen hasiak ziren. Hogei bat lagun bilduta zeuden hainbat kultur ekitaldi krakatsuri harrera eman ohi zien lokalean. Hizlarien mahaia «Primadera beltza»-ren logotipoa josita zeraman izara beltz batek estaltzen zuen eta mahaiaren atzekaldeko paretatik ere beste izara beltz bat zintzilikaturik zegoen. Gelaren beste puntan, argialetxe baionarraren aldizkari nahiz liburu gehienak salgai zeuden eta bi mahaien arteko tarte zurezko aulki tolesgarriz beteta zegoen. Salaberrik bertan elkartutako jende batzuei aurkeztu zien Julene. Euskal Kultur Erakundeko zuzendari berria ezagutu zuen eta testuetatik ezaguna zuen David Errekart idazlea hezur-mamiz ezagutzeko parada izan zuen. Panpi Bazterretxe eta beste hainbat Iparraldeko idazle ere aurkeztu zizkioten eta zera ondorioztatu zuen: idazle ez zen inor gutxi zegoela bertan. Laranja zuku bat proposatu zion Pantxoaren

laguntzailea bide zen emakume ez-euskaldun batek. Gaztelaraz moldatzen zen eta solasean hasi zen berarekin, kakahuetez betetako katilua hurbiltzen ziola. Frantsesezko argitaletxe txiki bat zuzentzen zuela ulertu zion Julenek eta «Primadera beltza»-rekin lokalaren alokairua eta lokala bera partikatzen zituztela. «Primadera beltza»-ren autoreak euren olerkiak irakurtzen grabatu omen zituen eta olerki horietako batzuk entzutera gonbidatu zuen aperitiboen mahaitxoaren ondoan pausaturiko walkmanak seinالاتuz. Kaskoa buruan jarri eta emakume baten ahotsa entzun zuen, olerki bat erreztatzen. Une hartan sartu ziren gelara Paskal Egiategi eta ezagutzen ez zuen berrogeita hamar bat urteko gizona, zeinak janzkeragatik Hegoaldekoa zela eza-gun zuen. Zirudienez, bi horien zain zegoen Salaberri mahainguruari hasiera emateko, agertu bezain laster jendea aulkietan esertzera deitu baitzuen.

—Paskal Egiategi, aurkeztu zion Salaberrik Juleneri.

—Bai, elkar ezagutzen dugu, esan zion solasaldiaren antolatzaileari irakasleak, aurpegia inoiz baino zurbilago.

—Pernando Egiguren, aurkeztu zuen bere burua Egiategirekin iritsitako gizonak.

—Julene Oihanburu.

—Pernando izanen da hirugarren mahaikidea —zehaztu zion Salaberrik—. Clémence anderea ez da heldu, azkenean. Eri da. Barda abisatu gaitu ez dela jinen, Paskalen bitartez.

—Hau pena, gaixorik dago?, galdetu zion Julenek Egiategiri.

—Bai, bai.

Egiategiren baiezkoa ez zen garbia izan eta bere begiradan zera irakurri zuen Julenek, zehaztu beharreko gauza asko zeudela eta geroago, bakarrik egongo zirenean, esango ziola zer gertatzen zen.

Salaberrik hizlarien mahaian grabagailu bat martxan jarri eta mikrofonoari oratu zion.

Ekitaldia hastera zihoala ikusirik, Julene Bazterretxe-rengana hurbildu eta aspaldi, Durangoko azokan, adosturiko Berrizarri buruzko elkarrizketa afari garaiean egitea erabaki zuten.

—Gauon deneri. Hemen bilduak gira gaur arratsean «Primadera beltza»-ren solasaldien kariatarat, eta bereziki idazle bat izanen dugu aipagai gure mintzalariekin. Badakikezue joan den urteko apirilaren hondarrean zendu zela Gaston Berrizar eta oraintsu urte bat bete delarik heriotzaz geroztik, uste ukan dugu parada baliatu behar ginuela omenaldi baten egiteko. Ez dut sobera gauza erranen mainguruaren aurkezpen honetan, hemen inguratzen nautenek naski denbora hartuko baitute dakizkitenak xeheki aipatzeko. Soilik oroitarazi nahi nuke «Primadera beltza» aldizkarian artikulu eder batzu argitaratu zituela Gastonek 80eko hamarkadaren hastapenean eta erakusgai dituzuela han, gibekeko mahainean. Laburzki, beraz, gure gomitak izendatuko ditut. Ene ezkerrean, aurkezpenik behar ez duen Paskal Egiategi idazle emankorra, egun Paueko unibertsitatean irakasle dena; ene eskuinean, Fernando Egi-guren poeta, zoritxarrez aspaldian bere luma ederra ez duena mintzarazi, lanbidez Haranzabal argitaletxean testu-liburuaren sailaren arduradun eta, batez ere, Berrizarren *Eskribitu gabeko poema*-ren jatorrizko edizioaren ilustratzailea. Azkenik, mahainaren puntan, Julene Oihanburu, Berrizarren obra nagusiaren azterketa unibertsitario sakon baten egile eta Gure Gauzak-entzat idazlearen biografia egiten ari dena.

—Haur ipuingintzan ere bere burua ezagutzera eman du berriki Julenek, gehitu zuen Egigurenek, «martzianoa»-ren berri bazuera erakutsiz.

—Barka Julene —desenkusatu zen Salaberri—. Eta, hasi aitzin, azken hitz bat oroitarazteko bihar hemen berean Iparraldeko antzerkiaren egoeraz mintzatuko garela. Etzi

arratsean, finitzeko, Lubizi bandako idazle gazteek poesia emanaldi bat eskainiko digute.

Mahai inguruan Pernando Egigurenen lekukotza izan zen interesgarriena Julenerentzat. Ilustrazioak nola egin zituen esplikatu zuen. Pariseko Euskal Etxean ezagutu zuen Berrizar. Ordu hartan, margolaritzatik bizitzeko asmoz zebilen Frantziako hiriburuan, bizirauteko lantxoak eta arte ederretako ikasketak batera eramanez. Berrizarri bere obra batzuk erakutsi zizkion eta, zailtasun ekonomikoak zituela ikusirik, margo bat erosi zion hark. Hortik aurrera, adiskidantza harremana izan zen beraien artekoa. Idazleak idazten ari zen obra baten pasarteak irakurri zizkion eta ezer esan gabe Egigurenek testuak iradokitako margolan abstraktu batzuk egin zituen. Hainbeste gustatu zitzaizkion Berrizarri non elkarlanean aritzea erabaki baitzuten. Liburua hornitzen zuten azken ilustrazioak, adibidez, lan horren emaitza ziren, baina liburuaren hasierakoak ez bezala, ez ziren testuak iradokitakoak. Aitzitik, Berrizar zen, Egigurenen marrazki abstraktuetatik abiatu, testua ekoiztu zuena. Zergatik desagertu ziren ilustrazioak Gure Gauzak-ek 1986an kaleratu zuen *Eskribitu gabeko poema*-ren berrargitalpenetik galdetu zuen entzule batek.

—Ez dakit, —erantzun zuen Egigurenek—. Autore eskubideak bikoiztuko ziratekeelako akaso —erantsi zuen ironia nabarmenez—. Gastonek ez zuen jakin ilustraziorik gabe aterako zela liburua inprimategitik lehen frogak eman zizkioten arte eta ez zuen inoiz onartu argialetxearen erabakia.

Mahai ingurua bukatu zenean Egigurenekin hizketan hasi zen Julene, mahaitik altxatzeke.

—Ez nekizkien kontatu dituzunak. Ikusita neukan, noski, *Eskribitu gabeko poema*-ren jatorrizko edizioa, baina ez nuen uste benetako kolaborazio artistiko bat egon zenik

atzean. Hain zuzen, berrargitalpenean azaltzen ez direnez, bada, garrantzirik gabekotzat joak nituen.

—Jende gehienak bezala.

—Nota batzuk hartu ditut, ohartuko zinenez, eta berdin bazaizu biografian zure lana aipatu gura nuke.

—Niregatik ez dago arazorik. Arazoa, izatekotan, Gure Gauzak-ekoekin izango duzu. Ez dakit oso gustora hartuko duten nire izenaren aipamena.

Salaberrik afaltzen geldituko zen jendea zenbatzen ziharduen eta Julene eta Egigurenen presentzia ziurtatu nahi izan zuen.

—Ez dut aipatuko berrargitalpenaren inguruan sortutako hika-mika, baina bai jatorrizko argitalpenean esku hartu zenuela, eta testu zenbait zure marrazkietatik eratorriak direla. Gutxienekoa da! Zor zaizu. Ez pentsa, biografia hau egiteko ikasi ditudan gauzen artetik ugariago dira, finean, isildu beharko ditudanak irakurleei eskainiko dizkiedanak baino...

Azken oharrak Egiguren berritsuago bihurtu zuen.

—Ez nau batere harritzen. Honez gero ohartuko zinen Gure Gauzak-ek Gastonen biografia manatu eta finantzatu izanaren berezko ironiaz.

—Ezin uka hala dela.

—Bada, kontuz nire izena aipatze soilarekin. Ez zaizu eta mesedegarria izango. Zerbait jakin behar duzu. Nik hainbat urtez lan egin dut Gure Gauzak-en. Gastoni esker sartu nintzen argitaletxean. Ordurako, margolaritza artistikotik bizitzea amets erromantikoa baino ez zela onartuta neukan eta prentsa zein liburu ilustratzaile gisa hantxan egiten nituen lantxo batzuei esker bizi nintzen. Gure Gauzak oraindik egitura txikia zen baina hezkuntza lege berria eta euskararen ofizialtzearekin batera, testu-liburuen saila sortzea erabaki zuten. Une hartan proposatu zidan lana Gastonek. Hasieran ilustrazioez arduratzen

nintzen. Alabaina, pixkanaka, lana gehiagotu eta neure gaitasuna erakusten nuen neurrian, itzulpen zenbait eta testuen erredakzioaren ardura ere eskuratu nituen. 80eko hamarkadaren erdian, Gastoni testuak atzera bota zizkiontenean eta enpresaren etorkizuna baldintzatzen zuten erabaki handietatik baztertzen hasi zirenean, nik ere antzeko baztertze bat jasan nuen, antza Gastonen bidez sartua nintzelako «etxean» eta, hortaz, ez nintzelako guztiz fidagarria. Urtetan, milaka aletan saldu diren eta Gure Gauzak-en diru-iturri nagusietako bat bihurtu diren testuliburuak erredaktatu ditut inolako autore-eskubiderik jaso gabe. Hau da, enpresaren salariatua nintzenez, autore eskubideak jasotzea nire lan-saria arrazoirik gabe bikoiztea zatekeelako aitzakia erabiliz, zor zizkidan milioika pezeta ukatu dizkit Gure Gauzak-ek. Abokatu bat kontsultatu behar izan nuen nire eskubideak zanpatzen ari zirenez ez bainengoen ziur, hain zen lotsagabea eta larderiatsua argitaletxearen nirekiko jarrera. Benetan lapurtu nindutela eta lapurtzen jarraitzeko asmoa zutela ohartu eta berehala, gaixotu egin nintzen, ultzera somatikoa antza, eta hilabete bi eman nituen lanera azaldu gabe. Hilabete-saria murrizteaz mehatxatu ninduten orduan, eta ez nintzen sendatu harik eta, desesperazioaren indarrak, neure kabuz dimititu nuen arte. Zorionez, Haranzabal argitaletxea nire soslaiko langile baten bila zebilen ordu hartan eta ez nuen luzaz pairatu langabetu egoera. Baina osasuna galtzekotan egon nintzen eta Berrizarren azken urteetako egoera depresibo kronikoaren erantzuletzat daukat Gure Gauzak. Egin dioten guztiak ez du izenik. Tamalez, ez da pentsatu behar Berrizarrekiko jokamoldea, bereziki bortitza izan arren, isolatua edo bakana izan denik. Nik neuk konprobatu dut ez dela hala, eta «kanpoan» nagoenetik hainbat idazle zein musikariren esperientziaren berri izan dut. Kantari edo talde gazte gehienek Gure Gauzak-ekin diska

bakarra atera eta hurrengo beste zigilu batekin ateratzen saiatzen badira ez da kasualitate hutsa. Kontuz ibili eurekin. Oraindainokoa ondo tratatu zaituzte eta aprobetxatu ahal duzun neurrian, halako batean sedukzio fasetik esplotazio fasera igaroko baitira. Paskalek esan dit konfiantzazkoa zarela eta horregatik ari natzaizu hain garbi hitz egiten.

—Eskertzen dizut eta lasai egon zaitezke, ez dizuet arazorik erakarriko, ez zuri ez Clémence andereari, ez inori.

—Ez zaitez egon horretaz hain ziur, bukatu zuen, misteriotsu, Egiquirenek.

Afaltzera joateko taberna aldera mugitu behar zirela keinu egin berri zien Salaberrik. Egiquireni jarraiki, Julene ere altxatu zen eta zegoeneko tokia hartuta zeuden hamar afalkideek utzitako tarte libreetan eseri ziren biak. Egiategi eta Egiquirenen artean kokatu zen Julene. Mahaiaren beste puntan zegoen Bazterretxeri «gero gerturako natzaizu» mezua adierazi zion, hatz erakuslea biraraziz.

Aukerarik gabeko menu singlea iragarri zuen taberna-riak: salda, oilaskoa patatekin eta flana.

—Pantxis Hiribarne ez da etorri?, galdetu zion Salaberriari Julenek ezagutzen ez zuen mahaikide batek.

—Filma baten errodaian parte hartzen ari da.

—Zinemarentzat?

—Bai. Thierry Castaldi errealizatzailea euskal artzain baten istorioa filmatzen ari da Ezterenzubi aldean. Eta hemengo jendea behar zuen dialogo zenbait euskaratzeko eta aktoreei ahoskapena nahiz intonazioa irakasteko.

—Nor da Thierry Castaldi, hemengo tipo bat?, galdetu zuen Julenek errealizatzailearen izena nonbaitetik ezaguna egiten zitzaiolako kitzikaturik.

—Paristar zineasta bat da. Adin batekoa, jada.

—Zer filme mota egin du?

—Ez ditut denak ikusi. Halere, zinema psikologikoa dela erran nezake, klase ertainaren bizimoldea duelarik

beti ere aipagai. Garai batean modatik kanpo egon da bainan, iduriz, berriz kritikaren begirunea erdietsi du.

—Ezaguna egiten zait. Ez dakit nondik...

—Espainiar telebistan bota izan dituzte bere pelikulak, saiatu zen Egiuren Juleneren sentipenari zioa aurkitzen.

—Baliteke, marmarikatu zuen Julenek, komen-tzitzeke.

Ezarian ezarian, eskuarki gertatu ohi denez, talde el-karrizketa bitan zatitu zen, eta laster, bikote zein hiruko-teen solas pribatuak nagusitu ziren mahaiaren inguruan, hurrengo bateratze fasearen aiduru.

—Zer moduz, Paskal, galdetu zuen hor arte uniber-sitariarekin bakarka hitz egiterik izan ez zuen Julenek.

—Ez ongi.

—Zer ba?, antzestu zuen harridura Julenek, Egiate-giren aurpegi zurbilari lokalean sartu zen unetik beretik erreparatua ziolarik.

—Lapurrak izan ditut etxean.

—Ez da izango.

—Bai. Urdiñarbera asteburua iragaitera emaztearekin joanak ginen bitartean sartu dira.

—Eta baliozko gauzak zenituen etxean?

—Harri bitxi, telebista eta enparauetaz ari bazara, ez.

—Altzariak?

—Ere ez. Papera baizik ez dute eraman.

—Papera?

—Berrizarren eskuizkribuak.

—Nola?!

—Hori bakarrik. Horregatik, uste dut zurekin etorri ziren bi lagunetako bat, ez bazara zu zeu, zelatari lanetan ibili zela bisitan etorri zinetenean.

—Egon ziur ez naizela ni, Paskal. Eskuizkribuen desa-gerketak ez dit inolako mesederik egiten. Aitzitik. Etxe-barria irakaslearekin egon nintzen herenegun eta eskuiz-

kribuak eskuratu eta kritika egiteko aukera emango niola agindu diot, zurekin eta Clémence anderearekin adostu moduan. Eta, jakina, nire karrera unibertsitarioak kolpe zitala hartzen du eskuizkriburik ez badago.

—Mintzatu nintzen, bai, Etxebarriarekin, eta horregatik sinesten dizut. Baina zure lagunetako bat dago lapurketaren atzean. Zuek hirurok, alarguntsak eta nihaurk salbu beste inork ez zuelako eskuizkribuen berri, eta are gutxiago nire etxean gordeta zeuden berri.

—Ulertzen dut, erantzun zuen pentsakor Julenek.

Alde batetik, Egiategiren eta alarguntsaren konfiantza galdu ez izana lasaigarria zitzaion. Bestetik, ordea, Marta eta Zaldunbideren aurpegi irribarretsuak zetozkion gogora, isekari. Ezin zitekeen Zaldunbide izan. Arrazoi askorengatik, eta batez ere intuizioak ziurtatzen ziolako. Ez zuelako nahi izan zedin. Eta Marta izateko arrazoiak ez zituen eskas. Egia esan, soberan zituen, baina kontraesankorrak. Elementu batzuen faltan, Martaren jokamoldeak misteriotsua izaten jarraitzen zuen, nahiz susmagarri nagusiaren estatusa merezita irabazia zuen dagoeneko. Zaldunbideak gaztigatua zuen Martarekiko susmoaz baina zailki uler zitekeen, Francisco Melchor-en zerbitzuan lanean ziharduelako hipotesia onartuz gero, epaile antiterroristari Berrizarren obra argitaragabeak interesatzen zitzaizkionik. Martak Gure Gauzak-en sorreraren inguruko informazioekiko jakinmin susmagarria erakutsi zuela oroitzen zuen Julenek eta logikoa zirudien informazio horren atzetik bazebilen Egiategiren etxeraino laguntzea, edo Agirre seduzitzea. Haatik, hortik aurrerakoak, alegia eskuizkribuen lapurketak, zentzugabea zirudien zeharo, non ez zen, Melchor literaturzale porrokatu eta euskalduna.

—Eskuizkribuek ez zuten aldakirik?

—Ez.

Isilune baten ostean, Egiategik hartu zuen hitza berriro.

—Sonia ez da eri. Desegina dago. Horregatik ez da etorri mahaingurura.

—Ulertzen dut lurjota egotea.

—Ez, ez duzu ulertzen.

—Zergatik ez zituen argitaraerazi Gure Gauzak ez beste argialetxe batenean? Badakit senarrak debekatu ziola, baina, hala eta guztiz ere...

—Zaharretxetik bota dute.

—...

Ingurukoak euren solasetan murgilduta zeudela ziurtatu ondoren, ahotsa apaldu eta zera azaldu zion irakasleak.

—Gure Gauzak-ek ordaintzen zion zaharretxeko pentsioa.

—Obrak ez argitaratzeagatik.

—Ez dakit ongi zergatik. Iduriz, beldurra zioten alarguntsari, edo eduki zitzakeen testuei. Baina eskuizkribuen berri izan eta lapurtu dituztenetik, beldurra galdu bide diote Soniari, ezen pentsioa ordaintzeari utzi baitiote. Iduriz, Gastonek emazteari, hil aitzin, instrukzio zehatzak eman zizkion. Ez zituen argitaratu behar bere testuak, ez zizkion inori erakutsi behar eta pentsatzen dut Gure Gauzak-ekoei, enpresari buruz izan zitzakeen balizko informazioekin, beldurra sartu ziela eta Soniaren faboretan izango zela kalkulatu zuela. Eta hilabete batzuek emaitza onak izan ditu bere taktikak. Izan ere, hil eta bereahala, Soniak senarra zenak prestaturiko gutun bat bidali zuen argialetxera eta luxuzko zaharretxe hartan sartu zuten Gure Gauzak-ekoei gutuna jaso eta gutxira. Une hartan hasi ziren, baita ere, Berrizar bekak abian jartzen.

—Beraz, zure ustea da Berrizarren manipulazio bat izan dela guztia, gordetako dokumentuak eskuizkribuak baino ez zirela deskubritzea lortu duten arte iraun duena... Marta dela medio.

Martaren Agirrerekiko komedia bat-batean ulergarria eta lehen ez bezala sinesgarria egin zitzaion. Agirrerekin zebilela aitortzea Gure Gauzak-en zerbitzuan zelatan aritu zela estaltzeko modurik paradoxikoena, eta hortaz eraginkorrena, izan zen. Agerian uzten zena zen aurkitzen zailena. Beste hipotesi kezkarri batek ere gogoia zeharkatu zion une batez Juleneri: zein puntutaraino ez zen izan bera ere Gure Gauzak-en tresna? Tresna itsua. Izan ere, alarguntsarengan susmorik piztuko ez zuen biografo inuxente baten aurrera pausoak jarraitzea ez zen bide txarra jakitera iritsi nahi zena jakiteko. Baina ez. Ezin zitekeen aurretik programatutako estrategia bat izan. Alarguntsarekiko elkarrizketa oztopatzeko Agirre eta Urdangarinen ahaleginak frogatzen zuten hasiera batean behintzat ez zela hori izan Gure Gauzak-ekoen asmoa. Kontua zen, une batetik aurrera alarguntsa ikusteko debekuaz beste egitekotan zegoela jakin egin zutela eta, orduan bai, Marta erabiltzea erabaki zutela ezusteko parada horretaz baliatzeko. Horrela beraien kontrako zerbait bihur zitekeena, hots, argitaragabeko eskuizkribuen aurkikuntza —Gure Gauzak-en idazlearekiko jarrera salatzen zuena—, beldurturik zeuzkaten balizko dokumentuak lapurtzeko aukera bihur zitekeen. Azkenean, eskuizkribuak baizik ez zeudela jakitera iritsiak ziren eta alarguntsari beldurra galdurik, lapurrak bidali zituzten Egiategirenera eta zaharretxea ordaintzeari utzi zioten.

Oilaskoa ekarri zuen tabernariak zopa ordezkatzeko. Sardexka oilaskoan sartu zuen Julenek eta haiztoari oratu zion beste eskuaz.

—Non daukazu burdina haragian?, galdetu zion Egiategik.

Ulertu gabe geratu zen une batez Julene, platereko oilasko izterrean sartutako bere sardexkari begira.

—«Burdina haragian», Gastonen eleberria, urduritu zen irakaslea, konposturari ezin eutsiz eta mahaikideengan

susmorik ez piztearren burua eta ahotsa biak batera are gehiago apalduz.

«Burdina haragian»! Noski. Alarguntsaren baimenarekin etxera eraman ahal izan zuen Berrizarren eleberri argitaragabea. Lapurren atzaparretatik libratu zen bakarra.

—Bai, Paskal, badaukat. Lasai.

Baina ez zegoen lasai. Martak izebaren apartamentuko giltza zuela oroitu zuen. Hilabete batzuk lehenago utzi zion giltza bikoiztua, bera hor ez zegoenetan pisuaz balia zedin. Eta Egiategiren etxean lapurrak ibili ziren asteburuaz geroztik berak etxetik kanpo igarotzen zuen lehen arratsa zen hura.

—Ez dakit..., esan zuen bere golkorako.

Mahaietik jaiki, Salaberrirengana hurbildu eta «joan behar dut» labur bat azalpen bakar gisa emanaz Elkartokitik alde egin zuen.

San Andres plazatik kasik derrapatuz atera zen eta Baiona ere ziztu bizian utzi zuen atzean. Hortik gutxira mugan zegoen eta Gipuzkoa alderik alde ordu erdiz zeharkatu zuen. Apartamentuko igogailua deitzeari eskaileretatik gora bi mailaka abiatzea hobetsi zion, eta atea eskuak dardarka zituela ireki zuen. Egongelako mahai apaleko aldizkari nahiz egunkariak anabasean zeuden, berak utzi ez bezala, eta «Burdina haragian» eramana zuten.

Madarikazioka eta biraoka hasi zen bere buruaren aurka eta hasiera batean alferrikakotzat jo zuen apartamentuaren badaezpadako miaketari ekin zion. Baina ez. Ondo baino hobeto oroitzen zuen mahai apalean utzi zuela eleberria Baionara abiatu aurretiko orduetan, ohar batzuk idazten ibili ondoren. Geroztik euskarririk gabeko ohar bilakatuak, aldiz, aurkitu zituen ordenagailuaren bulegoan. Mekanikoki, zerbait egitearren, mahai apaleko aldizkari eta egunkariak ordenatzen hasi zen orduan, eta eleberriaren titulua eta eskaintza zeramatzan lehen orrial-

dearekin egin zuen topo. Lapurrei ahantzi edo erori bide zitzaien. Izan ere, grapak kenduak zizkion liburukiari, erosoago eta hondatu gabe manipulatu ahal izateko, eta ziurrenik pilotik askatuko zitzaien eramaterakoan. *Burdina haragian*, *Gaston Berrizar*, *eleberria*, *T.C-ri*. Horiek ziren orrialde txuriaren erdialdean, hizki nagusiz, salbu kurtsibaz zetorren eskaintza, irakur zitezkeenak. Ez zatekeen nahikoa Berrizarren obra argitaragabeak esistitzen zirela, edo inoiz esistitu zirela, frogatu nahi zukeenarentzat. Orduetik aurrera, behinik behin, ez zuela gehiago kezkarik izango biografiaren kapitulu zailekin otu zitzaion Juleneri, baina ongi asko zekien kontsolamendua mikatza zela, irringarria. Sarrerako atera ondoratu eta inolako bortxaketa zantzurik ez zuen sarraila kirikatu zuen. Agendan sarraila aldatu behar zuela markatu eta telebistari begira egon zen, aspaldiko partez bareturik, harik eta gertaera arraro samarraren protagonista izan zela pentsatuz loak hartu zuen arte.

«Hortaz, bukatu da abentura», errepikatu zion bere buruari corn flakesak katilura botatzen ari zela. Sukaldeko lehiotik sartu eta dena betetzen zuten goizeko lehen eguzki izpi zuriek. Zerealak esnetan ito zituen Julenek eta apartamentuko sarreran lanean ziharduen sarrailariarengana joan zen. Hitz batzuk elkar trukatu zituzten eta zaharra ordezkatzeko egokia zeritzon sarraila hautatu ostean, atentzioa gizonaren eskuetan finkatu zuen. Beti iruditu zitzaion liluragarria eskuekiko trebezia, berak eskas zuen trebezia zelako, apika, eta orduak pasa zitzakeen iturginari, zapatariari edo mekanikoari begira. Eta beti ohar bera egiten zion bere buruari, hots, misteriotsua zitzaiola tresna berdina edukiagatik, alegia eskua, emaitzetan lor zitekeen aldea. Gorputzaren jakintza burmuinena bezain miresgarria zen, baiki. Berrizarren «eskutxuak» etorri zitzaizkion gogora. Idazlearen ezina. Idazleen ezina. Zeren baitan zetzan idazlearen arrakasta edo porrota? Bai, noski, burmuinen trebezian. Baina nork dekretatzen zuen idazle baten trebezia? Irakurleak, hitzaren zentzurik zabalenean. Hau da, irakurle arrunten masa anonimoak, irakurle profesionalek, editoreek, kazetariak, etabar. Biografoek ere bazuten erantzukizun zati bat, noski. Idazlearen patua, ondorioz, ez zetzan literaturaren jainko abstraktu baten esku objektiboen artean, baizik eta gizaki konkretu andana

batzuen esku txit subjektiboetan, bere biografo eskua barne. «Eskutzuk» ez zuen jakin bizi zen bitartean arrakasta eskuratzen, patuaren esku subjektiboak bere lanari fereka egitera bideratzen. Baina partida ez zuen amaitutzat jo eta hil ondotiko luzapenetan jarri zituen azken indarrak. Bezperan Juleneri lapurtu zioten «Burdina haragian» nobelaren eskuizkribuaren desagertzearekin, orduan bai, bukatzen zen partida. Nola aipa, nola goraipa, idazlearen kalitatea, kalitate horren froga materialak desagertu ezezik inoiz esistitu zirela ere frogatzerik ez zegoenean jada? Eskura eduki zituen Berrizarren patua bortxatzeko frogak. Eta huts egin zuen. Berrizarri beheraka, lurperantz, egiten zion eskua gora, parnasorantz, egiten ahalegindu zenari gailendu zitzaion. Esku hutsik utzi zuten Julene, bere Muga Handiaz haraindiko klientea defenditzeko armarik gabe, eta okerrena zera zen, orain bere esku zirauela Berrizarren porrotaren agiria erredaktatzea. Idazle elbarritu baten biografia hankamotza.

Sarrailariak lana amaitu zuen. Giltza ate begian sartu eta sarraila berria bazebilela egiaztatu zuen bi bider, Julene begira zeukala. Lanaren ordaina eskuratu, Juleneri eskua eman eta eskaileretan behera hondoratu zen sarrailaria, norbaitek solairu batean blokeaturik bide mantentzen zuen igogailuari uko eginez.

Sarraila aldaketarekin berandutu egin zitzaion. *Nire mutil lagun martzianoa*-ren ale bat motxilan sartu eta etxetik atera zen. Azpeitiko ikastolara joan beharra zuen, irakurria ei zuten hurrei bere liburuaz hitz egitera, Euskal Idazleen Elkartearen eskutik. Ikasturteko laugarren saioa zuen hura. Aurreko hiruak Bermeon, Arrasaten eta Etxalarren egin zituen. Bilbo-Donostia autopistan sartu eta akzeleragailuari astindua eman zion berriro nazionalera atera arte. Normaltasunak ere alde onak zituela pentsatu zuen Julenek Azpeitirainoko bide bihurgunetsuaren ertz loratu

eta berde ilunak zekuskiela. Dilema moralik ez zegoen jada. Ezeren ezein frogarik gabe, hastapen batean pentsaturiko biografia «normala» burutzea besterik ez zitzaion gelditzen. Bekaren bigarren erdia eskuratu, Etxebarria katedradunari dena «gaizki ulertu» bat baino ez zela izan ahal bezala azaldu, Gure Gauzak-ek eskaintza duina egiten bazuen «martzianoaren» segida idatzi, eta bestela Erne-ekin jarraitu. Zergatik ez? Gauzek bortxaz konplikatua izan behar al zuten? Mundua bihurtunetsua bazen, zergatik egoskortu lerro zuzenarekin? Bidearen puntan Loiolako basilika ageri zen, telefonoz ikastolaren kokalekua azaldu zion irakasleak iragarri moduan. Beraz, eskuinera zihuan bidexka hura izango zen ikastolara zeramana.

Hala zen. Haurrak, jolasaldia izanki, kanpoan zeuden, handia bezain modernoa zen eraikinaren aurrekalde asfaltatuan. Irakasle hirukote bat, zutik, zigarro pausa egiten, ikusi zuen Julenek sarrera batean. Beraiegana hurbiltzen ari zela, hiruetako bat taldexkatik atera eta aurrera atera zitzaion.

—Kaixo, Julene Oihanburu?

—Bai. Zu Izaskun izango zara, ezta?

—Hori da. Erraz aurkitu duzu?

—Bai. Ondo zeuden zure azalpenak.

—Goazen barrura. Gela erakutsiko dizut.

—Telebista badauka?

—Bai, bai, lasai.

Eraikinean barrena ibili ziren une batez bigarren solairuko gela batera iritsi arte.

—Utzi zure gauzak hor. Kafe bat hartzera joango gara.

Irakasleen gelara eramane zuen Izaskunek. Kafea hartuz eta hango beste irakasle batzuei Julene aurkeztu ondoren esan zionez, hamabi bat urte zeraman bertan lan egiten. Hogeita hamabost urtetik beherakoa zirudien. Pribilegiatutzat zeukan bere burua ezen, lanpostua lortu zuen

garaiean herria aukeratu ahal izan baitzuen. Hezkuntza sistema berria martxan jartzen ari zen orduan eta euskaraz eskolak emateko jendea trumilka kontratatu zuten. Lana atsegin omen zuen, azken urteetan haurren aiurrian txarreranzko aldaketa bat somatu zuen arren. Pozik hartzen zituen azken hiru ikasturteetan ematen ari zitzaizkion ikastolako ardura administratiboak, haurrekiko lana nekegarria eta ahigarria baitzen, batez ere zainentzat.

Berriro klasegelara joan ziren. Jolasaldia bukatu zen nonbait eta haurrak pixkanaka tokia betetzen ari ziren.

—Zenbat izango dira?, galdetu zuen Julenek, idazleen elkartearen bileretan idazleci eman zitzaizkien kontsignak gogoraturaz.

—Normalean hogeita hamar bat izan behar zuten, nire ikasgelakoak. Baina, nire lankide batekin ere zure liburua irakurri dutenez, bada, etor daitezela esan diegu. Gutxixeago dira besteak. Hortaz, guztira, berrogeita hamar inguru izango dira.

—Jakingo duzu zergatik aipatzen dizudan kopurua, ezta? elkartetik esan digute normalean hogeita hamabost ikaslerainoko entzulegoa dela muga. Badakizu, idazleen eskubideen defentsa... Baina, lasai, niregatik ez dago arazorik.

—Eskerrik asko. Pena litzateke. Zure liburua erosi eta irakurri dute eta...

Hirurogeitik gora haurrekin solastatu zen Julene ordu eta erdiz. Hasteko, zinemaren historiatik ateratako martzianoen figura ezberdinak biltzen zituen etxeko bideo muntaia bat aurkeztu zien. 50eko hamarkadako martziano hidrozefalo edo buru handi gaiztoetatik hasi eta *E.T.* Spielberg-en filmeko mamu gupidagarrirainoko hainbat kreatura errepasaturaz. Ondotik, *Nire mutil lagun martzianoa* nola idatzi zuen azaldu zien hurrei. Eta azken zatia, luzeena, hurrek irakaslearekin prestatuturiko galderen saioa izan zen. Denetarikoak egin zizkioten. Batzuk, nabarmenki

irakasleak berak iradokiak. Adibidez, honako hau: «Zer sinbolizatzen du martzianoak zure ipuinean?». Eta erantzuna: «Bada, bestetasuna sinbolizatzen du. Denok garela martzianoak. Beti garela norbaiten martzianoa. Ez dagoela pertsona normalik. Adiskidantza zein maitasun harreman baten hasieran, bata bestearentzat martzianoa da, alegia, lurralde ezezaguna, erakargarria bezain beldurgarria, eta martziano izateari uzteko bestearen begirada maitaria behar dugula.»

Teoria polita, pentsatu zuen berekiko Julenek, prentsaurreko zein ikasleen aurreko beste saioetan errodaturiko diskurtso «martzianista» zegiela. Eta Zaldunbideren irudian finkatu zen bere gogoia. «Giza harremanetan jakitun den nortzat aurkezten diet neure burua haurrei, eta okerrera da nahiko komentzigarria naizela paper horretan».

Irakaslearekin bazkaldu eta etxera itzultzean oraindik eguzkia bere zerutiko ibilbidearen hirugarren laurdenean ez zen sartu eta gauza askorako astia zuela ohartu zen atsekabez Julene. Autopistan joanekoan baino geldoago ibili bazen ere, maiatzaren erdialdeko egunak luzeak ziren, eta haurrekiko saioak ez zion espero bezainbat denbora jan. Gelditzen ziren orduak bete behar zituen eta zeregin fisikorik ezean, gogoeten zurrunbiloan sartzeko arriskua zegoen. Telebista piztu zuen. ETB. «Iparraldearen orena». Filme baten errodaia. Ezterenzubi. Thierry Castaldi zineasta frantsesa Euskal Herrian, artzai baten istorioa filmatzeko aktore euskaldunekin. Pantxis Hiribarne antzerki egilea elkarrizketaturik. Zaila omen da euskara ulertzen ez duen errealizatzaile eta frantses tutik ere ez dakiten Hegoaldeko aktoreen arteko elkar ulermena. Horregatik behar omen dute bere moduko norbait grabapenaren une guztietan. Komunikazioa errazteko. Bestalde, pertsonaia nagusiaren euskara sinesgarria izan dadin, Ezterenzubi inguruko euskalkiaren melodia eman behar zaie esaldiei. Horretan dihardu Hiribarnek, eskuarki ETB-ko teleaile-

tan lan egiten duen aktore bizkaitarrari baxe-nafarroako intonazioak erakusten. Thierry Castaldi agertu da orain pantailan. Hirurogeita bost urte inguruko gizon mehea. Ezagun baten traza hartu dio Julenek. Aurpegi hori ezaguna zaio. Ahotsa, aldiz, ez. Euskal Herria lehenagotik eza gutzen omen du, azpi-tituluetan irakur dezakeenez, eta balio sentimental berezia du pelikula hemen egiteak. Aspaldiko ametsa da hemen filmatzea. Aurpegi hori. Nondik etorri zaion euskaraz errodatzeko gogoia, galdetzen dio kazetariak. Ahotsa ez baina aurpegia bai. Gerra garaiean erresistente gaztea zela euskaldun jendea ezagutu omen zuen. Bai! Hori da! Egiategirenean, zurezko kutxan eskuizkribuekin batera zeuden argazki zaharretako bat. Berrizar eta beste lau lagun, begirada zerurantz zuzenduta, ileak atzerantz orraztuta. Eta txuri-beltzezko argazki horituaren atzekaldean bost izen, eskuz idatziak. Izen horietako bat, orain ia ziur zegoen, Thierry Castaldirena. Erreportaia bukatu da. Zer pena ez grabatu izana. Gehiegi «biluztu» gabe Zaldunbide deitzeko aitzakia paregabea zen.

—Ilun. Julene naiz.

—Ka... Kaixo Julene! Zer berri?

Nekez hasi zen hitz egiten Zaldunbide, Juleneren deiak ezustean harrapatu.

—Gehiegi telefonoz horrela kontatu ahal izateko.

Zaldunbidek oraindik ez zekizkienak bururatu zitzaizkion tupustean: Martaren traizio iragarria —baina ez Melchorren eskutikoa Zaldunbidek susmatu zuen modura—, eskuizkribuen lapurketa bikoitza, alarguntsa eta Gure Gauzak-en arteko beldurraren ituna, eskuizkribuen lapurketa ondoz ondo zen itun horren bukaera, Agirre-Arana-Urdangarin hirukotea batzen zuen joko literario sadikoa...

—Ilun, barkatu nire edukazio txarra, baina beste ezer baino lehen, galdera bat egin nahi nizuke.

—Bota.

—Gogorutzen zara alarguntsa bisitatzera joan ginean Egiategi irakaslearen etxean ikusi ahal izan genituen Berrizarren argazkietaz?

—Gutxi gora behera.

—Erresistentziako lagunekin agertzen zen txuri-beltzezko argazkia...

—Zerura begira zeudena.

—Horixe!

—Eta?

—Ez dituzu oroituko atzekaldean eskuz idatzitako izenak, ezta?

—Ez.

—Normala...

—Baina esango bazenizkit, gai nintzateke...

—Thierry Castaldi.

—Bai.

—Zer, bai?

—Baietz. Argazkiko izen bat da.

—Ziur?

—Bai.

—Bihar eguna libre duzu?

—Ba, beno, bai...

—Goizeko bederatziak eta erditan Bulebarreko ordularian hartuko zaitut. Egon prest.

—Bale.

—Bihar arte, beraz.

—Itxaron, Julene! Zera, gauza bat esan nahi nizun. Ez dakit zergatik esaten dizudan, eta ez dakit, ezta ere, axola zaizun, baina, zera, Arantza Aranarekin adiskide egin gara, baina horretan gelditzen da dena. Adiskide soilak gara...

—Banekien.

—Barkatu?

—Kontatuko dizut dena bihar. Hainbeste gauza esan behar dizkizut... Episodio andana huts eginda zaude azken aldion. Bihar arte, Ilun.

Azken hitzak esaten ari zela, telefonoa are azkarrago eskegiarazi zion lotura bat egin zen Juleneren burmuinetan. Aldizkarien mahai apalera hurbildu, belaunikatu, eta lapurrek utzitako Berrizarren aztarna bakarra, «Burdina haragian» eleberri argitaragabearen azala eta eskaintza zeramatzan orria hartu zuen: *Burdina haragian, Gaston Berrizar, eleberria, T.C.-ri*. T.C. Thierry Castaldi.

—Zer kontatzen da «Burdina haragian» eleberrian?, galdetu zion Zaldunbidek, Julenek Donostiatik Baionara bitarteko bidean azken gertakarien jakinaren gainean jarri ostean.

—Ezinezko maitasun bat da gaia. II. Mundu Gudate garaian girotua. «Burdina haragian» titulua gerraren metafora bat da. Erresistentzian sartzea erabakitzen duen neska gazte euskaldun bat da protagonista. Parisera neskame iza-teko bidaltzen dute familiarik, baserria erre eta lanik gabe geratzen direnean. Frantses familia burges kolaboratzaile batean lanean hasten da eta orduantxe sartzen dira alemandarrak Parisen. Familiako etxeko jauna bera bortxatzen saiatzen da eta mendekuz edo, inolako kontzientzia politikorik gabe, etxe hartatik ofizial alemandar asko igerotzen dela ikusirik, zelatari gisa Erresistentzian sartzen da. Bertan, argazkilari bat ezagutzen du eta maitemindu egiten da. Gerrak iraungo duen urteetan, une laburretan baino ez du ikusiko eta batak besteaz gauza gehiegirik jakin gabeko harreman aratza garatuko da. Gatazka bukatzean —asko laburtzen dut istorioa, zeren eleberriaren parterik luzeena, hain zuzen, okupazio garaieko abenturei dagokiena da eta elkar ikusteko gaingiditzen dituzten oztopo ezberdinen inguruan eratuak baitaude kapitulu gehienak— ezkontzeko xedea eratzen dute eta pixkanaka

elkar ezagutzen hasten dira, aditzaren zentzu biblikoan zein arruntenean. Dena antolatzen dute, neskaren familia bakarrik abisatzen dute, fotografoa umezurtza baita, eta dena tragedia batean amaitzen da. Argazkilaria neskaren neba-erdia dela ohartzen dira, neskaren aita baserritarrak Munduko I. Gudatean Frantziako ekialdean, Verdun aldean, izandako abentura baten fruitu ilegitimoa delako. Azkenean, mutilak neska abortatzen laguntzen du baina operazioa gaizki atera eta betirako antzu geratzen da neska. Oraindik elkar maite duten arren, berezi egiten dira.

—Bost toneladako melodrama, ondorioztatu zuen Zaldunbidek.

—Baina ondo idatzia. Eta, bestalde, 80eko euskal letren panoraman ezohikoa.

—Hortaz, ez dago beste kopiarik? Originala eta aldatu bakarra zena eman zizun Egiategik?

—Antza, bai.

—Eta ez zenuen kopiarik egin?

—Ba, sinestezina badirudi ere, ez nuen astirik izan.

—Hau guztia bai dela eleberri bat egiteko modukoa. Ez dago fikzioak asmatzen aritu beharrik. Banengoen, ni, Marta hura ez zela fidatzekoa...

Donibane Garazira heltzean, kafesne bat hartu eta Ezterenzubirainoko bideaz xehetasun batzuk eskatzeko zorionezko geldialdi bat egin zuten. Izan ere, zirudienez, egun hartako errodaia ez zuten aurreikusi moduan mendian egin behar. Garazin bertan errodatzekoak ziren eguneko eszenak. Arratsalderako ekaitza zetorrela eta, ekipoak plana aldatu eta gidoiean aurrera egitea erabaki zuen. Ostalariak dena zekiela zirudien ezen xehetasun eskatuak baino gehiago eman baitzizkien errodaia n nondik-norakoez. Hark emandako norabideari jarraiki, hiriaren irteeran aurkitzen zen etxadi batera iritsi ziren. Inguratzen zuen errepideko espaloietan edonola aparkatutako auto,

furgoneta zein kamioi ugariak ez zuten dudarako aukerarik uzten. Han nonbait ziharduten filmatzen. Errodaiaren orbitan bueltaka zebilen jendeak –izan zitezen teknikari, aktore, makillatzaile zein kazetari– osatzen zituen giza-hesiak zeharkatzeko moduren bat aurkitu beharra zuten lehen bait lehen Julene eta Zaldunbidek. Ez baitzuen ezerk zilegiztatzen beraiek han egotea.

—ETB-ko kazetaritzat aurkez ditzagun geure buruak, proposatu zuen Zaldunbidek.

—Dagoeneko izanak dira errodaiaren, ikusi nuen erreportaia eurena zen.

—«Iparraldearen orena» programakoak bai, baina Hegoaldekoak ez.

—Dena den, zerbait esan beharko dugu. Bale. Demagun Hasier Etxeberria zarela eta ni Maialen Iriarte.

—Ondo Maialen.

—Aurrera, Hasier. Har ezazu zure airerik naturalena. Etxean begeunde bezain lasai jokatu behar dugu. Bestela segituan erreparatuko digute.

Lehen giza-hesia zailtasunik gabe gaingitu zuten, apika hesia osatzen zuten askok beraiek bezain zerikusi gutxi zutelako errodaiarekin. Kamioi handiena aparkatuta zegoen etxearen parera iritsitakoan, bigarren hesia gaingitzeko zailagoa izango zela auresentitu zuten. Eta hala izan zen. Buruan mikrodun kasko bat zeraman gizon bat hurreratu zitzairen kamioiaren atzetik ezustean irtenda, eta ulertu ez zuten zerbait esan zien frantsesez. Une batez, Julene eta Zaldunbidek elkarri begiratzeko tentazioa izan zuten eta begiradari uko egin bazioten ere, duda liparrak salatu zituen. Kaskodunak aurpegi txarra jarri eta Zaldunbidek inspirazio handiz jokatu zuen orduan. Konpostura berreskuraturik, Hasierrena egin zuen, maisutasunez, aktore maila duina erakutsiz, eta bazkaria non egitekoak ziren galdetu zion kaskodunari, Castaldirekiko elkarrizke-

tarako kamerak aurretik probatu ahal izateko jakin behar zuela argudiatuz. Zorionez, bazkalorduko gezurrezko *interview* horren aipamenak ez zuen gehiegi harritu kaskoduna eta, arte munduan ohikoa den kazetarietako gehiegizko adetasun erreflexua ongi barneratua zeukala agerian utzi eta zintzoki eman zien jatetxearen izena.

—Buf... aukera ona izan da kazetaritza, iruzkindu zuen Julenek, bekokitik izerdia kenduko bailuen eskua pasatuz.

—Bazkalordua ez da une txarra Castaldirekin kontaktuan sartzen ahalegintzeko.

—Hala ere, saia gaitezen gehiago hurbiltzen. Oso eroso ikusten zaitut Hasier Etxeberriaren paperean.

—Ez pentsa. Belaunak dardarka izan ditut arestian.

Nahiko zabala zela kenduta arrunta zirudien garaje baten ate aurrean pilaturik zegoen giza-hesi jendetsuena.

—Ez duzu edukiko zure koaderno motxilan, kasualitatez?

Julenek iruzurkidearen intentzioa asmatu zuen. Koaderno atera, bolaluma ere bai, eta guztiari eskutik oratuz, aurrera jarraitu zuen bere burua gero eta kazetariago sentitzen zuela. Trinkoa izan arren, giza-hesiak bazituen bere zirrikituak eta horietako batetik garaje barruan gertatzen zena ikustea lortu zuten.

Mendian galdutako artzai txabola baten barnekaldearen birkonstituzio txukuna egin zuten bertan. Sutondoa, zurezko mahai zaharra, aspaldiko sukalde tresnak, ez zen xehetasun bakar bat ere falta. Artzaiarena egitera zihoan aktoreak ere denboran zehar bidaiatzeko tramankulu batetik aterea zirudien. Aurpegiko azala pixka bat belzten zion makillaiaren atzean, Goenkale telesailean tarteka azaltzen zen adineko aktore bat ezagutu zuten. Pantxis Hiribarne antzerkiegile baxe-nafartarra izan behar zuen gizon bat esaldi bat errepikarazten ari zitzaion «hegoaldekoegia»

bide zen intonazioa behin eta berriro zuzenduz. Garajearen bigarren erdia kamera, proiektore, produktore, kable nahiz teknikari builatsuz mukuruz zegoen. Horien erdian, Thierry Castaldi ezagutu zuten, besteak ez bezala kontzentrazio isil batean murgilduta, bere alboko gidoizainak zionari adi. Azkenik, guztien artetik etengabe linburtuz, erro-daiaren *making off*-a prestatzen zebilkeen bizardun bat, kameskopio nimiño bat begiari itsatsita.

Neurtzea zaila iruditu zitzaaien une bat igaro zuten filmaketa estudio bilakaturiko garaje barruko aktibitateari kirika, operazioen geldotasunak harriturik. Gehiago gelditzen baziren traba bihurtuko zirela, eta hortaz susmagarri, konturatuz, errodaia gunetik urrutiratzea erabaki zuten eta giza-hesietan atzerako bidaia egitea.

—Onena bazkalordua itxarotea izango da —adierazi zuen Julenek ordulariari so eginez.

—Ordu batak joko ditu laster eta, Frantziako ohitura goiztiar nahiz sindikalak ezaguturik, gutxi barru etengo dute lana bazkaltzera joateko, gehitu zuen Zaldunbidek.

—Zergatik ez goaz jatetxera? Has gaitzen bertan jaten eta horrela prest egongo gara hara joaten direnerako. Gainera jatetxekeok jakingo dute zer ordutan joango diren, erreserba egina izango dute eta.

Jatetxea Garaziko sarreran aurkitzen zen, merkatuaren ondoan. Merkatua ere filmeko eszena bat grabatzeko erabiliko zutela zirudien, furgoneta pare batetik jendea material teknikoa jaitsi eta paratzen ari baitzen turista eta herritar batzuen begiradapean. Oraindik erdi hutsik zegoen jatetxera sartu eta lehio baten ondoko mahaia aukeratu zuten, kanpoko mugimenduak zelatatu ahal izateko.

—Izugarria da zenbat denbora behar duten segundu gutxiko lotura eszena arrunt bat filmatzeko —ohartarazi zuen Zaldunbidek, garajearen ikusitakoa gogoan zuela—. Ez nuke jasango zineman lan egitea.

—Alta, nobela idazten saiatzen zareneko sentipenak ez dira ba hain desberdinak. Prestakuntza denbora idazketarenaren bikoitza da beti. Eta idazketa bera ere, neurri handi batean —eleberrigintza errealistaz ari natzaizu—, oraindik ere «prestakuntza» da. Alegia, hitz gutxitan laburtu litekeen eleberraren mezu edo intrigaren muina, sinesgarria izan dadin, hainbat prestakuntzaz inguratu behar duzu: dekríbapenak, trantsizio eszenak, irakurleari igarotzen den denboraren sentipena ematea beste helbururik ez duten orotariko betegarriak... «Martzianoa» ipuin luze bat besterik ez da, baina horrelako geldotasun sentrazioak izaten hasi nintzen idazten ari nintzela.

—Halere, eleberria ekoiztea filme bat egitea baino askozaz merkeagoa da eta munduko efektu espezial guztiak izan ditzakezu eskura dohainik.

Julenek solaskidearen edalontzira ardoa isuri zuen.

—Ilun. Edan hau.

—...

—Eta orain kontaidazu edanda zaudenean bakarrik kontatzen duzun hori. Berrizar sorkuntza bekara aurkeztu zenuen eleberrarena. Agirreren ustez idazle gazte baten-tzat anbiziotsuegia den lanarena.

Ez zuen ardorik dastatu Zaldunbidek. Astiro, baina hizketan hasi zen.

—Ez dago gauza handirik kontatzeko. Nobela abortatuen espezialista bihurtzekotan nagoela... Pentsatzen hasia naiz nire lehen narrazioengatik jaso nituen sariak emate-rakoan erratu zirela. Ez dakit idazletzarako balio dudan. Izan ere, nire frakasoek beti prozesu bera jarraitzen dute: lehenik ideia handi bat datorkit burura, fitxak egiten has-ten naiz —pertsonaia bakoitza lantzeko—, gero ideia handi-arekin harremandutako gai baten inguruko dokumen-tazioa biltzen hasten naiz —interneten, liburutegietan—, idazketaren unea beti atzeratuz, eta azkenean, ordena-

gailuaren aurrean eseri eta benetan idazten hasteko asmoa eta adorea biltzen ditudanerako... bada, ideia geniala ez zait jada hain geniala iruditzen eta hilabetetan pilaturiko prestakuntza materiala zakarrontzira botatzen dut xedearekin batera. Hor gaindi idazle plantak egiten diharduen diletante bat gehiago naiz. Afizionatu maniako bat.

—Gogorra zara zeure buruarekin. Ziur nago esaten duzuna baino gehiago egiten duzula. Bestalde, ez dakit zergatik diozun horrelako errespetua eleberriari. Narrazioetarako dohaia baduzu —eta badaukazu, ziurta diezazuket— zergatik ez jarraitu bide beretik?

—Eleberririk gabeko idazlea ez delako idazle, gaur egun. Gainera, zera, sentitzen dut, gai egokia aurkitzean datzala gakoa. Benetan legokidakeen gaia aurkituko banu lortuko nukeela eleberraren erronka gainditzea...

Berriro ere ezina. Orduak egon zitezkeen biak solasean —eta ordu pare betea igaro zen jatetxean eseri eta janaria manatu zutenetik—, kultur maila nahikoa zutelako, bai batak bai besteak, denbora zibilizatuki hitzez hornitzeko. Baina ezinezkoa egiten zitzairen adiskidantzaren mugak gainditzea. Porrota erabatekoa zela komentzitu zen Julene, eta itxaroten igaro berri zuten ordua ezin atseginagoa izan zen arren, lasaitua hartu zuen lehen teknikariak jatetxean sartzeaz zeudela ikusi zituenean lehiotik.

—Badatoz.

Hortik gutxira, frantziar jatetxeetako isiltasun tipikoa urratuz, jatetxea berrogeita hamar bat pertsonen builaz bete zen. Bi mahai errenkada luze osatu zituzten jangelan, eta errodiaren organigramaren gainekaldean zeudenak —errealizatzailea, kameramana, soinu injiniaria, antzezle nagusiak, produktoreak, etabar— mahai txikiak elkarri itsatsiz osaturiko mahai luze batean eta gainerakoak bigarrenean jarri ziren.

—Maialen.

—Hasier.

—Gure ordua iritsi da.

—Zer eraso taktika proposatzen duzu?, galdetu zuen Julenek, hurbilketen espezialista papera Zaldunbideri egotziz.

—Eraso frontala. Amarru gabea. Hori bai, irribarretsua eta adeitsua. Ez ahantzi adin bateko frantses errealizatzaile ospetsuari hitz egingo diogula.

—Ados.

Zerbitzariari kontua eskatu, mahaiean dirua utzi eta altxatu egin ziren V.I.P.-en mahai luzearen erdian aurkitzen zen errealizatzailearen norabidea hartuz. Zoritzarrez, garajea gurutzatutako gizon kaskodunak zutitzen ikusi zituen eta, ezaguturik, Castaldi ETBko kazetariak elkarriketarako zain zituela esan zion belarrira, beraiengana hurreratu ahala ulertu ahal izan zuten. Errealizatzaileak, burua itzuli eta begirada hotz bat eskaini zien eta, nabarmenki umore txarturik, harreman publikoen arduraduna izan behar zuen emakume kikildu bati errieta egin zion, bera kontsultatu gabe hitzordua emateagatik kazetari. Berezko larderia duten gizon horietakoa zen Castaldi eta ez zuen tonua bortxatu behar izan desenkusatzeko beta eman ez zion emakumea negarrez jartzeko. Berak errealizatzaileari ezer azaldu ahal izan baino lehen Castaldi zutiturik zegoen, Julene eta Zaldunbideri bere metro eta larogeita bostetik begira, elkarriketak laburra izan behar harko zuela iragarritz. Ez zen iruzurra argitzeko unea. Gizonarekin hitz egiteko izango zuten aukera bakarraren aurrean zeuden eta zuhur bezain estu jokatu beharra zegoen.

Julene beldurrak paralizatuta ikusirik eta frantses duienez ezer ahoskatzea ezinezkoa izango zitzaioala erreparatuz, Zaldunbidek aurrerapauso bat egin eta errealizatzaileari eskua luzatu zion «Hasier Etxeberria eta Maialen Iriarte» izenak eman eta eskua luza zezan bizkarretik bultzatu zuen

Julene. Errealizatzailearengandik lau aulkitara aurkitzen zen Pantxis Hiribarne bekainak ez-ulertuaz zimurtzen ikusi zuen Julenek eta telebistako kazetari sinesgarriak izateko ezinbesteko osagaia eskas zutela otu zitzaion bat-batean, hotzikara batek bizkarrezurra goitik behera zeharkatzen ziola: kamera. Kamerarik gabeko telebista erreportariak ziren bera eta Zaldunbide. Elkarrizketa egiteko kanpora bidean ziren, Castaldi aitzindari zutela. Non egin nahi zuen grabapena galdetu ziola errealizatzaileak entzun zuen Julenek eta «au marché, au marché» erantzuten aditu «Hasier». Burdin hesiz inguratutako merkatura heldu ziren hiruak eta Zaldunbidek arratsaldeko errodaierako dekoratuaren aurrean paratzeko eskatu zion Castaldiri.

Festa herrikoï baterako dantzalekua zirudien hark. Oso ongi ikusten zen non hasten zen eta non bukatu *travelling*-erako prestaturiko zinemaskope kamera erraldoiak filmatuko zuen espazioa. Izan ere, espazio horretatik kanpo ez baitzen dekoratzaileen lanaren zantzu bakar bat ere ageri, espazio barruko zentimetro karratu bakoitza, aldiz, xehetasun ezdeuseraino mimatuta ageri zelarik.

Juleneren ondoan paratu zen errealizatzailea, galderei erantzuteko prest.

—Ilun. Ez daukagu kamerarik, marmarikatu zuen Julenek, hortzak estuturik gordetzen zituela eta ahotsa ahal bezain lasai mantentzen ahaleginduz.

—Badakit. Baina ez gara kazetariak. Orain zure esku uzten dut segida. Itzultzaile lana egingo dizut. Lasai.

Listua hiru bider segidan irentsi eta ileak eskuaz orraztu zituen Julenek pazientzia galtzen hasia zirudien agure erraldoiarengana hurbildu aurretik.

—Monsieur Castaldi, ye n'e pa journalista.

—Elle n'est pas journaliste, itzuli zuen Zaldunbidek, urduritasunak Juleneren frantsesa are kaskartzenago zuela ohartuz.

—Mais qu'est-ce que c'est que ce bordel! Où est votre caméra? Je n'ai pas que ça à foutre!

Madarikatzeari utzi eta begirada erdeinuz betea bota zien bi sasi-kazetariei. Jatetxerantz bueltan abiatuko zela ikusirik, Zaldunbidek pausu azkar batzuk egin eta bidea itxi zion, besotik oratzera ausartzeke. Azken kartutxoahutzeko unea iritsi zen. Besoaz artean bere tokitik mugitu ez zen Julene mututua seinالاتu eta zera esan zion:

—Monsieur Castaldi. Elle est en train d'écrire la biographie de Gaston Berrizar.

Gizasemeari begitartearen ikurra aldatu zitzaion. Hankak zementoan harrapatuta bezala geratu zen. Ez zuen hitzik esaten. Une luze batez pilak gastatu zaizkioken automata zaharkitu bat bailitzan egon zen.

—Vous êtes... de sa famille, hasi zen totelka.

—Non, non. Mademoiselle Oihanburu prépare une biographie.

—Mais... comment...

Iparra galduta zebilen arestian otsoa zirudien errealizatzailea.

—C'est pour un livre. Ça va être publié.

—Qui vous a donné mon nom?

Julene, Castaldiren itxuraldatzeak bizkorturik, berriro sartu zen dantzan.

—Esaiozu eleberri bat eskaini ziola Berrizarrek.

—Gaston Berrizar vous a offert... ez dakit nola esaten den... ea ba, il vous a «dédié» un roman.

—Il m'a dédié un roman... pentsakor utzi zuen informazioak errealizatzailea, amesketan murgildurik.

Nahi gabe, irribarrea loratu zitzaion ezpainenetan. Julenek motxilatik «Burdina haragian» eleberriaren lehen orria, titulua eta eskaintza zituena, atera eta Castaldiri luzatu zion.

Castaldik orrian zeuden hitz inprimatuak irakurtzeko behar zena baino denbora askoz gehiago igaro zuen begiak paperean iltzaturik.

—C'est un bon roman?, galdetu zuen.

—Eleberri ona den jakin nahi du.

Gizona unkiturik ikusteak egia guztia kolpez esateko adorea kentzen zion Juleneri. Ezin, horrela, tupustean aitortu eleberria jada ez zela bera eta Egiategiren oroime-
nean baino existitzen.

—Esaiozu oso ederra dela. Ezinezko maitasun baten istorioa.

Zaldunbidek itzulpena egin zuen. Ez bide zuen Julenek emandako orria bihurtzeko asmorik Castaldik.

—Vous allez rester avec moi, cet après-midi. Nous irons dîner ensemble ce soir. Après, vous serez libre.

Iradozikuna baino gehiago agindua zen errealizatzailearena.

—Berarekin pasa behar dugu arratsaldea. Ez du nahi, antza, berarengandik urrundu gaitzen. Gero afaltzera gonbidatzen gaitu.

—Venez.

T.C. inzialekiko eskaintza xumea zeraman eleberriaren lehen orria bi bider tolestu eta alkandorako bularraldeko sakelan sartu zuen Castaldik. Jatetxerantz abiatu zen errealizatzailea Julene eta Zaldunbide jarraitzen zitzazkion jakiteko burua itzuli gabe. Atzetik zihoazkion.

Jangelara sartzean, Castaldi arestian mahaiean negarrez utzitako laguntzailearengana hurbiltzen ikusi zuten. Belarri hitz batzuk xuxurlatu eta berehala berpiztu zitzaizkion emakumeari malkoekin nahasitako errimelez lausoturiko begiak. Ondoren, postrea bukatu berria zuten eta kafea hartzekotan ziren bi gizonen artean paratu zen Castaldi, zutik, esku bana bakoitzaren sorbaldan bermatzen zuelarik. Instrukzio zenbait jasotako bi gizonek Julene eta Zaldunbiderenganantz begirada altxatu zuten. Kafea edateko betarik hartu gabe, euren aulkiak utzi eta jangelatik lekutu ziren. Zaldunbidek, lotsaturik, «ez, ez zen halakorik

egin behar» esan nahi zuen buru keinua marraztu zuen. Castaldik bi langileek hutsik utzitako eserlekuetan jartzera gonbidatu zituen. Elkarri begiratu eta, errealizatzaileari baietz erantzun ostean, mahaia inguratu eta, herabeturik, eseri egin ziren, pelikulan lan egiten zuten jendearen begirada beraien gainean ezarrita sentitzen zutela.

Beste ordu erdi batean han egon ziren, eta ekipoko euskaldunen txokoan kokatu zituenez zuzendariak, ez ziren sobera lekuz kanpo sentitu. Pantxis Hiribarnez gain Ramontxu Agoiz aktorearekin solasean aritzeko parada izan zuten. Agoiz loriaturik zebilen, errodaia baldintzak gogorrak izan arren, batez ere mendiko eszenetan –sasoirako egiten zuen hotzagatik– telebistako baldintzekiko alde nabarmena zelako. *Vedette* txiki baten modura tratatzen zuten han, Hiribarne beti ondoan zeukan nahi zuen edozertarako eta ez zegoen ohituta horrelako luxura. Bestalde, aktore frantses ezagunekin lan egitea, are gehiago, euren mailako pertsonaia interpretatzea filme batean, ez zen txantxa. Hirurogeita hamar urteak aspalditxo beteak zituen arren aktore bizkaitarrak, oraindik telebistatik zinemara igaro eta karrera egiteko itxaropenik ez zuen galdu. Hiribarnek Juleneri azaldu zionez, bere interpretazioagatik katxetari uko egiteko prest agertu zen Agoiz. Nahiago omen zuen –Castaldiri Hiribarnek berak itzultako solasa aintzat hartuz gero–, errealizatzaileak hurrengo filme baterako deitzea filme honetan egindako lanagatik ordain ziezaioten baino.

—Eta zuek, zer egiten duzue hemen?, galdetu zuen maliziarik gabe Hiribarnek.

Zer erantzun dudan egon ziren Julene eta Zaldunbide. «Hasier» eta «Maialen»-enari berriro ekiterik ez zegoen eta egia hutsa, kontatzeko konplikatu samarra izateaz gain, ez zitekeen askoz sinesgarriagoa. Une hartan, gizon kaskoduna alboratu zen euskaldunen txokora eta lanera

bueltatzeko ordua zela iragartzearekin batera «vous allez faire de la figuration, les habilleurs et les maquilleurs vont s'occuper de vous» adierazi zien bie.

Hitz egiten jarraitzeko betarik gabe, jende guztia ma-haetik altxatu eta jatetxetik ateratzen hasi zen. «Gero arte» batez agurtu zituzten Agoiz eta Hiribarnek. Begiradaz nor-baiten esperoan bailegoen ikusi zuen Julenek Zaldunbide.

—Zer esan du kaskodunak? Ez diot dena ulertu.

—Presta zaitetz zeluloidearen izar bihurtzeko. Figuratzaile gisa erabili nahi gaituzte.

—Ez da izango!

—Bai. Dirudienez, janztera eta makillatzera eramango gaituzte.

Arratsaldea luze joan zen. Hiruetarako jantzita eta makillaturik zeuden biak, merkatuko dekoratuaren ertz batean errealizatzaileak noiz deituko zain. Argazki maki-narik eskura ez edukitzea damutu zitzairen. Izan ere, inoiz ez bezalako itxura zen eurena: XX. mende hasierako herri-tar xumeak legez jantzita zeuden, espartin, txapela zein zapi eta guzti. *Garoa* edo *Ramuntxo*-ren munduan barne-ratu ziren jantzi aldaketa soila zela medio.

—Orain fandagoa dantza dezagun eskatzea baino ez zaio falta, berragertu zen Zaldunbideren ironia.

Ordu pare bat gutxienez igaro zen aktore eta figuratzaileak benetan mobilizatu artean. Kameraren kokapenak ba-karrik hiru ordu laurden iraun zuen. Aktoreak dekoratuan sartu ondoren beste ordu eta erdi pasa zen Castaldik «silence... moteur... action!» esan arte. Hiribarne bitartekari zutela, errealizatzailea eta Agoiz luzaz ibili ziren hizketan, itxuraz interpretazio arazo bat konpondu nahiz. Zirudienez, aktoreak eszenak gainjokatzeko joera zuen eta Castaldik joku neutroagoa, ez hain teatrala lortu nahi zuen haren-gandik. Errodatzen hasi zirenerako, eszenan parte hartu behar zuen jende oro ahozabalka zegoen, edo zangoak txi-

naurriturik. Zuzendaria jende guztia iratzartzera hurbildu zen dekoratuaren erdira. Ez zuten aiantzi behar, izan ere, festa eszena bat izango zela hura eta jendearen alaitasuna segituan nabarmendu beharko zela pantailan, nahiz, aitor-tu zuenez, soinu bandak ere asko lagunduko zuen sentipen hori ikus-entzuleari iradokitzeko orduan. Herriko jaietako musikari tradizionalen taldearena egin behar zuten aktoreei —bertakoak itxura guztien arabera— instrukzio zehatzak eman zizkien Castaldik. Nahiz zuzenean joko zutena ez zen filmean entzungo —muntaiaren fasean gehituko baitziren bai dialogoak bai musika—, dekoratuaren ertzean paraturiko bafle batetik irtengo zen musikaren erritmoari zehatz-mehatz jarraitzea aholkatu zien, *play-back* bat egingo bailuten. Horrela, muntaiaren unea iristean errazagoa izango zen irudiak eta soinu-banda sinkronizatzea. Are garrantzitsuagoa bilakatzen zen zehaztapen tekniko hura jakinik eszena guztia plano-sekuentzia bakarra izango zela, hau da, irudi mozketarik gabea, dantzalekuaren zabalera osoa *travelling* luze batek ezarian ezarian besarkatuko zuelarik.

Errealizatzaileak musikariei azalpenak ematen zihardu bitartean, Julene eta Zaldunbide beraiek bezala «euskaldun tipikoz» jantzita zeuden beste sei bat *extrarekin* zutik egon ziren. Zehazki zer egin behar zuten jakiten saiatu ziren gainerako figuratzaileekin komunikatzen ahalginduz eta, ulertu zutenaren arabera, bals bat dantzatzera mugatuko zen euren ekarpena.

—Badakizu balsa dantzatzen?, kezkatu zen Julene.

—Egon lasai; mozorrotu gaituzten moduan gaudela ez dut uste Viennakoen dotorezia gradua nahi dutenik guregandik.

—Galdetu ondokoei ia badakiten, mesedez Ilun.

Frantsesez, ondoko bikoteari galdera egin zien Zaldunbidek Julene lasaitze aldera eta, espero zitekeenez, ez zuten inoiz bals kurtsorik hartu. Balskidea lasaitzea lortu

zuela ziurtatu ostean, Zaldunbidek bere kezken berri eman zion Juleneri.

—Ez al da anakronikoa bals bat dantzatzen agertzea mende hasierako euskal herri batean?

—Auskalo. Dena den, ez dut uste filmeko anakronismo bakarra izango denik. Gure janzkera ere ez dakit oso ortodoxoa den. Kontua da, egungo ikus-entzule arruntaren igurikimena eta erreferentziak gehiago axola zaizkiola zuzendari bati zehaztasun dokumentala baino, nahi duen efektua lortzeko.

—Vous allez danser une valse pendant toute la durée de la scène, hurreratu zitzaien Castaldi figuratzaileei, eta beste ezer gehitu gabe urrundu zen kamerarantz.

—Zer?

—Kamerak funtzionatzen duen artean balsa dantzatu behar dugula.

Hortik beste ordu laurden batera, azkenean, Castaldik, bere izena inprimaturik zeraman kameraren alboko aulki batean eseri eta isiltasuna eskatu zuen. Esku keinu txiki batez musika abiarazi zuen. Musika tresna herrikoiekiko bals bat aditu zen. Bikote gehienak dagoeneko dantzan ari zirela ikusirik, Julene eta Zaldunbide ere buruzburu paratu ziren. Zaldunbide eskua bere gerrian jartzen ausartzen ez zela oharturik, Julenek jarri zuen bere eskua lehenik haren gerrian. Ondoren bata besteari bigarren eskua eman zioten. Zaldunbideren eskua berean sentitzen zuen lehen aldia zen hura. Aurretiko kontaktu fisiko ia bakarra agurtzeko elkarri ematen zioten musu pareta zen. Zaldunbideren eskua epela zen eta ez zion ez sobera finki ez motelegi oratzen bereari.

Mugimenduan jarri ziren denak. Agoiz, artzainez jantzita, adineko emakume bat dantzatzera gonbidatzen ari zen dekoratuaren ertzean. Kamerak Agoizen ahalegina filmatzen zuen momentuz eta, hortaz, dantzan ari ziren

bikote denak, Agoizengandik gertuen aurkitzen zena izan ezik, koadrotik kanpo zeuden. Ez begiratzeko ordena zuten arren, bikote gehienek burua ahal bezala mantentzen zuten Agoizi begira, balsaren itzulien arabera alde batera zein bestera, osorik edo partez, biratuz. Emakumeak artzainaren gonbidapena onartu zuen, hasiera batean koketeatzen ibili bazen ere, eta dantzan ziharduten beste bikoteekin nahasi ziren bi zaharrak. Mugimendu horri jarraiki, kamerak bere *travelling*-a hasi eta, pixkanaka, dekoratuaren beste ertzeraino joan zen, azkenerako Agoiz eta emakumea ere koadrotik kanpo utziz, efektu artistiko baten bila.

—Coupez!, oihukatu zuen zuzendariak.

Musika eten zen. Bikoteak deslotu ziren. Builak hartu zituen berriro dekoratua eta teknikariz jositako inguruak. Hogei minutu pasa zituzten zain. Bitartean, Castaldik, kamera handiaren atzekaldean apailaturiko kabina barneko txuri-beltzeko monitore txiki batean, lehen filmaketaren *rush*-ak ikusi zituen, akatsen bila edo hobekuntza posibleetaz gogoeta eginez bere laguntzaileekin. Eztabaida luzea izan zuten. Kabinatik irtendakoan teknikari bakoitzari instrukzio berriak eman zizkien, dekoratuaren inguruan sakabanaturiko argi, soinu zein bestelako arduradunekin banan-banan bilduz. Bukatzeko, bikote guztiei oroitarazi zien ez zutela begiratu behar zer gertatzen zen Agoiz eta emakumearen artean. Bi bikoteri tokiz aldatzeko ere eskatu zien, azalpenik eman gabe eta, ezustean, Julene eta Zaldunbiderengana hurbildu zen.

—Lorsque la caméra sera sur vous, juste avant que le berger et sa femme ne passent devant vous, vous vous embrasserez.

—Je la prends dans mes bras?, saiatu zen zehaztape-nak lortzen Zaldunbide eta aldi berean Juleneri kirika egin zion honek Castaldik esandakoa ulertu zuen jakiteko.

—Vous l'embrassez, vous faites un baiser de cinéma, quoi.

—En continuant à danser?

—Oui, oui. Enfin, débrouillez-vous.

Zuzendariak solasa moztu zuen, denbora galtzeko asmorik ez zuela aditzera emanek eta alde egin zuen kamera azpiko aulkian esertzera.

Julenerengana itzuli zen Zaldunbide eta berriro balsaren postura hartzeko esku-besoak prest eta zabalik zeuzkan Juleneri begira geratu zen, nola esan ez zekiela eta posturarik hartu gabe.

—Zera... Julene, ulertu duzu?

—Ez oso ondo.

—Bada... besarkatu behar gara kamera gainean izango dugun unean, alegia, justu Agoiz gure aurretik dantzatzen igaro aurretik.

—Dantzatzeari utziko diogu orduan?

—Ez...

—Nola orduan?...

—Gaizki esan dut. Ea. «Besarkatu» ez da hitz egokia... Beno, frantsesez hala esaten dira bi gauzak baina...

—Zer gauza?, pazientzia galdu zuen Julenek.

—Ba besarkatzea eta musu ematea. Biak dira «embrasser».

—Elkarri musu eman behar diogu, hortaz?

—Ba, bai.

—Eta, zein da arazoa?

—Baina, ez masailetan... hots zineko musu bat...

—Eta ez duzu nahi?

—Ez, ez da hori...

—Orduan ez dago arazorik.

Errealizatzailearen ahotsa aditu zen dekoratu osoan zehar eta isiltasunera itzuli zen dena lipar batean. «Moteur...» esan zuen orduan, ia ahapeka. Eta kameraren mar-

mar hitsa entzun zen, balsaren musikak laster estali zuen arte.

—Action!

Julenek Zaldunbideren eskua bere gerrian irmo paratzen sentitu zuen, lehen aldian ez bezala. Ez ziren Agoizen aldera begira egon. Batak bestearen begiak baino ez zituen ikusten, mozkortzerakoan ikusmen eremua murrizten deneko sentsazioak bereganatuak bailituen, eta kameraren marmarra hurbiltzen somatu zutenean, fokoan berotasuna aurpegiko azalean hedatzen sentitu zutenean, lehenik bekokiak batu eta ondoren ezpainak elkartu zitzaizkien.

Martak deitu zuenean izebaren apartamenduko sofan erdi biluzik kiribilduta zeuden. Astebete zeramata ber-tatik mugitu gabe otu zitzaion Juleneri, eta bazitekeen hala izatea.

Laburra izan zen hizketaldia. Julenek era zakarrean la-burtu zuelako.

«Hola bonita, ¿qué tal?», hasi zen Marta. «Estoy pa-sando un mal rato», jarraitu zuen, ahots urratuak ziona-rekin bat egiten bide zuela. Julenek ez zion galdetu zer-gatirik. Ez zion ezer esan. Jarraitzeko adore bila ibili zen Marta une batez. Eta, indarrak bildurik, zera azaldu zuen, Mikel Agirrerekikoa amaitu zela. Porru eginda zegoela.

Ilunen hatz erakusle epelak sabela eta zilborra miatzen zizkion Juleneri, lo zakuaren azpitik. Isilik zirauen. «¿Qué te ocurre?» izan zen hurrengo esaldia. Oso antzezle ko-mentzigarria iruditu zitzaion Marta eta ia esatekotan egon zen Julene. «¿Estás enfadada?», segitu zuen Martak, «¿Te he hecho algo?». Antzezle ona izateaz gain lotsagabe galan-ta, pentsatu zuen Julenek berekiko. Ilunen mingainak hatz erakuslea ordezkatu berri zuen miaketa lanean. «Mira, no sé qué te ocurre, pero tu tía va a volver pronto y te tengo que devolver las llaves del piso».

«Puedes quedartelas. Ya no sirven para nada» izan zi-ren Juleneren hitz bakarrak.

Eta telefonoa eskegi egin zion, besterik gabe. Eskuak Ilunen adatsen sartu eta laztanak itzultzeari ekin zion, arnasa sakonagotzen eta geldoagotzen zitzaiola.

«Nor zen?» entzunezin bat igo zen lo zaku azpitik.

—Ez gelditu, mesedez.

—Ez bide duzu asko maite. Erabili duzun doinuagatik.

—Segi. Bai... horrela... Marta zen.

Lehen aldiz, Ilunek ez zuen lortu erekziorik. Julene lasaitzen saiatu zen arren, aldarte goibela itsatsi zitzaion Iluni, egun guztirako. Ahaleginduagatik, arrazoi garbirik ematea lortu gabe, gau hartan ezingo zuela han lo egin iragarri zion afalorduan, eta hamarrak jo orduko alde egin zuen.

«Zerbait gertatzen da?» izan zen Juleneren galdera bakarra, jada atearen beste aldean, eskaileretako ilunpean zutunik zegoen Ilunen begien zohardura zekusala. Ez zuen beste itaunik egin. Izan ere, galdera egin orduko goizean telefonoz Martarekin izandako elkarrizketa gogoratu eta min egin baitzion arestikoarekiko errepikapen sentipenak. «Maite zaitut» edo «itzuli laster» moduko hitzak eztarria negar zotin mingotsenek bezala estutzen zioten arren, bere burua menderatu eta irribarre single bat marraztea lortu zuen. Ez zen hura hanka sartzeko unea.

Apartamenduko atea itxi eta lo zaku oraindik epela kuxidade handiz tolestu zuen, hurbilegiko irudiak uxatu nahian. Harrikoa egitera joan eta ondoren aspiragailua pasa zuen egongela osoan, eginkizun zaratatsu horretarako berandu zela ohartu zen arte.

Hatzazkalen ondoko azalak jaten hasi zen orduan, sofan eserita, belaunak beso batek bularraldean bildurik mantentzen zizkiola, fetoaren jarreran. Gizonek eduki ohi duten beldurraldi fasea zatekeen, ziurrenik. Irakurria zuen nonbait —idazle bati ala aldizkari feminino batean?— harreman sentimental bat seriotzeko bidean zelarik gizon asko

izuak mendean hartzen zituela, eta une hartan emakume batek izan zezakeen jarrerarik desegokioena posesibo agertzea zela. Izan ere, jokamolde posesibo batek gizona erabat mesfidati eta uzkur bihur baitzezakeen. Komeni zen, kasu horretan, gizonaren erritmo sentimentala errespetatzea eta pazientziari odol hotz tanta batzuk gehitzea.

Aldizkari femininoren batean irakurria, trenkatu zuen Julenek bere baitan, nahigabe garratza irten zitzaion algara batera bortxatuz bere burua. Garbi zegoen auto-ironiaren praktika telesailetan zirudiena baino zailagoa zela errealtatean.

Sofan kiribilduta eta erdi biluzik igarotako hondar aste hartan guztiz baztertuta eta ahantzita izan zuen Berrizar dosierra eguneratzen hasteko abagune aproposa zela pentsatzen saiatu zen eta Castaldirekiko errodaia osteko elkarrizketa luzean zehar eskuz harturiko notak ordenatzeari ekin zion. Orri txuri piloa bulego gainean pausatu eta lanean hasteko aldartea ozta berreskuratu ahal izan zuen, Ilunek errodaiaren egunean –kameraren aurrean emandako musuaren ondotik– esandakoa gogora ekarriz: «Zinekoa ezezik, zinezkoa ere izan da nire musua».

Bildutako materiala primerakoa zen. Errodaiaren egunean Castaldik ahoz kontatutakoari geroztik postaz zinemaegilearengandik jasotako hainbat dokumentu –Berrizarrek maitale ohiari hil aurretik bidaliak– gehitu behar baitzitzazkion. Paper garbira aldatzen hasi zen, egin ahala esaldi osoak josiz, kapitulu problematiko horien baliuzko idazketa fasea gogoan zuela.

Gauza asko ziren berriak. Lehenik, Gaston Berrizar «Eskutxu»-ren seminariotiko alde egitearen eta, bidenabar, Euskal Herritik ihesi Parisa joatearen arrazoiak ez zuen, inkestaren bitartez Julene susmatzera iritsi zena berretsiz, zerikusirik 1938ko egoera politikoarekin. Garai hartan hemeretzi urte bete zituen Berrizar gazteak André Gide

idazle frantsesaren *Les nourritures terrestres* irakurtzearekin bat bere homosexualitatearen kontzientzia hartu zuen, edo behinik behin, aurretik nolabait zekiena bere buruari aitortu zion. Eta, batez ere, apaizgoa bihur zitekeen gordeleku eroso bezain frustragarriari uko egiteko lain ausardia bildu zuen irakurketa hartatik. Literaturaren bidez ikasitako frantses apurra lagun bakar zuela, arrebari salbu familiari ezer esan gabe, muga zeharkatu eta «Argien hiri»-rainoko lehendabiziko trenean sartu zen. Bertan, II. Mundu Gudatearen amaiera arte, eta beranduago ere, iraungo zion lana aurkitu zuen ikastetxe katoliko batean, gaztelera eta latin irakasle gisa. Aldi luze hartan ez zuen ezein loturarik eduki bertako euskaldun komunitatearekin. Iparraldetik Parisa igotako etorkin ekonomikoen mentalitateak –izan zitezen lorezain, sakristau edo sehi– bere askapen beharrei behaztopa baino ez zien egiten eta antzeko zerbait gertatzen zen Hegoaldetik bertaraturiko erbesterratu politikoen mentalitatearekin –zirela Eusko Jaurlaritzako ministro ohi, jeltkide burges txiki, etabar–. Berrizar irakasle zen paristar lizeo pribatuan ikasle zuela elkar ezagutu zuten berak eta Thierry Castaldik. Ordu hartan, 1942an zehatzak izateko, Berrizarrek hogeita lau urte zituen eta Castaldik hamazazpi. Nerabezaroaren berezko xarma familia oneko seme izateak areagotu baino ez zuen egiten eta, horrela, ikaslearekiko lilurak bultzatu zuen irakaslea Erresistentzian sartzera. Batak bestea txunditzeko norgehiagokaren fruitu izan zen Berrizarren euskara lauaxetarra Erresistentziaren mezuak garraiatzeko kode gisa erabiltzeko ideia. Espainiako gerrako errefuxiatu modura aurkeztu omen zuen bere burua, hastapen batean, seminarista ohiak, arrazoi berberarengatik. Guzti hura, halere, harreman platoniko hutsa izatera mugatu zen gerra amaitu arte. Librazioak araztasun haren bukaera suposatu zuen eta gerra ondoko hamar urteak «beraien bizitzako urterik ederrenak»

izan ziren, Castaldiren esanetan. Saint Germain-eko jazz giroa, Côte d'Azur-eko udaldiak, maitasuna... Euskal Herria edo bere familia aipatzean goibeldu egiten ei zen Berrizar eta ez zuen etxera berririk bidali harik eta erregularki idazten zion arrebak aitaren heriotza iragarri zion arte. Hortik aurrera, bera ere Manuelari eta amari idazten hasi zen. Haatik, behin arreba Parisa bisitan joan bazitzaion ere –eta Castaldiren aburuz, Berrizarrek adiskide soil gisa joka zezan eskatu zion arren, arrebak ulertu zuen bi gizonen arteko harremanaren izaera– berak ez zuen inoiz itzuli nahi izan sorterrira elkarrekin iraun zuten denbora guztian. Ama gaixotu zela jakin zuenean, arrebaren gutun baten bitartez, orduantxe hasi ziren okertzen gauzak. Sorterrira ama bisitatzera itzultzeko gogoia geroago eta biziagoa, mingarriagoa, bihurtu zitzaion. Euren arteko harremana amarekiko oztopo modura bizitzen hasi zen Berrizar eta hilabetetan berariaz usteltzen utzi ondoren, moztu beharra zegoela erabaki zuen. Castaldik Berrizarren maitasuna haren amarekin partikatzeko prest zegoela adierazi zion behin baino gehiagotan, baina bizi zuen kontraesana osasuna hondatzen ari zitzaion egunetik egunera. Barbiturikoez bere buruaz beste egiten saiatu zen Berrizar amaren heriotzaren berri izan zuenean, eta ospitalean osatzen zegoela, Castaldik onartu zuen bereizketaren halabeharra. Castaldik berak harremana moztu zezan nahi izan zuela Berrizarrek ulertu zuen urte asko beranduago errealizatzaile bihurtuak. Berrizarrengandik, oraindik maitatzen jarraitzen zuela adierazteko modu bat izan zen ez bere gain hartzea hausturaren ardura. Beti da mingarriagoa besteak moztea harremana eta ez norberak. Min hori zen Castaldiri Berrizarrek aurreztuarazi nahi izan ziona bere jokamoldearekin. Urteak igaro zituen Castaldik afektiboki hondoratuta eta gutxi arte hori guztia benetan ulertu gabe bizi izan zela aitortu zien Julene eta Zaldunbideri.

Hil baino lehenxeago kartoi kutxa bat bidali zion postaz Berrizarrek. Paristar ezagutza amankomun batzuen bitartez urrunetik eta tarteka izan zuen maitale ohiaren berri Castaldik. Bazekien, kasu, ezkondata eta Euskal Herrian bizi zela azken urteetan. Berrizarrek ere, era berean, bere berri izan zuela suposatzen zuen. Bereizi zirenetik harengandik jasotako gutun bakarrak bere filmeak zirela-eta zoriontzeko igorritakoak ziren eta ez zekarten beste ezeren aipamenik. Behin batez, 70eko hamarkadaren hasieran, euskaraz idatzitako liburu bat helarazi zion Berrizarrek –*Eskribitu gabeko poema*– eta horrela jakin zuen idazletzan sartuta zebilena.

Pena handia hartu zuen Castaldik Julenek «Burdina haragian»-en eskuizkribu originala, aldakirik gabea, lapurtu ziotela esan eta lapurketaren ustezko zergatia azaldu zionean. Baina ez zen gehiegi harritu. Izan ere, Berrizarrek, hil aurretik bidalitako kartoi kutxan zeuden dokumentuek Juleneren hipotesia bermatzen baitzuten. Frantsesez idatzitako hogeit bat folio, makinaz idatziak, eta beste hainbat agiri eta dokumentu ofizialen fotokopiak deskubritu zituen kartoi kutxan. Aipatutako hogeit folioetan, Berrizarrek Gure Gauzak argitaletxearen historia laburbiltzen zuen.

Kontakizunaren lehen partea sorkuntzari zegokion eta enpresaren sortze agiriaren fotokopiara igortzen zuen irakurlea. Bertan, hasierako kapitala inbertitu zuten hogeit bost pertsonen izena zetorren eta enpresaren aurreneko administrazio kontseilua osatzen zutenen izenpedura eta izenak. Bigarren atalean, Urdangarin kontablearekiko ezadostasuna eta pixkanaka jasandako erabaki estrategikoe-tatik bazterketa kontatzen zituen. Adibidez, nola berari administratzaileek atzera bota zioten, errepikatuki, saiakera sail bat sortzeko xedea, dirurik eza argudiatuz. Azken zatia zen, dudarik gabe, dokumentatuena, mardulena eta interesgarriena. Bertan, Gure Gauzak pixkanaka barrutik

husteko eta desegiteko Urdangarinek eta bere aliatuek erabilitako estrategia azaltzen zuen. Berrizarrek zioenez, bera izanki –sortzaile eta sustatzaile gisa– Gure Gauzak-en akzioen %40aren jabe, jende gutxiak zekien datua, gainerakoa Urdangarin kofundatzailea eta beste hogeita hiru diru emailen artean banatzen zelarik, enpresa loditu ahala egoera deserosoa bihurtu zen administratzaileentzat, Urdangarin buru zutela. Ezin maniobra askatasun osoa eduki, batez ere legalki, ezen eta ekintzei zegokienean nahi zutena egiten baitzuten zegoeneko argitaletxearekin.

90eko hamarkadaren hasieran, urtero Gure Gauzak-en hastapeneko hogeita bost bazkideekin ospatzen zen argitaletxearen bazkari batean, Gure Gauzak enpresa izatetik fundazio izatera iragan behar zela iragarri zuen Urdangarinek. Honek esan nahi zuen, bazkideei –Urdangarin eta Berrizar barne– akzioetan zetzan Gure Gauzak-eko jabetza pertsonalizatuei uko egin ziezaieten eskatzen zitzaiela, elkartearen ondasunak bere osotasunean «euskal kulturaren zerbitzuko proiektu amankomun, herritar eta humanitario bat» eraikitzeko xedera pasa zitezen. Urdangarinen nortasuna ezaguturik ekimenari interesgarria bezain susmagarria iritziz, Berrizarrek ez zuen ez baiezkorik ez ezezkorik eman eta inkesta bat burutu zuen, izenpe-dura eta akzioak utzi ez utzi erabaki aurretik balizko Gure Gauzak Fundazioaren atzean zer gordetzen zen jakiteko asmoz. Fundatzaile zen aldetik, dokumentu ofizial guztiak lortzeko ahalmen zein eskubidea zituen eta inor jakinaren gainean ezartzeke, pixkanaka, urlia notarioaren bulegotik berendia abokatuarenera pasatuz, fundazioa eskala handiko iruzur bat zela agerian uzteko moduko froga juridikoak biltzea erdietsi zuen. Urdangarinen notariarengana joan eta zera deskubritu zuen, esaterako, izenpetu zezan notariak Berrizarri emandako dokumentuaren edukiaren araber, sinatuz gero pasaraziko zituzkeen Gure Gauzak-eko

jabetza parteak ez zihoazela zuzenean Gure Gauzak Fundaziora, baizik eta J.M. Arratibeli pasatuko zitzaizkiokeela, alegia hogeita bost bazkideetako bati, zeina Urdangarinen kolaboratzaile estua bihurtu baitzen azken urteetan. Bestalde, mesfidatia izanik ere asma ez zezakeen zerbait jakitera iritsi zen Berrizar: Gure Gauzak Fundaziora argitaletxea eta geroztik haren inguruan garaturiko enpresa anaia –Gure Banaketa, zabaltzaile indartsua– pasatzen baziren, trikimailu juridiko bat zela medio, berauen ondasun-ondareak, erran nahi baita, egiazko aberastasunak –Euskal Herrian zehar nahiz Espainiar estatuan zehar barreiatutako ondasun higikor zein inmobiliarioak, zeintzuen artean Gure Liburudenda katearen lokalek izebergaren ageriko zatia baino ez zuten osatzen– ez zirela pasatzen fundaziora. Eta hau zen Berrizarren inkestaren punturik harrigarriena, jatorrizko enpresen ondasunak, hots, azken hogeita bost urteetan euskal kulturaren komertzioari esker pilaturiko ondasunak –dollarretan zenbatzen zirenak pezetetan zenbatuz gero lizuna zatekeen kopurura iritsiko ziratekeelako–, finantz erakunde ezezagun eta sekretu baten jabetza izaten jarraituko zutela, azken urteetan inor ohartu gabe gertatutakoari jarraiki. Erakunde sekretuaren izena bera gizarteari eginiko isekaren adierazle zen, Oparoa S.L. izendatu baitzuten Urdangarin eta enparauek.

Gaston Berrizarrek, aipaturiko informazio ezta daga-riak bildu ostean, abokatuengana jo zuen bere izenpedura ez emateko modurik zegoen jakiteko eta, are garrantzitsuagoa zena, Gure Gauzak euskal argitaletxe historikoaren barnetik husketa edo expropiazio prozesua geldiaraztea zegoen jakiteko. Aurki zezakeen lege-gizonik fidagarriena eta zintzoena zelakoan, ezker abertzalearen defentsa lanean urtetan trebatu eta onduriko abokatu ezagun batengana jo zuen. Gizonaren argudiatze ariketa laburtzarren, zera esan zion Berrizarri, egoera politiko orokorra

ez zela egokiena euskal munduaren irudi erasotua are gehiago zikintzen ibiltzeko, hots, etsaiari makila ematea zatekeela hobeto jo gintzan, eta, horrez gain, kontuan hartu behar zirela denboran zehar Gure Gauzak eta ezker abertzalearen artean garatutako harreman probetxugarriak, ezin zelako horrela dena egunetik biharamunera desegin, arrazoi onak edukiagatik. Arazoa modu globalean ikusi beharra zegoela. Euskal Herriaren interesa beste gauza ooren gainetik zegoela.

Ondoren, eta Gure Gauzak-en baitan edo inguruan prozesua gelditzeko inolako sustengurik aurkituko ez zuela ulerturik –iruzurraren partaide zirelako edo iruzurra pairatzen ari zirela onartu edo sinetsi nahi ez zutelako, hain iruditzen zitzaien sinesgaitza–, laugarren botereari dei egin zion. Euskal hedabideei bere inkestaren emaitza pasa zien egia argitaratzeak gizartean eragina izango zuelakoan. Baina gizarteak ez zuen inoiz inkestaren berri zehatzik izan hedabideek ez zutelako interesgarritzat jo Berrizarren deskubrimendua. Pixkanaka, eta jendearekin hitz eginez ulertu zuenez, Gure Gauzak diru iturri garrantzitsua bihurtua zen artean hainbat hedabiderentzat, berauen bizi-raupenaren berme, eta hortaz ezinezkoa zuten eserita zeuden enborra zerratzen hastea. Itxaropena galdurik eta Urdangarinen bere izenpeduragatiko presioa geroago eta jasangaitzagoa bihurtzen ari zela ikusirik, dokumentuak kartoi kutxa batean sartu eta Thierry Castaldi maitale ohiari bidaltzea erabaki zuen, hura behintzat euskal munduan inork ezagutzen ez zuenez gordelekurik ziurrena zelakoan inkestaren emaitzentzat. Obra literario argitaragabeak, berriz, Egiategi adiskide zaharrari utzi zizkion, Sonia emaztea azken gauza honen jakinaren gainean utziz. Ez Egiategik ez Sonia Clémence-ek ez zekiten ezer «besteari» buruz. Ez zekiten Castaldi nor zen benetan –gerra garaieko argazki horitu batean Berrizarren alboan agertzen

zen gaztetxoa maiz ikusia izanik ere— eta are gutxiago zekiten inkesta eta inkestaren emaitzaz. Laguna eta emaztea ezjakintasunean mantentzea berauek babesteko modu bat besterik ez zen. Halere, hil aurretik, azken ekintza bat burutu zuen, mundu honetan gauzak ondo lotuta uztearren. Urdangarini mehatxu gutun bat bidali zion inkestan deskubrituaren berri emanez, hitz-erdika eta zekiena baino are gehiago zekiela aditzera emanez, eta emaztea bera hil ondoren ondo tratatzen ez bazuten ondorioak pairatuko zituztela gatzigatuz. Azkenik, inkestaz ezer esan gabe jarraituz, zera iragarri zion emazteari, Egiategiren etxean gordetako eskuizkribuen bila hasiko zirela amorratuki bera hil bezain laster Urdangarin eta bere ehiza txakurrak. Horrela, Julene iritsi aurretiko eta Berrizar zendu ondorengo hilabete luzeetan, idazleak planeaturiko *quiproquo*-ak ezin hobeki funtzionatu zuen, alegia alarguntsak tinko eutsi zien liburu argitaragabeei, ohartu gabe presioa egi-tera edo zaharretxearenarekin nahiz omenaldiekin balakatzera zetozen Gure Gauzak-eko ehiza txakurrak beste jaki baten atzetik zebiltzala. Eta, *vice versa*, Gure Gauzak-ek alarguntsari «merezki» zuena baino tratu askoz hobea eman zion, haren esku zeuden «paperak» enpresaren gorabeheri buruzkoak zirelako uste ustelaz.

Biharamuna eta beste bi egun gehiago lanean igaro zituen Julenek, idazketa lanean, aurrera egin arau ondo baino hobeto jakin arren idazten ari zen biografia ez zela inoiz argitaratu ahal izango bere horretan. Berdin zion, hala ere. Gutxienez hori zor zion Berrizarri. Inkesta biografikoaren bururaino joan izana, zintzotasunez. Besterik zen jakitea zer gertatuko zen testuarekin. Gure Gauzak-i bizkarra eman eta kompetentziari emango al zion biografia ez-zentsuratua? Hori egiteko lain ausardiarik ba ote zuen bere baitan? Ala eskuak garbitu eta testu moztu bat aurkeztuko zion Mikel Agirreri, dirulaguntzaren bigarren erdia eskuratzeko taloia eta argitalpenarekin batera etorriko zitzaion mediatizazio apetatsuari uko egin gabe?

Ilunen desagerketa ahanzterainoko azken egunetako lan erritmo azkarrak guztiz indar hustuta utzi zuen Julene eta kale kantoieko tabernan kafesne bat hartzera joateko baimena eman zion bere buruari.

Bertan egunkariei errepasoa ematen ari zela, ia bihoretzkoa izan zuen Joxean Etxebarriaren zutabe bat irakurriz. EHU-ko katedradunak Gaston Berrizarren testu argitaragabeen deskubritzea aipatzen zuen, laster baterako bere eskutiko edizio kritiko bat iragarritz. Ulertezina zen. Nork eman zizkion eskuizkribuak? Eskuizkribuek aldakirik ba ote zeukaten, alarguntsak eta Egiategik esan zutenaren

aurka? Zer gertatuko zen biografiarekin Etxebarriak Berriarren testuak argitaratuz gero? Nork argitaratuko zituen?

Arratsaldean bertan bi dei jaso zituen hurrenez hurren, ia tarterik gabe. Lehen Gotzon Sarasketa bere tesi zuzendariarena. Etxebarriaren artikulua irakurri berria zuen eta zutabea aipatzen zen deskubrimenduak Juleneren biografia lanari loturiko inkestarekin zerikusirik zuen jakin gura zuen. Eta, horrela balitz, bere tesiaren zuzendari gisa, eskuizkribu ezezagun horiek ikusteko gogoia zukeela adierazi zion. Julenek, badaezpadako erreflexuz, ezetz erantzun zion. Alegia, deskubrimendua ez zela berea, ez zuela loturarik biografiarenarekin. Nabarmenki atsekabeturik, Sarasketak irakasle tonu hotza berreskuratu eta hurrengo batera arte agurtu zuen Julene, azken honen tesi eginkizunari buruzko galderei erantzuteko astirik ez zuela esanez.

Bigarren deia Etxebarriarena berarena izan zen.

—Kaixo Julene! Irakurri al duzu nire zutabea?

—Oraintxe irakurri dut.

—Berri ona dakart zuretzat.

—Berri ona?, harritu zen Julene, geroago eta galdua goa bere burua ehuntzen ari zen hipotesien sare trinkoan.

—Bai, neska. Fakultatean irakasle asoziatu postu bat lortu dizut.

—Barkatu?!

—Beno, detailetxo bat edo beste oraindik zintzilik daude, baina lortuko dugu.

—Baina nola...

—Begira, esan nizun ikasleak irakasle ona aukeratu behar duela eta beste hainbeste egin behar zuela irakasleak ikasleekin, ezta? Gogoratzen zara izan genuen eztabaidaz.

—Bai, noski.

—Bada, aukeratu zaitut.

—Eta...

—Eta ea deskubritu dituzun Berrizarren testuak lehen bait lehen pasatzen dizkidazun. Dagoeneko hitz egin dut argialetxe batekin eta edizio kritikoa argitaratuko denean bonba bat izango da.

—Baina... uste nuen...

—Bihar fakultateko nire bulegoan egongo naiz goizetik. Etorri lehen orduan, Berrizarren testuekin, jakina. Asoziatu postuarena ondo lotzeko paper batzuk betetzen hasi behar dugu eta.

—Orduan...

—Bihar arte Julene!

Helmugatik hain gertu... eta aldi berean hain urruti. Unibertsitatean sartzeko aukera alferrikalduak Marta berriro gogora ekarri eta inoiz ez bezala gorrotarazi zion. Etxebarriaren jokamoldea ez zen, jakina, dotorea. Egia esateko, nazkagarri samarra ere bazen. Baina mingarriagoa zitzaion une zehatz hartan aukera zapuztuaren atximurra katedratikoaren bortxaketa ahalegina baino. Galduta sentitu zen. Zeharo. Bakarrik. Zer esango zion Etxebarriari? Agertuko al zitzaion biharamuneko bere bulegoko hitzordura, ala aitzakia bat erabiliko zuen unibertsitatearen ateak behin betiko bere aurrean ixten ikusteko ordua pixka batean behintzat atzeratzeko?

Ilun deitzeko gogoia inoiz baino bortitzagoa zen. Huts bat zitekeen, orain, hiru egun luzez eutsi ondoren deitzea. Aterabiderik emango ez ziola bazekien ere, bere kezkek, bere noraeza Ilunekin partikatzea ezinbestekoa zitzaion ordea. Telefonoaren inguruan bueltaka igaro zuen ordu erdi bat eta, azkenean, Ilunen zenbakia markatu zuten bere hatz izerdituek. Frustrazioa eta arindua, zein baino zein, sentitu zituen erantzungailuko Ilunen ahots grabatua entzuterakoan. Mezua utz zezakeela adierazten zuen biparen ondotik bi segunduko isilune dudati bat izan eta hatzaz komunikazioa eten zuen, ezein mezurik utzi gabe.

—Begira. Dotore gelditu da, ezta? Zer deritzozu?

Mikel Agirrek bere Volvo tzarraren maleteroa ireki eta liburuz betetako kartoi kutxa batetik ale bat atera zuen Juleneri erakusteko.

—Orain hartu nahi duzu kutxa, ala gero, omenaldi ekitalditik itzultzean?, galdetu zion ireki gabeko bigarren kartoi kutxa bat maleteroaren eskuinaldean berkokatuz eta Julenerena besoez haztatuz.

Urruti samar aparkatu zen Julene, Lekeitioko sarre-ran, eta gerorako uztea erabaki zuten egileari zegozkion hogei aleen kartoi kutxaren auto aldaketa.

—Aldiz taloia oraintxe emango dizut, ez ahanztear-rren. Ez du ezer pisatzen diruak, liburuek ez bezala, gaine-ratu zuen irribarretsu argitaldariak.

Paper erreziklatuzko gutunazal okre bat luzatu zion esku batez, bigarrenarekin bizkarra txaplakoak emanez lagunkiro inguratzen ziolarik.

—Eskerrik asko.

—Ez horregatik. Lan txukuna egin duzu eta merezi-tako saria da hau. Egia esan, bart «La noche de...» saioan entzun nuenez diruak ba omen du pisurik. Mafia edo es-pioitza pelikuletan dolarrez betetako maletak agertzen di-renean errealismoa urratzen dihardute, esatariak azaldu zue-nez. Milioi bat dolarrek, chun dolarreko billetez osaturik,

berrogeita hamar kilo inguru pisatzen ei du. Irudika itza-
zu mafiosoak kaleetan zehar korrika eta tiroka berrogeita
hamar kiloko maleta astunez zamaturik!

Gaston Berrizar bere sorterrian omentzeko hitzordua Lekeitioko elizaurrean finkatuta zegoen eguerdiko hamai-
ketarako eta bertaratzen hasiak ziren, zegoeneko, hainbat
kultur jende. Omenaldia antolatu zuen Gure Gauzak argi-
taletxeko arduradun nagusiez gain, zeintzuen artean aurki-
tzen baitziren Andoni Urdangarin gerentea eta Agirre bera,
Euskal Idazleen Elkarteko nahiz Euskaltzaindiako orde-
z-kariak ere han ikus zitezkeen, gizonetako mordo buruzu-
rituak osatzen zituztela. Izan ere, Berrizarren belaunkideak
ziren etorritako gehientsuenak. Paskal Egiategi irakaslea,
omenduaren adiskide mina, eta bere emaztea Manuela Be-
rrizar idazlearen arrebarekin hizketan ari ziren. Hortik hur-
bil, beste taldexka gazteago bat osatuz, Andoni Urdangarin,
Joxe Mari Erribera Juleneren bekakidea eta inauguratzekoa
zen oroithilarria enkarguz zizelkatu zuen eskultorea ageri
ziren. Iparraldeko delegazioak ere bazuen bere mulkoa,
Pantxoa Salaberri kazetari-argitaldaria, Panpi Bazterretxe eta
David Errekart idazleak eta «Eskutxu»-ren lankide izandako
Maialen Lekunberri andereño ohia zirelarik aleak. 70eko
hamarkada urrun hartan noizbait ezagunak izandako «eus-
kal kanta berri»-aren biziraule bat edo beste ere agertua zen,
Berrizar poetaren kantariekiko lotura labur baina gogoan-
garriaren lekukotza eman nahirik edo. Falta ziren bakarrak
Sonia Clémence alarguntsa, bi hilabete lehenago bihotzeko
batek eramana, eta Thierry Castaldi, bertan bildutako inork
gutxik ezagutzen zuen pertsonaia ezkutuko eta giltzarria, zi-
rela bururatu zitzaion Juleneri, eskuartean *Gaston Berrizar:*
eskribitu gabeko bizitza bere eskutiko biografia argitara
berriaren ale bat zerabilela, artega.

Han elkaturiko kultur jendearengandik hainbat mu-
su eta zorion jaso zituen Julenek eta eskola garaiera itzuli

bailitzan sentiarazi zuten guztiek, marrazki eder bat edota idazketa ariketa polit bat zela-eta bai andereñoak bai burasoek zoriontzen zutenean legez.

Azkenean, Julenerentzat gutzia jasangaitza bihurtzear zela, Agirrek, eztarria ez tul bortxatu batez karraskatu ostean eta hedabide ezberdinetako kazetari zein argazkilariak ere han bildutako gizataldeari itsatsi zitzaizkiola baieztatuturik, mendirantz abiatzeko ordua iritsi zela esan eta talde ezberdinak argitaldaria markatutako norabidean jarri ziren. Herritik atera eta ordu laurdeneko txango geldoak itsas ikusmira zoragarria eskaintzen zuen muinora eraman zituen. Berrizarren omenez zizelkatutako oroithilarria soka luze baten bidez haizearen erasoetatik babesten zuen izara batek estalita zegoen eta kultur jendeak, berez, borobil zabal bat osatu zuen oroithilarriaren inguruan. Une batzuez jendearen marmar gero eta apalagoa eta udazkeneko hegoia baizik ez ziren entzun. Agirrek borobilaren erdian kokatu eta izara kendu zuen eskultorearen laguntzaz. Txalo zaparrada lasai batek agurtu zuen obra: Lapurditik ekarritako Larrungo harri gorritzan grabaturiko erliebean esku bat ageri zen, luma disproporzionatuki handiari oratuz –idazle zenaren «Eskutxu» izengoitiari erreferentzia eginez– eta atzekaldeko planoak paper orri bat itxuratzen zuen ezer idatzirik ez zeramana –Berrizarren obra ezagun bakarra, *Eskribitu gabeko poema*, oroitaraziz. Segidan, Agirrek –beti ere hitzik esan gabe– Paskal Egiategi bere ondora, hau da, borobilaren gune zen oroithilarrira, deitu zuen eta azken honek Berrizarren liburu klasikotik ateratako pasarte bat irakurtzeari ekin zion, enfasi soberaz.

Gure Gauzak-ek antolaturiko omenaldian Egiategi, omenduaren lagun mina, hots, gertatutakoaren berri nahiko zehatza zuen norbait, errezitatzen ikusteak sentipen kontraesankorrek ernarazi zituen Juleneren baitan. Alde batetik, presentzia hura justifikatzen ahalegindu zen.

Bazitekeen, Egiategik eskandalo guztien gainetik eta adiskidantzaren lege urraezinaren azpitik laguna omentzea erabaki izana, «gero gerokoak» edo «historiak gauzak argituko ditu» moduko gogoeta eginez. Beste aldetik, Juleneri zaila zitzaion Berrizarren hitzak errezitatzen ari zenaren ekintzan luzapenetako protagonismo bila zebilen agure baten zurikeria negargarria ez ikustea. Eta azken ideia hori zen, paradoxikoki, Julenerentzat lasaigarriena. Jakina denez, erru kolektiboaren zama eramangarriagoa egiten baita. Eta Egiategiren errua omenaldira etorri ezezik bertan errezitatzean bazetzan, Julenerena, berriz, eskuartean zera-bilen biografia auto-zentsuratua zen, zer duda.

Irakurketari jarraiki zitzaizkion txalok atera zuten Julene gogoeta uherren eldarniotik. Udazkeneko belar zurbildu eta haize zirimolatsuak dantzan jartzen zituen orbelez osaturiko zorutik begiak altxaturik, bere parean, borobilaren beste aldean, aurkitzen zen Ilun Zaldunbideren begirada gurutzatu zuenean goragalea sentitu zuen. Erreflexuz edo, eskuaz oratzen jarraitzen zuen biografiaren alea palttoaren sakela batean gorde zuen. Ez zuen jasango hastera zihuan diskurtsoen segida luzea eta kultur jendez osaturiko giza-cromlechetik aldendu behar zuela erabaki zuen lipar batean, oroithilarriaren kontra ok egingo ez bazuen.

Handik pauso gutxira zegoen sasitza garai batek eman zion babes. Belaunikaturik, ahospez, gorputza goiti egiteko egokitu zuen. Lantzean behin, diskurtso zatiren bat ekartzen zion haizealdi epelegi batek, eta berantesten hasia zen aurreneko okadaren peskizan zegoela, honako galderak burmuinen hormen aurka kolpeka sentitu zituen: «Jende guzti hauen artean aurkitzen al da J.Nagore?», edo «Zergatik agertu behar zen Ilun gaur, hain zuzen gaur?». Orduan konturatu zen bere ondoan zeukala, zutik eta besoak gurutzaturik, sasitzaren beste aldean, itsasoari begira. Eta Ilun zen une hartan ikusi nahi zuen azken pertsona.

«Ez da zineko musua izan, zinezkoa baino». Hori esan zion Gaston Berrizarren bizitzaren alderdi sekretuena elkarrekin deskubritu zuten egunean, Castaldiren kamerak begira zituztela emandako musuaren ondotik, hain zuzen. Antzeko esaldien aurrean barreari eusteko ezezik sinesteko moduko emakume sentimental tentela ote zen bera. Hori zen geroztik behin baino gehiagotan gogoetatu zuena. Aldizkari femininoak bide ziren bere zuhurtziaren iturri bakarra. Definitiboki.

Hilabeteak zeramatzan Ilunen berririk gabe. Eta hark ere beste hainbeste bererik gabe, axola bazitzaion bederen. Hasieran duintasuna mantentzea edo konposturarik ez galtzea izan zen Ilunekin kontaktuan jartzea eragotzi ziona, baina denbora aurrera joan ahala bere lehen ustea —alegia, harreman afektibo iraunkor eta serioarekiko gizonen izua— usteltzat jotzen hasi zen. Biografia auto-zentsuratua argitaratzea eta, bidenabar, Gure Gauzak-en dirulaguntzaren bigarren erdia sakeleratzea erabaki zuen egunaz geroztik, ordea, lotsa izan zen Ilun eta bere artean Julenek eraiki zuen hesi gaindiezina. Hala, elkartu zituen bezala banatu zituen ere Gaston Berrizar zelako burutapena sarritan izan zuen Ilunen berririk gabe pasatako hondar hila-beteetan zehar.

Erridikuloa zela jakin arren, Julenek belaunikaturik zirauen, ondoan begiak itsasotik baztertzen ez zituen Ilunekiko ez ikusiarena eginez.

—Denbora nahasgarria, ezta?, komentatu zuen Ilunek.

Tupustean hustu zituen tripak Julenek, gorputza astinaldiak erdibitzen ziola. Ezin ziezaiokeen irudi desiragaitzagorik eskaini Iluni. Eskua galtzetako patrikan sartu eta aho-ezpainak garbitzeko musuzapia atera zuen. Ezpain ertzetan itsatsiriko botakinak lehortzen ari zela, zapiarekin batera arestian Agirrerengandik jasotako taloia ere zikindu berri zuela ohartu zen.

—Plurala erabiliko nuke, oharraz zuzendu zituen Ilunen hitzak.

—Denbora nahasgarriak, hortaz, gauzatu zuen Ilunek Juleneren ideia, besoa eskainiz bertan bermatuz altxa zedin.

—Nahiago horrela, berdin bazaizu.

Zutik egon ziren beste pixka batean, elkarri begi-radarik zuzendu gabe, Ilunek oraindik besotik oratzen ziola, zer esan jakin gabe.

—Ez dakit... hasi zen Julene, baina Ilunek ere ia une berean hitza hartuz moztu zuen.

—Zeremonia luzea izango den susmoa daukat.

Eskuaz adatsa orraztu zuen Julenek. Ilunek ez tul egin zuen eskumutur estutuaz ahoa estaliz.

—Nahi al duzu..., ausartu zen Ilun, besoaz edozein izan zitekeen norabide lausoa seinalatuz.

—Bai, goazen hortik. Bazkarira azalduko gara.

Belar zapalduak markaturiko bidezidor batetik abiatu ziren, harik eta omenaldia begibistik galdu zuten arte. Haizerik sartzen ez zen arbolarte batera iritsitakoan Ilunek zigarro paketea atera eta Juleneri luzatu zion.

—Erretzen hasi zara?, galdetu zuen Julenek eskaintza baztertuz.

Galderak harritu bide zuen Ilun, erretzen hasi zenaz hor arte ohartu ez bailitzan, eta benetan bere artean kalkulatzen hasi zen.

—Gutxi gora behera... elkar ikusteari utzi genionean hasi nintzen, adierazi zuen, pentsakor.

«Elkar ikusteari utzi genion» esaldia Juleneri errealityatearekiko gezurtia iruditu bazitzaion ere, bazuen «gu» horrek birtute lasaigarriarik eta ez zen ausartu zuzentzera.

—Zorionak biografiarengatik, esan zuen tonurik neutroenaz Ilunek, zigarroari atxiki bat emanaz.

—Ez da behar bada unerik aproposena ohar ironikoentzat, uzkurtu zen Julene, bere oinaze moralala ez ote zen agerikoa galdetuz bezala, begirada erasiatzaileaz.

—Ez zen ironikoa. Biografia liburudendetan ikusi dudalako ausartzen naiz zuregana hurbildu eta hitz egitera.

—Mesedez —haserretu zen Julene, eta azkenean begietara zuzen begiratzuz jarraitu zuen—. Deitzekotan egon nintzen. Zure aholkua nahi nuen. Zuk alde egin eta gutxira Etxebarriak eta Sarasketak deitu zidaten, batak bestearen jarraian. Biek nahi zituzten Berrizarren testu argitaragabeak. Etxebarriak asoziatu postu bat eskaini zidan testuen truke. Gogoratuko zara nola testuen amua jaurtiki nien aste batzuk lehenago, testuak deskubritu genituenean.

Ilunen aurpegia zurbiltzen ikusi zuen Julenek. Aitortza-azalpenarekin segitu zuen, hobenaren sentipen itogarriaz libratzeko itxaropenaz edo.

—Unibertsitateko harrapariak amuari hozka egin ziotenerako testuak lapurtu zituztenez, ondoriozta dezakezun bezala, testuak eduki aurretik baino egoera txarragoan aurkitu nintzen. Orduantxe egon nintzen zuri deitzekotan. Aholkua baino zure presentzia nuen beharrezkoa...

Azken esaldia esaterakoan edozein moduko hurbilketak fisikoa ekidin nahi zuela ulertarazi nahi bailuen, pauso batez urrunduz zen Ilunengandik.

—Izebari pisua itzuli eta burasoenera itzulitakoan, unibertsitateko ametsak zapuzturik, zure berririk gabe, «Ireki» liburudendaren bilakaeraren berri izan nuen.

«Ireki» itxi zutela azaldu zuen Julenek. Zegoen tokitik metro gutxira zabalduz Gure Liburudenda-rekiko lehian ez zuen luzaro irauterik izan, besteak beste Gure Banaketa enpresarengandik jasandako enbargo komertziala zela eta. Bestalde, «Ireki» elkartereko bi kide ohi Gure Liburudenda-n sartu izana, Joselu Gutierrez urtetan «Ireki» funtzionarazi eta biziarazi zuen liburuzalearentzat muturreko psikologiko eta animiko gaindiezina izan zen. Gure Gauzak-ek inposaturiko lehia komertzial gupidagabea bera baino gogorragoa egin zitzaion asoziatu ohien traizioa. Aldi luze bat depresioak jota igaro ostean, langabeziatik bizi zen

orain, beltzean egindako itzulpen literario batzuei esker bere diru sarrera xumea borobiltzen ahaleginduz. Zorionez, «Ireki» ixtean lanetiko kanporaketa gisa sailkatu zuten Gutierrezena eta indemnitare polita lortu zuen horrela, ondoko hilabeteak lasaiago hartu ahal izateko. Indemnitare kontu horren ironia, halere, honetan zetzan: liburudendaren likidazioari esker ordaindu ahal izan zitzaioela Gutierrez, eta liburudendaren ondasunak –liburuak, nagusiki– likidatzaileak nori eta Gure Gauzak enpresari saldu behar izan zizkiola, hura izanki eroslegai bakarra.

Bere kontakizuna ahots harrigarriki lasaiatzegiten ari zela ohartu zen Julene. Bitxia zen bere burua mintzatzen entzutea, eszenaren koadrotik kanpo kirika legoekkeen norbaitek legez.

—Duintasunari eusteko azken saioa orduan burutu nuen. Erne-ko Jexux Mendekoari deitu eta neukan guttiaren fotokopiak –ordura arte idatzitako biografiaren kapitulu ez problematikoak eta Castaldirengandik jasotako informazioaz taxaturiko kapitulu berri erdi idatziak– helarazi nizkion postaz, eurek argitara zezaketelakoan. Alferrik. Umilki eta zintzotasun handiz azaldu zidanez, Erne bezalako indar eta tamaina ertaineko argitaletxe bategen ezin zezakeen objektiboki Gure Gauzak-en aurkako alegazioa zen testua kaleratu. Izan ere, Erne-ren banaketa eta salmenten zatirik handiena Gure Banaketa zabaltzailearen eta Gure Liburudenden katearen bitartez egiten zenez, argitaletxea nahi bezala eta nahi orduko hondoratzeko adina indar baitzeukan Gure Gauzak-ek. Gainera, Erne-k argitaratzea erabakiz gero ere Gure Gauzak-ek biografia idazteagatik emandako dirulaguntza ezin izango zukeen ordezkatu. Eta horrelako liburuetatik espero zitezkeen autore eskubideak berez oso txikiak zirenez... Hobe nuela, hortaz, hitzarmena bururaino Gure Gauzak-ekin eramatea adierazi zidan Mendekoak, mingarria zela ulertzen zuen arren.

Ilun ikusterakoan erreflexuz gordetako biografia argitarara berriaren alea paltoaren sakelatik atera eta, une batez azala ferekatu ondoren, lurrera erortzen utzi zuen. «Ondoan izan bazintut, gauzak ezberdinak izango ziratekeen». Hori zen, apika, Julenek jestu horren bitartez esan nahi izan zuena. Ez zuen, horratik, arindurik somatu.

Ilunek zigarro erdi errea lurrera bota eta oinaz zapaldu zuen. Eskuak poltsikoetan sartuz hizketaldi luzea hastera zihoala adierazi zuen.

—Ez nuen pentsatu unibertsitatean gauzak horrela okertuko zitzaizkizula. Ez dauka barkamenik egin dizudanak.

—Gauza bat da barkatzea, bestea gertatutakoa ezabatzea, moztu zuen Julenek, beraien artekoa berpiztea ezinezkoa zela garbi utzi nahiz, eta Ilunen aurrean erakusten ari zen irmotasunaz harriturik.

—Ez, ez didazu ulertzen Julene. Zure biografia Gure Gauzak-en eskutik kalean ikusteak eman dit gaur honera etortzeko adorea. Ez bait nuen neure burua zure aurrean aurkezteko lain duin ikusten ordura arte. Zu biografia-rekin zikinduta ikustean neronen itzalguneak jasangarriago egin zaizkit eta proposamen eta guzti nentorkizun... Pentsa zeinen irudipen erromaneskoa daukadan, eleberriegile iaioa ez izanagatik. Gaston Berrizarren bizitza, benetakoa, osoa, hizpide izango zukeen eleberri kodetua elkarrekin idatz genezan zen nire xedea, inoiz argitaratzera iristekotan «J.Nagore» sasizenaz izenpetuko genukeena.

—Bukaera polita, onartu zuen Julenek Ilunen ahots doinuagatik «baina» bat zetorrela auresentiturik.

—Baina... ez. Ez dizut proposatuko. Ez daukat proposatzeko eskubiderik. Esan behar dizudan lehen gauza da Martarekin hitz egin dudala eta zuen artean gauzak konpontzeko bidean jarri ditudala, ahal nuen neurrian.

Orain Julene zen zurbiltzen hasi zena.

—Nola...

—Azaldu diot zergatik izan zinen hain gogorra berarekin telefonoz deitu zizun azken aldi hartan. Egunen batean barkatuko dizulakoan nago. Azaldu didanez, Agirrerekin moztu zuena bera izan zen. Zuri buruzko informazioak izateko berataz baliatzen ari zela ulertu orduko, gainera.

—Baina orduan... nola zaude hain ziur?

Ilunek biografiaren alea lurretik jaso eta orriztatzeari ekin zion bere kontakizunarekin jarraitzen zuela.

—Koldo Mitxelena kulturguneko dirulaguntzen banaketa ekitaldian ezagutu zintudanean bertan maitemindu ninduzun eta ia bukaera arte, hots, Egiategirenean eskuizkribuak aurkitu genituen arte, leiala izan nintzaizun. Hortik aurrera, ordea, eta zureak bezalako arrazoi kaxkarrak zirela medio —badakizu, diru beharra, argitaratua izateko antsiak... ez daukat zerrenda luzatu beharrik— Agirrerekin kontaktuan jarri nintzen eta Marta niregandik susmoak aldentzeko tapaki gisa erabiltzen hasi nintzen, bidenabar, zutaz geroago eta maiteminduago nengoela. Zure inkestari buruzko informazioaren truke, eta, batez ere, eskuizkribuen gordelekua emategatik bost urteko kontratua lortu dut Gure Gauzak-ekin. Hilabete sari finkoa gehi autore eskubideak epe horretan hiru liburu idaztegatik. Eta noski, Gure Gauzak-en azpiegituren indar guztia —zabalpenarena, hedabideekikoa— nire obren zerbitzuko.

Juleneri malko anpulu bi linburtu zitzaizkion masaila bakoitzaren erliebea marrartzuz eta esanahi zehatzik gabeko irribarrea zuzendu zion Iluni.

Ilunek bere gabardinaren barruko sakelatik liburu bat atera eta Juleneri eskaini zion, besoa luzatuz eta berarengana hurbiltzeko keinurik egin gabe.

—Hurrengo asteazkenean aurkeztuko dut, Donostia-ko udal liburutegian.

Azalean «Ilun Zaldunbide. *Debekua maita*. Eleberria» irakurri zuen Julenek, begien lausoak hizkiak desitxuratzzen zizkiola. Eta liburua inguratzen zuen solapa gehigarri gorrian, berriz, «Maitasun istorio hunkigarri bat garai politiko nahasietan» iragarkia.

—Zorionak zure lehen eleberriagatik, esan zuen tonu neutroenaz Julenek.

—«Ez da behar bada unerik aproposena ohar ironikoentzat», arestiko ateraldia berreskuratu eta liburua opari bat zela adierazi zion Ilunek itzultzekotan zegoen Juleneri.

Lurretik jasotako Juleneren biografiaren alea sartu zuen eleberriaren orde z gabardinako barruko sakelan, begiradaz Juleneren onespena bilatuz.

Omenaldia bukatzeaz egongo zen muinoaren norabiderantz burua itzuli eta «agur, beste bat arte agian» esanez bueltako bidean jarri zen Ilun Zaldunbide

Julenek ez zuen handik mugitzeko asmorik erakutsi eta zuhaitz artetik urruntzen utzi zuen.

Omenaldiaren lekura itzuli zenerako Ilun Zaldunbide joana zen eta Agirre izan zen urrundik hurbiltzen ikusi eta, antza kezkatu, harrera egin ziona.

—Zer moduz, Julene? Lehen ikusi zaitut borobiletik ateratzen, baina... neu nintzen omenaldiko ofiziantea eta ezin oroithilarririk aldendu.

—Ez da ezer. Botaka ibili naiz. Gosaria izango zen.

—Eta orain?

—Ondo. Dena bere onera itzuli da.

—Bazkaltzeko moduan, beraz?

—Jakina. Aizu Mikel, *Nire mutil lagun martizianoaren* segidaz hitz egin beharko dugu halako batean...

—Aha! Hortaz, gurekin argitaratzeko asmoa duzu?

—Bai.

—Zorionak. Berriro ere aukera ona egin duzu. Gaztea eta dohaitsua izateaz gain, pertsona argia zara eta urrutira iritsiko zara.

—Ez da ironiarik egongo zuk esandakoan, ezta?, marmarikatu zuen Julenek erreflexuz, bere golkorako bezala.

—Barkatu?

—Utzi. Nire buruarekiko kontu bat, besterik ez.

Muinotik herrira jaitsi zen kultur jendea eta, jatetxea Juleneren autotik gertu zegoenez, Agirrek liburuz betetako kutxa bere Volvo marroi metalizatuaren maleterotik atera eta eramaten laguntzea proposatu zion.

—Zer dago beste kutxa horretan?

—Ilun Zaldunbideren lehen eleberria, *Debekua maita*. Hain zuzen, ez dakit nora sartu den bera. Liburuak berari emateko ekarri ditut.

—Uste dut dagoeneko alde egina dela.

—Arazoren bat?

—Ez dakit.

—Mutil kuriosoa Zaldunbide hori, ez zaizu hala iruditzen?, komentatu zuen Agirrek, Julenek zehatz-mehatz gertatutakoaren berri zuenez jakin nahian eta egiazko kezka zantzu bat ezagun zuelarik begitartean.

Julenek ez zuen erantzun. Agirrek Zaldunbideren eleberriaren ale bat eskaini zionean ezetz egin zuen buruaz, Ilunek berak eskainitakoa atereaz eta erakutsiz.

Biografiaz betetako kartoi kutxa bere autoan kokatzen hasi zen Julene eta Agirrek, bertatik igarotzen ari zen bazkaldar bati ondoratuz, «gero arte» batez bazkarian berriro elkarrekin egoteko aukera izango zutela adierazi zion.

Ilunen liburua kartoi kutxako biografien artean gordetzen ari zela, eskuz idatzitako eskaintza bat zeukala konturatu zen. «Judasik gabe ez legoke Jesu Kristorik. Judas loves Jesus Christ».